



Ya
nis
Tebaq
Nak

2024



Azala: 2024ko Xanistebanak iragartzen dituen kartela
Egilea: Igor San Jose Izagirre

Liburu hau Oiartzungo Udalak
argitaratzen du.

Gutziz debekaturik dago aldizkariaren
erreprodukzio grafiko osoa nahiz partziala.


Quedan rigurosamente prohibidas la reproducción
gráfica total o parcial de la revista.

© Oiartzungo Udala

L.G.: SS -531-1977



OIARTZUNGO
UDALA



54. zenbakia
OIARTZUNen, 2024ko
abuztuaren 2an

Urteko egun luze argitsuekin batera jai-giroan murgiltzen gara Euskal Herrian, baita Oiartzunen ere. Auzoetako jaiekin hasi, San Juan suarekin jarraitu eta ospakizunek ez dute etenik izaten. Egun berezi horiek lagunekin eta ingurukoekin gozatzeko uneak izan ohi dira, edo aspaldian ikusi gabeko pertsonekin elkartzeko aitzakia. Edonola ere, konpainia onean kulturaz gozatzeko aukera paregabea.

Xanistebanak hurbildu ahala, abuztuaren 1eko kultur ekitaldia izaten da agendan gordeta izaten dugun data bat. Urtez urte, herriko kultur gintzari ekarpen esanguratsuak egin izan dizkien eragile edo herritarrak omentzen dira bertan. Aurten, poz handiz omenduko dugu hainbat urtez, hutsik egin gabe, herriko erraldoiak dantzatzeko ardura eta konpromisoa izan duen herritar taldea.

Erraldoia ezkutuko dantzari batek mugitzen duen bezala, isilpeko lanean ibiltzen da jai-batzordea ere. Oiartzungo eragile eta elkarte desberdinetako lagunak, adin eta interes desberdinekoak, guztiak elkarrekin jai herrikoi, parekide eta euskaldunak antolatzeke lanean. Izan ere, Xanistebanetako egitarau oparoa osatzen duen ekitaldi-sorta ez da berez antolatzen. Ez horixe! Herriko kaleak kolorez bete eta gustu guztietarako ekintzak antolatzen lanean ibili direnek guztion esker ona merezi dute. Horregatik, aurten, zapi urdina soinean jarri eta udaleko ordezkariak soka-dantzara aterako ditugu, guztiok batera Xanistebanei hasiera ezin hobea emateko.

Zoritxarrez, aurten ere izango da zapi urdina janzteko aukerarik izango ez duen herritarrik. Pozik jarriko genieke lepotik etxetik urrun edo festetan parte hartzeko aukerarik gabe dauden herritar guztiei. Bihoakie hemendik besarkada estu bana!

Amaitzeko, guztiei dei egiten dizuet urtean zehar izaten ditugun ohiko lan-erritmo eta buruhaustek alde batera uzteko eta espero dut jaietako ekintzetako batean elkar topo egingo dugula.

GORA XANISTEBANAK!

Joana Mendiburu Garaiar, Oiartzungo alkatea



editoriala

Aurten ere gogotsu lan egin du Urtekari Batzordeak urtebetean bailaran aipagarri izan diren oiartzuarrak, taldeak, ekimenak, urteurrenak... biltzeko. Eskertzekoa da, hortaz, herriko elkarte, eragile, ikastetxe nahiz norbanako... egin duten lanarengatik. Haiekin batera mimo handiz lortu dugu 2024ko 'Oiartzun' urtekarriaren orrialde bakoitza idaztea.

'Oiartzun' urtekariak bere 54. alean herrian gertatutako ekimen-kultural, sozial, kirol arloko... garrantzitsuenak biltzen saiatu gara. Hala, datozen urteetarako jasota eta dokumentatuta uzten dira.

Aurtengo elkarrizketa nagusia Miren Agiriano Ugartemendia andereari egin dira Izaskun Madariaga Irigorrik. Emakume langilea, borrokalaria, eskuetan duena errazki banatzen duena, ama aparta eta batez ere, "txikien", zanpatuen, ezin duen sufrimendua bere egiten duena.

Era berean, hainbat herritar ekarri dira orrioatara, hala nola: Fidela Zalakain, Mari Jose Egiazabal, Koikile Arruabarrena, Eugenio Arozena... Batzuk gogora ekartzeko; bestetzuen bizipen interesgarriak, berriz, ezagutzeko.

Oiartzungo kultura eta kirol arloak oparoak direla ezin uka eta horien lekuko dira jasotako lan aski interesgarriak. Esate baterako Uxue Arozenari egindako elkarrizketa.

Azkenik, aipatu gabe ezin utzi Harri Beltza Hiesaren aurkako elkarteak 30 urte bete dituela eta harren berri ere jasoko du irakurleak.

Bukatzeko, 'Oiartzun' 2024 urtekaria egiten aritu garen guztion nahia da gustura irakurtzea. Izan ere, kolaboratzaile eta irakurleekin, guztion artean, egunetik egunera, gure herriko historiaren zatia izango dena osatzen ari baikara.

Azkenik, oroimen eta agur berezia arrazoi ezberdinak direla eta gure haranetik kanpo dauden oiartzuarentzat. Eta denontzat,

XANISTEBAN ZORIONTSUAK!

Oiartzun Urtekari Batzordeko kideak

Josune Cousillas Aramendi

Joxan Eizmendi Garate

Haizea Saez de Eguilaz Perez

Jaione Ugaldebere Sarasua

Garazi Urdampilleta Astibia

ESKERRIK ASKO “OIARTZUN”!

Aldizkari itxurarekin eta oraingoarekin alderatuta orrialdez argalagoa bazen ere, “Oiartzun” aldizkaria 1956.an jaio zen, oraindik askok gogoan dituzten herriko-seme prestu batzuen eskutik.

1959an lan hori eten zen eta 1975 arte ez zen berriaz plazaratu.

Ordutik aurrera, urtero eta jaietako igorle, jaso ditugu belaunaldiz belaunaldi herritarrek egindako kolaborazioak.

Hasieratik gai ugari jorratu dira, lehenengo urteetan sailak egin gabe osatu ziren aleak, baina denborak aurrera egin ahala, 1980tik aurrera, artikulua egun ezagutzen ditugun antzeko sailetan joan ziren egituratzen.

Oiartzunen 68 urte horietan zehar gertatu diren aldaketa historiko, politiko, ekonomiko, soziologiko eta kulturalen lekukoa dugu “Oiartzun”, bai bertan garatzen diren gaien, grafikoen eta irudien aldetik begiratuta, baita 1988tik aurrera argazki sail bereziaren edukien aldetik ere.

1992an Adolfo Leibar Axpek, bere seme Luis Carlosen ezagutza informatikoaz lagunduta, aurkibide orokorra egiteko lanari ekin zion, baita egin ere 2007 arte, eta lau aletan eman zen argitara, lehena 1956-1991 urte bitartekoa, bigarrena 1992-1997 artekoa, hirugarrena 1998-2002 artekoa eta laugarrena eta azkena 2003-2007 urteen artekoa.

2021ean Elena Zalakainek, aurkibide eta urtekari horietan guztietan jasotako informazioa bilduz, “Oiartzun” urtekariko artikuluen eta egileen bilatzaile digitala prestatu zuen. 2022ko urtekaria argitaratzearekin batera jarri zen ikusgai, oraindik azken urte horretako edukinak gehitzeko denbora eman ez bazuen ere.

Oiartzungo Ondarearen web orrialdean aurkituko duzue orain berrituta 1956-2024 arteko aurkibide orokorra, bertan 3000 baino gehiago artikulua eta argazki daude zerrendatuta, sarrera bakoitzaren zenbakia, urtea, orrialdea, egilea, izenburua eta saila ahal izan den neurrian sartuz.

<https://ondarea.oiartzun.eus/eu/ondarea/argitalpenak> loturan txertatu da artxibo hori.

Urtekari Batzordeak bereziki eskertu nahi dio Elena Zalakaini bilketa lan hau, aukera ematen duena historikoan artikulua ezberdinak aurkitzeko.

Bukatzeko Elena Zalakainek 2022ko eskertza-idatzian plazaratu zuen mezua geurea eginez, hauxe adierazi nahi genuke guk ere bolondres eta idazle guztien lanak eskertzeko:

Eskerrik asko “Oiartzun”!

URTEKARI BATZORDEA





el ka rriiz ke ta

MIREN AGIRIANO
UGARTEMENDIA

Miren Agiriano Ugartemendia



Nire malkoak ez dira alferrik galdu. Hementxe gaude, denak eta gainera onik.

Inor gutxi izango da Oiartzunen Miren Agiriano Ugartemendia ezagutzen ez duenik. Inor gutxik daki ordea, Oiartzunen erroak bota zituen emakumea Lezotik etorri zela Gariñora, Lezoko Goiko plazako ertz batean dagoen etxetik, alegia. Kale aldeko joan-etorrietara ohituta, nekeza egin zitzaion Txaparre errekaen gur-gurra baizik entzuten ez zen lur arrotzera egokitzea. Emakume langilea, borrokalaria, eskuetan duena errazki banatzen duena, ama aparta eta batez ere, “txikien”, zanpatuen, ezinduen sufrimendua bere egiten duena. 89 urte beteko dituen honetan, Gariñon bildu gara kontu kontari aritzeko prest eta eskatu diogu ikusitakoaz, pairatutakoaz, sentitutakoaz hitz egiteko. Sukalde ondoko mahaiaren bueltan jarri gara, alaba Lurdes eta Aiora bilobaren laguntzarekin.

Ea, Miren. Azaldu guri zu nor zaren.

Ni Miren Agiriano Ugartemendia naiz, 1935eko ekainaren 7an jaioa. Berez Donostiako maternitatean jaio nintzen, erditzerakoan zutik nentorrelako, baina Lezokoa naiz. Aita, Iñaxio Agiriano Lekuona, arrantzalea zen eta denboraldiaren arabera okina ere bai. Ama Maria Ugartemendia Oiartzabal, eta aitak zuen lanbideagatik, familia bakarrik haztea tokatu zitzaiola esan daiteke.



Iñaxio eta Maria gurasoak, haien ezkontza egunean.

Bost senide izan ginen, ni zaharrena: 3 mutil eta 2 neska. Ahizpa 11 hilabete zituela hil zen pulmoniak harrapatuta, amaren besoetan. Bide bera eraman zuen beste anaia batek ere, hura 2 hilabeterekin hil zen, bera ere amaren besoetan. Hiru atera ginen aurrera baina Juan Mari anaia, soldadu zela Jaizkibelen galdu zen, lanpernetan ari zela itxasoak eraman ondoren. Ez zuten inoiz aurkitu eta horrek galeraren mina areagotu zuen. Soldadutza egiten ari zenez, desertore zelako susmoa egin zuten eta hasieran ez ziguten ezta hileta egiteko aukerarik ere eman. 1967ko irailaren 21ean desagertu zen.



Lezoko familia.

Esaten dituzun kontuetan familia-egoera gogorra bizitu zenuen. Zu jaio eta urte betera altxatu zen gerra. Zer kontatzen zuten etxean? Gerra ondorengo egoeraz zer gogoratzen duzu zuk?

Gure etxean ez zen horretaz hitz egiten. Neronek gogoratzeko ere umea nintzen eta ni baino zaharragoko seniderik ez nuen. Gure familian abertzaleak ginen. Niri Miren deitu didate beti baina eskolara joan nintzenean *Mari Coro* deitzen zidaten, orduko garaiak ere horrelakoak baitziren. Gainerakoan, goserik ez genuen pasa. Kalean bizi arren, baratza bagenuen, oilo, koneju eta horrelakoak ere bai, ondoko txabolan. Babarrunik ez zitzaizkigun inoiz faltatu eta goserik ez.

Eskolara joan al zinen?

Bai. Oinarrizko ikasketak egiten genituen: Irakurtzen, *sumar*, *restar*, *multiplicar ta dividir*, eta erakusten zuten guztia. Ongi asko ikasi nituen eta betirako buruan geldituak ditut. Errenteriako Zumardian zegoen eskola. "Las Canarias"¹ esaten zioten eta bi ahizpek eramaten zuten, biak maistrak. Gureak Zezilia zuen izena, apenas euskararik bazekien nahiz eta ama euskalduna izan. Eskola beren etxean zegoen, beheko solairuko bi geletan muntatua, mutilak gela batean eta neskek bestean. Bertan ibili nintzen 12 urterekin komunio handia egin nuen arte.

Eta umetan, gazte denboran, zer bizimodua eramaten zenuen? Jostatzen al zenuten? Etxeko lanak egin behar izaten al zenituzten?

Jostatu bai eta etxeko lan asko egin ere bai. Kalean jostatzen genuen, baina neskek eta mutilak aparte, bestela *marimutil* deitzen baitziguten. Soka-saltoan ibiltzen ginen, txingoetan, tabetan, kaniketan, gorde-gordeketan... Halaxe. Gure etxean beti egon dira tabak umeekin jostatzeko, baita bilobekin aritzeko ere, hori behintzat transmititu diet. Hori eta errezoan ikastea. Aiora testigu (barrez).

1 <https://ahotsak.eus/errenteria/pasarteak/err-045-001/>



Komunioa, 11 urterekin.

Familian denetik egin behar nuen. Jana jarri ez, hori amak egiten zuen. Bestela, ba, arropa garbitzea, etxean jabondu eta herriko labaderrora akklaratzera. Gero karga hura guztia hirugarren bizitzaraino igo behar izaten zen! Egur bila ere joan behar izaten genuen, Jaizkibelgo hirugarren dorreraino² joaten ginen. Egur-zama bizkarrean hartu eta etxera. Lan aski gogorrak egitea tokatu zitzaigun, bai. Aita etxetik kanpo izaten zen eta ahal zen moduan moldatu behar. Txekorra ere eduki genuen utzi ziguten txabola batean.

13 urterekin lanera

Bai, ez nituen 14 izango. Eskola utzita haurra-
ren bat zaintzen ibili nintzen baina gutxi. San Juanen hasi nintzen lanean, hango *eskabetxe-
ran*. Gero Pisben sartu nintzen, bakailaotan. Pis-
ben urtebete pasa eta Urezbea inprentara aldatu
nintzen, Erreteriarra eta azkenik, soldata hobe-
a zela-eta, Manta fabrikara, Erreterian hori ere.
Gauza bat izan zuen ona, lan egindako urte guz-
tiak izan nituela kotizatuak eta horri esker izan
nuela jubilatatu ondorengo paga ziurtatua.

² <https://www.eitb.eus/eu/eguraldia/parte-hartu-argazkiak-bideoak/osoak/argazkia/46679/52635471395/lezotik-allerrura-jaizkibel/>

Ze zaletasun zenituen? Nola dibertitzen zizineten?

Igandeetan dantzara joaten ginen. Bospasei lagun elkartzen ginen, denak neskak. Gehienetan Txikierridira joaten ginen, Lezotik oinez eta Irungo Bentetan ere bazegoen beste dantzaleku bat eta hara joan izan ginenean, topoa hartuta. Tarteka-tarteka, zinera ere bai, On-bidera edo Reinara, Erreterian.

Xabin, orain zure senarra dena ezagutu zenuen. Nondik nora, bata lezoarra eta bestea oiartzuarra izanda?

Dantzari esker izan zen. Nik aspaldian bota nion begia. Irungo dantzalekuan ikusia nuen eta gero Txikierridin egin ginen lagun. Ugaldetxoko festetan eskatu zidan ezkontzeko.

Beraz, Xabinekin ezkondu eta Lopez-Agiri- no familia osatu zenueten. Historia hau eza- gutu behar dugu; zer duzu kontatzeko?

Xabin Lopez Arriolarekin ezkondu nintzen Lezoko Santo Kristo elizan. 1958ko azaroaren 27a zen, Milagrosa eguna. Nik 23 urte nituen, gizonak bat gehiago. Ezkon-bidaia egin genuen. Gasteizera joan ginen, han egun bat pasa eta Madrilera ere iritsi ginen. Nik banuen "urrutira" joateko gogoia eta bai urruti joan ere. Hango ijito igerle horietako batek eskua irakurri zidan eta esan zidan asko bidaiatuko nuela. Orduan ez nion asko sinetsi baina bai asmatu, bai, bete-betean. Izan ere, 25 urte pasa ditut kartzelako bidaiak egiten ia astero.



Ezkontza: Miren eta Xabin.



Gurasoak alaba eta semeekin: Inaki, aita, ama, Lurdes, Xabin, Estanis, Juan Mari.

Gariñon jarri al zineten bizitzen?

Ez, ez. Lezora ezkondu ginen baina gizonak herri-mina zuen eta urte pare bat besterik ez genuen egin han. Gariñora aldatu ginen. Nire anaiak igeltseroak ziren eta Xabinen jaiotetxeari eranskin bat egin eta bertan sortu genuen bizilekua. Niretzako aldaketa gogorra izan zen. Kalekumea nintzen eta bat-batean hona etorri eta Txaparrerekkaren soinua bertan, mendian kasik eta giro hau... ezin etsi. Baina, beti bezala, emakumeak amore eman behar (irribarrez). Hemen sortu dugu familia. Sei seme-alaba izan genuen. Zaharrena Lurdes 1962an jaioa, ikastolako jantokian lanean aritzen da; gero hurrengo urtean Xabin jaio zen, hau igeltseroa da. Handik urtebetera berriz, Iñaki, aita bezala, Pasaiaiko portuan dabil lanean. 1967ean jaio zen Estanis, 19 urterekin kartzelara eraman eta 25 urte bertan pasa dituen. Bera ere igeltseroa zen baina gaur egun FCC enpresan dabil lanean. Haren ondoren etorri



Maddi eta Xuhar birbilobekin.



Aitona-amonak bilobekin: Matixa, Oihan, Aitzol, Aiora, Mattin, Maddalen, Unai, Imanol, Lur, Unax, Ibintza, Ekain eta Oier.

zen Juana Mari, zazpikia jaio eta berehala hil zen. Niri ez zidaten ikusten ere utzi. Gelakideak esanda dakit nexka ile beltzekoa zela eta bataiatu ez zenez, eremu komun batean hilobiratu zuten. San Jose egunez jaio zen eta urteetan ospatu dugu bere jaiotza, izan ere urratu ezin duten penarekin gertua naiz. Nire anaia Juan Mari desagerturik bi urte eta erdi ziren eta izen bera jartzea erabaki genuen. Nola diren gauzak! Azken semea 1972an jaio zen eta galdutako alabaren izena jarri genion berari: Juan Mari. Bertsolaria da³, igeltsero aritzen da eta Lesakan sagardotegia du. Familia ederra dugu: bost seme-alaba, 13 biloba eta 2 birbiloba, eta denak elkarrekin orain.

ere. Untxiak... Baratzean ere patatatik hasi eta barazki guztiak sortzen genituen; fruta... denetarik. Gero behiak-eta kendu genituenean Aranera joaten ginen esne bila.

Etxeko lanak erraz egiten nituen, egia esan. Nire gurasoak eta anaia ere maiz izaten ziren gurekin eta anaia hil zenean gurasoak gure etxera ekarri nituen. Gariñon, gainera, Lopez-tar gehiagoren inguruan bizitzen gara, familia-koak denak eta horrek babes handia ematen du eta beti elkarren arrimuan bizitu izan gara. Maitxo (Arruabarrena) adibidez, gure familian nahiko zutabe izan da, gure umeentzat bigarren ama bezala.



Gariñoko familia.

Familia ederra eta lana ere konformidadean izango zenuen. Nolakoa zen zure eguneroko bizitza?

Ezkondu nintzenean utzi nuen fabrikako lana. Senarra Pasaiako portuan aritzen zen eta ni etxekoandre bihurtu nintzen. Bizimodu desberdina zeharo. *Baserri* koxkorra bagenuen eta jan faltarik ez. Oiloak bagenituen eta arrautzak; ardiak izaten genituen eta arkumeak; behi pare bat eta nahiko esne, baita tarteka gazta egiteko

Eta lan horiek guztiak eginda, zuretzat denbora hartzeko aukerarik izaten al zenuen?

Aukera gerora sortu zen, behin umeak handitu eta gero. Koinatarekin egunero joaten nintzen ibiltzera, ordubeteko buelta egiten genuen, gero kalean erosketak egin eta etxera bazkaria prestatzera. Yoga egitera ere urte pila ederrean joan nintzen, 20 inguruan, bai. Rexu (Mazusta) genuen irakasle eta urtero ibilaldi bat egiten genuen taldean. Euskal Herriko probintzia guztiak korritu genituen. Tartean eskurtsio edo txango gehiago ere sortzen ziren, Errioxara, Santanderrea... garai hartan Joxe Joakin Iriarte Sarasolak

3 <https://www.euskalmemoria.eus/eu/db/zaurituak/ikusi/633>



Goiko argazkia: Elizondon, Yogako taldea. Behean, Yogako taldea.

antolatzen zituen eskurtsio asko, *Frantsesa* deitzen zioten, Karrikako harrobian bizi zena. Gurekin batera Juan Mari semea ere etortzen zela akordatzen naiz (12-13 bat urte izango zituen berak). Gainerakoan asteroko meza, hiletak eta gisa horretako betebeharrak, badakizu. Gure bitza hori ere izaten zen.

Lagunekin elkartzan al zineten?

Laguntza handia eman zigun lagun taldea genuen. Kartzeletako bidaiekin-eta aski okupatuak ibiltzen ginen baina hartzen genuen tartea lagunekin afariak-eta egiteko. Gurekin asko akordatu izan dira beti. Ixa (Lekuona), Mertxe

(Gaztelumendi) eta hauen kuadrillak babes handia ematen ziguten. Ixa, gainera, ez daukagu salteko, lagun berezia izan baita guretzat. Eurenkin batera afari asko egin izan ditugu, nik behintzat; gizonak gutxiago. Gero, urteetan egin izan ditugu emakumeen afariak Xanisteban bezperan eta horietara ere joaten nintzen beti.

Haurtzaro ikastolarekin izan duzue lotura hasieratik. Kontatu pixka bat.

Ikastolaren sorreran izan ginen gu. Xabin izan zen lehena ikastolara joaten, orduantxe eratu zen lehenengo taldea. Ines Olaziregi eta Arantxa Madariaga izan ziren andereñoak. Segidan-segidan, seme guztiak pasa dira ikastolatik, baita ondorengoak ere, transmisio hori egina geratu da. Lurdesek ez zuen aukerarik izan ikastolan hasteko eta mojetara joan zen baina mojen eskola itxita berak ere ikastolan bukatu zituen ikasketak.

Asko egin dugu ikastolaren alde. Pentsa, zenbat diru premia eta zenbat lan! Guk diru asko ez eta txekorra hazi izan genuen ikastolari emateko. Ikastolarengan sinesten genuen, sozio ginen eta guretik ahal genuena ematen genuen. Hainbeste seme-alabarekin, urte asko jo genituen bertan. Gero biloben bueltan ere hor ibili gara ikastola ahaztu gabe.

“Euskal gatazka” deritzanak bete-betean eragin zizun edo hobeki esan, zizueten...

Gure familia gogor astindua izan da. Bi seme izan ditugu kartzelan. Estanis preso hartu baino bi urte aurretik, semeetan zaharrena, nire sena-



Senar-emazteak.

rra eta Estanis bera, burua estali eta arrastaka eraman zituzten. Iñaki orduan Madrilen zegoen, soldadutza egiten ari zen. Ez genekien bera ere atxilotua egongo ote zen.

Zergatik atxilotu zituzten?

Nonbait gizona fitxatua zuten. Mendian asko ibiltzen zen eta litekeena da jendea muga pasatze-
ra dedikatzen zela uste izatea. Intxaurrendoko kuarztelean eduki zituzten eta hurrengo egunean askatu. Miaketa gogorrak izan ditugu. Gauza asko galdu ditugu, baita mesanotxeko paper guztiak eraman ere. Inoiz ez dizkigute bueltatu. Urteetan atzetik izan ditugu: gure mugimenduak jarraitzen, telefono entzuketak eginez, kotxeen arrastoak segitzen... Estanis atera zenean gauza lasaitu zen.

ra, baina a zer-nolako ezustekoa hartu genuen! Gariño guardia zibilez josita zegoen.

Barrua erabat nahastu zitzaidan, Estanis mutiko ikusten nuen oraindik. Hemeretzi urte besterik ez zuen gizajoak. Hori gutxi ez eta gure semeaz deus jakin gabe egon ginen hainbat egunez. Izugarri gogorra izan zen. Torturatua izango zelako susmoa genuen eta zoritxarrez, susmoak gero egia bihurtu ziren.

Handik urte batzuetara epaitu zutenean, berria ez zen batere gozoa izan: hogeita hamar urteko kartzela zigorra ezarri zioten. Ziguten, hobeto esan. Erraz esaten da, baina hogeita hamar urte ez da zigor makala, alajaina! Ama batentzat izan litekeen minik handiena da hori. Oraindik mutiko ikusten nuen semeak banekien lau pareta artean pasatu beharko zuela gaztetasuna. Ez ziren nahi ordu pasatu. Egun bakoitzean, otordu

bakoitzean, lotara sartu bakoitzean... go-goan izan dut han nuena. Baina noizbait horiek ere pixkanaka-pixkanaka pasatu ziren. Azkenean, hogeita bost urtez egon ondoren, berrogeita lau urterekin atera zen kalera.


Familiarentzat ere ez zen erraza izan- go hain urrutira joan beharra.

Halaxe da, bai. Espetxe franko pasatu ditugu: Carabanchel, Alcalá-Meco, Herrera de la Mancha, Valdemoro eta azkenik, sakabanaketa ezarri zutenean, Castello I. Han eman zituen ia urte guztiak Estanisek. Familiarentzat oso gogorra eta neketsua izan da. Hasieran gogoratzen dut ez genekiela nola joan ere, ordura arte ia Oartzundik atera gabe baikin. Mapa bat egin ziguten eta kotxe txar batekin han abiatu ginen leku ezezagunetan barrena. Semea non, gu beti han. Trena, furgoneta, autobusa... egokitzen zena hartu eta aurrera! Baina beti lagunena eta herritarren babesean. Hori izugarria da, e! Egia esan, zorte oneko sentitu gara Oartzunen. Beti izan dugu inguru eder bat, jende askoren babesa eta laguntzeko prestutasuna. Ez gara inoiz bakarrik sentitu. Kolore desberdineko jendeak agurtu izan nau, baita semeari eskumuinak emateko esan ere. Ederra da pentsamenduetatik kanpo pertsona baloratzea.

Baduzue anekdota berezirik edo?

Zer esango nizuke ba? Behin batean ETako presorik nahi ez zutela oihuka ari ziren manifa ba-

↑ Euskal presoek sakabanaketa



Euskal presoek sakabanaketa.

Estanisek historia luzea du.

1984/05/05ean Irunen poliziaren karga baten ondorioz pelbisa hautsi zuen. Handik bi urte pasatxora, berriz, atxilotu egin zuten. 1986ko maiatzaren 17a zen, Juan Marik eskolarteko bertsolari txapelketa irabazi zuen eguna. Seme gazteenaren saiotik kontent arraio iritsi ginen etxe-

tekin egin genuen topo. Baina bidaia bakoitzean semea ikusi arte, beti izaten genuen zalantza, beti izaten genuen beldurra garaiz iritsiko ote gine. Errepideak orduan hala modukoak ziren, kriminalak. Horma zela, elurra zela, uholdeak ere tokatu izan zaizkigu... Bidaia guztietan beti ibili izan gara erlojuaren menpe.

Horrez gain, bertara iritsiagatik, ezusteko txarren bat gertatzeko beldurrez beti. Kartzelako edozein tramite, paper... huts egiteko beldurrez ibili gara, uniformedunek edozein aitzakia aski izaten zutelako gu hara joanagatik bisita bertan behera uzteko.

Bolada batean bisitak egiteko aukera familiarakoek bakarrik zenuten...

Bai, horrela da eta, gainera, espetxeraino joan eta hamar minutuko bisitak bakarrik izaten genituen. Familia askotan baliabiderik ez zen tamaina horretako bidaiak egiteko. Gero, behin lagunak bisitak onartzen hasi zirenean, arindu ederra hartu genuen.

Antolaketa handia eskatuko zuen horrek, ezta?

Alaba zen gehienbat gauza horietaz arduratzen zena. Bisita bukatu eta ia etxera iritsi ordu, berriro espetxera telefonoz deika hasi beharra zegoen hurrengo asteburua antolatuzko. Tentsioan beti. Gero *paketea* osatu beharra: prentsa, liburuak, arropa... Baina dena oso mugatua zegoen.

Aurrez aurreko bisitarik izaten zenuten?

Urte batzuk pasatu ondoren lortu genuen eta familiarakoek bakarrik. Orduan ahalegintzen nintzen ezkutuan zerbait goxoa eramaten. Hain zen gogorra barruko bizimodua...



Seme-alabek batzuetan galarazi egiten ziguten arren, senarra eta biok oso maiz joaten ginen. Familia osoa kotxean sartu eta estu-estu, han abiatzen ginen. Haurrak ere bai. Ni hortxe joaten nintzen atzeko eserlekuan umeak entretenitzen. Etxeko txikientzat jateko gauza goxoak prestatzen nituen, jolasak ere bai. Haurrek ez zekiten zergatik egin behar izaten genuen ia geldialdirik gabeko bide luzea. Ordainetan zerbait eskaini nahi izaten nien.

Iñaki ere preso hartu zuten gero...

Bai. Iñaki hogeita bederatzi urterekin atxilotu zuten, 1994/06/05ean hain juxtu. Estanisek ordurako zortzi urte zeramatzan Castellon. Iñaki, berriz, Madrilera eraman zuten lehenik, eta segidan, Galiziako Monterrosa, etxetik 660 kilometrorra. Castello lekutan zegoela? Lugora joaten hasi ginenean ederki probatu genuen zer zen urrutira joatea. Punta batetik bestera ibili ginen sei urtez. Horrelako joan-etorriak egiteko ezinbestean kotxe dezenteak behar genituen. Hortxe gastatzen genituen gure sos pixarrak. Haurren eserlekuak, berriz, iparraldetik ekarri genituen, orduan oraindik ez baitziren derrigorrezkoak hemen. Horrela ibiltzen ginen, ahal genuen bezala. Eta zorte ona izan dugu, ez zaigu sekula istripu larririk tokatu: ez lagunei, ezta etxekooi ere. Makina bat familiarateko eta lagun bidean gelditu da.

Iñaki Oiartzungo Udalerako zinegotzi hautatua izan zen 1995eko hauteskundeetan.

Halaxe bai, kargua hartzera Oiartzungo udalera etorri zen. Aieka batetik pozik geunden herrian ikusteko aukera izango genuelako, baina aitortu behar dut beldurra ere pasatu nuela. Familiarentzat oso gogorra izan zen Iñaki eskumurrak lotuta eta polizia inguratuta ikustea. Jendea oso berotua zegoen, besteak beste, ertzain bat jendartean antzeman zutelako. Ez genekien horrek Iñakirengan zer ondorio izango ote zuen. Azkenean behinik behin, dena ongi bukatu zen eta herriaren babes sentitu eta gero, *pox* handiarekin etxeratu nintzen.

Presoen laguntzarako taldeak sortu ziren, Etxerat... Zuek hartzen al zenuten parte?

Estanis kartzelan egon den denbora guztian partaide izan gara. Alaba joaten zen bileretara. Urte askotan astero. Horrek izugarritzko dedikazioa eskatzen zuen: agerraldiak, mobilizazioak, elkarteekin nahiz Udalarekin bilerak... Hori ere ez zen xamurra izan. Leku askotan ez ginen ongi

hartuak izaten tentsio politiko handia zegoelako. Lazo urdinaren garaia ere ez zen erraza izan. Horrez gain, senarrak eta biok enkarteladetan parte hartzen genuen astero. Ez genuen huts egiten. Bakoitzak argazki bana hartzen genuen. Donostian egiten zirenean, berriz, senarra joaten zen gehienetan. Presoen aldeko manifestaldietan ere beti parte hartu izan dugu.

Bizipen sakonak izan dituzu, Miren. Zerekin geratzen zara?

Pasatako guztiak pasata onik atera gara eta orain familia guztia elkarrekin gaudela. Eta har ezazu kontuan: lehen aldiz familia osoaren

argazkia ateratzeko zoria Estanis atera zenean izan genuen. Baina hementxe gaude: denak eta gainera onik. Bidean ez da inor gelditu. Ez da gutxi. Estanisek ere izan du familia osatzeko aukera eta esango nuke barru-barruko poxa sentitzen dudala orain denak ongi ikusten ditudalako. Ramontxo Sagarzazu etorri zenean bukatu ziren gure kalbarioak neurri batean, txantxangorritarra etxeko baitugu. Dena den, gure mina arindurik baldin badago ere, oraindik oso gogoan ditut barruan edo erbestean gelditzen direnak eta haien etxeetakoak. Haiei esan nahiko nieke malkoak ez direla alferrik galtzen.



Emakumeen lau belaunaldi.

Eskerrik asko, Miren. Eta eskerrik asko ingurukoei, tartean Idoia Fraileri, emandako laguntzatik.

Izaskun Madariaga Iragorri

his to ri a



FRANCISCO URDINOLA

Gobernadoreari iruzur



Loiolako Santutegia.

Urte hasieran Loiolako artxibategira joan nintzen Larramendik idatzitako dokumentu bat ikustera; izan ere, Interneten agertzen den dokumentu horren laburpenak esaten zuen Urdinola oinetxea Ignacio Maleorena zela eta harri-garri samarra iruditu zitzaidan.

Kontua da aita Manuel Larramendi jesuita Loiolatik Oiartzunera etorri zela 1760ko abuztuan jesuitek gure herrian zituzten hainbat ondasunen errentak berritzera, besteak beste, Bikariotegi etxearen errenta edo Sarobe base-riaren ondoko mendi batena, Joakin Susperregi olagizonak erabiltzen zuena.



Egia esan, Loiolako basilikako jesuitek lotura dezente zituzten Oiartzun herriarekin, baita oiartzuarrek Loiolarekin ere. 1719an, esaterako, Sebastian Lekuona oiartzuarra basilikako obretako Maisu Nagusi izendatu zuten, hain zuzen ere, basilikako kupula egiteko. Eta arazo dezente sortzen zituen lana zenez, badirudi aurretik Oiartzungo kanpandorre azpiko kaperako kupula egin zuela, esperientzia apur bat hartzeko helburuarekin. Horrez gain, Ignacio Maleo oiartzuar itsas kapitainak Loiolako basilika egiteko ondasun ugari utzi zituen, besteak beste Gabiria eta Baldarena etxeak.

Larramendik, bada, herritik hainbat eskutitz idatzi zituen Loiolara, eta haietako batean Loiolako txakolinaren uztaz galdetzen du, egonaldia luzatu egiten baita, arazo bat dela kausa. Izan ere, hara non agertu zitzaion Granadako dukearen administratzailea eskritura zahar batekin, esanez Ignacio Maleok Loiolari eman zizkion hainbat ondasun ez zirela harenak, Francisco Urdinolaren ondorengoena baizik. Granadako dukea Ignacio Idiakenez zen garai hartan, eta epaileek eskritura zahar hari arrazoia emanaz gero, diru dezente gal zezaketen jesuitek. Beraz, Larramendik aste franko pasa zituen Oiartzunen eskritura eta dokumentu zaharrak aztertzen, eta nahaste-borraste haiei esker kontu asko jakin ditugu, batez ere Urdinola familiaz.

Istilu haiek Francisco Urdinolaren garaira eramaten gaituzte. Francisco Mexikora joan zenean, izugarrizko aberastasuna lortu zuen baita Bizkaia Berriko gobernadore eta teniente jeneral tituluak ere, baina ez zen jaioterrira itzuli eta us-te genuen hemengo loturak erabat eten zituela, Urdinola oinetxea bera ere Gregorio Aranburu izeneko apaiz baten eskuetan geratu baitzen. Baina pentsatzen dugu, Mexikotik itzuli ez zenez, Franciscoren gurasoek Gregorio Aranbururi emango ziotela herentzian; izan ere, alde bategatik, haien senidea zen eta, bestetik, oinetxeak Urdinolatarrena izan behar zuen nahi eta nahi ez, Urdinola izena baitzuen. Gainera, Gregoriok testamentuan eskatzen du Urdinolan zegoen hi-



Francisco Urdinola.

lobian lurperatzeko, Martin Urdinolaren ondoan, hau da, San Esteban elizako benefiziatua izan zenaren ondoan.

Hala ere, Larramendik aztertzen dituen eskutitzetan, argi eta garbi ikusten da Franciscok, hirurogei bat urte zituenean, 1610. urtearen bueltan, Oiartzunen pasa nahi zuela bizitzako azken txanpa. Urte haietan harreman handiena Martin Perez Urdinola lehengusuarekin eta Sebastian Zuaznabar bikarioarekin zuen, haiei idazten baitzizkien eskutitzak, eta ordurako Francisco Martinez Arburu, Oiartzungo eskribaua, eta Leon Endara, Gregorioren iloba, Urdinolaren hainbat dokumentutan ikusiko ditugu.

Mexikotik bidalitako eskutitz haixengatik jakin dugu garai hartan urtean behin joaten zela itsasontzi flota Mexikora; izan ere, Urdinolak 1611ko apirilean Martín Pérez lehengusuari bidalitako eskutitzean esaten dio 1610eko flotan ez zuela eskutitzik jaso eta desiratzen zegoela jakiteko Gregorioren etxearen erosketa proposamenak eragina izan zuen ala ez. Horrek esan nahi du gutxienez 1609tik Francisco Urdinola oinetxea erosi nahian zebilela. Eta jakin nahi du Urdinola oinetxea erosteko modurik badagoen edo ahaztu egin behar duen horretaz, eta eransten dio erosiz gero hobekuntza ugari egingo lituzkeela. Horrez gain, Oiartzunera etortzeko asmoa zuela adierazten dio eta, bide batez, 400 dukat bidaltzen dizkie Martin Perez lehengusuari eta Zuaznabar bikarioari Baldarena etxea konpon-



Baldarena.

tzeko, eta nahikoa ez bazen bidaliko zuela gehiago. Baldarena etxea Mendiburu kaleko laugarren etxea da, txokolategiaren aurrekoa. Orduan eroria zegoen eta Franciscok amonarengandik jasoko zuen, amona Maria Juan de Baldarena baitzen.

Aita Larramendik, bada, Urdinola oinetxeko eskutitzak aztertu zituen eta esaten digu Franciscok ez ziela eskutitz gehiago bidali etxekoei 1616a arte; baina urte horretan bidali zuen eskutitzean haserrea adierazten die, aurreko urtean jasotako eskutitzean jakinarazi ziotelako Baldarena konpontzeko 1500 dukat gastatu zituztela, eta ez zuen ulertzen nola gastatu zuten hainbeste diru hain etxe estuan.


Gero esaten die ekipajea prest zuela Oiartzunera etortzeko, baina azken asteetan ohean zegoela bizkarreko minez, ezin mugiturik, eta hurrengo urterako utzi beharko zuela. Dena dela, gauza asko argitzen duten enkargu batzuk ere bidali zizkien. Batetik, esaten die falta dena ordaintzeko Leon Endarari eta bestetik, Leonek eskriturak bidali arte ez gastatzeko diru gehiago solairuetako oholtzan edo harresia konpontzen, gastu guztien berri izatean, ikusiko zuela zertan erabili dirua.

Dudarik gabe Urdinola etxeaz ari da eta ordurako erositako dirua, baina, nahiz eta Franciscoren diruak erabiltzeko ahalmena Martin Perez Urdinola lehengusuak eta Zuaznabar bikarioak izan, badirudi erosteko tratuak Leon Endararekin egin zituela, hau da, Gregorioren ilobarekin.

Gregorio Aranburuk 1609an egin zuen testamentua eta 1611n hil zen. Apaiza zen, eta San Esteban elizako benefiziatua, alegia, elizak zituen errenta batzuen jabe, baina Leon Endara ilobaren eta haren anai-arreben tutorea ere bazen, umezurtz geratu ziren eta.

Esan dugu lehen Francisco Urdinolak 1609ra-ko oinetxea erosi nahian zebilela, eta tratua, noski, Leon Endararekin egin zuen, hari ordaindu baitzion. Baina dirudinez, hainbat zatitan ordaindu zion, azken eskutitzean Franciscok zor zitzaiona lehenbailehen ordaintzeko esaten baitie lehengusuari eta bikarioari. Beraz, inguruko guztiek pentsatuko zuten Gregorio Aranburuk ilobari utzi ziola Urdinola oinetxea, baita Francisco Urdinolak berak ere.

Baina Larramendik Gregorioren testamentua aurkitu zuen Urdinola oinetxean. Joanes de Zuaznabarrek 1612an atera zuen kopia bat zen, eta Gregoriok azken borondateen artean esaten du Francisco Urdinola izendatzen duela oinordeko bakarra.



Francisco Urdinolaren sinadura.

Beraz, Francisco Urdinola baldin bazen Urdinola oinetxearen jabe, nola arraio erosi zuen berea zen etxea? Eta zer dela eta ez zioten ezer esan lehengusuak eta bikarioak? Egia esan, testamentua idatzi ondoren, 1610ean, edo beranduenez 1611n, Gregoriok kodizilo bat idatzi zuen, alegia, testamentua aldatu edo zerbait erantsi nahi denean egiten den dokumentua. Eta testamentua egiteko Errenteriako eskribaua deitu bazuen ere, kodiziloa Oiartzungo Francisco Martinez de Arburu eskribauarekin egin zuen. Horregatik Larramendik esaten du pentsatuko zutela kodiziloan testamentua aldatu eta Leon Endarari utzi zizkiola bere ondasunak, baina hori horrela izan balitz, Endarak azkar aski erakutsiko zuen dokumentu hori, eta ez zuen hori egin. Aitzitik, Arbururi esker herentzia guztia Francisco Urdinolarentzat zela jakitean, kodiziloa zein testamentua gorde egin zituen eta Leon Endara katramila korapilatsu izugarria asmatzen hasi zen. Izan ere, ordurako zabaldua zegoen Oiartzun aldean

Francisco Urdinolak Mexiko aldean aberastasun ikaragarria lortu zuela eta Endarari bidegabeke-ria galanta irudituko zitzaion bera ezer gabe geratzea eta osabaren ondasun guztiak Francisco aberatsak eramatea.

Kontua da, Gregorioren kontrako zer edo zer asmatu behar zutela oinetxea eskuratzeko eta argudio moduan pentsatu zuten, Gregoriok, Endatarren tutorea zenez, gaizki kudeatu zituela iloben ondasunak eta horregatik, ilobek salaketa jarri ziotela Iruñean. Ondorioz, Justiziak Urdinola eta Gabiria etxeak eta lursail pare bat kendu zizkion Gregoriori eta enkantean jarri. Leon Endarak osabaren kudeaketa txarragatik dirurik ez zuenez, ondasun horiek Arburuk erosi zituen 1.200 dukat ordainduta, eta errukituta edo ondasunak Endarari eman zizkion.

Hori guztia justifikatuz gero, Endarak egin zitzakeen eskriturak eta Franciscori etxea saldu, baina ez zen lan erraza sinesgarritasuna ematea dokumentu horiei, besteak beste, Gregorio benefiziatua zenez, izango zuelako nahiko diru Iruñean jarritako isuna ordaintzeko, ondasunak enkantean jarri gabe eta, gainera, testamentuaren bitartez badakigu bere ondasunen jabe izan zela hil arte.

Dena dela, nola edo hala prestatu zuten dena, eta pipiak janak zeuden eskritura aldrebes horiek Oiartzungo kontzejuan aurkitu zituen aita Larramendik, hau da, Arburuk Endarari egindako ondasunen zesioa, Endarak Urdinola etxea saldu zueneko eta Martin Perezek, Franciscoren izenean, ondare horien jabetza hartu zueneko.

Larramendi, ordea, berehala konturatu zen eskritura haiek faltsuak zirela, ezkutuan egindakoak eta gezurrezko testigekin. Batetik, eskritura guztiak egun berekoak dira, 1616ko apirilaren 8koak. Bestetik, eskriturak jarraian daude idatziak eta normalean bakoitza orri berri baten buruan hasten da eta ez orriaren erdialdean. Ez dute aipatzen zein egunetan eta zein urtetan erosi zituen Arburuk Gregorioren ondasunak enkantean. Ez dago Urdinola salgai jarri zuteneko dokumenturik, ez tasaziorik ezta enkanterik ere. Salmentaren dokumentuan esaten da Endarak Martin Perez eta bikarioa eskutik hartu eta Urdinola oinetxean sartu zituela etxea jabetzan emateko, baina gero bete gabe uzten dute dokumentuan Francisco Urdinolaren bizilekua, *vecino de _____*. Eta Endarak eta Arburuk ez bazeki-

ten galdetzea zuten Martin Perez edo bikarioari, baina noski, ez zeuden bertan, ez baitzuten dokumentua sinatu. Esaten du Endarak 18.980 erreale jaso zituela etheen truke, baina gero Urdinolak eskutitz batean esaten du oraindik ez ziotela diru guztia ordaindu. Eta lehengusuak eta bikarioak ez zioten dena ordainduko testamentua irakurri ondoren susmo txarra izango zutelako, nahiz eta kodiziloan aldaketaren bat egon zitekeen. Eta horrela dozenaka irregulartasun. Momentu batean esaten du aipamen batzuk direla eta, ikusten dela eskriturak arratsaldez idatziak direla, eta Frantzian nahikoa zela hori dokumentua faltsutzat jotzeko.

Akatsak akats, kontua da iruzurrak aurrera egin zuela eta ziria sartu ziotela Bizkaia Berriko gobernadore eta teniente jenerala zen Francisco Urdinolari. Dena dela, azkenean Francisco Zatecasen hil zen 1618an, Oiartzunera bueltatu gabe. Eta agindu gehiagorik etorri ez zenez, ez hil aurretik ezta gero ere, Larramendiren ustez Oiartzungo Urdinolarrek fede onez "eskuratu" zituzten Urdinola oinetxea eta besteak, senide hurbilenak zirelako; lehenengo Martin Perez lehengusuak, oso denbora laburrean, 1619an hil baitzen; gero Franciscoren arrebak, Maria Martinek, Magalena baselizako serora zenak, eta azkenean Maria Juan Urdinolak, Martin Perez Urdinolaren alabak.



Landetxe jauregiko panela.

Baina Franciscoren ondorengoek bazuten Urdinola, Gabiria eta Baldarena etheen berri, 1627ko eskutitz batek erakusten duen moduan. Eskutitza Francisco Longoria Urdinolak, Franciscoren biloba batek, idazten dio Maria Martini Madrildik eta badirudi Maria Martinek aurretik idatzi ziola anaia testamentua eginda hil ote zen jakiteko, eskutitzak galdera horren erantzuna ematen baitu.

Eskutitzean, bada, Franciscoren testamentua aipatzen da, eta lehendabizi esaten du 200 dukat utzi zizkiola arrebari eta galdetzen dio ea jaso zituen. Ondoren, esaten du testamentuan 4.900 dukat aipatzen dituela Oiartzungo Sebastian Zuaznabar bikarioari bidaliak Baldarena etxea berreraikitzeke, Urdinola erosteko eta 600 dukat Franciscoren omenez hilero meza abestu bat ordaintzeko. Gabiria eta lur sailak ez ditu aipatzen, Urdinolaren ondoan huskeria irudituko zitzaiolako, baina erosketako eskrituretan denak batera agertzen omen ziren.

Eman dezagun 200 dukat horiek jaso zituela Maria Martinek, baina ez dakigu bidali zituen 4.900 dukat horiek nahikoak izan ziren mezak ordaintzeko, Baldarena altxatzeko eta Urdinolako konpontzeko. Baina argi dago ehun urte baino gehiagotan ez zela inor agertu jabetza horiek erreklamatzera Granadako dukearen administratzailea 1760an iritsi zen arte. Gainera, Larramendiren ustez *longissimi temporis* preskripzioa dela eta ez zuten erreklamatzeko eskubiderik, alegia, denboraren poderioz jabe egin zirelako.



Urdinola oinetxean, bada, Franciscoren lehengusua bizi izan zen hasieran eta ondoren arreba Maria Martin, 1632an hil zen arte, segur aski Martin Perez Urdinolaren semearekin, hau da Antonio Urdinola apaizarekin. Hamaika urte lehenago, ordea, 1621ean, Maria Juan Urdinola, Martin Perezen alaba, Pedro Maleorekin ezkondu zen Baldarena etxera, beraz, bertan dagoen Mallearen armarrria Pedrok jarria dela pentsa-

tzen dugu. Baina gero, Maria Martin hil zenean, Urdinola oinetxera pasa ziren eta Larramendik esaten du Oiartzungo jende zaharrena gogoratzeko zela garai hartatik Urdinolari Malerena edo Peru Malerena esaten ziotela Pedro Maleo han bizitu zelako.

Bestalde, Urdinolaren jabetza legeztatu egin zuten, nolabait ere. Izan ere, 1660an Maria Juan Urdinolak, alarguna zela, eskaera bat egin zuen udaletxean Urdinola, Baldarena eta Gabiriaren etxeen jabetza lortzeko. Argudiatu zuen Francisco Urdinola gobernadorea hil zenean etxe horien jabe zela, eta aitak eta izeba Maria Martinek jabetzan eduki zituztela eta gero berak, Franciscoren senide hurbilenak baitziren. Hori nabarmena zen eta testigu guztiak onartu zuten. Baina badirudi testamentua ere erakutsi zuela Alkateak esaten baitu, *Maria Juanek eskaeran ekarritako informazioa eta aipatutako testamentua ikusita jabetza ematen diogu.*

Manuel Lekuonaren esanetan Maleotarrak Eibartik etorritakoak ziren eta, beharbada, jatorriz Mallea zuten abizena. Etxeari ere Malerena esaten zioten, ez Maleorena. Hala ere, belaunaldi batzuk zeramatzen Oiartzunen, Pedroren aitona, Sancho Maleo, esaterako, Iturriozko Santxorena etxearen jabea zen, eta haren semea, San Juan, Eugiko burdinoletan lanean zebilela, meategiak aurkitu zituen, baina zorrak ordaindu gabe uzteagatik Iruñeko kartzelan egon zen. Pedrok, berriz, ezkontza ederra egin zuen, emaztearenak baitziren Urdinola, Baldarena eta Gabiria, baita Altzibarko Agirre oinetxea ere, Mari Juanen aitarena baitzen. Gaur egunean Agerre esaten diogu, baina Agirre zen, Agerrezar eta Agerreberri Arragua auzoan daude, Lezon dagoen Gabiriatik gertu.

Eta horrela iristen gara Loiolako jesuitei diru mordo bat utzi zien Ignacio Maleo itsas kapitainaren garaira, hau da, Pedro Maleo eta Maria Juan Urdinolaren semearen garaira. Ignacio izan zen benetan aberastu zena. Ameriketako komertzioarekin eta itsasontziak eginez eta salduz sekulako dirutza lortu zuen. Kastroren atzean zegoen Sabaña etxe bikaina ere Ignaciorena zen. Urdinola, berriz, erdi abandonatua geratu zen eta ez omen zuen errentarik ematen. Azkenean, Antonio Urdinola ilobari saldu zion.

Antonio Ignacio Maleoren arrimuan aberastu zen, osabaren negozio guztiakin geratu baitzen, eta 1692an Urdinola erosita familiaren

ospea berreskuratu zuen. Jauregi bihurtu zuen berriro konponketa ugari eginda; izan ere, oso handia ez bazen ere, hainbat inbentario irakurri ondoren badakigu hiru solairu zituela, leiho pila bat, su bajuak, intxaurrendozko balaustadak, beirateak... 1708an, gainera, etxetxo bat egin zuten jauregiaren kantoi bati itsatsita bertan sukaldea, labea eta hainbat gela eransteko.

Ignaciok, bada, sasiko alaba bat baino izan ez gunez, Tomasa Urdinola, elizarentzat eman zuen diru gehiena, batez ere Loiolako basilika egiteko, tartean Baldarena eta Gabiria etxeak, eta segur aski Urdinola saltzetik atera zuena. Eta ondasun horiek erreklamatzeko zituen Granadako dukearen administratzaileak, haren ustez ez baitziren oiartzuarrenak, Franciscoren alaben ondorengoenak baizik.

Hala ere, ez dirudi erreklamazio gehiago egon zirenik, isilik egoteko arrazoirik ere bazuten eta. Izan ere, Oiartzungo kontzejuak eta elizak auzi bat jarri zuten Amerikako Urdinolatarren kontra. Kontua da Francisco Urdinolak bi alaba izan zituela Maria, Pedro Suarez de Longoriaren emaztea, eta Isabel, Luis Alcegarrena, eta testamentuan Maria izendatu zuen patroia Oiartzunen kapilautza bat sortzeko, 6.000 dukatek ematen zuten irabaziekin Franciscoren alde mezak emateko, eta 400 dukat kapilautza apaintzeko. Isabel, berriz, beste fundazio erlijioso baten patroia, beste 6.000 dukaten irabaziekin urtero Oiartzungo bi umezurtz ezkontzeko. Horrez gain, 2.000 dukat utzi zituen San Esteban elizako aldare nagusia egiteko.

Diru horiek guztiak, ordea, ez ziren Oiartzunera iritsi. Egia esan, Franciscoren alabek esaten zuten makina bat saio egin zituztela, baina argudiatzen zuten Franciscok utzitako meategiek ez zutelako hainbeste diru ematen, ez zutelako konfiantzazko pertsonarik Oiartzun aldean, itsasoa ere arriskutsu zegoela, kortsarioz beterik eta, horrez gain, gogorra egiten zitzaiela bizileku naturaletik mugitu beharra lan horiek betetzeko. Azkenean, Bizkaia Berriko gotzainarengana jo zuten eta Trentoko Kontzilioak ematen zion ahalmenarekin testamentuaren klausula horiek aldatu egin zituen eta diruak Mexikoko Durango hiriko Katedrala egiteko bideratu ziren; fundazioa eta kapilautza, berriz, Mexiko hiriburuko Santo Domingo komentuan sortu ziren, han baitzegoen lurperatua Francisco Urdinola.

Eta horretarako behar zuten dirua lortzeko, alabek Franciscok Parrasen zuen etxadi paregabea hipotekatu zuten eta testamentu aldaketari esker ezagutzen dugu gehixeago nolako zen 120.000 pesotan tasatu zuten etxadia. Tasatu zutenek esaten zuten 80.000 mahatsondotik gora zituela, guztiak pareta batez hesituak eta urtearen arabera 50, 60 edo 70 upel ateratzen zirela.



Francisco Urdinola.

Upelak kono-enbor formakoak izango ziren eta 2.000 litrotik gorakoak, horrelako mahasti batek 150.000 litrotik gora eman lezake eta. Garia, artoa, indaba eta piperra ere erruz egiten zuten, kalitate oneko ardoaz gain. Kontuan hartu Francisco Urdinola izan zela Ameriketako ardo komertzializatu zuen lehenengoa.

Dena dela, pentsatzen dugu nonbait ere egon behar duela Franciscoren testamentu osoa, klausula guztiekin, Texaseko Unibertsitatetik bidali zigutenak Mexiko hirian zituen etxeak bakarrik aipatzen baititu. Gero elizako Klausula aldaketengatik zer edo zer gehiago jakin dugu, baina zilarra ateratzeko meategiez, esaterako, ez dakigu ezer, ezta norentzat utzi zituen Oiarzungo etxeak ere.

Bukatzeko, gogoratu nahi dugu Francisco Urdinolak 1591an San Esteban de la Tlaxcala herria sortu zuela Saltillo herriaren ondoan, 400 indio tlaxcala eramanda, nolabait ere, maiz matxinatzen ziren Saltilloko indioak kontrolatzeko. Erreka batek bereizten zituen bi herriak, gaur egun Allende kaleak, baina 1827an San Esteban Saltilloren itsatsi zitzaion, eta gaur egun Coahuila estatuko hiriburua da, 1577an sortu zuten Saltillo.

Beraz, 1977an Saltillo hiriburua 400. urteurrena bete zen, eta 1978ko urtekarian Manuel Lekuonak artikulu bat idatzi zuen, argazki eta



Indioa eta Urdinola.

guzti, esateko Urdinolaren irudi galanta jarri zutela Saltilloko plaza batean. Nik, ordea, 2009 arte ez nuen artikulu horren berri izan, hain zuzen ere, Urdinolaren biografiaren laburpena idazten hasi nintzen arte, eta geroztik ibili nintzen noizbait ere Google Maps-en estatuaren bila hango kaleetan barrena, baina ezin nuen aurkitu.

Orain dela gutxi, ordea, Saltilloko egunkari bateko artikulua topatu nuen Interneten, Adriana Armendariz kazetariak 2021ean idatzia. Indio bat ikusten zen lehenengo orrialdean, eta berehala hartu nion Urdinolaren estatuaren antza, eta han azaldu zen beheraxeago Urdinolarena. Oso kontakizun polita egiten zuen; esaten zuen 400. urteurrena ospatzeko Coahuilako gobernadoreak, Oscar Flores Tapiak, hiriaren sustraiak goraiatzeko bi estatua enkargatu zituela Cesar Ledesma eskultoreari. Eskultoreak bost metroko bi estatua egin zituen hormigoiarekin, traza zarpailez landuak, eta Saltilloko etorbide bati, hiriaren sorrera gogoratzeko, Fundadores Bulebarra izena jarri zioten eta bi muturretan bi estatuak.

Saltilloko Arteaga izeneko herri batekin egiten du muga eta hasieran han jarri nahi izan zuten indioa, baina Arteagako biztanle asko espainiarren ondorengoak direla eta, konkistatzailea jarri zuten bulebar bukaera horretan. Indioa, berriz, Saltillo hiriaren barru aldera geratzen zenez, hiriaren ezagutzen ez zutenei erreferentziak emateko erabiltzen zen maiz: indioa pasata, indioa eta gasolindegia artean, indiora iritsi baino lehen, eta horrelakoak. Gero, hainbat obra egin zirela eta, tokiz aldatu zuten indioa bizpahirutan, bai-



Saltillo, india eta Urdinola.

na orain Urdinolaren ondoan jarri dute, hiriaren sarreran, elkarri begira eta bien artean SALTILLO letra koloretsu handiak dituztela.

Hori bai, artikuluan badago pena handia eman zidan gauza bat. Kazetariak aipatzen du 44 urte pasa direla eskulturak jarri zituztenetik, eta badirudi urte horietan gure Urdinola india bezain anonimo bihurtu dela; izan ere, artikuluan india gora eta india behera ari den bezalaxe, beste estatua aipatzeko orduan "el español" gora eta "el español" behera esaten du, antza denez, kazetariak ez dakielako estatua horrek nor irudikatzen duen. Beraz, nola jakingo du O letran dagoen Saltilloko armarrarian Oiartzungo armarrria dagoela lehenengo kuartelean, Urdinolaren omenez jarri baitzuen armarrria diseinatu eta Urdinolaren biografia idatzi zuen Vito Alessio Robles mexikarrak 1935 aldean. Bidali nion mezu bat Francisco Urdinola dela jakinarazteko, baina ez dakit iritsi ote zaion.

Joxemari Iturriotz

ARBIDE, URDINOLA, LAZARRAGA, BIDEBIETA

Oiartzungo familia aberats baten bilakaera

XVI. mendetik aurrera, aberasteko asmoarekin edo, euskaldun askok hartzen zuten Ameriketako bidea. Orduan ere bazegoen nahiko erraz aberasten zenik, eta haietako batzuek, lortutako ondasunekin bueltatzen zirenean, etxeak eta lurrak erosi ondoren, maiorazkoak sortzen zituzten errentetatik bizitzeko.

Maiorazkoak, beraz, norberaren ondarearekin sortzen ziren fundazioak ziren. Ondasun horiek pribilegio fiskal batzuk zituzten; izan ere, uztartuak edo lotuak geratzen ziren, oso muturreko egoertan bakarrik saldu zitezkeen eta maizterrentzat-eta onuragarriak ziren, lur sail asko komunalak baitziren. Gainera, ondasunak zaindu egin behar ziren, oinordekoari egoera berean edo hobean uzteko eta sortzen zituzten errentek ospea ematen zieten familia aberatsei, maiorazkoaren iraupenarekin familiaren izena eternoa izango zelakoan.

Artikulu honetan Oiartzungo aberatsak nola bizi ziren ikusiko dugu, Agustín Arbideren maiorazkoaren bilakaerari jarraituz, harrigarria baita



Arizmendi.

inguruan sortu zen azkeneko maiorazkoa izanda, zenbat handitu zen denbora laburrean, batez ere Urdinolatar batekin ezkondu ondoren.

Arizmendi etxetik abiatuko gara, bada, baina Arbide izena zuen garaira bidaiatuta. Ikusgai jarri denetik jende askok daki etxe hori Agustín Arbide Portu oiartzuarrak (1716-1780) eraiki zuela Ameriketara lortutako diruarekin. Horretarako, 1758an osaba Joseph Antonio Porturi Fermiñene (Elizalde) etxeari itsatsita zegoen etxetxoak 4.965 errealekin truke erosi zituen eta hurrengo urtean, 63.374 errealekin jarrita, ezagutzen dugun etxe bikain hori eraiki zuen. Eta 1760an Maria Josepha Basazabal Mandiolazarekin ezkondu zen, Azpeitiko familia onenetako baten alabarekin, ezkontza ere aberastasuna handitzeko moduetako bat izaten zen eta.

Agustín Arbidek 1779an Lazkanburu baserria erosi zuen eta aurretik zituen ondasunei erantsita, maiorazkoa sortu zuen, baina 1780ko ekainaren 17an hil egin zen. Hil orduko haren alargunak etxearen inbentarioa egin zuenean, 1780ko uztailan, esaten du hiru seme-alabekin bizi zela: 16 urteko Maria Josefarekin, 14 urteko Manuelekin eta 11 urteko Franciscorekin, baita senarraren osaba Joseph Antonio Porturekin ere. Dena dela, Agustínnek diru eta kreditu pila bat utzi zien herentzian eta liburu batean ongi zehaztuak zeuden Cadizeko negozioak. Eta, horrez gain, Arbide Maiorazkoa jaso zuten: Arbide etxea, Lazkanburu, Arralde eta Kamiyo txipi baserriak eta hainbat lursail.

Alaba zaharrena, Maria Arbide Basazabal, 1787an Ignacio Urdinola Arbide (Oiartzun, 1750-1828) lehengusu txikiarekin ezkondu zen, eliza aurrean jauregi dotorea zuen gizonarekin. Mariak sei mila dukat jarri zituen ezkontzarako, herentziaz jaso zezakeena kontuan hartu gabe. Izan ere, Mariaren bi anaiak, Manuel eta Francisco, biak mutil-zahar, Azpeitian bizi ziren osabarekin; beraz, badi-rudi amak ez zuela ezer erabaki herentziaz.

Ignacio, berriz, ezkondu zenean Antonio Urdinola birraitonak eta Catalina Zulaika Ayalde birramonak sortu zituzten lau maiorazkoen titularra zen: Urdinola, Isasti, Torres eta Ayaldezarra. Eta beste bat ere aipatzen da: Urrileku maiorazkoa, Lezoko Maria Ygancia Arpide amonarena. Baina, egia esan, familiaren dokumentu batean esaten da hainbat agiri desagertu ondoren, ezin zela jakin

zein ondasun zegokion maiorazko bakoitzari. Horregatik Urdinola etxeko ondasunak maiorazko bakarrean baleude bezala aipatzen dira eta, horrez gain, Ignacioren amaren ondasunak daude, Francisca Antonia Arbide Irigorrirenak, alegia.

Beraz, honako hauek ziren Ignacio Urdinolaren ondasunak ezkondu zenean:

AITAREN ALDETIK:

Urdinola etxe nagusia,
Bordazar eta Bendoiz,
Lizarraga,
Makuso errota,
Isasti eta Isasti errota,
Errotazar eta Torres,
Sorozarreta,
Belastegi,
Maisterborda,
Arañaburu, Lezantzin,
Olagarai eta Iribarren eta Iturralde eta Zibelus lursailak, harizti bat Iturriotzen eta bi saroi.


Eta Oiartzundik kanpo:
Belarkanpa baserria Oreretan,
Ayalde etxea Donostian (intramuros),
Benta goya eta Benta bea etxeak Altzan,
Ayalde txiki Aian,
Cordoba Sorabilan, eta Urrileku eta Binkuda Lezon.

AMAREN ALDETIK:

Portuene Altzibarren
Oyarzabal berri
Agirre berri
Garagarza
Telleriaren erdia
Tapienea Elizalden
Isabelenaren erdia Elizalden
Gazteenea izeneko lurrak Iturriotzen eta Iantzi eta Baringo saroiak

1785eko dokumentu batean, Ignaciok bete zuten errituala deskribatzen da ondasun horien jabetza hartzeko orduan. Harrigarria benetan, nahiz eta gero antzeko batzuk topatu ditugun: lehendabizi, Ignaciok Urdinola jauregian zeuden aterarazi egin zituen eta, ahaldundu zuten Nikolas Lekuona alkatea eskutik hartuta, sartu eta etxeko ateak eta leihoak itxi eta ireki zituen, gero lorategian belarra erauzi eta eskutada bat lur hartuta barreiatu egin zuten eta ondoren baratzeak zuhaitzen adaxka batzuk puskatu, hori guztia benetako jabetza natural, baketsu eta erreala hartzen zuela adierazteko. Eta gauza bera egin omen zuten beste baserrietan, baita lursailetan ere, han ixteko eta irekitzeko ate edo leihorik ez izan arren.

Horrela bada, Ignacio eta emaztea Urdinola jauregian bizi izan ziren, hasieran Ignacioren amarekin, Francisco anaia apaizarekin eta Rita,



Landetxe jauregiko panela.

Basilia eta Melchora arrebeekin. Anai-arrebei herentziatik zegokiena ordaindu zien eta etxean jarraitzen zuten bitartean mantendu

egin behar zituen. Beste bi anai ere bazituen, Javier zaharrena eta Carlos gazteagoa, hirurak Mexikora joanak ziren urte batzuk lehenago, baina Ignacio bakarrik itzuli zen. Beraz, ama pozez zorutzen zegoen Ignacio onartu zuelako berak desiratzen zuen ezkontza eta erakusten zion errespetu eta maitasunagatik.

Familiaz aparte Urdinola jauregian neska-meak, inuderen bat, sukaldaria, morroiren bat eta zerbitzariak ere izango zituzten dudarik gabe, bestela Mariaren anaia ezkongabe baten hilburukoa irakurtzea besterik ez dago: laurhun dukat utzi zizkion etxezainari (ama de llaves), beste hainbeste etxeaz arduratzen zen gizonari, hirurehun morroiari, berrehun neska-meari eta ehun hil aurretik gaixorik egon zenean zaindu zuenari.

Zerbitzariak, horrelako etxeetan ganbaran egiten zuten lo oso gela txikietan, baina Urdinolan, nahiz eta sotoa, bi pisu eta ganbara izan, beste etxe bat eraiki zuten 1708an, jauregiaren ipar ekialdeko kantoitik hasi eta kanpandorrearen azpian zegoen Torrondo baserriari itsatsita. Han sukaldea eta ogia egiteko labea zeuden, eta pentsatzen dugu zerbitzari batzuen logelak ere izango zirela.

Beraz, ongi biziko ziren baserri horien guztien errentekin eta handik iristen ziren produktuekin. Izan ere, inbentario batzuetan mendiko produktu gisa agertzen dira gurdikada ikatz eta su egur dezente edo ganadu buruak, ardi sailak, sagardo upelak, eta gari zakukadak, garai hartan gari franko ereiten baitzen hemen, ogi lurra izeneko lursailetan. Eta aipatzen ez badira ere izango ziren barazkiak, patatak, artoa eta ilarrak, edo arkumeak, oiloak, konejuak, eguberrietako kapoiak eta abar. Horrez gain, jauregian bertan baratze handia zuten eta aterpe bat aipatzen denez, segur aski behiren bat ere bai, egunero esne freskoa izateko.

Jauregiko lurra hornez inguraturik zeuden eta ekialdeko hormaren ondoan, pasadizo ezkutu bat zegoen elimutil zza barreneraino eramaten zuena. Horrela bada, jaiotza, ezkontza eta hileteki eransten badizkiogu gertatu ziren hainbat gerra, Ameriketara egindako bidaiaren bat eta izango ziren maitasun eta maitale kontuak, osagai guztiak ditugu garai hartako serie bat egiteko.

Mariak eta Ignacio zazpi seme-alaba izan zituzten, Maria Antonia, Jose Romerorekin ezkondu zena; Ignacio Maria; Maria Josefa, ezkongabea; Luis, Habanan bizi zena; Juana, Antonio Minondorekin Goizuetara ezkondua; Jose Maria, Donostian bizi zena eta Tomasa, Francisco Arzakekin Donostiara ezkondua.

Hirugarrena jaiotze berria zela, Konbentzio Gerra piztu zen, Frantziako Iraultza zela kausa, eta izan zuen eragina Oiarzunen. Hain zuzen ere, soldadu espainiarrek frantsesengandik ihesi zihoazela Aritxulegiko bolbora biltegiari eta Sistiyoko laborategiari su eman zioten eta kanpandorrearen ondoko Torrondo baserriko labeei ere bai. Sua Urdinola etxera pasa zen, eta Ignacio Vicente Sarasti eskribauak idatzitako gerra kronikan jauregia erabat erre zela esaten badu ere, ezinezkoa iruditzen zaigu, batez ere, azken karlistaldiaren aurretik egindako tasazio batean zutik agertzen delako; beraz, erre zena Torrondori itsatsita zegoen zerbitzariaren etxe berria izango zen, 1844ko dokumentu batean aipatzen baita Urdinola oinetxearen ondoko etxea berri zutela.

Horrez gain, frantsesak iritsi zirenean, 1794ko abuztuaren lehenengoan, txikizio izugarriak egin zituzten bailara osoan; hogeita bi etxe erre zituzten eta Aranburu eta Olaizola burdinolak txikitu. Jende asko Goizueta aldeira joan zen ihesi eta geratu zirenak ez zeuden seguru, ezta haien ganadu buruak ere. Denbora pasa ahala, ordea, gauzak lasaitu egin ziren eta lapurreta txiki batzuk kenduta nahiko ongi portatu omen ziren; emakumeak ere bakean uzten omen zituzten. Neguan, ordea, tifusa zabaldu zen eta hiru hilabetetan herriko laurogeita hamar pertsona hil ziren; soldadu frantsesak ere asko hil ziren. Udaberriarekin, ordea, bukatu zen izurritea, baina soldadu gehiago iritsi ziren eta Gasteiz eta Bilbo hartu zituzten. Hala ere, handik gutxira bakea sinatu zuten.

Gerra amaitu zen, bada, baita Independentzia Gerra ere, 1813an Donostia erre zutenean. Urte batzuk lehenago, ordea, Maria eta bi anaiak hil ziren oso gazterik. Maria 1805ean, berrogeita bat urterekin; Manuel urte berean, berrogeirekin eta 1807an Francisco, hogeita hamazazpirekin. Bi anaiak Azpeitian lurperatu zituzten.

1820an semea, Ignazio Maria Urdinola Arbide, (Oartzun, 1791-1870) Micaela Salcedo Landecheekin ezkondu zen Bilbon, Luciana Landecho amak proposatuta, Tomas Salcedo koronelaren alargunak. Ezkontzako kapitulazioetan esaten dute ondasunak tenporalak izan arren, beharrezkoak direla ezkontza santuak dakartzan karga eta betebeharrei aurre egiteko eta bikote apartei dagokien distira emateko. Egia esan, ezkontzako kapitulazioek gerra batekoak baino zorrotzagoak dirudite eta, besteak beste, honako hauek irakur daitezke:

Ignaciok semea Urdinola maiorazkoaren titular izendatu behar du, eta esaten du maiorazko horrek urtean bi mila dukateko errenta ematen duela eta beste hainbeste Basazabalekoak. Ignazio Maria semeak Arbide eta Lekuonaren maiorazkoen jabe dela baieztatzen du. Arbide maiorazkoa amarena eta Lekuonarena amaren lehengusuena izan arren, Mexikon mutilzahar hil zirenez, Ignazio Mariari eman zioten ezkontzen zenerako, eta besteen artean Goikoetxea, Arburu, Zubitene eta Izenona baserrien jabe zen, eta libreak ziren, ez uzartuak. Horregatik esaten du Arburu eta Goikoetxea salduko dituela arrebentzat eta aitarentzat dotea lortzeko, ezkontideekin biziko baitira. Gainera, ondasun guztien hamarren bat eskaintzen dio emazteari eta bananduz gero, urteko hamabi mila erreal eman beharko dizkio.

Micaelak, berriz, egiaztatzen du herentzian hiru etxe dagozkiola Begoñan, bi Abandon eta beste bi Gordexolan. Eta beste gauzen artean, ezkontzarako Matadero kaleko pisu erdi bat, mila dukat errege baleetan, herentziatik dagozkion hogeita bost mila erreal eta berrogei mila errealen tasatua dagoen diamantez osatutako bitxi joko bat ere jarriko dituela.

Ignacio Mariak eta Micaelak lau seme-alaba izan zituzten: Isabela 1821, Romana, 1823, Jose Maria 1826 eta Ignacia 1828, baina Isabela eta Jose Maria txikitik hil ziren. 1823an, liberalen gobernuarekin bukatzeko, frantsesak sartu ziren berriro Espainia aldean, baina oraingoan monarkiko bihurtuak eta Fernando VII.a errege absolutistari laguntzera.

Aita 1828an hil zen, baina Ignazio Mariari herentzia ederra iritsi zitzaion 1827an Azpeitia aldetik, aitaren maiorazkoak jaso aurretik. Francisco Basazabalek, Azpeitiko osaba alargunak,

zeuzkan sei maiorazkoak utzi zizkion. Zurbano maiorazkoa: Azpeitiko Basazabal jauregia eta hiru baserri. Goyaz: Goyaz baserria, etxe bat eta lursailak. Antzia: Antzibarrena baserria, mendiak eta bi etxe Enparan kalean. Gerrenzuri: bi etxe. Mandiolaza: Mandiolaza handi eta txiki, etxe bat Azpeitian, beste bat Azkoitian eta Donostiako beste bat, Ugartemendia arkitektoari alokatua, baina 1813an erre zutena. Eta Arregi maiorazkoa: Igartza etxea eta hiru baserri.

Ignacio Maria, bada, oparo biziko zen jauregian, lortu zituen ondasun guztiekin, nahiz eta tartean lehenengo karlistaldia tokatu. Emaztea, ordea, gazte samar joan zitzaion, 1846an, eta bost urte pasa eta gero, 1851n, hirurogei urte zituela, Arburuko Josefa Irazu hartu zuen emaztetzat, hogeita bost urteko emakume gaztea, neskamea segur aski. Eta beharbada emazteak eskatuta, orduan joango ziren Arbide etxera bizitzera, Arizmendienera, alegia; izan ere, badakigu Ignacio Maria han hil zela 1870ean, garai hartako kale nagusiko 5. zenbakian, eta hil ondoren emazte gaztea, Romana alaba baino hiru urte gazteagoa baitzen, bertan geratu zen bizitzen, Ignacio Mariak hilburukoan horrela eskatuta.

Oinordekoa Romana izan zen, alaba zaharrena, baina Azpeitiko Zurbano, Gerrenzuri eta Antzia maiorazkoak Ignacia ahizpari eman ziz-



Basazabal.

kion, 1850ean Juan Mari Errazurekin ezkondu zenean. Horiek alaba bat izan zuten, Maria Guadalupe, Victor Samaniegorekin ezkondu zena, eta horien alaba, Maria Josefa, Bergarako Pedro Murua markesarekin ezkontzean pentsatzen dugu maiorazko horiek markesaren eskuetan gertuko zirela, tartean Azpeitiko Basazabal jauregi bikaina, gaur egun Azpeitiko kultur gune dena.

Dena dela, Romana izan zen izugarritzko negozioa egin zuena ezkontzarekin. Eta ez da broma, Vicente Artazkoz senargaiari amaren aldetik herentzia ikaragarria baitzetorkion, Romanarena oso txiki uzten zuena. Vicenteren ama Lazarraga familiakoa zen, Juan Lopez Lazarraga Erregerregina Katolikoen idazkaria izan zenaren kastakoa; hark erakutsi omen zien gorterako bidea gipuzkoar askori idazkari, kontadore, korrejidore edo auditore lanetan aritzeko.

Vicente Artazkozek, beraz, Plaza, Galarza, Zarate, Lazarraga, Elorregi, Ibarraundia eta Arcaraso maiorazkoen titularra zen amaren aldetik eta Beitia, Benitua eta Zabaletaren titularra aitaren aldetik. 1882an, bikotearen ondasunen deskribapenean irakur daiteke Vicente Artazkozek Oñatin bakarrik hogeitatu bat etxe eta beste hainbeste saroi zituela, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba artean beste hogeita hamar bat etxe edo baserri, lursail pila, burdinola bat eta etxe bat Madrilen.



Bergara.

Beraz, Romana (Oiartzun, 1823/Oñati, 1902) Donostian ezkondu zen 1845ean Vicente Artazkoz Plazarekin (Oñati, 1812-1902) eta Oñatin bizi izan ziren udaletxe ondoan dagoen Plaza-Lazarraga jauregi ikusgarrian. Lau seme-alaba izan zituzten: Clarita, Miguel, Juan eta Francisco Javier, baina Miguel eta Juan umetan hil ziren. Clarita Artazkoz Urdino-

lak ezkontza bikaina egin zuen Villafrancako kondea zen Iñigo Gaytan de Ayalarekin eta Francisco Javier, berriz, Maria Luisa Labayenekin ezkondu zen.

Aberastasunak aberastasun, Romana bere ondasunak zaintzen saiatu zen, eta aita hil eta handik bi urtera, 1872ko martxoko dokumentu batean irakur daiteke Riberene (Ibargain) eta Arbide-Urdinola tartean Zuluagañe etxe eroria zegoela, Jose Antonio Etxebeste eta Ignacio Zalakain kontratistek aurreko urtean erosi zutena, etxe berri bat egiteko asmoarekin. Baina Romanak eta Vicentek horren berri izan zutenean, permuta bat eskaini zieten enpresariei, hau da, Zuluagañeren ordean Danbolin lurra izeneko lursaila, Arbide-Urdinolako baratzen parean zegoena, Irunera doan errepedearen ezker aldean, hau da, Romanaren Santuene baserriaren lurrak.

Kontuan hartu behar da Ignacio Maria, Arbide etxean bizitu zenetik etxe hori Urdinola izenarekin agertzen dela dokumentu gehienetan, baita Urdinolaren etxe printzipala izenarekin ere, eta Urdinola jauregia, berriz, Urdinolazar izenarekin.

Bestalde, dokumentu berean enpresariak sinatu zuten urte bereko irailerako Riberenetik Urdinolara horma bat egingo zutela eta hondar harriekin atearen markoa lorategira sartzeko, Zuluagañeko harriak aprobetxatuz. Eta halaxe egin zuten 4.685 errealeko faktura ere dokumentu horretan ikus daitekeelako. Romanak, berriz, lorategian begiratoki eta berotegi bat jartzeko asmoa adierazten zuen. Bestalde, Urdinola pareko lurretan ere egin zuten etxea, hain zuzen ere, Zalakaindarren etxea.

Romanaren ondasunekin jarraituz, badirudi zertxobait murriztu zirela. Alde batetik, azken karlistaldian (1872-1876) hainbat baserri erre zizkioten, tartean Urdinolazar, Lazkanburu, Ma-



Lazarraga.



Landetxe.

kuso errota eta Iribarren; bestetik, pentsatzen dugu zer edo zer saldu beharrean izango zela, Donostiako *abenidan* hiru pisuko etxe bat erosi baitzuen eta erretako hainbat etxe ere konpondu zituen. Esan bezala, Romanaren azken inbentarioan ez dira agertzen Isasti, Errotazar, Arañaburu edo Maisterborda baserriak, ezta Bordazar ere, baina hori Josefa Irazuri eman zion, eta Lezoko Arpide ere ez agertu arren, beti maiorazkoetatik aparte egoten zenez, badirudi Romanarena izaten jarraitzen zuela.

Badakigu Lazkanburu berehala konpondu zutela, 1877an, baina Urdinolazar konpondu aurretik 1882an beste permuta bat egin zuten: errea zegoen San Juan kaleko 46 zenbakiko Santuene etxea trukatu zuten, eroria zegoen Urbitene etxearen orde. Urbitene Gabino Sein parrokoarena zen eta Zilar kaleko 69 zenbakian zegoen, hau da, Mendiburu kale bukaeran elizatik frontoira doan bidearen eremuan. Horrela, bada, handik urte batzuetara, 1887 aldera, Romanak Urdinolazarreko harriekin Landetxe etxea eraiki zuen, dolare eta guzti, eta urte berean Gabino Seinek eta udalak erabaki zuten elizaren atzeko bidea mendebalde aldera eramatea eta kanpandorreko terraza eta bi eskailerak egitea Urdinolazarren, Urbitenen eta Torrondon geratzen ziren harriekin. 1891ko dokumentu batean ikus daiteke Landetxe etxe berriak oraindik Urdinolazar zuela izena, Zilar kaleko 69. zenbakia zuela eta bertan Joxe Kruz Berrondo maizterra bizi zela.

Urte bertsuetan Romanaren semeak beste jauregi bat eraiki zuen Oiartzundik ez oso urruti. Francisco Javier Artazkoz Urdinola (Oñati, 1855-1908) Maria Luisa Labayenekin ezkondu zenean 1882an, Donostiarako errepidea, Herrera eta por-



BIDEBIETA

Bidebieta.

tuaren artean zeuden Altzako Benta goya eta Benta bea etxeak eman zizkion amak. Oñatiarrak, ondoan zegoen Bidebieta baserria erositako, 1888rako izen bereko txalet izugarria eraikia zuen eta lursail haietan sekulako lorategia sortu zuen.

Francisco Javierrek eta Maria Luisak alaba bakarra izan zuten, Ana Maria Artazkoz Labayen.



Pedro Mtz. de Irujo eta Ana Mª Artazkoz, Bidebietan.

Altzako Bidebieta jauregian jaio zen 1892an eta 1910ean Pedro Martinez de Irujorekin ezkondu zen, Sotomayorreko dukearekin. Kasualitatez senarrak ere beste jauregi bat zuen Donostian, haren aitak ere 1881 aldera eraikia Arbaizenea baserriaren gainean eta izen horrekin ezagutzen dena.

Pedro Martinez de Irujok eta Ana Maria Artazkozek hamar seme-alaba izan zituzten. Hirugarrenak, Ignacio Martinez de Irujo Artazkozek, duke titulua jaso zuen; gaur egun haren



Arbaizenea.

semeak, Carlos Martinez de Irujo Crespok, darama. Ana Mariak garai hartan Oiartzungo ondasun guztiak saldu zituen, tartean Urdinolazar Egiatarrei eta Urdinola Angel Arizmendiri, eta 1930ean, berrogeita bi urte baino ez zituela, hil egin zen. Senarrak, berriz, 1932an Bidebieta Orereta-Errenterian bizi zen Lazkaoko Gaiztarro arkitektoari eman zion Madrilgo etxe batzuen truke. Seigarren semea, Luis Martinez de Irujo, 1947an Cayetana Fitz-James Stuartekin ezkondu zenean, Arbaizenea heredatu zuen eta gaur egun haien semearena da, Cayetano Martinez de Irujorena.



GAIZTARRO BORBON-PARMA MONZON

Gaiztarro, Javier de Borbon eta Parma Monzon.

Fausto Gaiztarro Bidebietako jauregian bizi izan zen, eta Altzako Historia Mintegiko Ion Urrestarazuk kontatzen du, gerra aurretik arkitekto karlistak Bidebieta jauregian karlismoaren elitea bildu zuela Frente Popularraren kontra zer edo zer egiteko asmoarekin, tartean Javier Borbon-Parma eta Monzon zeudelarik, gero bide antagonikoak hartu bazituzten ere. 1963an, berriz, Donostiako udalak Gaiztarrok berak egindako proiektua

onartu zuen eta 1977an jauregia bota ondoren, gaur egun ezagutzen dugun Bidebieta etxadia eraiki zuten. Etxadi garesti horretan, zuhaitz eta berdegune dezente errespetatu zituzten, inguruan egiten ziren eraikuntzetan pentsaezina zena.

Bukatzeko esan liteke, aipatu ditugun Arbide, Urdinola eta Artazkoz familien abizenak desagertzen joan zirela poliki-poliki, besteak beste, gizonezko segidarik ez zutelako izan. Hala ere, egia da izan zuten anbizioagatik eta bultzatu zituzten ezkontzengatik lortu zutela “Espainiako Handien” artean txoko bat egitea, baina handitasun horretan urtu ziren eta haien zuhaitz genealogiko amaigabeetako katebegi galduak izaten bukatu dute.

Dena dela, gure historiaren zati bat direnez, us-te dugu merezi duela udalaren biltegian dagoen Ignacio Maria Urdinola Arbideren panteoiaren frontisa Arizmendienea lorategiko txoko batean jartzea. Azken finean, haren bizileku izan zen eta iruditzen zaigu dokumentu grafiko bikaina dela, harrian zizelkatuta dauden bi abizenetan baita-go etxearen historiaren erdia.

Joxemari Iturrioz


KATTIN TXIKIREN ERREPORTAJEA

Isiltasuna apurtzen

Urte esanguratsuak izan dira 2023a eta 2024a, ez soilik Kattin Txiki taldearentzat, baita osatzen dugun taldekide, familia, ezagun nahiz herritarrentzat ere. Erreportaje honetan errepasso bat egitea dugu helburu, gure ikertze lanak hasi zirenetik oraingo egoera arte, fruituak jasotzen hasi besterik ez baikara egin.

Izan ere, jakina zen Oiartzungo hilerrian Peña Gantxegiren eskulturaren babespean,

hainbat gorpuzki zeudela pilaturik. Pertsona horiek urteetan zehar hainbat txokotatik ekarriak izan ziren: 1977an hilerri zaharretik, 1965ean eta 2000. urtean Irigorriko kanposantutik, 1940an Ergoingo *pareta beltzetik*... hala ere gehienbat 1936tik aurrera Antiguako espetxetik ekarri eta hilerriko paretaren aurka tirokatuz hil zituztenak topatzen ditugu gorpuzkien artean. Guztiak, eskulturaren babespean metaturik.



Oroimenaren frontoia eskultura, Oiartzungo hilerrian.

Gauzak horrela, zientziak eskaintzen dizkigun baliabideetatik tiraka, zulo horretan zeudenen izen-abizenak lortzeko helburuz ekin genion ikerketari. Ondorioz, 2020. urtean, Kattin Txiki elkarteak, hilerrian egon zitezkeen gorpuzkien senitartekoekin bildu eta eskaera bat egin zion

Oiartzungo Udalari: Aranzadi eta Gogora institutukoekin batera koordinatuz, aurkitutako hezur guztien katalogazio prozedurari ekiteko. Bide horretan, senitartekoak bildu eta ADN laginak atera genituen. Gipuzkoako hainbat herritatik etorri ziren senitartekoak laginak ematera, izan ere, Oiar-

tzunen ia 110 fusilatu izan ziren hilerriko paretan. Oiartzuarren artean, 5 familiak eman zituzten laginak. Besteak beste, hainbeste pertsona desagerturen artean, hilerrian lurperatu zituztenen erreloak edo susmoak besterik ez ditugu, eta euren artean hauek izan daitezke:

FRANCISCA ZAITEGUI ZEZIAGA (ARRASATE)

JOSE MARI ETXEBERRIA BERRA (OIARTZUN)

CELESTINO GAZTELUMENDI BERASATEGI (OIARTZUN)

BAUTISTA ALDAI MITXELENA (OIARTZUN)

PATXI ZALAKAIN DORRONSORO (OIARTZUN)

JULIAN LEKUONA ETXEBAGUREN (OIARTZUN)

FELIX GOIA URBIETA (OIARTZUN)

FELIX ELGARRESTA (ERREENTERIA)

FLORENCIA OLAZAGOITIA ZEZIAGA (ARRASATE)

GREGORIO SANTIAGO AZPIAZU (ARRASATE)

FAUSTINO GARITANO ASKASIBAR (ARRASATE)

Aranzadik, 2021. urtean, hezurak atera zituen eta banan-banan sailkatzen hasi zen hilerrian bertan. Femurrak batu eta laginak atera ondoren genetista ikerlariei bidali zitzairen ADN materiala lortu zezaten. Hezur asko, denbora eta lurraren azidotasunaren eraginez, egoera txarrean zeuden: ustelduak, xehatuak... eta horiek denak aztertu ondoren, hauek izan ziren ikerketaren ondorioak: 27 femur egoera onean (27 pertsonarenak), horietatik 8 emakumeenak. Beste hezur asko ere topatu ziren baina egoera txarrean, ondorioz zaila izan da pertsona gehiago zenbatzea.



Aranzadi elkartekoak, hilerriko femur eta beste hezurak ordenatzen eta ikertzen.

Ikerlan zaila izan da eta emaitzak ez ziren erraz etorri. 2023an izan dugu lehen emaitza esanguratsua: Hipolito Berasategi. Bere alaba den Pepi Berasategi oso garrantzitsua izan da ikerketa gauzatu ahal izateko, ADN frogak baieztatu baitzuen bere aita, 1936ko azaroaren 7tik desagertua ze-


goena, Oiartzungo hilerrian desagerrarazi zutela. Abenduaren 1ean egin genion omenaldia Hipolitori herriko hilerrian, bere hezurak Aranzadi elkarteari entregatuz eta abenduaren 9an Donostiako Udalean egin zitzaion ekitaldian ere egon ginen Pepi Berasategi eta bere biloba den Adur Tolosa

gaztearekin. Abenduaren 18an izan genituen bisitan Pepi eta senitartekoak oroimenaren frontoia-
ren gerizpean. Bere aitaren gorpuzkiak urte luzez
Oartzungo herriak non gorde zituen erakutsi ge-
nien. Orain, 87ren urte ondoren, ziklo bat ixtea

lortu dutela dio Pepik eta geroztik egunero hitz
egiten diola aitari.

Kattin Txikiren izenean, bertso hau kantatu
zuen 18ko omenaldian Kaxka taldekideak:

*Gure herrian atsedean hartuz
hil zuten egun hartatik
zure aitatzko hor azaldu da
hezur guztien artetik.
Jasota egon diren lekutik
hil zuten herri bertatik
zorion asko zuretzat pepi
oiartzuarron partetik.*



Hipolito Berasateguiaren hezurak eta argazkia.

Hala eta guztiz ere gure lana ez da eten eta bi-
laketak bere horretan jarraitzen du. Pertsona as-
ko daude identifikatu gabe eta denborari aurre
egiten gabiltza.

Azken ikerketan Ergoingo *pareta beltzean*
fusilatu zituzten 8 trabajadoreen familiak to-
patzen gabiltza Espainiako Estatu osoa. Ustez,
fusilatu ondoren, hilerrira eraman zituzten eta
bertan beste gorpuzkiekin batera lurperatu.
Herritarren testigantzari esker, fusilatu horien
Acta de Defunción aztertu eta 8 esklabu-langile
horien izen-abizen, adina eta jaioterrria ezagu-
tzea lortu dugu. Orain familiakoak aurkitzeko
lanean gabiltza, estatuko beste lurraldeetako
historialari, ikerlari eta interesa duten jendea-
ren laguntzarekin.

2024 hasieran izan genuen lehen familiaren
berri: Manuel Baucells Solaren familiaren berri
hain zuzen. Bartzelonako familia jarri zen gu-
rekin harremanetan eta interes osoa erakutsi
zuten aitonaaren aurkikuntzaren berri gehiago
izateko. 2024ko otsailaren 17an egin genuen
trabajadoreen barrakoiaren inaugurazioa Arka-
len. Familia gonbidatu genuen eta Oartzunera

etorri ziren aitonaaren azken urteak non eta zer-
tan pasa zituen ikusi eta ezagutzera.

Izan ere, Gerra 1939an amaitutzat eman eta
gutxira Franco diktadoreak Pirinioak gotortzeko
planari ekin zion (*Linea P* deitu zitzaion). Ho-
rretarako gotortze lanei ekin zieten, eta 1942
arte iraun zuten. Lan horietako eskulana noski
bando frankistak preso zituen milaka lagunek
egin behar izan zuten egoera bortitz eta mutu-
rreko baldintzetan. Errepublikaren alde aritu
ziren gatibu horiek Espainiako Estatutik Oar-
soaldean osatzen duten herritara ekarri zituzten
lan behartuak egitera. Horretaz gain baditugu
ere hainbat euskaldunen izenak; besteak beste,
Guillermo Aizpuru, Luziano Aristizabal *Arkale*,
Luis Ortiz Alfau, Jesus Elozegi eta Iñaki Eizmen-
di *Basarri* bertsolaria bera ere. Besteren artean,
meategiak ustiatzeko, errepideak egiteko (Oar-
soaldean bereziki errepideak, Jaizkibel ere tes-
tigu), zubiak eraikitzeko, bunker eta defentsa
gotorlekuak eraikitzeko, basotze lanak egiteko
eta beste hainbat zereginetarako erabili zituzten
langile haiek. Eskualdean guztira 12.500 trabaja-
dore inguru aritu ziren lanetan, eta horren laur-
dena Oartzunen (3.000 inguru).

Oiartzunen trabajadore bataloiak 3 kanpamentu bereizi zituzten. Gurutze auzoan kokaturik zeuden “Babilonia” eta “Arkale” eta Ergoingo “Aritxulegi”. Errepide taktiko gisa egiten aritu ziren Gurutzetik Lanbarrenera doan bidea, Sistiagatik Aiako Harrian barrena Erlaitzera doana eta Ergoingo auzotik Lesakara doan bide eta tunelak. Gaur egun herritarrok erabiltzen ditugunak.

Indar lana itzela zen, elikadura eskasa eta diziplina gogorra: ogi gutxi eta makilakada asko. Oiartzungo Learren ezarri zuten Ospitaletik langile asko pasa ziren, eta askok heriotza zigorra ere izan zuten. Horren testigu kide baten ihesaldiaren ondoren fusilatu zituzten 8 trabajadore hauek.



Arkaleko barrakoa, 8 trabajadoreak omentzen dituzten 8 pikotxak dituelarik aurrean.

1940ko otsailaren 12an erail zituzten:

ANTONIO LOPEZ DE DIOS
(1905-1940, 35 urte) Xixona, Alacant.

ANTONIO LOPEZ FERNANDEZ
(1907-1940, 33 urte) Manzanares, Ciudad Real.

FELIPE LEDESMA CANO (1905-1940, 35 urte)
Esparragosa de Lares, Badajoz.

FRANCISCO MURILLO DÁVILA (1905-1940,
35 urte) Quintana de la Serena, Badajoz.

JOSE SANCHEZ MOLERO
(1904- 1940, 36 urte) Peñarroya, Kordoba.

JOSE SIRERA INZA (1913-1940, 27 urte)
Beneixama, Alacant.

MANUEL BAUCELLS SOLA
(1897-1940, 43 urte) Taradell, Barcelona.

MARIANO CALVO HERRADOR (1913-1940,
27 urte) Peñarroya-Pueblonuevo, Kordoba.

“Egia jakin nahi dugu behingoz, argitara ateratzea. Baita estalitako hobi horiek guztiak argitara ateratzea eta isiltasun eta iluntasun honekin eta pilatutako min honekin amaitzea”.

Bea Baucells, Manuel Baucells Solaren biloba.

*Ramon eta Lur Gaztelumendi,
Kattin Txiki*

BELOAGA GAZTELUAREN INAUGURAZIOA

Beloagako lanak luze samar joan dira, baina, egia esan, gazteluak arrakasta handia izan du paretan zaharrak agerian utzi genituen momentutik eta, batez ere, 2012an, Nafarroako konkistaren bosgarren mendeurrenean, jarri genuen banderari esker, ikurrak jende asko erakarri baitu. Dena dela, berehala konturatu ginen urte horietako konponketak baino garrantzitsuagoa zela gazteluaren historia, eta uste dugu lortu dugula natura hutsa ikusten zen tokian historia berreskuratzea, ezkutatu diguten historia, hain zuzen ere, historia horrek erakusten baitigu nondik gazozen eta zer izan ginen.



Izan ere, Beloaga Nafarroako Erresuman sortu zen X. edo XI. mende inguruan, hau da, estatu askea ginenean. Gero, Radako Ximenezen kronikek erakusten digute 1200ean Gaztelak Nafarroaren mendebaldea konkistatu zuela eta harekin batera Beloaga. 1366an, ordea, berriro bat egin genuen Nafarroarekin, Libourneko hitzarmena zela medio, batasun horrek urte gutxi iraun arren. Aipatzekoa da batasunaren eragileetako bat Altzibarko Ayero Huarte izan zela. Eta suntsitu ere 1516 aldera suntsitu zuten Beloaga, Nafarroako beste gazteluekin batera. Beraz, ikusten duzueenez, gazteluaren esentzia nafarra da, nahiz eta Gaztelaren menpean egon zen mendeetan ere dokumentazio aberatsa izan.

Garai modernoan, berriz, azken karlistaldian, Erdi Aroko harresi erorien babespean, liberalek gotorleku txiki bat altxatu zuten Beloagan eta

une batean karlistek hartu bazuten ere, azkenean liberalek berreskuratzea lortu zuten. Dena dela, egitura gehienak egurrez egina zeuden eta azkar desagertu ziren.

Beloagaren historiak duen garrantziaz jabetuta, pentsatu genuen gaztelua berreskuratzea egin behar zela. Egia esan, guregatik balitz, gaztelua berriro altxatuko genuen, baina zoritxarrez eraikina nolako zen jakin gabe ez dizute uzten horrelakorik egiten, eta jakinda ere, nahiko lan. Gainera, udaletxea krisi ekonomiko larrian zegoenean iritsi ginen. Hala ere, azkenean, lor-



2014ko ekaina.

tu genuen Aranzadik proiektu bat idaztea eta Udalak ordaintzea. Proiektuan dorreko hormak iparraldeko hormaren kotaraino altxatzea aurreikusten zen eta hormak kontsolidatu ondoren bi eskailera jarriko ziren eta dorrean plataforma bat. Horrela, bada, proiektua hor zegoen, baina dirurik ez egiteko.

2013ko irailean, Aranzadik Idatzi zuen proiektuari bultzada bat emateko Beloaga Bizirik Elkartea Kulturala sortu genuen eta bazkide bila

hasi ginen. Denbora gutxian 400 bazkide lortu genituen hamarna euro kobratuz, Beloagaren inguruko informazioaren truke. Horrez gain, dirulaguntzak errazago lortuko genituelakoan, 2014ko urtarrilean gazteluaz zegoen dokumentazio guztia bildu, Gasteizera eraman eta Eusko Jaurlaritzan Monumentu Historiko izendatzea eskatu genuen. Izendapen horrekin Beloaga mapan kokatu genuen eta jendeari ezagutarazi genion, gaztelua ordura arte Aranzadiren txostenetan edo liburu zaharretan bakarrik agertzen baitzen.



2016ko iraila.

2014ko martxoan Aldundiarekin bildu ginen eta ados agertu zen udalak jartzen zuen diru kopuru berbera jartzeko. Beraz, dirulaguntza horrekin eta bazkideak eginez lortu genuenarekin dorreko paretak konpontzeko prest ginen.

Hasteko, udalak utzi zigun garabia igo genuen eta tirolina ere jarri genuen harriak eta morteroa igotzeko. Eta geneukan hormigoi makina bat eta mila litroko bi bidoi igo genituen tirolina aprobetxatuz. Ekainean dorrearen hegoaldeko horma konpontzen hasi ginen. Arriskutsua zen, oso kaltetua zegoen horma bertikal batean egin behar baitzen lana. Halere, lan bikaina egin genuen, batez ere zintzilik aritu ziren Aranzadiko bi teknikoek, baina horma uste baino kaltetuago zegoen, zulo eta zirrikitu izugarriak baitzituen. Eta azkenean, han joan ziren Aranzadik dorrea konpontzeko aurreikusi zituen diru guztiak. Beraz, kanpaina bukatu zen eta hormak altxa gabe jarraitzen zuten.

Egia esan, Arkalen egin diren obrek dezente iraun dute eta ibilbide korapilotsu samarra izan dute zenbaitetan. Izan ere, eragile askok hartzen zuten parte: Oiarzungo Udalak, Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Aranzadik eta Beloaga Bizirik

Elkarteak. 2015a, esaterako, bileretan joan zitzaigun. Aranzadiren ustez dorrearen kontsolidazioa bukatzeko beste hainbeste gastatu behar zen, baina horretarako aurreko kanpaina justifikatu behar zuen memoria batekin eta kontu hori asko luzatu zen. Gu, berriz, proiektu integralagoa eskatzen hasi ginen, hau da, dorre azpiko sektorea ere kontuan hartzea nahi genuen eta, 2012ko indusketan gazteluaren atea agertu zenez, sarbidea handik izatea nahi genuen, ez harresitik. Aldundiko arkeologoari jakinarazi genionean gure nahia ongi iruditu zitzaion; esan zigun ez zegoela arazorik beheko sektorea konpontzeko ezta sarrera atetik egiteko ere. Baina azkenean ez zen dirulaguntzarik eskatu hainbat arazo tekniko zirela eta.

Urrian bilera izan genuen udalbatza berriarekin eta ados agertu ziren proiektu integralarekin. 2016ko otsailean Aranzadi Aldundiarekin bildu zen eta hor ere ados geratu ziren proiektu integrala idazteko. Aranzadik, ordea, aitzakiak erabili zituen proiektu zaharreko sarbidea ez aldatzeko eta azkenean harresitik sartzea onartu zen.

Martxoan Jaurlaritzak Monumentu Historiko deklaratu zuen Beloaga, baina ez zuen sosik jarri azken fasea egiteko. Argudio moduan esan zuten ez zitzaiela gustatu nola ari ginen konpontzen, ezta proiektua bera ere eta, gainera, esan zuten ez genituela kontuan hartu gerrako bunkerrak. Baina hilabete batzuk lehenago Beloaga bisitatzera etorri zirenean, ez zuten ongi hartu Aldundiak ezer komunikatu gabe obretan hasiak ginela ikustea.

Hilabeteak aurrera zihoazen eta harriak eta morteroa igotzeko baimena ekainaren 23an eman ziguten. Dirulaguntza ere uztailearen 28an iritsi zen; obra, bada, oporren bueltan egin beharko zen. Materiala igo genuen, baina gero langileen azterketa medikuak zirela eta segurtasunaren inguruko ikastaroa egin behar zutela, azkenean azaroaren 24an hasi ziren lanean.

Abendua joan zen eta hilarekin batera langileak. Dorreak, berriz, bukatu gabe jarraitzen zuenez, guk hartu genuen erreleboa, musu truk, noski, aurrekontutik morteroa erosteko bakarrik geratzen zen eta. Dorrea 2017ko martxoaren 11rako bukatu genuen eta dorre azpiko harresiak ekainaren 10erako. Baina hemen beste traba luze bat sortu zen. Izan ere, proiektuaren



Dorraa bukatu genuen eguneko. 2017-03-11.

arabera, beheko hormak kontsolidatu baino ez ziren egin behar eta guk pixka bat altxa genituen. Beraz, hormen altxatze hori justifikatu arte ez zegoen obra bukaera sinatzerik.

Ez dakigu pandemiak eragin handia izan zuen kontu horretan, baina bi urte luze pasa ziren Aranzadik aldaketa hori justifikatzen zuen txostena betetzeko. Guk, berriz, ongi aprobetxatu genuen pandemia garaia, gaztelurako bide berria orduan egin genuen eta.

Azkenean, Aranzadiren txostena onartuta eta kontsolidazio obren amaiera sinatuta, udalak bere gain hartu zuen azken fasearen kostu guztia eta iazko maiatzean bukatu zituen enpresa batek eskailerak, pasarelak eta plataforma.

Zaila da, benetan, gauzak denen gustura egitea eta badago Arkalari xarma guztia kendu diogula pentsatzen duenik. Guk ere beste gauza bat genuen buruan, baina adostu zena onartu behar. Eta, egia esan, hainbesteren artean ados jartzea ez da batere erraza, batez ere administrazio munduan esperientzia handirik ez duzunean eta helburuak ezberdinak direnean. Udalaren lehentasuna segurtasuna zen, gurea gaztelua ahalik eta gehien berreskuratzea, Aldundiko azken arkeologoarena, berriz, ahalik eta gutxien aldatzea...

Guk ere ez genuen asmatu proiektua Gurutze auzora zabaltzeko orduan. Nahiko lan genuen hainbeste bilerarekin eta ez genuen auzolana kudeatzen jakin. Beharbada, Bizardia elkartearen bilera batzuk egin bagenu guztiaren berri emanez, jende gehiago erakarriko genuen eta proiektua parte hartzaileago izango zen. Dena dela, esan behar da hurbildu nahi izan zuenak ateari irekiak izan zituela.



Beraz, artikulua aprobetxatu nahi dugu eskerrak emateko, bereziki, Gurutzeko Xabier Aristizabali eta Joxe Leon eta Fausto Kazaboni, traktoreekin morteroa garabiaren saskiraino igotzeagatik; kontuan hartu denera 2.826 zaku igo zirela. Jabier Diezi, Lurdes Huarteri, Garbiñe Bengoetxeari, Esteban Letamendiri, Araitz Olaizi eta Martin Otazuri hainbeste harri eta bestelako materiala kargatzen laguntzeagatik. Andoni Iturriotzi, Jon Bengoetxeari, Mikel Perezi eta haien lagunei, besteak beste, morteroa dorreraino igotzeagatik, baita Jon Aldaiari ere hainbat pieza berreskuratzen laguntzeagatik. Eta, noski, Beloaga Bizirik Elkartekoei, bakoitzak ahal izan duen neurrian laguntzeagatik, hau da, Joxe Etxezurietari, Iñigo Bengoetxeari, Joxemari Iturriotzi, Eduardo Etxeberriari, Inaxio Zabalzari, Ixiar Gallardiri, Josemari Arzelusi eta Patxi Arozamenari.

Esan bezala, gazteluko obraren azken fasea 2023ko maiatzean bukatu zen. Obra horrekin irisgarritasuna errazten da eskaileren bitartez, adineko jendea ere gaztelura iritsi ahal izateko, nahiz eta bidearen azken zatiak konponketaren bat behar duen. Barandek eta pasabideek, berriz, segurtasuna bermatzen dute, jendea amildegitik urrunduz. Eta, iritziak iritzi, uste dugu jende askori gustatu zaiola egindakoa eta Arkalek, kokapen estrategikoagatik edo, leku magikoa izaten jarraitzen duela.

Baina obraren bukaera udal hauteskundeekin batera gertatu zenez, ezin izan zen inauguratu, hauteskundeetan edozein inaugurazio propaganda moduan hartzen da eta. Udaltzatza berria martxan jarri zenerako, EAEko eta Europako hauteskundeak ate joka genituen eta dena bertan behera utzi beharra zegoen, ekainaren bederatzia arte. Eta handik aurrera auzoko jaiak hasten zirenez, inaugurazioa irailera atzeratzea erabaki zen.



2023ko ekaina.

Inaugurazioa, beraz, irailaren 14an izango da eta ordurako seinaleak jarriak egongo dira, bisitatu daitezkeen lau eremuetara erraz iristeko, hau da, erromatarren garaiko hilarria, gaztelu-
ra, bunkerretara eta barrakoiara.

Etor zaitezte, bada, beldurrik gabe Arkalera, Begoña Yuguero arkitekto eta arkeologoak esaten zuen moduan, han gure ADN guztiarekin egingo baituzue topo: gazteluaren ibilbidean Anderregiko hilarria aurkituko duzue, erromatarren garaiko hilarri baskoi baten kopia. Kaskoan historia luzea duten Erdi Aroko gazteluaren hormak topatuko dituzue, eta jarri diren panoramikei esker ikuspegi eder horretan dauden mendien izenak identifikatuko dituzue, baita bertatik ikusten zituzten gazteluak ere. Harresietan, berriaz, azken karlistaldian liberalek eraikitako gotorlekuaren aztarnak ere ikus daitezke eta gazteluaren azpian 1936ko gerra bukatu ondoren, preso errepublikarrei eraikiarazi zizkieten bun-

kerrak bisitatu daitezke. Eta beheraxeago, preso horien bizileku izan zen barrakoi baten erreplika ikusiko duzue, Kattin Ttiki taldeak bultzatuta eraiki dutena. Beraz, inguru hori ezagutzen ez baduzue, etorri nahi duzuenean, Arkalen badago zer ikusia eta.

Informazio gehiago auzoko plazan dagoen panelean aurkituko duzue, eta bertan agertu den materiala ikusi nahi izanez gero:

<https://sites.google.com/site/beloagagaztelua>

Beloaga Bizirik

seme- ala bak



Fidela Zalakain Salaberria



**Oiartzungo
udaletxeko
langilea izan
zen 60 urtez
eta herritar
askorentzat
ezinbesteko
laguntzailea.**

Fidela Oiartzunen jaio zen 1904ko apirilaren 24an eta bertan bizi izan zen 1999ko abuztuaren 15ean hil zen arte. 95 urte zituen.

Aita Pedro Zalakain Larramendi izan zen, 1870eko azaroaren 25ean jaioa. Ama, Carmen Hermogenes Salaberria Echeberria, 1872ko apirilaren 9an jaio zen. Biak ziren oirtzuarrak. 1891ko azaroaren 25ean ezkondu ziren eta 11 seme-alaba izan zituzten. Fidela zazpigarrena.

Fidela ezkongabea zen. Jaiotetxean bizi izan zen Dorotea, Pepita eta Inazio senideekin eta, behin Inazio ezkondu, Juli Bergaretxe koinata-rekin. Doroteak alpagatak egiten zituen etxean,

Pedro Zalakain eta Carmen Salaberriren
seme-alabak

1. Carmen Petra Stilita 1892-12-17
2. Josefa Joaquina Faustina 1894-2-15
3. Tomas Carmelo Esteban 1896-2-7 (1899-5-17)
4. Joaquina Josefa Maria Mercedes 1897-9-23
5. Dorotea Bruna Fernanda 1899-5-29
6. Maria Martina Barbara 1901-12-4
7. Fidela Sebastiana 1904-4-24
8. Ignacio Carmelo Gregorio 1908-3-11
9. Ignacio Angel 1910-10-27
10. Maria Natividad 1913-9-8
11. Maria Mercedes 1913-9-8. Bikiak

BERE GAIN ZEUDEN BETEBEHARRAK:

- Kintak. Soldaduskako espediente guztiak

- Jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen espedienteak egitea. (Soldaduskara joan behar zuena herritik kanpo bizi bazen, bilatzen zituen topatu arte. Ikerketa lan handia egiten zuten)

- Katastroa. Herriko lur-sailak, mugak, jabetzak, eta abar kontrolatzea. (Fitxetan bilduta izaten zituen)

Udaletxean lanean hasi zenean prestaketa handirik gabe hasiko zen eta gero, ("pizkorra izaki") urteen poderioz trebatu eta ezagutza handia lortu zuen. Urte askoren buruan herriko bizitzaren berri sakona zuela esaten dute bere garaian ezagutu zutenek. "Herri guztia ezagutzen zuten, lekuak, baserri eta baserritarrak, familiak, harremanak, arazoak, etxe barruko egoerak... dena. Ezagutu eta gogoratu, aparteko memoria baitzeukan". Herriko gertakarien artxibo bizia deitzen zioten, pentsa!. Tramiteen kontrola eramaten zuten eta bera arduratzen zen, paperen bat falta bazen edo, jendeari abisatzeaz. Tartean izan ziren soldaduskatik libratzeko aukera izan zutenak ere.

extra EL PLENO de este Ayuntamiento en su sesión ordinaria correspondiente al día 20 de Octubre 1978 adoptó entre otros el siguiente

acuerdo:
 "A propuesta del Sr. Alcalde, el Pleno del Ayuntamiento, acuerda se solicite la medalla de Trabajo a Dña. Fidela Zalacain, que ha desempeñado el cargo de Auxiliar Administrativo en este Ayuntamiento durante un período de 52 años, habiendo demostrado en todo momento, un gran celo, competencia y cariño en el desempeño de la misión encomendada."

Lo que traslado a Vd. para su conocimiento y efectos; significándole que contra dicho acuerdo puede interponer los siguientes recursos:

Dios guarde a Vd. muchos años.
 Oyarzun, a 20 de Octubre de 1978



EL ALCALDE,


Recibi copia del presente, Oyarzun, a 11 de octubre de 1978

Fidela Zalacain. Langile domina eskatzeko udal akordioa. 78-10-20.

Inaziok, bera bezala, udaletxean egiten zuten lan. Juli koinatak ohial-denda zuten eta etxeko lanetan gehiago aritzen zena Pepita zen.

Eskola kontuetan, pentsa daiteke Barandiaranen zegoen eskolara joango zela (orain Ibergain den etxe horretan), bere garaiko kaleko nesken modura. "Angleteko frantsesak" deituriko mojak ziren eskola ematen zutenak. Frantziako Iraulzaren garaian kanporatu egin zituzten eta Oiarzunen finkatu zuten bizilekua, berriro Frantziara itzuli arte.

Fidela emakume herrikoia izan zen eta herritar askorentzat ezinbesteko laguntzailea. Oiarzungen udaletxean egiten zuten lan. Hogeita bi urterekin hasi zen lanean, anaia idazkaria zen udaletxe berean. 65 urte bete zituenean jarraitzeko eskatu zioten nonbait eta bertan jardun zuten 1986an 82 urterekin erretiroa hartu edo harrarazi zioten arte. Guztira 60 urte eman zituen udaletxean.

Herritarren arazo konpontzaile, tramite bideratzaile eta laguntzaile izugarria izan zen bere bizitza osoan. Udaletxera etortzen ziren guztiak ongi hartuak izaten ziren, arreta ezin hobea jasotzen zutelarik harengandik. Entzun egiten zien eta konpondu. Eta ez barruko tramiteak bakarrik. Kasu askotan, Udalarekin zerikusirik ez zuten gestio asko eta askotan laguntzen zien, mediku espezialista bati deitzeko bazen ere. Baserritarrak-eta ehundalako konfidantza izaten omen zuten beregan, askotan ireki gabeko kartak ere berari ematen omen zizkioten irakurtzeko eta zer esaten zuten jakiteko. Bere lankide izandako batek hala zioen: "Udaletxera etortzen ziren herritar guztiek Fidelarekin nahi izaten zuten". Herritarren estimua bazuen, bai, eta nolabaiteko estatusa zer esanik ez. "Oiarzun guztiarekin konfiantza bazuen. Pertsona ona, atsegina. Denei arreta ona eskaintzen zien. Jendearekin ongi eramaten zen. "Psikologo", "apaiz", "asistente sozial", "notario"... paper guztiak bereganatuak zituen". Etxera ere jende asko joaten omen zitzaion laguntza eske, gestoria balitz bezala.



Fidela lankideekin. 1982ko urria.

Bere lankide izandakoek ez dute gogoratzen bajarik hartu bazuen, bai ordea, egunero aspirina hartuta hasten zuela eguna eta bere esanetan, horri esker, sano. Oporrik hartu zuenik ere ez dute gogoratzen. Ezkontzaren batera-edo joan behar bazuen, lehendabizi lanera. Horrelakoxe langilea omen zen.

Lanerako ordutegi malgua izaten zuen non-bait. Besteek baino beranduago sartzen zen eta beranduago irten. Arratsaldeetan lanera joateko ez zuen kupidarik izaten. Udaletxera joan aurretik, Errandoneako okindegi/ardandegiko kontabilitatea egitera joaten zen goizetan, bertan gosaltzen zuelarik. Manolo Mitxelena "Axeia" bertako langilea zen eta berak esanda dakigu nola arratsaldean berriro itzultzen zen lanera Fidela, egunez ogi partitzen-eta ibiltzen zirenen errekaudazioa egin eta fitxetan txukun jasotzeko.

FIDELAREN GARAIKO UDALETXEA

1926an Oiartzungo udaletxean langile gutxi aritzen ziren. Fidelaren lehenengo urteetan Maria Pilar Ganzarain, Julita Elizegi, Maria Teresa Ganzarain, Antonio Ollakindia eta Emilio Hernandez zeuden bulegoetan. 1978an oraindik orotara 15 lagunek egiten zuten lan, bulegoa eta udaltzaintzakoak batuta. Ez zegoen brigadarik, hortik ateratu kontuak! 1981. urtean izan zuten lehenengo

lan-hitzarmena. Ordura arte modu arbitrarioan funtzionatzen zuten, idazkariaren baitan egoten baitzen bakoitzaren soldata eta lan-baldintzak. Emakume langileentzat ere ez zen giro, izan ere garai haietan behin ezkontuta funtzionario izateari utzi behar izaten zioten emakumeek, legeak debekatu egiten zuelako.¹

Udaletxean 60 urtez lanean aritu ondoren izan zuten hainbat lankide, alkate eta idazkari ezagutzeko parada. Kontuak ateratzen hasita:

ALKATEAK:

- Pedro Arbide Martiarena (1926-28)
- Ignazio Aginagalde Agirretxe (1928-30)
- Sekundino Errandonea Penin (1930-32)
- Manuel Baraibar Agirre (1933)
- Marzelino Barrio Rodriguez (1932-33)
- Feliziano Beldarrain Agirre (1933-36)

¹ "Bajo las prescripciones del entonces ministro de Trabajo, J.M. Girón, en los Reglamentos Nacionales de Trabajo del 27-12-1939 la mujer debe cesar en su trabajo al casarse" <http://www.ub.edu/ciudadania/hipertexto/evolucion/trabajos/9900/2/herencfuero.htm>



Fidela Zalakain, familiarekin, omenaldi egunean. 78-11-19.

- Jose Maria Errandonea Zalakain (1938)
- Jose Aizarna Aizpitarte (1938-42)
- Hilarion Sein Urbieta (1942-43)
- Martin Zalakain Egino (1943-50)
- Manuel Arbelaitz Urdanpileta (1950-66)
- Ramon Izagirre Iturain (1966-68)
- Jose Maria Egues Apeztegia (1968-74)
- Antonio Etxeberria Albisu (1974-75)
- Iñaki Aristizabal Iriarte (1975-79)
- Iñaki Irigoien Mitxelena (1979-87)

IDAZKARIAK:

- Ignacio Garcia Mantilla
- Inazio Zalakain, (anaia)²⁻³
- Francisco de Arakama
- Jose Luis Ruiz Moñux
- Edmundo Jesus Etxegoien Arteaga (Zumaiako Udaleko idazkaritzarekin partekatzen zuen)
- Jesus Galan.

² 1941tik 1969ra. Lehendik bertako langilea (1923-41)

³ Bera izan zen idazkari euskaldun bakarra.



Fidela Zalakain, familiarekin omenaldi egunean. 78-11-19.

“LANAREN DOMINA” ESKAERA ETA HERRI OMENALDIA

Udalak 1978ko urriaren 20ko bilkuran hartu zuen Fidelari “Lanaren Domina” eskatzeko erabakia, honako arrazoi hauek tarteko: “Udal honetan 52 urtez administrari-laguntzaile kargua bete duela, eta une oro ardura, gaitasun eta maitasun handia erakutsi duela agindutako eginkizuna betetzeko.” Fidelak 74 urte zituen orduan.

1978ko azaroaren 19an herritarren omenaldia jaso zuen. *Oiartzun* 1979 urtekariko 113. or. jaso zena errepikatuz, hauxe izan zen omenaldi eguneko egitaraua:

- Goizeko 09:00etan Lartaungo txistularien goiz-eresti edo diana.

- Goizeko 11:00etan Meza nagusia abesbatzak kantatua. Herri eskaintza garaian Mitxelena eta Lizaso bertsolariek abestuko dute.

- Eguardiko 12:00etan Ttun-ttuna.

- Eguardiko 13:00etan Oiartzungo elizan Lar-taun abesbatzaren kontzertoa.

- Eguardiko 14:30ean anaiarteko bazkaria Beko plazako eskoletan.

Lizaso eta Mitxelena bertsolariak kantatutako bertsoak:

*Lehen Joan Marik ziyon bezela
ezer ez genakiela
gu zuregana joandakoan
lasaitzen giñaden bela
zure lanetan izana zera
zintzoa eta fiela
horregaitikan egun eder hau
eskeini zaizu Fidela.
(Koxme Lizaso)*

*Emakume bat izan zerade
gozua eta eztiva
zuri begira bat egon laike
bere begiyak bustiya
guri laguntzen eman bai dezu
kasikan zure biziya
gaurko egunakin ezlaike ordaindu
merezi dezun guziya.
(Joxe Joakin Mitxelena)*

*Egun on batez agertu ziñan
Jaunagandik Oyartzuna
goralmen eta hitz eder asko
nago zugaitik entzuna
zera andre bat txikienik
txarrak izandu etzuna
egun batekin ez da ordaintzen
zuk emen egin dezuna.
(Koxme Lizaso)*

*Zu bixitatu zaitunak orko
zenbait andre ta gizonez?
Aizu Fidela papela honek
zer diyo zuri esanez
da erantzuna lehengo paper zar
asko muituta emanez
egin dituzun lan guziyak hor
beti zure bihotz onez.
(Joxe Joakin Mitxelena)*

*Hamaika bider pasa geranik
estuasunan atian
ez giñan iñoiz gertatu izan
Fidela zure paltian
Jaunari eske bukatutzen det
holaxe izan gaitian
lantegi horri jarrai zaiozu
arnasa dezun artian.
(Koxme Lizaso)*

*Etxian ere bat dagonian
bere amatxoren jabe
amarengandik eskertu gabe
haurrak izaten dirade
konparaziyo batian hortxen
bereixtekua zerade
zu faltatutzen zeradenian
akordatuko gerade
(Joxe Joakin Mitxelena)*

Azken Oharra. Fidelaren bizitzari buruz ezer gutxi dago jaso. Hemen azaldutako istorioak bera ezagutu zuten herritar eta lankide ohien ahotik jasoak izan dira. Eskerrak eman behar dizkiet, beraz, laguntza emandako Marisol Puga Agirre eta Maria Teresa Ganzarain Hernandorena lankide izandakoei; Joxemari Mitxelena Kazabon *Axeia*, Pepita Arruti Mujika, Arantxa Lete

Bergaretxe eta Maria Jesus Aranburu Arbelaiz herritarrei eta udaleko artxiboko arduraduna den Koro Pascual Saletari.

Izaskun Madariaga Iragorri

Koikile Arruabarrena Lekuona



“Nire helburu nagusia familia giroa sortzea zen; gurasoek etxeko txikia nire eskuetan lasai utzi eta haurraren ongizatea bermatzea”

“Iturriozko hartzaindegia” izan zen lekuan egin dugu hitzordua, Gure-Ametsa etxeko lokalean. Ezin leku aproposagorik aurkitu jaso nahi ditugun pasadizoak jasotzeko. Emakume arduratsua da Koikile eta ideia garbikoa. Indartsua eta umila era berean. Txikitatik izan du argi haurrekin lana egingo zuela eta bizitzako bidezidorrek bide horretatik eraman dute, jubilatutako arte. Sentimenduz beteriko oroitzapenak borborka ateratzen zaizkio bata bestearen atzetik. Has gaitezen, bada, bere historia ezagutzen.

Kontatzen hasita, Koikile, goazen oinarrira: Egin iezaguzu zeure buruaren aurkezpena eta segidan zure familiarena.

Koikile Arruabarrena Lekuona naiz, Oiartzunen jaioa 1961ko urriaren 23an. Iturriotzen bizi naiz, aita eta bere anaien artean egindako sei bizitzako "Gure-Ametsa" etxean.

Gure aita Iñaki (Inazio) Arruabarrena Ansa izan zen, Iturriozko Juanene baserrikoa eta ama Jabiera Lekuona Arsuaga, Karrikako Borrondi baserrikoa. Aitaren etxean hamalau senide ziren eta amarenean, berriz, hamaika. Ez ziren oraingo garaia, bistan da; haietako batzuk haur edo nerabe zirela hil ziren, baina, edozein modutara, izugarri familia handiak biak ere.

Gure gurasoek sortutakoa, aldiz, txikiagoa izan da. Hiru seme-alaba izan zituzten, ni etxeko zaharrena. Gero jaio zen Mirari baina hilabete gutxi zituela hil egin zen eta ondoren etorriko zen etxeko txikiena, Xabier. Bi seme-alabako familia izan da gurea.



Guraso eta anaiarekin.

Familia txikia, baina esaten duzun kontuetan familia ugariaren parte zena. Pentsatzen dut familia maiz egongo zela presente, hainbeste izanda, handik edo hemendik beti hor, ezta?

Bai, beti. Txikitatik harreman handia izan dut bi familiekin, denbora luzea pasa dut bi familien goxotasunean, egia esan. Gainera, beti izan dugu elkartzeko ohitura, edozein gertaera nahikoa izaten zen denak elkartzeko. Festetan zer esanik ez. Karrikako festetan, Karrikan, Altzibarko festetan, Altzibarren, Iturriozkoetan, Iturriotzen... A ze mahaiak jartzen zirenak! eta gela batean kabitzen ez baziren, bitan banaturik. Gure gurasoengandik hasita, familian ez zen inoiz arazorik izaten, ez janariak prestatzeko ezta etxea hankaz gora jartzeko ere. Gero hainbeste izanda, seni-

deen arteko lanbide ugari zeuden eskura eta horrek ere areagotzen zuen familia-harremana. Berrirako geratzen diren bizipen goxoak dira horiek. Pena dut amaren aldeko aitona umetatik galdu izana, nik bost urte baintuen bera hil zenean eta ez nuen aukerarik izan besteak bezala bizitzeko.



Juaneneko familia.



Borrondiko familia.

Familiaz inguraturik hazi zinen bada. Nola gogoratzen duzu haurtzaroa eta eskola garaia?

Aitaren lana zela-eta, Zegamara joan behar izan genuen bizitzera. Nik bost bat urte izango nituen eta guztira bi baino gehiago ez genuen bertan igaro, baina han eskolatu behar izan nuen. Oso oroitzapen onak ditut bertakoak. Herriko eskola txiki bat zen eta haur gutxi ginen. Hango ipuinak, jolasak, mendi irteerak... Frankismoaren diktadura garaian egon arren oso giro euskalduna zegoen eta aukera izan nuen euskaraz aritzeko. Horrek asko lagundu zidan eskolara egokitzen. Gainera asteburuero Oiartzunera etortzen ginen eta erraza izan zen niretzat.

Gero behin Oiartzunera bueltatuta Iturriozko eskola publikoan jarraitu nuen, baina zeharo



Iturriozko eskolan.

eskola-giro desberdinean. Aldaketa handia izan zen niretzat eta ez nengoen gustura. Horrela, bada, gurasoak konbentzitu nituen nire lehengusu Arantxa joaten zen mojen eskolara joateko. Zazpi urterekin hasi eta bertan jarraitu nuen OHoko ikasketa guztiak bukatu arte.

Ondoren B.B.B (B.U.P.) egitera Oreretako Zalmalbate auzoan zegoen ikastolara joan nintzen. Berriro aldaketa handia. Irakasleak gertukoak ziren eta alde horretatik esperientzia polita. Baina frantsesa ezin izan nuen gaingitu eta ondorioz B.B.B bukatu gabe geratuta, ezin izan nuen ikasketekin jarraitu. Sentitu nuen frustrazioa ikaragarria izan zen, izan ere, nire ametsa Haur Hezkuntzako ikasketak egitea zen eta bertan behera geratu zitzaizkidan plan guztiak. Hain lur-jota geratu nintzen orduan, ez nuen betarik izan porrotari aurre egiteko. Suntsitua geratu nintzen, amorruez betea eta aurrera egiteko kemenik gabe.

Hala ere, haurrekin eta haur hezkuntzako munduan jardun duzu lanean beti. Zer egin zenuen?

Nire betiko ametsa haurrekin lan egitea izan zen. Oso argi izan dut betidanik haurrekin egin nahi nuela lan, zortzi urte nituela haur jaioberrak zeuden familietara gerturatzen nintzen eta askotan haiek zaintzen uzten zidaten eta ni zoriontsu nintzen. Handitzen joan nintzen heinean beti amesten nuen haur eskola batean lan egitearekin. Nolakoa izango zen ere irudikatzen nuen: haur gutxi, irakaslea oso gertukoa, herriko ipuinak kontatuko nizkiela, haurren jolasak, mendiko irteerak, naturarekin harremana, baserriko bisitak... Garai hartan gaur egungo haur eskolari haurtzaindegia esaten genion eta nire ametsa-

rekin jarraitzeko, ez zen derrigorrezkoa haur hezkuntzako titulua izatea, nahikoa zen puerikultura edo antzeko ikastaro bat egitea. Hortaz, berehala hasi nintzen puerikulturako ikastaroa egiten ilunabarretan, egunez Oreretako familia bateko bi haur zaintzen nituen bitartean.

Zure ametsa bete zenuen: “Koikile Arruabarrena haurtzaindegia” jarri zenuen martxan. Nolakoa izan zen prozesua?

Ikastaroko praktikak Iturburu haur eskolan egin nituen, 1979ko ekainean. Nire estreinaldia hantxe izan zen, Karrikako haur eskolan, edo garai hartan esaten genuen moduan, haurtzaindegian. (*Haurtzaindegia* hitza gehiago gustatzen zait, egokiago da nire iritziz, haur batek ikasteko lehenengo ongi zaindua egon behar duela pentsatzen dudalako).



Iturburukoekin. Praktika garaia.

Behin ikastaroa bukatuta, udaletxera jo nuen baimena eske eta, gurasoen laguntzaz, etxe azpiko lokalean haurtzaindegia ireki nuen. Horretarako familian gordeta zeuden sehaska batzuk egokitu nituen nire gustura, obra xume bat egin nuen nire aitaren laguntzarekin eta izugarritzko ilusioz zabaldu nituen haurtzaindegiaren atea 1981eko azaroan.

Nire helburu nagusia familia giroa sortzea zen; hori oinarritzako iruditzen zitzaidan. Gurasoek etxeko txikia nire eskuetan lasai uztea nahi nuen eta haurraren ongizatea bermatzea. Haurtzaindegia maila batean nire familiaren luzapena ere bazen. Kide bakoitzak bere aletxo jarri zuela sentitzen dut. Adibidez, Juaneneko aitona Auxtiñek ikatza ekartzen zidan neguan sukaldeko sua piztu eta haurtzaindegia berotzeko. Askok eskertu nuen familiarengandik jaso nuen babesa eta nire proiektuarekin aurrera egiteko eman zidaten laguntza.



Iturriozko haurtzaindegia. 1988ko urria.



Iturriozko haurtzaindegia, ataria.

Haurrak hartzeko eskaerarik ba al zenuen?

Hasieran bi haurrekin hasi nintzen, bat Oreretan zaintzen nuen familiako txikiena eta bestea auzoko lau hilabeteko haur bat. Apurka-apurka familia gehiago hurbildu ziren niregana eta haur gehiago matrikulatu ziren. Azkenean, hamasei urte igaro nituen bertan lanean eta haurrak gehi-

tu ahala lankide asko ere gehitu ziren proiektura. Bereziki aipatu nahi ditut nire ama, izeba Anttoni, bizilaguna zen Pilare, Estibalitz eta Pauli lehengusuak, Ana nire koinata... Eskertua nago guztiarekin eta baita nik sortutako haurtzaindegiaren konfiantza izan zuten guraso guztiarekin ere. Denon artean talde polita sortu genuela esango nuke eta denon artean proiektua aurrera atera genuen, nahiz eta bidea ez zen erraza izan. Hala ere, asko ikasi nuen, bai maila pertsonalean eta baita maila profesionalean ere.

Bitarte horretan ezkondu zinen, seme-alabak izan zenituzten. Nola moldatu zinen guztiari aurre egiteko?

Proiektuan buru-belarri nenbilen bitartean ezkondu egin nintzen gaur egun nire bikotekide den Celes Urdapilletarekin. Bera Donostian jaio eta urte asko Oreretan igaro ondoren Oiartzunera etorri zen bizitzera. Biok batera bizitzera erai-



Senar, alaba eta semearekin.

eta bi seme-alaba izan ditugu: Mirari eta Iñaki. Egia esan, ahalegindu nintzen datekin eta haurdunaldia planifikatzen eta horri esker eramangarriago egin zitzaidan bi lanak uztartzea. Zaharrena jaio zenean izan nituen zailtasun handienak. Etxean bertan bizi nintzela ezin haurtzaindegiko martxa ekidin (haurren egokitzapen garaia zen) eta amak eta koinatak uzten ez zidaten arren, tarteka lanera jaisten nintzen. Iñakirekin errazagoa izan zen.

1990. urtean Espainiako Hezkuntza Sistemen Antolamendu Orokorren Lege Organikoa (LOGSE) atera zen, zuzenean haurtzaindegiei ere eragiten ziena, titulazio eskakizunetan, besteak beste.

Bai. Hori momentu zaila izan zen, izan ere kolokan jarri zituen zeuden haurtzaindegi asko, tartean gurea. Baina izan genuen laguntza. Zenbat aldiz aipatzen dudan "Eskerrak Izaskun Madariagari", zu izan baitzinen niregana hurbildu eta legearen nondik norakoak argitu zenizkidana eta baita habilitazioa egiteko bidea azaldu zenidana ere. Hori beti eskertuko dut. Eta horri esker hasi nintzen haur eskoletako habilitazioa egiten Eusko Jaurlaritzak antolatu zuenean. Oso momentu zailean harrapatu ninduen, haurdun nengoen eta ikasten hasteko beldurrez. Gaixotu eta dena egin nintzen, baina aitortu behar dut, behin ikara guztiak pasata, oso aberasgarria izan zela. Nire intereseko gaiak aurkitu nituen eta gainera nire egoera berean zeuden hezitzaileez inguratuta, gustura aritu nintzen. Aberasgarria izan zen, ikasi genuenagatik eta gerora hartu genuen bideagatik ere bai.

Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa dator segidan. Zer deritzozu egin zen prozesuaz eta nola bizi izan duzu proiektu berria?

Hasteko, proiektua gure zikloaren salbazioa izan zen. Ikastetxeetan (eta ikastolatik hasita) bi urteko gelak irekitzeko asmoz hasi zirenean, gureak etorkizunik gabe geratzen zi-

ren eta alde horretatik irabazian atera ginen. Baina izan zuen beste galera mingarria ere, Oiartzungo herri osoarentzat onuragarria izan zitekeen proiektua atzera bota baitzen. Hor, Iturburutik hasi ziren gaia mugitzen eta Udaleko hezkuntza batzordean mamitu zen herri eskola bakarra egiteko proiektua. Gu denok (hiru haur eskolak) tartean ginen eta Haurtzaro ikastola eta Elizalde eskola publikoa ere bai. Baina azkenean Elizaldeko gurasoek atzera bota zuten proiektua eta beste bidea hartu behar izan genuen. Orduan sortu zen Udal Ikastola Partzuergoa, Udalaren eta ikastolaren partaidetzaz. Porrot hura frustrazio handikoa izan zen niretzat, zeren oso konbentzitura bainengoen herriari ekarriko zion onuraz, baina ez zen ahal izan.

Gero, esan bezala, Partzuergoa sortu genuen eta egia da hori ere oso aberatsa izan dela; badira horretaz 25 urte. Hiru haur eskolak elkartu ginen ikastolarekin eta gauza asko egin ditugu elkarrekin. Proiektu handia zen baina gai izan ginen gauzatzeko eta esan dezaket, lehenengo urteko zailtasunak pasata, lortu genuela proiektu polita burutzea.

Noiz arte egon zen Iturriozko haur eskola irekita Partzuergoaren barruan?

Hasieran gure haur eskolari eutsi genion, baina espazio gehiago egokitzen joan ahala, gurea ixtea erabaki genuen. 2011ko irailean jada hemen ez zen haurrik sartu. Bost lekutan ge-



Udal Ikastola Partzuergoa. Arrieta aldean.

nituen hau-eskolak: Karrikan, Arrieta aldean, Harri gainen, Haurtzaro txikin eta ikastolan. Horrela ibili ginen gaur egungo Urmendi haur eskola berria eraiki zen arte. Ni oso gustura egon naiz bertan, asko jaso dut esku artean izan ditudan haur txiki zein beraien familiegandik eta baita lankide guztiengandik ere, eta hor sartzen ditut bai hezitzaile, sukaldari eta garbitzaileak ere. Oso eskertuta nago beraien-gandik ikasi eta jaso dudan guztiagatik. Eta tartean norbaitekin asmatu ez badut, barkamena eskatzeko ere erabili nahi dut momentu hau.

Bukatzeko: 2023tik jubilatua. Eta?

Aurreko urtean aurre-jubilatzeko garaia iritsi zitzaidan eta aldi berean bizitza berrira egokitu beharra, hau da, ume txikien mundua gutxitu eta, aldiz, amaren zaintzaz arduratzeko etapara gehitu nintzen. Haurren falta sumatzen nuen eta banoa pixkanaka ohitzen, hala ere, jarraitzen dut haur eskola bisitatzen; gustura joaten naiz. Bertan dagoen giroa eta haurrak sekula baino politagoak iruditzen zaizkit une honetan. Oso lanbide polita eta aberasgarria da eta atzera buelta egingo banu, berriz ere lanbide bera hartuko nuke. Hori seguru.



Lankideak. Urmendi.

Eskerrik asko, Koikile! Urte franko eman ditugu elkarrekin lanean eta gozamen hutsa izan da, pasadizo hauek guztiak partekatuz, nireak ere birgoratzea. Bizitza berrian zoriontsu izango zarela zalantzarik ez dut, seguru bainago horretan ere ongi asmatuko duzula. Beti lagun,

Izaskun Madariaga Iragorri

Joseba Zabaleta Arbelaitz

SOINUENEA, HERRI MUSIKAREN TXOKOA BAINO ZERBAIT GEHIAGO

*Joseba Zabaleta Arbelaitz (Oiartzun, 1972)
Geografia eta Historian diplomaduna da Deustuko
Unibertsitatean. Santiago de Compostelako
Unibertsitatean Arte Moderno eta Garaikidean
lizentziaduna da, baita Museologia eta Arte Ederren
Legegintzan ere. 1995ean Juan Mari Beltran
etnomusikologoarekin harremanetan jarri zen eta
elkarlanean aritu ziren zenbait urtez. 2002. urtean Herri
Musikaren Txokoa sortu zen eta 2005. urtetik bertako
langilea da.*

Noiz eta nola hasi zinen bertan lanean?

Nik ikasketak bukatu nituen eta Oiartzunera itzuli nintzen. Ikasketen azken espezializazioa museologia eta arte ederretako legegintzan egin nuen eta buruan ideia pila bat nituen. Hona iritsi nintzenean izan nuen Oiartzungo Udalaren asmo baten berri: museo etnografiko bat martxan jarri nahi zuten. Bilerak egiten hasi ziren, irekiak ziren eta joatera animatu nintzen. Bilera horietako batean Juan Mari Beltran ezagutu nuen. Hark bere egitasmoa aurkeztu zuen, Herri Musikaren Txokoa, eta nik nire laguntza eskaini nion; nire asmoekin bat egiten zuen bete-betean. Hortik aurrera asteen behin joaten nintzen laguntzera: fitzak egin, katalogatu... Hasieran zenbait kolaborazio egiten nituen baina 2005. urtetik bertako langilea naiz.

Sekulako zortea izan zenuen, beraz, ezta?

Bai, bai. Zorte ikaragarria izan zen. Nirekin ikasi zutenetako asko ez dabilta gure esparruan lanean, eta ni, gainera, nire herrian nago. Momen-

tu egokia, leku egokia, pertsona egokia ezagutzea... guztia batera izan zen.

Zein helburu zituen hasieran proiektuak?

Herrian bazegoen talde bat horretan aritzen zena, bazeuden aurrekariak etnografia, etnologia eta katalogazio lanetan. Baina batez ere gauzatu zena museoa izan zen, Herri Musikaren Txokoa bera. Bildutako material guztia jartzeko espazio bat eman zigun Udalak.

Duela bi urte hogeitaz bete zituen museoak. Zertan aldatu da? Zertan ez?

Aldaketa handiena fundazio bezala eratzea izan da, nire ustez. Oso pausu garrantzitsua izan zen. Hortik aurrera Soinuenearen ahalmenak handitu egin ziren. Gauzak beste modu batera kudeatzeko aukera genuen, dirulaguntzak eskuratu, beste erakundeekin harremanak izan, bertako lanpostuak egonkortu... Hortik aurrera gure proiektzioa kanpora begira asko zabaldu zen, Al-

dundiarekin eta Jaurlaritzarekin, esaterako. Egia da, baita ere, fundazio bat ez dela kultura elkarte bat, zerbait gehiago dela. Eta ikasi egin behar izan dugu horrelako erakunde bat nola kudeatu. Baina bai, onerako pausua izan zen.

Bertara joaten diren bisitariak zer topa dezakete zuen egoitzan? Nola dago antolatuta museoa?

Soinu-tresnen erakusketa iraunkorra dugu bertan, baina baita artxiboa ere. Publiko orokorrak katalogatuta ditugun 450 soinu-tresna inguru ikusten ditu erakuslehoetan, hotsa eragiteko moduaren arabera sailkatuta daudenak. Bestalde 2. pisuan bulegoekin batera dugu dokumentazio-zentroa eta hori gehienbat ikerketaren bat egin nahi duenak kontsultatzen du. Bertan dugu biblioteka, fonoteka, irudi artxiboa... eta era askotako dokumentuak aurki daitezke: paperak, liburuak, argazkiak, aldizkariak, diskoak, lp-ak, kaseteak, audioak...

“1780 SOINU-TRESNA DAUDE SOINUENEAN ETA HORIETATIK 450 INGURU DITUGU KATALOGATUTA”

Zein bisitari mota jasotzen dituzue urtean zehar?

Soinuenearen erabiltzaile gehienak ikastetxe-tako ikasleak dira, gutxi gorabehera bisitarien %80a dira. Bisita gidatuak egiten dizkiegu eta Euskal Herri osotik etortzen dira, baita tarteka Estatutik ere. Horiekin batera daude musika eskoletako, dantza eskoletako, folklore eskoletako ikasleak. Eta kopuru txikiagoan hurbiltzen dira turistak ere, puntualki etortzen direnak. Horien profila normalean musikariarena da. Zerbaiten bila etortzen dira zuzenean, kuriositateak bultzatuta, gure erreferentziak dituztelako... Ez du te museoa kasualitatez topatu.

Ez da bertara joan beharrik, bisita birtuala ere egin baitaiteke etxetik. Zer dela eta jarri zenuten hori martxan?

90eko hamarkadan jada bazegoen katalogazio lan digital bat egina, eta ni sartu nintzenetik ere horretan gabilta.



Oiartzungo partzuergoko ikasleekin bisita gidatua Soinuenean.

Beraz, 30 urte baino gehiago daramatzagu bilketa lan horretan eta 30.000 fitxa daude guztira. Kontua da pandemia garaian guk ere lan egiteko moduak aldatu behar izan genituela, halabeharrez. Ezin genituen erromeriak antolatu, kontzertuak, bisita gidatuak... Baina lanean jarraitu behar genuen eta orduan erabaki genuen gure estrategia aldatzea eta mundu birtualera salto egitea. Alde batetik, bisita birtuala martxan jarri genuen eta bestetik, soinu-tresna bakoitzaren fitxa osatu genuen multimedia atal batekin, etxetik soinu-tresnaren irudia ezagutzeko eta entzuteko aukera izan zenezaten herritarrek.

Zein dira oraintxe bertan eskuetan dituzuen proiektuak?

Euskal Herriko soinu-tresnen entziklopedia sortzen hasi ginen pandemia garaian eta osatzen ari gara oraindik. Katalogazio lanak asko aldatu dira, eta aldiro egokitu behar dugu. Gainera, museo baten katalogazio lana ez da sekula bukatzen. Alde batetik, pieza berriak sartzan direlako, eta bestetik, erakusteko modu berriak etorri direlako. Hau da, azkeneko urteetan eredu aldatu denez, erakusten duzun hori beste modu batera erakusteko aukerak zabaldu dira eta egokitu behar izan dugu. Teknologia berriak eskaintzen dizkiguten aukera guztiak baliatu nahi ditugu, eta beraz, soinu-tresna bakoitzaren fitxa osatzen ari gara, argazkia, audioa... gehituz. Hasieran museoan zegoen soilik aukera hori, walkman baten bidez, baina orain etxetik ere entzun daiteke.

Bestalde, 1780 soinu-tresnari argazkiak ateratzen ari gara, askoz kalitate handiagoan, erresoluzio handiagoan ikusteko. Gainera, kontserbazio aldetik ere oso lan garrantzitsua da hori. Nola mantentzen ari den ikusten duzu, ea aldaketarik edo kalterik baduen... Eta hori hogeitun urtean behin egin beharreko lana da, beraz, ez da inoiz bukatzen.

Azkenik, soinu-tresna batekin jotako piezak bi-dean grabatzen ere ari gara. Kontua ez baita bakarrik entzutea, nola jotzen den ikustea ere. Lan handia eskatzen du horrek, eta horregatik urtean ehun bat grabatzen ditugu, gehiago ez. Zorionez lagun talde handia daukagu gure inguruan musikariak direnak eta horretarako prest daudenak. Jotzen aritzen direnak anitzak izaten saiatzen gara, bai genero aldetik, bai adin aldetik eta baita jatorri aldetik ere. Kanpoko musika tresnaren bat grabatu behar badugu, kontzertuetara gonbidatzen ditugun artistak aprobetxatzen ditugu.

Oiartzungo Herri Musika eskola ere baduzue. Zer ikas daiteke bertan? Zenbat erabiltzaile ditu gaur egun?

Momentu honetan solfeo, txalaparta, txistua eta danbolina, alboka, herri musikan oinarritutako biolina, xirularrua eta herri perkusioa ikas daitezke. 70-80 ikasle inguru ditugu, astean behin etortzen dira eta 30 minutuko bakarkako klasea jasotzen dute. Taldean parte hartzeko aukera ere izaten dute. Momentu honetan hiru talde daukagu, xirularru taldea, alboka taldea eta biolin taldea.

Ikasleen profila orokorrean heldua da, oso haur gutxi ditugu eta hori arazo izan daiteke, musika txikitatik ikastea askoz hobeto baita. Askotan ez gara konturatzen musika ikasteak zer esan nahi duen: zenbat lan, diziplina, bururako ariketa onuragarria, taldean jotzearen balioak, errespetua... gauza asko hartu behar dira kontuan. Eta haurrak konturatu gabe hori guztia ikasten du.



2023ko urtarrilean, albokarien batzarrean panderoa jotzen.

Zein beste ekintza antolatzen dituzue?

Gure lan nagusia soinu-tresna hauek ezagutzera ematea da, beraz, kontzertuak antolatzen saiatzen gara. Bai Euskal Herriko soinu-tresnekin, baina baita kanpokoekin ere. Hala, herri musikaren kontzertu zikloak bikoitzak izan ohi dira, beti entzuten baitugu hemengo talde bat eta atzerriko talde bat. Harreman asko ditugu folklore edo dantza eskolekin eta tarteka antolatzen ditugu ekintzak. Adibidez, Iruñeko Ortzadarrekin, edo Villafrancako Leinua taldearekin, edo Bizkaikoekin... Mundu honetan aritzen garenon artean badugu sare bat.

Jardunaldiak dagokienez, formazioa ere ematen saiatu gara. Aurten apirilean, adibidez, tronpari buruz egin dugu eta eredu ezberdinak ikusi ditugu: Euskal Herrikoa, Galiziakoa, Italiakoa, Indonesiakoa, Asiakoa...

Dantza plazan zikloa ere antolatu ohi dugu. Bertan saiatzen gara plazan dantza egiteko zuzeneko musikarekin izaten. Hilabetean behin gure eskolako ikasle eta irakasleek kale buelta egiten dute. Horrez gain, auzoko jaietan, ihoteetan... ere parte hartzen dugu. Azkenen urteetan erraldoi txikien konpartsa jarri dugu martxan Abaraxka Ludotekarekin. Tailerrak ere egiten saiatzen gara txikientzat edo Udalekuetako ikasleentzat, hots jostailu tailerrak esaterako.



Burrunik egiteko tailerra Atlantikaldian.



Ergoingo kuestazioan, Joseba akordeoiarekin, atzean eskuinean.

Fundazioa argialetxe bat ere bada, eta urtean argitalpen bat egiten du. Normalean euskarri fonografikoa, hau da, audioa duen zerbait izan ohi da, baina beti liburu batez edo idatzitako zerbait bezala lagunduta, partiturak esaterako. Azkeneko urteetan Euskal Herriko soinu-tresnen entziklopedia egiten gabiltza, bi ale jada kaleratu ditugu eta orain 3. idazten ari gara datorren urtean argitaratzeko. Pasa den urtean erraldoi txikien liburua argitaratu genuen.

Horrez gain, aurtun hitzarmen bat sinatu dugu Musikenerekin eta ikasturtean zehar hango ikasleei zenbait kontzertu, tailer, hitzaldi... eskainiko dizkiegu. Gainera, gure kontzertu zikloko kontzertu bat urtero bertan izango da, hango auditorioan. Aspalditik nahi genuen zerbait zen eta azkenean lortu dugu. Azken finean, unibertsitatean ez dago hain zabalduta euskal soinu-tresnen ikasketa, Musikenen, esaterako, txistua soilik ikas daiteke eta guk euskal soinu-tresnen gradua izatea nahiko genuke, beraz hitzarmen honekin haien ezagutza gehiago zabaltzeko nahi dugu.

Zer-nolako ekarpena egin dio Soinueneak herriari? Eta herriak, aldiz, zer eskaini dizue?

Herri ondare immaterialaren bilketa, katalogazioa eta aitortza izan dira nagusiki gure lanak. Gabezia handia zegoen eta horri buelta ematen saiatu gara. Guk, esaterako, baditugu 1960an grabatutako audioak, Oiartzungo sukalde zaharretan aitona-amonen elkarrizketa eta kantak, XIX. mendeko txistu hotzak, Etxaun Iruri Zuberoako taberna batean kantari, Oiartzungo Elizako kanpandorreko joaldiak... Eta hori grabatuta dago eta digitalizatuta dago, hurrengo belaunaldiei iristeko. Alde batetik, beraz, gorde egiten dugu baina bestetik, hori zientifikoki ere ikertu behar da, irakatsi behar da... Lan handia dago baina ari gara pixkanaka. Helburua da dena jendearen esku jartzea, transmisio kate hori ez etetea. Bestalde, gu saiatzen gara herriari begira urteko programazio bat egiten herri musikaren arloan eta herritarrekin elkarlanean egiten dugu hori dena.

**“HELBURUA DA DENA
JENDEAREN ESKU
JARTZEA, TRANSMISIO
KATE HORI EZ ETETEA”**

Bestetik, Juan Mari Beltran Bildumako soinu-tresnen katalogazio-fitxa horiek guztiak gure web orrialdean ikusteaz gain, beste 2 gunetan ere ikusi daitezke. Bat da Museotik, Euskadiko museo guztietako objektuak biltzen dituen plataforma eta bestea Mimo. Hau Europako Musika Museoen partzuergo bat da, eta hor Europako musika museo guztietako soinu-tresnak daude. Hor ere gureak ikusi daitezke. Beraz, ez dugu oiartzuarrentzat eta euskal herritarrentzat soilik lan egiten, askoz hedatuago dago.

Oiartzunek eman diona sostengua izan da. Horrelako proiektu bat aurrera ateratzeko leku bat behar duzu, langile batzuk behar dituzu... Eta horretan laguntza handia izan dugu, gudan konfiantza izan dute eta oraindik ere hori erakusten digute.

Zein dira datozen urteetarako dituzuen asmoak edota helburuak?

Herri musika ez da fosilizatua dagoen zerbait, aldatzen doan zerbait da, eta beraz, biltzen, katalogatzen eta aztertzen jarraitu behar dugu. Garai batekoa bildu bai, baina gaur egun gertatzen ari dena jaso behar dugu.

Gainera, oraindik Soinuenean tarteka iristen dira Folklore talderen batek duen zinta zaharren bat, grabazio batekin eta guk erreproduzitzeko makina pila bat ditugunez, hori digitalizatu dezakegu. Ezin daiteke edozein lekutan egin lan hori.

Transmisioan ere paper garrantzitsua du Soinueneak. Herri ondarea denona da, baina guk badugu espazio bat, baditugu baliabideak eta profesionalak herritarrei kultura hori irakasten eta erakusten jarraitzeko. Orain, gainera, Landetxek eskaintzen digun aukera paregabearekin, askoz errazagoa da lan hori egitea.

Europeana proiektuan ere parte hartzen ari gara, hitzarmena duela gutxi sinatu da. Proiektu horrek entziklopedia libre bat sortu nahi du eta gu ari gara *Euskarania* elikatzen, gure ondarea diren gauzak munduan ere ezagut daitezen.

Azkenik, gure erronka da, baita ere, egoitza handiago bat izatea. Ergoingo espazioa txiki geratu zen aspaldi eta beste gune bat izatea gustatuko litzaiguke.

Musika alde batera utziko dugu orain baina arte munduan jarraituko dugu. Puntua egiten ere ibiltzen zara. Nondik dator zaletasun hori? Ba, etxetik. Nire amak beti egin izan du eta hori ikusi dut. 5. mailan, Ugaldetxoko eskola zaharretan ginenean, ikastola garaian, andereño Ixiarrek ere erakutsi zigun puntua egiten. Gero utzi egin nuen, eta orain dela 15 urte inguru berriz hasi nintzen.

Bufanda bat egin nahi nuen opari moduan, egin nuen eta ordu hartatik ez dut utzi. Ez da egunero egiten dudan zerbait, baina ia-ia. Nire bigarren lana bihurtu da, bai. Normalean errazetik hasten zara, eta gero horrek engantxatu egiten zaitu eta jertse bat, txaketa bat... Denetik egin izan dut.



Puntuz egindako oihalarekin Tabakalerako zutabe bat estaltzen.

Juxtu momentu horretan Donostiako Medialabetik eskaintza bat iritsi zitzaidan. *Eta puntu* topaketak egiteko gidari bila zebiltzan eta gizonezko bat nahi zuten. Puntuak historikoki emakumeekin izan duen lotura horrekin apurto nahi zuten. Hasieran zalantza izan nuen, puntua nire egunerokotasunean eremu pribatuan egiten nuen zerbait baitzen. Baina azkenean animatu nintzen eta oraindik ere jarraitzen dut. Hilean behin elkar-tzen gara, 3. ostiralean seietatik zortzietara eta puntua egiten aritzen gara. Nik saioa gidatzen dut. Azken urtean taldean aldaketak egon dira, orain Medialabeko talde ireki bat gara, bertan parte hartzen dutenak autonomoagoak izatea nahi dugu, nire ardurak arinduz.



Eta puntu topaketako kideekin.

Niri jendearekin lan egitea asko gustatzen zait, Soinuenean, esaterako, bisita gidatuetan ere oso ongi pasatzen dut. Eta han ere bai, jendearekin harremantze hori asko gustatzen zait eta bi orduak segituan pasatzen zaizkit. Horrek ekarri du, baita ere, nik gehiago ikastea. Azkenean jendeari erakusteko nik ere trebatu behar nuen, teknika berriak ikasi eta orain, esaterako, orratz zirkularrak erabiltzen ditut, ez betikoak.

Topaketa horiez gain ere Oiartzunen antolatua izan ditugu bestelako saioak. Ekainaren 12an, esaterako, kalean ehuntzeko nazioarteko eguna izaten da eta duela 2 urte Helta eta Oiartzungo Asanblada Feministarekin hitz egin nuen eta kalean puntu topaketa egin genuen Kontzejupean. Oso gustura egon ginen.

Amaitzeko, organozaleen taldean ere sartuta zaude.

Oiartzunen organo garrantzitsu bat daukagu eta aurtengo urtea berezia izango da zaharberri-tzearekin hasiko garelako. 1843-44 urte ingurukoa da eta 1860. hamarkadan Oiartzungo Udalak erosi zuen eta elizan kokatu zuten. Hots kalitate handiko organoa da, eta nik uste ez garelako konturatzeko zein balio duen.

2016an Pagoarte eta Udalak antolatzen zuten Azkue Memoriala berreskuratu genuen oiartzuar batzuk eta 2018an Oiartzungo Organozaleak K.E. eratu genuen. Orain elkarte hau arduratzen da memoriala Oiartzunen, Erreterian eta Irunen antolatzeaz. Bestalde, urtean zehar hainbat ekintza antolatzen ditugu: harmonium kontzertuak, hitzaldiak, musikeneko ikasleentzat *masterclass*-ak eta abar.

Zaharberritzea oso lan garestia eta konplikatu da, zorionez 2020ko irailean desmuntatu zen, orain pieza guztiak banan-banan landu behar dira, gero organoa muntatu eta azkenean harmonizatu. Urteetan zehar lan hori eskatu eta bultzatu izan dugu eta azkenean, denen elkarlanaren ondorioz, Foru Aldundiarekin, Elizbarrutiarekin eta Udalarekin hitz egin ondoren, lanak udazkenean hasiko direla pentsatzen dugu.

Organo hori herriarena da, egia da jendeak elizarekin lotzen duela baina historikoki herriarekin lotura handia izan du. Horrelako soinu-tresna konplexu batekin aukerak ia mugabeak

dira: pelikula mutu bati musika jarri, moldaketen bidez estilo guztietako musika jo, soinu-tresna ezberdinekin batera jo, solista bezala protagonismo osoa hartu... Oso musika tresna berezia da, jotzeko oso zaila, hanka ere erabiltzen delako. Beraz, zaindu egin behar dugu eta jendeari erakutsi behar diogu. Azkeneko 160 urteetan Oiartzunen egon da organo hori eta gure asmoa bada, beste horrenbeste edo gehiago irautea gure herrian.

*Elkarrizketa-egilea:
Haizea Saez de Eguilaz Perez*

Eugenio Arozena Egimendia

“Xantua”

TEATROA IZAN DA NIRE BIZITZAKO ARDATZ NAGUSIA

.....

Xantua ezizenez zara ezaguna oiartzuar askorentzat.

Bai. Ez du misterio handirik. Aita Santos Arozena, Lizartzako txistularia izan zena, eta ondorioz, ni Xantua. Besterik gabe. Bost anaia eta arrebat, eta anaiak Xantutarrak ginen lagun artean.

Oiartzuarra, Oiartzunen jaioa.

Bai eta bai. Altxibarren jaioa 1940an, Albisturrene izeneko etxean. Etxe horri Baleriana ere deitzen zioten, amona Baleriana, gure ama Korneliaren ama, oso ezaguna zelako sendabelar kontuetan eta emagin lanetan.

Zergatik gogoratu behar dugu euskal zaleok Eugenio Arozena? Soilik mendizale amorratua zarelako?

Horregatik eta batez ere antzerkiarengatik. Antzerkia, teatroa, izan delako nire bizitzako ardatz nagusia. Nire afizioa eta azkenean nire lanbidea ere bai. Gaztetan Donostiako Kontadoretan egin nuen lan, baina 1983tik aurrera antzerki mundura mugatu zen nire lanbidea ere.

Zer esan nahi duzu antzerki mundua diozunean?

Aurrez nuen lana utzi eta Eusko Jaurlaritzako Antzerki Zerbitzuko Zuzendari Teknikoa izan naiz urte luzez. Nire afizio nagusia, lanbide bilakatu zen. Suerte handia.

1963AN IZANGO ZEN, BIZIKLETAN NINDOALA, TOPO EGIN NUEN AURREZ AURRE XABIER LETEREKIN, ETA HONELA BOTA ZIDAN: -TEATROA EGIN NAHI AL DUK?

Goazen hastapenetara. Nondik nora hasi zinen teatro munduan lehen urratsak egiten?

Hamar bat urte izango nituen, 1950ean, Manuel Lekuonaren *Eun Dukat* obra antzezteko *castinga* egiten edo, jende bila ari zen Manolo Juanes udaltxean, eta nik gainditu ez, nonbait proba, eta itxaron egin behar. Juan Mari Lekuonak zuzendu zuen obra.

1963an izango zen, bizikletan nindoala, topo egin nuen aurrez aurre Xabier Leterekin, eta honela bota zidan: "Teatroa egin nahi al duk?".

Ni aspalditik horrelako zerbaiten zain egonik, zer esango nion, ba? Baietz, jakina.

Berehala sortu zen sekulako taldea, jende asko Oiartzunen antzerki gosez. Xabier Lete eta bion inguruan bazen antzezlerik Oiartzunen. Moises

Gonzalez, Jose Mari Iriarte, Kontxi Lopetegui, Kontxi Gonzalez, Maria Jesus Aranburu eta honen anaia, Arantxa Lete, Arantxa Zapirain, Iñaki Sarrasketa, Mañoli Odriozola eta beste hainbat eta hainbat. Barkatuko ahal didate orain gogoan ez ditudan horiek!

Urte mordoia eman genituen **Lartaun** Antzerki Taldean. 1963tik 69ra, gutxi gorabehera. Obra asko atera genituen aurrera garai hartan. Oiartzunen euskal giro aparta zegoen eta antzerki zale ugari.

Urte mordoia eman genituen Lartaun Antzerki Taldean. 1963tik 69ra, gutxi gorabehera

Lartaunen antzeztutako obrarik ezagunenak? *Ito edo ezkondu; Nor da Erruduna* (Manolo Juanesen zuzendaritzapean); *Ertzaina etxean; Sei gizon heriotzruntz;* Manuel Lekuonaren *Eun dukat;* Gabriel Arestik guretzat propio idatzi eta Xabier Letek zuzendutako *Justizia txistulari...*

Esan behar da garai hartan, ordurako, Donostian bazela **Jarra**i izeneko Antzerki taldea, eta bagenuela non begiratu eta nondik ikasi.

Eta 1965ean Euskal Antzerki Taldeen Elkarte edo Bazkuna ere sortu zen Donostian, eta tarteka azaltzen ginen hango ekitaldietara, hitzaldietara etab. Xabier eta biok herriz herri ere ibiltzen ginen beste antzerki taldeetako partaideekin hairemanak sortzen.

Badirudi 1967-68 urteak oso gogorrak izan zirela antzerkiarentzat.

Arrunt gogorrak. Urte horiek eta ondorengoak ere ez ziren errazak izan guretzat. Bueno, guretzat eta euskalgintzan ari ginen guztiontzat. Berdin zen antzerkia, bertsoa edo beste edozein ekitaldi euskaldun. Dena zen debekua, dena zen isuna edo atxiloketa. Salbuespen egoeran (*estado de excepción*) geunden eta ez zen erraza euskarazko edozein emanaldi antolatzea, zentsurak eta debekuak gainean genituela.

Horregatik guztiarengatik, antzerki talde asko desagertu egin ziren ezinaren ezinez aspertuta. **Lartaun**ek jarraitu zuen 68-69 arte, baina itzaltzen joan zen gurea ere. Guk ordea ez genuen etsi, eta **Intxixu** talde berria sortu genuen, eta aurrera egiteko aukera izan genuen beste hamar bat urtez. Urrietako **Egi bilak** ere aurrera egin zuen.

Dena zen debekua, dena zen isuna edo atxiloketa. Salbuespen egoeran (*estado de excepción*) geunden eta ez zen erraza euskarazko edozein emanaldi antolatzea, zentsurak eta debekuak gainean genituela



“Orria 778” antzezlanaren argazkia.

**Guk Intxixu Antzerki taldearen kartelak eza-
gutu ditugu kaleko paretetan jarriak, ema-
naldiak iragartzeko. Nolakoa izan zen hasie-
ra hura?**

Esan bezala, 1969an, 69-70 tarte horretan hasi ge-
nuen **Intxixuren** ibilbide berria. **Lartaun** indarra
galtzen joan ahala, **Intxixu** Antzerki Taldea sortu
genuen, eta neu izan nintzen taldeko zuzendaria.
Halere, **Intxixuren** lehenengo obra, *Lartaunen
historia*, Piarres Larzabalek idatzia, **Lartaun** an-
tzerki taldearen izenean joan zen, baimenak ho-
rrela eskatuak genituelako. Neuk zuzendu nuen.

Talde bikaina sortu genuen. Asko ginen Intxixu
antzerki taldearen gorputza, ardatz nagusia, osa-
tzen genuenak. Besteak beste, Enrike Lekuona, Ma-
nolo Intxauspe, Gregorio Zapirain, Mirari Bikandi,
Patxi Olaziregi, Maria Angeles Arruti, Makutsotar
hiru anai-arrebak, Juan Anton Irazusta, Xabin Mu-
jika, Joxe Leon Mitxelena, Luis Zapirain, Sebas Ga-
lardi, Iñaki Arzak, Manolo Ansa, Koro Azurmendi,
Loli Ansa, Bixen Beltran, Juanito Iñarra, Xanpol
Harreguy, Kaxka, Julen Lekuona, ni neu eta beste
hainbat gogoan ez ditudanak. Xabier Lete eta Lur-
des Iriondoren laguntza ere izan genuen.

1971rako prest geneukan bigarren obra, *Ara-
lar*, Piarres Lartabalek idatzia. Eta handik au-
rrera ondorengo guztiak, bata bestearen atzetik.
1974an *Orria 778*, hau ere Piarres Larzabalena.
1977an *Antzerkia deuseztik izatera*, Xabier Letek
eta biok idatzia. 1978an *Karlistadaren kronika*,
Lete eta bion artean idatzia. 1980an *Inexa de
Gaxen* neuk idatzia. 1981ean *Iparragirre ama-
zorro*, neuk idatzia.

Eta hemen bukatzen da nire zuzendaritza lana.
Lartaunen Historia obrarekin hasi, eta *Iparrag-
irrerekin* amaitu. **Intxixuk** jarraitu zuen urte
gutxi batzuetan. 1982an *Gabonetako ikuskizuna*,
1985ean *Pedro eta kapitaina...*



"Inexa de Gaxen" antzezlana (udaletxeko ganbaran entsegua).

**1981ean *Iparragirre
ama-zorro* idatzi nuen,
eta hortxe bukatzen
da nire zuzendaritza
lana. *Lartaunen Historia*
obrarekin hasi, eta
Iparragirrerekin amaitu**



"Iparragirre ama-zorro" antzezlana (argazkian, Julen Lekuona).

**Zer duzu gogoan Urnietako Biltzarraren in-
guruan?**

Bai, 1977ko maiatzaren 29an, Euskal Antzerki
Taldeen Biltzarra ospatzen da Urnietan. Bertan
bi elkarte sortzen dira, Iparraldeko Elkarte eta
Hegoaldekoa. Iparraldekoaren arduraduna Da-
niel Landart izango da, eta Hegoaldekoarena neu.

Nire egitekoa, nire ardura, batez ere, antzerki
talde berriak sortzea eta indartzea izan zen. Tal-
deak dinamizatu, sustatu, indarberritu eta pres-
tatzen joan. Daniel Landart eta biok herri batzuk
bisitatu genituen, hainbat talderi hitzaldiak eta
ikastaroak emateko.

Emanaldiak, entseguak, prestaketak...

Entseguak? Bai horixe, eta gogorrak. Astean hi-
rutan udaletxeko goiko ganbara zaharrean. Zen-
bat joan-etorri eskaileretan goiti eta beheiti, gure
traste zaharrak gainean genituela, emanaldi ba-
koitzaren amaieran!

Urtean 40 bat saio ematen genituen gutxienez,
eta 60 ematera ere iritsi ginen.

Intxixuk profesionalen lana eskaintzen zuen, baina gu musu-truk aritu ginen. Gastuetarako lortzen genuen laguntza ttikiren bat, baina gurea autofinantzaketa zen. Sarrerekin ateratzen genuenarekin konpontzen ginen.

Urtean 40 bat saio ematen genituen gutxienez, eta 60 ematera ere iritsi ginen

Ohiko entseguetz gain, aktore, antzezle lanetan ikasteko eta hobetzeko aparteko prestaketa?

Hori oso garrantzizkoa zen guretzat, oso beharrezkoa. Horretarako, beti izaten genuen prest jende aditua. Jantziak zirela, musika zela, espazioa, ahoskeraren lanketa, gorputz espresioa... Interpretazioa zen gure formakuntzaren atalik nagusia.

Eta Kontadoretako lana utzi egin behar izan zenuen.

Hori da. Artean Intxixun nenbilela, 1982an, Eusko Jaurlaritzak, Labaien Kultur Kontseilariaren eskutik, ANTZERTI, antzerki zerbitzua sortu zuen, eta ni bertako zuzendari teknikoa izendatu ninduten. Eta horretan aritu nintzen 1997rarte.

ANTZERTI antzerki zerbitzua sortuz geroztik, bertako zuzendari teknikoa izan nintzen

Nola ikusten dituzu egungo euskal antzezleak eta oro har euskal antzerkia?

Gaztetxoak eskola garaian saiatzen dira ikasketa horretan, esperientzia horretan, baina unibertsitatean edo lanean hasten direnean, ez dute astirik horretan jarraitzeko eta antzerki taldeak dinamika galtzen du. Eta interpretazio lanetan ezin dute behar bezala sakondu. Talde amateur batek gutxienez astean hiru bat egunez entseatu

behar du hiruzpalau hilabetez obra bat aurrera atera ahal izateko.

ETBk ere antolatzen ditu korrikako saioak, esango nuke, presazko emanaldiak. Baina hain denbora laburrean zaila da formakuntza osoa jasotzea.

Bilboko Goi Mailako Antzerki Eskolan, Unibertsitatean, formatzen dituzte gazteak, baina hori ere ez da aski. 22 urterekin gazte hauek ez daude behar bezala prestatuta. Oso motxila ttikiarekin ateratzen dira handik. Bide horretan aurrera egin nahi badute, Madrilera, Bartzelonara edo beste nonbaitera jo beharra daukate interpretazioa lantzerako eta esperientzia hartzerako. Euskal Herrian bizibide eskas samarra dago antzerki taldeentzat.

Gazteek Madrilera edo Bartzelonara jo beharra daukate interpretazioa lantzerako eta esperientzia hartzerako. Euskal Herrian bizibide eskas samarra dago antzerki taldeentzat

Zure ibilbide luze horretan lan asko argitaratu dituzu.

Bai, horretan ere saiatu naiz. Gure antzerkigintzaren historia ttikia plazaratzea eta argitara ematea garrantzizkoa dela iruditzen zait.

ANTZERKIA DEUSEZTIK IZATERA
(Xabier Leterekin batera) (1977)

ALTABIZKARKO KANTUA (1983)

AGUSTIN ZUBIKARAI ETA EUSKAL ANTZERKIA
(1991)

IÑAKI BEGIRISTAIN ALBISU ANTZERKIGILEA
(1995)

AITA JOSE ANTXIETA DOHATSUA (1997)

SANTA KRUZ APAIZA GERLARI
(Anastasio Albisuk idatzia) nire sarrera eta prestakuntzarekin. (1997)

PIARRES LARZABAL CARRERE (1997)

NEMESIO ETXANIZ TEATROZALEEN GOGOAN (1999)

HIRU ANTZERKIGILEEN BARATZA JORRATZEN (2000)

GABRIEL ARESTI EUSKAL ANTZERKIAN BIOLA ETA MAILUAREKIN (2000)

EUSKAL ANTZERKIA OIARTZUNEN (2006)

ZENTSURAREN GURPILEAN EUSKARAZKO ANTZERKIA (2007)



Eugenio eta Antton elkarrizketa egiten.

Eta etxeko paper zahar artean ba al duzu oraindik argitara eman gabeko lanik?

Batzuk bai, eta nire ustez, beharbada, publikatzea merezi luketenak. Baina oraingoz hor daude aukeraren zain. Ederra litzateke horiek ere egunen batean plazaratzea eta euskal zale guztiek eskuragarri izatea.

Besteak beste, XUBEROAKO PASTORALA, INTXIXUREN IBILBIDEA, EUSKARAZKO ANTZERKIAREN ERAKUSLEIHOA, EUN DUKAT, PRENTSAN THEATRON, XABIN IRASTORZA OLASKOAGA EREINTZAKO PARTAIDE, EUSKAL ANTZERKI ANTROPOLOGIKOA "INEXA DE GAXEN", MENDEBALDEKO ANTZERKIA, ANTZERKIAREN ARRAGOIA (Guda osteko ikerketa 1980raino. 300ren bat grabazio, data, egile ospetsuen bibliografiak...)

Badago materiala, bai. Eta beste hainbat eta hainbat dokumentu interesgarri, tartean zentsura garaiko debeku eta idatzi xeble eta garrazak.

Zer eman diozu antzerkiari?

Dena, esango nuke. Nire bizitzako urterik onenak. Dakidan guztia eskaini diot antzerkiari, kasik nire bizi guztian zehar. Aurrena afizio gisa, eta gerora nire lanbidea izateraino. Asko gozatu dut. Suertekoa naiz teatroa gaztetatik ezagutzeagatik.

Antzerkiari dena eman diot, eta antzerkiak, batez ere, zoriona eman dit

Eta antzerkiak zuri?

Dena. Zoriona eman dit, batez ere. Eta ez da gutxi. Ez dut horretan saiatuaren damu handirik. Alderantziz. Eskerrak eman behar dizkiot antzerkiari, eman didan guztiarengatik.

*Txarapen, 2024ko apirilaren 30ean
Antton Kazabon Amigorena*

Suberri Matelo Mitxelena



“Herri bezala iragana berreskuratu, ez dugu ahaztu behar, mantendu egin behar dugu!”

Suberri Matelo Mitxelena, duela 32 urte Oiartzunen, Alzibarren, jaiotako mutil gaztea. Nahiz eta, gaur egun Karrikan bizi den, aitona-amonen bizitokia izandakoan, Bidasoro Errotan. Eta honenbestez, bere burua karrikatartzat du. Halere, aitaren aldeko aitona-amonen sustrai extremadurarrari ez dio inoiz uko egin. Eta harro dago, bere bizitzako hainbat alorretan biak uztartzen jakin du. Suberri historiaz eta ondareaz maitemindutako pertsona da. Bere herria eta bertako historia gustatzen zaiona, eta lau haizetara zabaldu eta defendatzen duena. Historia eta ondarea ikasketetatik haratago eramatea lortu du, eta gaur-gaurkoz lanbide du. Hori dela eta, gure herria zentzu horretan baloratzen eta goraiatzen du.

Zure ikasketak Elizalde Herri Eskolan hasi zenituen, gero Historiako ikasketak egin zenituen, eta hortik Arkeologian aditu eta aritu zara. Seguru maiz galdetu izan dizutela, baina nola piztu/sortu/hasi zitzaizun interesa?

Koskorra nintzela gogoratzen dut gurasoekin Urbasara joan eta fosilak bilatzea asko gustatzen zitzaidala. Arditurrin ere, meatze inguruetan, fosil asko dago. Beti izan dut fosilekiko interes hori, bilatu eta ikertzearena; dinosauroekin lotuta. Dena den, DBHn jakin nuen fosilak ikertu ahal izateko zientziak ikasi behar nituela; ez historia. Historiak gizakiak ikertzen ditu, eta horretarako letretatik joan behar nuela, eta argi izan nuen hori zela nire bidea.

Niri gustatzen zaidana da, testigu materiale-tatik informazioa lortzea. Horregatik ikasi nuen historia, materiale-tatik gizakiaren historia interpretatzeko. Jakin-min horrek eraman ninduen ikasketa hauek egitera, eta hortik arkeologiako praktikak egitera Aranzadin.

Azken urte hauetan, ordea, arkeologia utzi, eta etnografian espezializatzen ari naiz. Gaur egun edo orain dela gutxira arte erabili den kultura materiala ikertzen duen historiaren adarra, esate baterako, baserrietako tresnak.

Nola azalduko zenioke ezer ez dakien norbaiti zure lana edo Aranzadik egiten duena? Zer esango zenuke: lana da, ofizioa, afizioa, bokazioa ...?

Aranzadi 75 urte bete dituen zientzia elkartea bat da, zeinak hainbat adar dituen: botanika, ornitologia, herpetologia, ... Bertan, proiektuak egiten dugu lan, ez dugu plaza finkorik. Horrek une orotan berrasmatzera eramaten gaitu, proiektu eta ideia berriak pentsatzen ari gara beti. 2018an hasi nintzen ondare alorrean lanean: indusketatan batez ere. Bestalde, bilduma historiko ezberdinak kudeatzen, erakusketan muntatzen, museotarako materiala kudeatzen ... ere aritzen naiz. Hau da, museo baten atzean dauden lan horietan aritzen naiz.

Hortaz, ez nuke lan hau sekula aldatuko, izugarritzko zortea dudala iruditzen zait, ametsetako lana. Afizioa eta bokazioa lan bihurtzea lortu dut. Ni neronek naiz nire proiektuen buru, arduradun. Lanera joaten naizenean, gozatzerako noala pentsatzen dut. Zalantzarik gabe, ez nuke nire lana aldatuko. Lan guztietan bezala, beti dago gehiago eta gutxiago gustatzen zaizkidan alderdiak, batzuetan nekatzen naiz, agobiatzen naiz, edota ha-

serretzen naiz; baina, hala ere, ez nuke aldatuko. Hilabete batean mendian egon zaitezke karobiak aztertzen, eta beste batean bulegoan txostenak prestatzen, ... hain da anitza, ez baitu aspertzeko denborarik ematen.

Dakidanez, urte batzuetan Amaiurren aritu izan zara. Laburpen bat egiterik bai bertan egindako lanaz, ikerketaz, aurkikuntzaz ...?

Amaiurrekoa esan daiteke berezia edo kuttuna dela, bertan izan baitzen nire lehen esperientzia, nire lehen praktikaldia bertan egin nuen, 2012an auzolandegian. Gainera, 1512ko konkistaren 500. urteurrenarekin kointziditu zuen. Geroztik gaur egun arte, urtero joan naiz boluntario moduan. Auzolandegi hauek udaran izaten dira, abuztuko lehen hamabostaldian, beraz, Xanistebanak galtzen ditut.

Oraindik ere jarraitzen dut udaran Amaiurre-ra joaten, eta kudeatzen laguntzen dut. 2018an, hainbat ardura hartu nituen Aranzadin eta kontratu bat egin zidaten. Gaur egun, horrez gain, urtero beste 15 proiektu ere izaten ditugu: liburuak, erakusketak ...



Aipatu nahiko zenuke beste proiekturik? zuretzat Berezia izan dena ?

Aranzadiko Etnografia departamenduko buru den Fermin Leizaola donostiarraren bildumak eraman nau etnografia ezagutzera. Euskal Herriko baserrietatik hartutako 5.000 piezas osatuta dago. Bere etxean gordeta zuen materiala Aldundiari dohaintzan ematea erabaki zuen. Horretarako, bilduma horretako pieza bakoitzari fitxa bat egin behar zitzaion: zer den, zertarako, nondik datorren...

Lan hau egiteko jende gaztea formatu nahi zuen, ni eta nire lankidea, Maite Errarte Zurutuza, izan ginen aukeratuak. Horren harira, guztiz “engantxatu” ginen etnografiarekin eta Ferminekin berarekin. Horri esker, ari gara Maite eta biok departamendu honetan lanean. Lan egiteaz gain, pila bat ikasteko aukera eman zidan, eta oso eskertuta nago horregatik.

Horretan jarraitzen dugu, Ferminek hasitako proiektua ez baita bukatu. Dagoeneko 5.000 pieza inguru katalogatu ditugu, fitxak egin dizkiegu, argazkiak atera, ... Aldundira eraman eta Gordailuan gordetzen dituzte, Irunen duten zentroan. Honenbestez, Amaiurrekin batera, Ferminen materiala lantzea izan da niretzat politena.



Sukalde lanetan ere gustura ibiltzen omen zara. Aranzadirekin ari zara lanean baino sukalde lanetan egotea nahiago izan duzu? Sukalderako pasioa lan bihurtu duzu?

Lehen esan bezala, Amaiurko auzolandegietan boluntarioak izaten ditugu. Hamabostaldi batez 30 bat pertsonak boluntario talde bat elkarrekin bizi gara Amaiurko aterpetxean. Bertan, txandaka bost pertsonako talde bat etxea kudeatzen geratzen da egunero. 2016tik konturatu nintzen gehiago gustatzen zitzaidala etxean geratzea eta kudeaketa egitea, sukaldeko lanak egitea. Hainbeste jenderentzat jana prestatzen disfrutatu egiten dut, gustatu egiten zait. Hortaz, aporteratzen jarraitzen dut, baina beste modu batera: sukaldean. Ardura hori nik hartzen dut bi astez, eta asko gustatzen zait. Gainera, gerora beste bi indusketetan ere aritu naiz lan hauetan.

Finean, jendea boluntario dator eta iruditzen zait jende hori ongi tratatu behar dela, goxatu egin behar dela. Eta zer hobeto egunero lanean aritu ondoren denontzako otordu goxo bat prest izatea baino. Ni ere izan naiz boluntarioa hasierako urte horietan, eta ni ongi tratatu ninduten, beraz, ni ere besteak mimatzen saiatzen naiz. Hori da “engantxatzen” duena, esperientzia osoa.

Zer da zure lanetik gehien / gutxien gustatzen zaizuna? Ume edo gazte bati gomendatuko zenioke?

Aranzadin egiten diren lanen artean gehien gustatzen zaidana, txarrerako edo onerako, finantzaketa finko bat ez daukadanez, denbora gus-



tian proiektu edo ideia berrien bila ibili behar dudala da. Askok berrasmatu behar izaten dut. Horrek eramaten nau, beti ikertzera, pentsatzera, “saltseatzera”, ... Aldi berean, nire proiektuen kudeatzaile propioa ni neu naizenez, askatasun handia dut adibidez ordutegia antolatzeko. Ildo horretan, abantaila bat da nola lan egiten dugun. Nik gomendatuko nuke, norbaitek bokazioa badu, ez historiarekin bakarrik, edozerekin; norberari gustatzen zaiona, interesa pizten diona, ikas dezala. Ikaste prozesuan ere intereseko lanetan, praktikan, boluntariotzan, muturra sartzen saiatu. Beti dago zerbait ikasteko. Eta gero, bizitzak eramango zaitu lan batera edo bestera.

Azken urtean, “Sorioneku” eskua izan da Euskal Herrian sona handiena izan duen aurkikuntza. Nola bizi izan zenuen? Boom mediatico handia jasan zenuen?

Euskal komunitateak ilusio handiz bizi duen gertaera izan da, eta Aranzadirentzat zer esanik ez; azkenean, elkarteko talde baten aurkikuntza izan baita. Dena den, horri gehitu behar zaio Amaiurko auzolandegietan lagun izan ditudan hainbat arkeologo izan direla aurkikuntza hori egin dutenak. Gaur-gaurkoz, Aranzadiko lantalde beraren parte gara, eta gure “kuadrillatxo” osatzen dugu, oso lagunak gara. Horrenbestez, hain gertuko jendea egonik bertan, Irulegiko eskuarena oso gertutik eta ilusio handiz bizi izan dut.

Dena den, gurekiko, kanporako bezainbesteko, sekretismoz gorde zuten berria. Boom mediaticoa ekarri zuen horrek, Aranzadirentzat eta bertako kideontzat. Baina bereziki Irulegiko aztarnategiko lantaldearentzat. Ingurukoei, ordea, disfrutatzea tokatu zaigu, beraiei eta arkeologiarri egin zaien aitortzagatik. Ni ez nengoen bertan, ez nuen nik aurkitu, baina esan dezaket aurkikuntza hau oso propio sentitu dudala. Eta esan daiteke, “zorionekoak” izan garela.

Zure lanik edo aurkikuntzarik garrantzitsuenak zein izan da?

Aurkikuntza bezala, esan daiteke, ez daukadala. Baina oso kuttuna dut Amaiurren aurkitutako ezpata, nahiz eta ez nuen nik aurkitu. Ni Amaiurko auzolandegietara joan baino urtebete lehenago aurkitutako da. Ezpata hau Amaiurko “sinbolo” gisa daukagu lantaldeak, tatuajea eta guzti egin genuen. Taldearen aurkikuntza gisa, kuttuna.

Etnografiari dagokionez, aldiz, laiak. Pieza oso berezia dela deritzot, oso estetikoa; lurra lantzearen irudiak duen indarragatik. Hau ere tatuatu dut, eta azkenaldian oso obsesionatuta egon naiz honekin.

Zure historialari sena alde batera utzi gabe, zure herriari eta baita auzoari ere aportatzen saiatu zara. Besteak beste, Artikutzako trenarekin buru-belarri aritu zara. Nola sortu zitzaizun jakin-mina, interesa, ideia?

Hasteko, esan daiteke beti begien bistan izan dudalako; hau da, etxeko atarian izan dut betidanik. 2014an Gradu Amaierako Lana egin behar nuen, eta hemen ondoko Aranburu baserriak zuen ola eta presa ikertzen hasi nintzen. Eta hor ohartu nintzen lehenengo trenari buruzko aipamenez. Nahiz eta entzuna nuen Artikutzako trenaz, ideiak lotzen hasi nintzen.



Hori dela eta, horren inguruan ikertzen hasi nintzen eta argitalpen ezberdinak bazirela konturatu nintzen; Antton Mendizabalenak, besteak beste. Hari horri jarraiki, interesa piztu zitzaidan eta ondarearekin lotutako master bat egin nuen, eta horrekin hasi nintzen buru-belarri. Beraz, Anttonek zuen informazio eta lan guztia modu formalean antolatu nuen 2016aren bueltan. Eta 2017an Mugarri liburua idazteko aukera izan genuen bien artean, nahiz eta Antton den lan horren egile edo ikertzaile nagusia. Oso lan polita izan zen, uztartzen dituelako nik maite dudana zerbait: Oiartzun, Oiartzungo ondarea, natura eta etxetik gertu edukitzea. Horregatik, jarri ditut etxeko terenoetan neronek ordaindutako panela eta bagoia. Jendea kontzientziaren asmoarekin.

Artikutzako trenaren gaia bat, erakusten diguna Artikutzaren iragan industrialak. Gaur egun, bertara joan eta ematen baitu gizakiaren eskuak behin ere manipulatu gabeko ingurua dela. Baina gogorarazi behar zaio jendeari hori duela ehun urtetik honako lana dela. Aurretik gizakiak ustiatutako baliabide natural bat zen.

Zure bizilekua eta zure ikasketa uztartu dituzu beraz, zer gehiago esan diezagukezu zure inguruaz, auzoaz, herriaz?

Oso gustura bizi naiz Oiartzunen eta ez nuke nire bizilekua aldatuko. Ondarearen ikuspuntutik oso herri aberatsa da, iragan meatzari, industrial eta baserritarra du. Beraien artean uztartuak, baserritarrak, nekazariak, abeltzainak... izan dira gure aurrekoak. Baina ez dugu ahaztu behar meatzaritza bertan izan dugula Erromatar garaitik, edo lehenagotik, 1980ko hamarkadara arte. Herria asko markatu du honek, bi meatze-tren eduki ditugu, edo herriko erraldoiei begiratu, bat meatzaria da, bestea baserritarra... Beti hor mugitu izan da gure herria, betiere, sustraiak edo erroak ahaztu gabe; elkarlanean.

Pena ematen dit herri gisa iragana oso azkar ahazten dugula. Udalaren eta makina bat boluntarioren aldetik lan handia egiten ari dira gure herriaren ondare material zein immateriala gordetzeko, eta hori azpimarratu nahiko nuke. Baina herri gisa oraindik asko dago egiteko, eta egin beharko litzatekeela uste dut, eta egingo da interesa badagoelako. Daukan balio kalkulazina oraindik ere esplotatu beharra dago.

Esan daiteke ezinegon edo jakin-min handiko pertsona zarela. Aurrera begira, zer proiektu pertsonal/profesional dituzu?

Gogoia dut Artikutzako trenarekin berriro ere lanean hasteko, utzi samarra eduki dut azkenaldian eta badut gogoia horretarako; beste libururen bat atera, adibidez. Irakasteko eta erakusteko asko dago. Bestalde, Aranzadin bai, baditugu proiektu pila bat pentsatuta hurrengo urteetarako. Ideiak beti ditut buruan bueltaka, ahal dudanean museoak bisitatzen ditut ideia berriak hartzeko, han edo hemen. Esan bezala, gauzak baditut buruan, orain forma eman behar eta egikaritu behar.

Elkarrizketa hau Xanistebanen bueltan argitaratuko dela jakinda, zer esan dezakezu gure herriko festez? Historialari gisa? Eta herritar gazte moduan?

Aipatu dudan moduan, 2012an joan nintzen lehenengoz Amaiurrera lanera, festen data horietan. Pena handiz bizi dut, gauzak asko aldatu dira ordutik: festa egiteko modua, festagunea, gazte eguna... Hau da, festa bera ulertzeko modua asko aldatu dela uste dut. Baina garrantzitsuenak, disfrutatzeko gogoak, bertan jarraitzen du. Iruditzen zait festa oso bizirik dagoela, eskaintza oso zabala dela, eta jakin da aurrera egiten eta garai

berrietara egokitzen. Nabari da herri ekimen asko dagoela, jende askoren iritzi eta proposamenak kontuan hartzen direla.

Nahiz eta ez bertan egon, urtero programa leitzen dut goitik behera. Eta beti fijatzen naiz kontzertuetan, eguneko ekintzetan... Zer egiteari utzi zaion, eta zer-nolako berrikuntzak dauden. Zalantza dut gustuz egiten ote dudan, edo ikerketa moduan. Eta gustatzen zait. Historikoki edo etnografikoki ere herriko festetako programek, eta baita urtekariak ere, informazioa ematen digute. Gizartea aldatzen doan heinean, festa eta festa egiteko modua ere aldatu egiten da. Garai batean, festa mezarekin edo otorduarekin lotuko zen; gerora, musika sartuko zen; eta gaur egun gaueko parrandari garrantzi handia ematen zaio, eguneko galduta gabe. Egia esan, polita izango litzateke festei buruzko erakusketa bat proposatzea Udalari, ikuspegi historikotik.

Azkenik, aprobetxatu nahiko zenuke auzotarrei edo herritarrei zerbait esateko?

Ez ahazteko gure iragana. Iragana ez delako museoetan eta erakusketetan gordetzeko zerbait soilik. Iraganaz inguratuta bizi gara, bazter guztietan. Baserri batek, bide batek, zubi batek, ohiturek ... edozer gauzak ematen dio herri bati identitatea, eta edozein gauza txiki zein handi baloratzen ikasi behar dugu. Gustatuko litzaidake, oro har, iragana gehiago baloratu dadila. Ez dezagun ahaztu nondik gatozen, zer garen, identitatea, ... Herri bezala iragana berreskuratu, ez dugu ahaztu behar, mantendu egin behar dugu!

MILA ESKER!

Aintzane Toledo Lardi

Mari Karmen Labandibar



AMONA MARI KARMENEKIN HITZASPERTUAN

1. IZENA, JAIOTERRIA, JAIOTETXEA...

Mari Karmen Labandibar Rekalde naiz. Ugaldetxoko Larrea baserrian 1938ko martxoaren 13an jaioa. 22 urte arte baserrian bizitua. Ondoren Arraguan. Ama Felisa nuen, aita Francisco, Patxi deitzen zioten. Anaia bakarra nuen, ni baino bost urte zaharragoa, Joxe Antonio. Nik Ugaldetxon baina urte gehiago egin ditut Arraguan baina ni Ugaldetxokoa naiz.

Zenbat senide zarete? Badakigu esnezko ahizpa bat ere baduzula, kontatu hori.

Gu bi senide ginen. Anaia eta biok. Baina esaten dugu beste ahizpa bat ere banuela: gure baserri ondoko etxean, ni baino 17 egun beranduago, jaio zen Mertxe deitzen zen haur bat. Mertxek ez zion bularra har-

Garai batean belaunaldien arteko transmisioa sukalde epelean egiten zen. Gaur, sukaldeak hoztu eta pantailak berotu ditugun garai hauetan, horixe egin du Mari Karmenek gurekin, bere bilobekin, mahaiaren bueltan bildu sukaldeko epelean.



Mari Karmen bilobekin, elkarrizketa egiten.

ra joaten nahiz eta gertu egon. Soldaduak ziren han, eta ordu erdiko-edo deskantsua ematen zientenean meriendatzera etortzen ziren tabernara. Barullo izugarria izaten zen, festetan bezala. Izebak ez zidan uzten erratza pasatzen, jende asko ibiltzen zen seinale zelako.

Han bizitzen egon nintzen 18 urte arte. Batzuetan baimena eman eta etxera etortzen nintzen. Topoa Loiolan hartu eta etxera. Nik ez nuen dirurik txartela erosteko eta nire aitak topoan lana egiten zuenez bertan sartu eta "soy la hija de Patxi" esaten nion eta inspektorea haserretu eta, "Qué Patxi, dile a tu padre que te compre billete!!!" esaten zidan. Neska kozkorra nintzela ikusi eta uzten zidan baina beti errietaka. 5 pezeta ematen zidaten eguneko tabernan lana egiteagatik. Dirua etxera ekartzen nuen.

Txominen militar asko omen zeuden, beraiekin futbolinean jolasten ibiltzen ziren tabernan?

Alferrez batzuk etortzen ziren eta haiekin futbolinean aritzen nintzen. Oso ongi moldatzen nintzen lanean beraiekin. Orain konturatzen naiz gaztea eta polita nintzela eta tabernan jendea erakartzeko erabiltzen ninduela izebak. Militarrak erdaraz aritzen ziren baina ez zidaten ezer esaten, ez nekielako erdara.

Zure senarra Loiolakoa zen, tabernan ezagutu zenuen?

Nire senarra Loiolakoa zen. Hernanira joaten zen kuadrillarekin dantzara. Handik azkeneko treina hartu eta Txominen jaisten ziren azken tragoa hartzera. Txominen hiru taberna zeuden, Txomin taberna, erdikoa eta Santi. Azken honetan egiten nuen lana nik eta bertan ezagutu genuen elkar. Nire senarra ni baino 7 urte zaharragoa zen. 19 urterekin ezagutu nuen, hiru urte egin genituen nobio-nobiatan eta 22 urterekin Arraguara ezkondu ginen.

Txikierrira etortzen omen zineten bertako bilerara.

Zuek gaur egun dantza bezala ezagutzen duzue guretzako bilera zen. Gaur egun Txikierrira ere hor dago. Eguraldi onarekin terrazan egiten zen bilera eta eguraldi txarrarekin barruan. Mutilak izkina batean jartzen ziren eta bi neska batera dantzan ikusten zituztenean, mutilak esaten ziguten: "faborez?", eta guk dantza egin nahi bagenuen aurrera edo bestela ezetz esaten genien. Iluntzen hasten zenean etxerako bidean askotan mutilak ezkutatuak egoten ziren neskei etxera laguntzeko.

Hernanira ere joaten omen zineten dantza egitera.

Balsak dantzatzeko ziren Tilosetan. Ez dut oso ongi gogoratzen gizonak ordaindu egiten zuten eta andreak doan edo gizonak ordaintzen zigiten andreei, baina guk ez genuen ordaintzen.

3. OIARTZUNERA EZKONDU

Ezkondu eta Oiartzunera etorri zineten bizitzera, nola izan zen ezkon-bidaia?

Hiru urtez ibili nintzen nobiotan. Nobio ginela Arraguako etxea egiten hasi ginen, Inda-Berea izena jarri genion, egin eta berea. Guretzat eta nire anairentzat zen etxea. Oiartzungo elizan ezkondu ginen, uztailearen 16an, eta Arraguako etxera abuztuaren 3an etorri ginen, geroztik hemen nago. Ezkon-bidaia Zaragozara egin genuen trenez. Zaragozan Loiolako gure ezaguna zen bikote bat ikusi genuen eta haien kotxean jarraitu genuen ezkon-bidaia Montserratera (Bartzelonara).

Familia ere sortu zenuen. Noiz?

Bai, hiru seme-alaba ditut. Ezkondu eta bi urtetara eduki genuen lehen alaba. Ondoren hiru urtetara semea eta zazpi urtetara azken alaba.



Mari Karmen gaztetan, ikastolako festa batean.

Badakigu ikastolaren sorreran lan handia egin zarela. Taberna, tonbolak... dene-tik egin zenuten dirua lortu eta ikastola aurea ateratzeko.

Bai, ni eta baita beste kiartzuar askok ere. Etxez etxe, enpresaz enpresa ibili ginen dirua biltzen, bazkideak biltzen. Hilabetero 1.000 pezeta (6 euro) ematen zizkiguten eta 10.000 pezeta osatzean bazkide bonua ematen genien. Hiru seme-alabak lotan utzi eta joaten nintzen. Hau dena antolatzeko bilerak ere egiten genituen. Makina bat bider etorria naiz gaueko hamabietan ikastolako bileretatik. Tartean, tabernak, tonbolak... egiten genituen dirua biltzeko. Tonbolak oso handiak ziren, jendeak eta enpresek ematen zizkiguten gauzakin osatuak (ontziteria, arropa, txirrinduak, jostailuak...).

Zure lehen alaba bertan hasi zenuten. Oso haur gutxi omen ziren, ezta?

Gure alaba 3 urterekin Arraguako Eskola Nazioalean hasi genuen. Maixtra bakarra zuten eta dena gazteleraz egiten zuen, alabak ez zuen ezer ulertzen. Urtebete edo egingo zuen bertan. Gero ikastola bat sortu nahi zela eta familia batzuk elkartu eta bi irakaslerekin batera (Ines Olaziregi eta Arantxa Madariaga) aurrera egin genuen. Uste dut lehen urtean 15 ikasle zirela, 7 handienak, gure alaba tarteko, eta gazteagoak besteak. Egun haurtzaindegia dagoen beheko plazako bajo batean hasi ziren.

Oso apustu ausarta izan zen, zer esaten zizuen inguruko jendeak ez zenutelako alaba "Escuela Nacional" batera bidaltzen?

Bai, oso familia gutxi ginen erabaki hau hartu genuenak. Inguruan batzuek esaten ziguten "euskara

hutsarekin ezin da joan inora, eta nik behintzat ez ditut nire umeak hasiko ikastolara". Hala ere, guk ikastola sortzea erabaki genuen. Heziketa euskaldun eta ez frankista bat nahi genuen.

Auzoan ere lana egin zara. "Agrupación de Madres de Familia" elkarte bat zenuten Arraguako Aldeguna elkartean, bertan emakumeak elkartu eta ekintzak egiten zenituzten auzoarentzat.

Aldeguna elkartea sortu zenean emakume talde bat bertan ekintzak antolatzen hasi

ginen auzoa zertxobait girotu eta animatzeko. Gauza ezberdinak antolatzen genituen, sukaldari bat ekarri eta sukaldaritza tailerrak, hitzaldiak, jubilatuentzako bazkariak... Horretaz gain, Aldegunarekin, Urkabe eguna, auzoko jaiak, Xanistebanak antolatzen lan handia eginak gara.

Zure seme-alabak txikiak zirela ez zenuen etxetik kanpo lan egiten baina etxera dirua ekartzeko zure afizioa ofizio txiki ere bihurtu zenuen. Badakigu afizio handi bat eduki duzula beti eta hori puntua egitea izan da; noiz eta non ikasi zenuen? Zenbat txaketita, zenbat jertse, zenbat galtzerdi, zenbat zapata txiki eta kaiku egin ote dituzu?

Niri brodatzea gustatzen zitzaidan, baina nire amak josteko esan zidan eta josten ikasten hasi nintzen. Oiartzunen lehengusu batzuk banituen puntua egiten zekitenak eta haiekin hasi nintzen puntua egiten baita ere. Eskuz egiten nituen arropak. Kaiku pila bat egin ditut. Oiartzungo haur askok dituzte nik egindako jertse, kaiku, txaketita eta zapatituak. Lehen saldu egiten nituen eta gero inguruan haurdun baldin bagenuen norbait oparitzeko ere egiten nituen. Galdetu bai Oiartzunen zenbat haur jaioberrik jantzi dituen nik egindako txaketitak eta zapatituak.

Ondoren lanean ere hasi zinen.

Bai, nik ere diru bat ekarri nahi nuen etxera eta seme-alabak pixka bat koxkortu zirenean Donostian hasi nintzen etxeak garbitzen. 19 urte egin nituen arratsaldero topoa hartu eta lanera joaten. Lau etxetan aritzen nintzen, haien artean familiakoak ziren. Kontua da, denborarekin jakin zutenean gure suia espetxean zegoela eta zer

pentsatzen genuen politikoki, hiru etxetik bota nindutela. Beldurra omen zuten. Gure kontrario purrakatuk izaki haiek.

4. EUSKAL HERRIKO GATAZKA

Euskal Herrian egoera politikoaren ondorioak jasoa zara. Zure gizona askotan atxilotu zuten, sekula ez zuten kartzelan sartu baina bai atxilotu. Horren ondorioak zuk ere barrubarrutik bizi izan izan zenituen. Zer kontatu dezakezu?

Goñiak ikusia naiz, bai. Bai ni eta baita nire senarra ere. Askotan etortzen ziren nire senarren bila, ia beti gauez eta erabat armatuak gainera. Nik gehienetan ez nekien non zegoen, askotan atxilotu zuten. Behin gogoan dut gure ohea egin zegoela nik umeen gelan egin bainuen lo. Poliziak, “usted no duerme con el marido” esan zidan? “Sí, pero no sé dónde está” ordurako beraien bazekiten, bai, atxilotua zegoela, lanetik 22:00etan atera eta eraman baitzuten.

Beste behin, etorri ziren eta nik alaba txikiena besoetan nuen. Poliziak dokumentu bat sinatu behar nuela esaten zidan behin eta berriz eta nik ez nuela ezer sinatuko nire senarrarekin egon gabe. Dokumentu horretan etxean armak aurkitu zituztela jartzen zuen. Auzotar bat behartuta testigu bezala ekarri zuten miaketara eta berak beldurraren beldurrez sinatu egin zuen. Alaba negarrez nuen, “por qué llora la niña” esan zidan eta nik erantzun nion “porqué yo tengo llaves en la mano y usted tiene una pistola, como no va a llorar!”.

Horrelako asko bizi izan ditugu.

Telefono mehatxuak, jarraipenak... Egia al da zuen etxe azpian kotxe bat egoten zela zure senarra zaintzen?

Telefonoz mehatxuak jaso ditugu, bai. Jarraipenak ere asko. Lehen mehatxua gure alaba gazteenak jaso zuen oso ume zela, 1975 urte bukaera edo 1976 urte hasiera izango zen. “Su marido va a ser ejecutado en un plazo de tres meses”, esan zioten. Geroztik askotan jaso genituen horrelako deiak. Etxe azpian ere kotxe bat egoten zen bi pertsona barruan zeudela, gau eta egun. Bokadi-loak ekartzera etortzen ziren beste kotxe batean. Senarra etxean zegoenean lasaiago egoten ginen, baina soziedadean edo kalean bazegoen, alaba txikia hartu eta bila joaten ginen, bakoitzak beso batetik hartu eta babestuz etxera ekartzen genuen. Ikara handia izaten genuen, tentsio latzak. Antsietate krisi gogorrek jasaten nituen, laguntza behar izan nuen.

Behin Amarako komisariara joan zinen zu bakarrik senarrarentzat botikak eramatera. Zer gertatu zen?

Amarako Gobernu Zibilera joan nintzen bakar-bakarrik. Senarra bizkarretik operatua zegoen eta botika batzuk hartu behar zituenenez, haiek eramatera. Poliziak barrura sartu eta ni atxilotu nahi ninduten, ni garrasika, senarrarengana heldu nintzela, nik ez nuela ezer. Orduan ere ni senar bila eta beraiek dagoeneko askatua zuten, baina niri ez zidaten ezer esan. Kanpora atera nintzenean, bere abokatua zen Enrique Mugica Herzog-ek “le han dado hasta en el carnet de identidad” esan zidan.

Zure esnezko ahizpa Iparralden bizi zen eta asko joaten zineten bisitan; mugan ez omen zizuen pasatzen uzten.

Bai, gure iganderokoa zen. Bazkari kaxula bat hartu eta Iparraldera. Nire senarrari ez zioten askotan mugan pasatzen uzten. Mugan alde batean Guardia Zibila egoten zen eta bestean Jendarmeak. Nire senarrari karneta eskatu eta atzera botzen zuten. Nik beti ondotik “vamos a visitar a mi hermana de leche” esaten nien. Gogoan dut igande batean, nola Santiagoko zubian atzera bota eta Behobiakora joan ginen, han ere atzera. Kaxularekin etxera etorri, bazkaldu eta esan genuen “arratsaldean berriz saiatu behar dugu”. Ibardinera joan eta han polizia barrakoi moduko batean zegoen, atera, begiratu eta aurea esan ziguten. Nire senarrak esan zidan, hau ere irabazi dugu eta bagoaz errefuxiatuak bisitatzera!!!

Errefuxiatuek gose greba handi bat egin zuten Hendaiako elizan; zu topoa hartu eta eguneroko joaten omen zinen Mertxe ikustera.

Bai, ez naiz gogoratzen ongi urtea, 1984a akaso. Gose greba handi bat egin zuten errefuxiatuek. Gogoan dut Hendaiako eliza txuri batean zeudela, hondartza bukaeran dagoen elizan. Ni, arratsaldero, gure haurrak nire amari utzi eta topoa hartuta joaten nintzen bisitan. Topoan Hendaian jaitsi eta gero oinez bide luzea egiten nuen ura eraman eta arratsaldean konpainia egiteko.

Gatazka honek urte asko iraun duenez, senarraz gain zure suiarekin ere Espainiako espetxe asko bisitatu dituzu.

Bai, kilometro asko egin ditugu kotxean. Nire senarra gauean 22:00etan lanetik atera eta alaba eta hirurak joaten ginen Valentziara. Gero bilobak etorri zirenean, haiekin ere bai. Denetik pasa dugu hainbeste urtetan. Makina aldiz bere kartela/argazkia bizkarrean hartuta ere ibilia naiz Donostian edo Oiartzunen kontzentrazio isiletan.



Amona eta biloba guztiak.

5. BILOBAK ETA GAUR EGUN

Bilobak ere badituzu. Gu hazren ere gure gurasoei asko lagundu diezu.

Bai, 6 biloba ditut. Zuekin asko egondua naiz. Bi zaharrak, beraien etxeko egoera dela eta, gure etxean haziak dira. Ostiralero ere hemen izaten zineten bazkaltzen. Ikastolara, kiroldegira... ere makina bat bidaia egin naiz meriendak poltsan hartuta. Behar zen tokian han egon naiz, bai, zuekin.

Bada 20 urte aitona hil zela. Aitona eta zure ama hiru hilabeteko aldearekin hil ziren, biak zaintzen izan zinen.

Azkeneko urteetan ama gure etxera ekarri genuen bizitzera, senarra eta hirurak bizi ginen Arraguan. Senarra minbiziarekin hil zen 73 urterekin, eta ondoren ama 92rekin. Biak zaintzen izan nintzen beraien azken egunetan. Une batean biak zeuden ingresatuak. Arratsaldetan nire anaiak gure ama zaintzen zuen bitartean ni senarrarekin egoten nintzen. Ez ziren momentu errazak izan. Festa ederrak bai biak zaintzen.

Ondoren zu ere gaixotu eta minbizia gainditu duzu.

Bai, besoa karetxa antzeko zerbait atera zitzaidan. Ni karetxa zelakoan iodo belarrarekin tratatzen nabilen nire kabuz baina azkenean sendagileari galdetu eta kendu egin zidaten. Berehala sendagileak deitu eta susmo txarra hartu nion, efektibamente, txarra izaki. Onkologikoan opera-

tu eta ganglio bat kendu zidaten, hau aztertu eta hau ere txarra. Orduan, sendagileek ganglio denak kentzea erabaki zuten. Tratamenduan egon naiz 8 urtean eta orain alta emana nago baina besoa ez dut ongi. Eskuineko besoa mugimendu gutxirekin dut.

Gaur egun Arraguan bizitzen jarraitzen duzu, aukera duzunean lagunekin ere ateratzen zara eta seme-alabak eta gu ere inguruan gaituzu.

Bai, denak hemen inguruan zaituztet. Lagunak ere baditut, eta noizean behin ateratzen gara edo telefonoz elkar deitu. Egia da orduan eta gutxiago ateratzen naizela, bista ere asko galtzen ari naiz, baina tira.

Eskerrik asko, amona, izan zarela gara!!!

Bukatzeko, bertso hau zuretzako, amona.

DOINUA: Maiteaz galdezka (Xabier Lete)

*Amonakin mintzatu gera buruz buru
Larogeita sei urte aztertu ditugu
Ta bertan murgiltzeak hunkitu gaitu gu
Orain askoz gehiago maitatzen zaitugu.*

*Elkarrizketaren egileak:
Mari Karmenen bilobak*

Leire Galdos

Gurutzeko frontoetik hamaika pilotalekutara





Leire Galdos txikitatik Gurutzeko frontoian gogoratuko dute askok, eta orain ere, berarekin topo egiteko leku aproposenak horiexek dira: frontoiak. 2000. urtean jaio zen, eta orduz gezotzik ez da geldirik egon, berak ere hala aitoritzen du, gauza berriak probatzea atsegin duela, izan pilotan, bizikletan edota mendian, ez du planik faltan izaten.

Egun pilota munduan kokatzen du bere burua, eta zenbait modalitatetan ibiltzen dela kontatu digu, gomaz, larruz eta trinketean batez ere, azken boladan behintzat. Haurtzaroa Gurutzeko frontoian oroitzen du: "Frontoitik hamar metrora bizi naiz, gogoratzen dut aitarekin edo anaiarekin joaten nintzela askotan, ordu asko eman ditut nik frontoi horretan".

Jolas modura hartzen zuen txikitari pilota, eskola pilotan palan hasi zela oroitzen du, baina federatu gisa lehen urratsak joko garbian egin zituen. Berarentzat oso ezaguna den arren zestoarekin jokatzeko modu hori, Gipuzkoan leku gutxitan ibiltzen direla kontatzen du, Villabona, Zubieta eta Oiartzun ditu behintzat berak akorduan, baina Ipar Euskal Herrian tradizioa handiagoa dagoela azaltzen du. Nolatan hasi zen galdetuta, anaia eta anaiaren afizioen eragina aipatzen ditu: "Garai horretan anaia ibiltzen zen joko garbian, eskolatik ateratakoan izaten zuen entrenamendua, eta etxera elkarrekin joateko itxaron behar izaten nion nik. Ikusten egoten nintzen, eta han denek ezagutzen ninduten jada, egun batean probatzeko esan zidaten, eta gustatu egin zitzaidan, 12-13 urte arte ibili nintzen".

Modalitate hori gustatu bazitzaion ere, ez zuen aterik itxi. Palan lehenago ere ibiltzen bazen ere, Txost elkartean palan hasi zen, "hasieran neskekin, eta gero mutilekin ere bai". Gipuzkoan neskek gomazko pilotarekin ibiltzen direla azaltzen du, eta paletara bideratzen dituztela, "ezkerparetan jokatzen den paleta eta gomazko pilotara" zehazten.

17 urte betetzerakoan edo, trinketa gehitu zen Galdosen zerrendara: "Paleta argentina-rra deitzen den moldaitatean aritzen gara, beste joko mota bat da". Eta Iruran entrenatzen da modalitate horretan. Baina horrekin aski ez, eta egun larruzko paletan ere ibiltzen da. "Bizkaian batek txapelketa antolatu nahi zuen, animatzeko deitu zigun eta frontoian gomazko paletarekin ibiltzen ginenak entrenatzen hasi ginen, eta gustatu zitzagun", kontatzen du eta, beraz, modalitate hori ere zerrendara. Aurten, gainera, aipaturiko txapelketa horren seigarren edizioa da, eta txapela eskuratu zuen Galdosek Amaia Irazustabarrenarekin.

"Gustatzen zaiguna egiten dugu, probatzen dugu eta gustura gaudenez, aurrera", laburbiltzen du berak bere ibilbidea. Egun bi klubetan dago, Hernaniko klubean batetik, eta Endaiarrrak klubean bestetik. Lapurdiko herrian trinketean aritzen da.

Modalitate bakoitzean entrenatzeko ezagarriz ezberdinetako frontoiak behar izaten dira, eta Galdosek denak ez badira, ia denak ezagutzen ditu: "Ni neskekin entrenatzen naiz, Iruran trinketean, Urnietan eta Hernanin, berriz, frontoian. Astean bost egunez ditut entrenamenduak, eta asteburuetan partidu bat edo bi; Gipuzkoako federazioak teknifikazio batzuk antolatzen ditu, eta klub ezberdinetako nesken zako entrenamenduak dira, Iruran trinketean eta Urnietan ezkerparetan".

Momentu honetan gehien gustatzen zaion joko trinketeko da: "Trinketa asko gustatzen zait, paleta argentinarra modalitatean. Pilota oso bizia da, joko ere oso bizia, efektuak egiteko aukera dago, lau pareta dituzu, errebotea...". Gure inguruan horren ezaguna ez bada ere, azaltzen du mundialetako modalitatean dagoela trinketa, eta beraz gure inguruan asko jokatzen ez den arren, ezaguna dela munduan zehar.



ERREFERENTZIAK ETA IKUSGARRITASUNA

Egun neskekin entrenatu eta lehiatzen da, baina gogoratzen du joko garbian ibiltzen zenean beti mutilekin ibiltzen zela, eta Oparraldean jokatzen zituzten partidak: “Ni momentuan ez nintzen kontziente zergatik, baina momentu batetik aurrera ez zidaten Iparraldean jokatzen uzten, eta zen adin batetik aurrera neskek ezin zutelako mutilekin batera jokatu. Orduan hemen bakarrik jokatzen nuen, gure artekoak. Eta hor utzi egin nuen”. Inoiz ez du bizi izan neska izatea “oztopo” gisa, baina atzera begira, momentu batzuetan izango zela aitortzen du.

Bidea egiteko erreferenteak behar izaten dira sarritan, baina Galdosek ez du buruan bereziki erreferenterik izan kontatu duenaren arabera: “Txikitan ez nuen erreferentzia jakinik, probatzen joan naiz, jokatzen eta bidea egiten. Ez nuen inor esango nukeena: 'bua, bera bezalakoa izan nahi dut'. Orain jende gehiago ezagutzen dut eta kontzienteagoa naiz, nire entrenatzailea den bat badut erreferente: Mainer Mendizabal. Gauza asko egin ditu, txikitan ez zara konturatzen, us-te duzu zure entrenatzailea dela eta kito, baina gero konturatzen zara zer-nolako ibilbidea duen eta eta agian orduan bihurtzen da erreferente”.

Egun, beraiek izan daitezke beste batzuen erreferente, gazteagoenak edota helduagoenak ere bai, zergatik ez, eta pilotan ibiltzen direnen artean sare bat badutela kontaktatzen du: “Nesketan gaudenak gaude, gure artean guztiek ezagutzen dugu elkar”.

Hala ere, beraien kirolari ikusgarritasuna falta zaiola uste du. “Ez da asko ikusten den kirol bat palarena, eskua eta orain emakumeen eskua gehiago bultzatzen ari da, telebistaren eragina ere hor dago, telebistan agertzen dena ezagutzen da azkenean”. Konparazioan hobera doazela sumatzen du, baina hala ere gehiago egin behar dela uste du ikusgarritasunaren eta ezagutzaren alorrean: “Lehenago gutxiago ikusten zen pala, nesketan, behintzat, ez. Hala ere, gauza asko falta dira. Eskuz emakumeak ari dira gehiago bultzatzen, telebistan ere ikusten da, eta neska gazte gehiago ari dira horretara bideratzen, baina palan ere badaude batzuk, baina beste kirol batzuek duten oihartzunik ez du oraindik”.

Oroitzapen bereziren bat duen galdetuta, Europako txapelketan aritu zenekoa ekarri du gugana, onewallean, pilota portugaldarrean eta pilota internazionalen aritu zen bertan, horiek ere probatu eta gustatutakoen zerrendan egon baitziren.

“19 urtez azpiko txapelketa zen, eta ni nintzen zaharrenetakoa, 18 urte edo izango nituen. Bidaia izan zen oroitzapen ona gordetzeko motibo nagusia nik uste. Euskadiko selekzioko kide gisa joan ginen asko, denak gazteak, eta denak adinekoak, zaletasun antzekoekin, tarteka horrelakoak ere ematen dizkigu pilotak”.





EGUNGO EGOERA

Denbora da egun Galdosi falta zaiona, bi klube-tan dagoenez, normalean asteburuero bi partida izaten ditu, eta urte osoan izaten dituzte txapelketak, “normalean txapelketatik txapelketara ez dago deskantsurik”, gaineratzen du.

“Askotan ezin ditut planak egin, azken momentuan apuntatu naiteke akaso... eta alde horretatik batzuetan nekagarria egiten zait. Baina merezi du, gustura aritzen naiz. Batzuetan nekatzen zara, baina gustura gaudelako ibiltzen gara, ze dirua galtzen dugu seguru”, hausnartzen du neke eta ilusio artean.

Neska pilotari eta pilotazaleekin osatu duten sareak elkar babestu eta bultzatzeko balio due-la esaten du Galdosek: “Afizio berdina dugun jendea ezagutzeko aukera ere eman dit pilotak, batzuekin harremanetan jarraitu dut, eta beste inguru bat eman digu”.

Gaztea dugu bera, baina gazteagoei ere itxaropentsu begiratzen die, Oiartzunen zaletasuna badagoela iruditzen zaio, bultzatzen dela eta antolatzen direla txapelketak. Neskengan ere arreta jartzen dela uste du, eta hori oso garrantzitsua iruditzen zaio. Hala erem beti doa azken tantoaren bila: “Gazte batzuk badatoz, baina jende gehiago behar da”.

Elkarrizketa-egilea: Iraitz Mateo Gogorza

Mari Jose Egiazabal Agirrezabala



«Eskerrik asko gure bezero zintzoak izan zineten guztiei, zuei esker edertu baitzen Anixetaren izena»

Anixeta eta Mari Jose ama-alabak, Anixetaneke sukaldian.

Badira zortzi urte Mari Jose Egiazabal Agirrezabala Anixetaneke sukaldari ospetsua jubilatuta zela, 69 urterekin. Neska koxkorretan, gaur egungo Albistur tabernan hasi zen lanean bere ama Anixetaren bazterrean eta, gero, Anixeta tabernan eman zion segida, sona handiko etxe bihurtuz. Hitz jario handikoa, emakume langile honek Alzibar auzoaren bilakaera ederki ezagutu du. Besteak beste, Anixeta tabernako sekretuak ezagutzeko parada izan dugu ondorengo elkarrizketan.

G: Oiartzuarra zaitugu, Mari Jose. Baina emango al zeniguke zure etxearen eta familiaren berri.

Ni Mari Jose Egiazabal Agirrezabala naiz. 1947ko maiatzaren 3an jaio nintzen, Altzibar auzoko Albistur etxean. Soltera zenean hartu zuen amak Albistur taberna. Hiru senide ginen: ni zaharrena, Maixabel gero eta hirugarren senidea, Beatriz. Miño agudo hil zen, beherakoarekin edo.

Aita Tomas Egiazabal, Ergoien auzokoa zen, Zuloko errotakoa. Ama ere ergoiendarra zen, Militxo etxekoa. Gurasoak ezkondu zirenean Albistur tabernaren goiko aldean jarri ziren bizitzen. Hantxe jaio ginen hiru ahizpak. Albistur taberna aurretik sagardotegia izan zen eta gure amak berriro zabaldu zuenean, taberna jarri zuen, baina jantokiari beti sagardotegia deitzen jarraitu genuen.

Apopilok ere izaten zituen amak.

Bai, halaxe da. Jende asko geratzen zen lotan gure etxean. Esate baterako, Candido Carasol mendiko guarda. Gure etxetik ezkondu zen. Iturriotz auzoko Juaneneko amaren anaia, berriz, bertan hil zen eta taberna bi egunetan itxi zuen amak, festetan zeudela. Bi gailego ere bai, Uhartan apopilo, baina otorduak Anixetanean egiten zituzten.



Anixeta Agirrezabala, ontziak garbitzen.

Amak tabernan lan egiten zuen eta aita esneketaria zen. Zuek nola hazi zineten?

Gu, ttikiak ginenean, Ergoien auzora bidaltzen gintuzten, aitaren etxera, han zaintzeko eta gurasoak errazago moldatzeko tabernako lanetan eta esne partiketan. Garai hartan, 9 urterekin egiten zen komunioa. Nik komunio ttikia egin nuenerako hasia nintzen amari laguntzen tabernan. Ama sukaldean lanean eta "atera iezaiozu horri baxoerdia", agintzen zidan. Nik zortzi urte izango nituen orduan eta gustura aritzen nintzen lanean tabernan. Hamabi urte nituenerako, normal-normal aritzen nintzen beharrean. Gogoan dut amak nola esaten zidan orduan: "Gaur gauean ez zara tabernan arituko, bekatuak aditzen dira-eta" [kar-kar-kar]. Jai ematen zidan, lotara joateko. Garai hartan, normala zen lana egitea adin horretan.

Eskolan non ibili zinen?

Hasieran Ergoien auzoko eskolan ikasi nuen, Aierdin. Kozkortu nintzenean, berriz, amak Donostiara bidali ninduen, Notre Dame eskolara, frantsesa ikastera. Nik ez nuen gustuko. Tabernako giroak eta lanak betetzen ninduten. Batxile-rra hasteko utzi nituen ikasketak.

Lagunekin nola moldatzen zinen?

Nire lagun handienak mutilak ziren, tabernara joaten zirelako. Pentsatu garai hartan ez zegoela oso



Mari Jose, Altzibar auzoko Billera elkartearen inauguratu zenean, 1965ean. Haren ondoan, ezkerretik hasita: Jexux Perurena, Bittoriano Deskarga *Kirrimilo*, Jexux Perurenen lehengusua, eta Andres Garaia *Potto*.

ongi ikusita neskak gerturatzea, ez ziren tabernan sartzen eta horregatik mutilekin nuen harremanik handiena. Bereziki, iturrioztarrekin nuen hartu-eman handia. "Maixepa" deitzen zidaten. Ni gogoratzen naiz Hilario Arbelaizen despedida gure etxean ospatu zutela eta orduan Andres Ostolaiz zena sukaldera etorri zela enkargu bat ematera eta hark ere nola deitu zidan Maixepa. Pentsatu nuen: "Hara, hau gure etxera etortzen hasi berria da eta dagoeneko Maixepa deitzen zidak".

Zein ziren zure lagun minenak?

Karla Lekuona Santxokoa, Ramon Urdanpilleta Sasenekoa iturrioztarrak; Javier Perurena, Joxan Goikoetxea... Igandeko erromerietan dantzara ateratzen nintzenean, mantala ez nuen soinetik kentzen. Ez du deus ikusirik gaurko ohiturekin. Oso oroitzapen onak ditut.

Garai hartan komertzio asko zegoen Altzibarren.

Denetik zegoen Altzibarren: Xixario harategia; Irundarrene, denda eta jatetxea; Xotero dendan denetik saltzen zen, gasolinatik hasi eta aspirina arte; karrozeria ere bazegoen; Zalakain ferratzaillea; bi zerratoki ere bazeuden, Seinena eta Irigorri; Bastero, jatetxea eta ostatua zena. Tabernak ere mordoska zeuden garai hartan: Primonekoa, Pottonekoa, Xoteronean ere bazen, Anixeta (Albisturrenea zen). Pottonekuak ikatza ere saltzen zuen. Bizartegia ere ez zen falta; arraina saltzen Angela etortzen zen, kotxez. Okina ere izaten genuen, Errandonea zaldiarekin. Txurreroa ere bagenuen: *Pepe el churrero*. Ez ditut ahaztuko Carbónicas Santa Clara *Pitusa* eta Papelera enpresak ere.



Ezkerretik hasita, Tomas Kazko, Mari Joseren aita, eta Inaxio Zuloaga Katillu.

Altzibar auzoak eman zuen aldaketa bizi izan zenuen zuk.

Badakizu Altzibar auzora kanpoko jendea etorri zela bizitzera, XX. mendeko 60ko hamarkadan. Kanpoko jendea asko miretsi dut. Lehendabizi gizonak etorri ziren, lana egitera. *Con derecho a cocina* bizitu ziren, ahal zuten moduan. Eta pixka bat asentatu zirenean ekarri zuten familia. Lana gogotik egin zuten. Jende jatorra zen, oso langilea. Denak gure etxera etortzen ziren, esnea erostera. Askok izan ziren gure etxean ezkontza egin zutenak ere. Ez zegoen dirurik, ez haiek eta ezta guk ere ez genuen sos askorik. Gogoratzen dut askotan ez zutela dirurik esnea ordaintzeko, hortaz hurrengo egunean egingo zutela agintzen zuten. Amak amonari agintzen zion esnea emateko eta amonak erantzuten zion: "Eta gaur bost ezin baidu ordaindu, bihar hamar nola egingo dituz?".

Gustura lan egin duzu beti.

Gure erara lan egiten genuen. Gaurko txorakeriekin ezingo nuke lanik egin. Ama ere halaxe aritzen zen, edozer gauzarekin kozinatzen zuen. Ez zegoen dirurik eta etortzen zirenean denak goseak etortzen ziren. Garai hartan, amak kafetera jarri zuenean, zaharrentzako bekatua zen. "Anixeta, Anixeta oraintxe galduko dituzu parrokiario guztiak. Guri lehengokoa ekarri, e!", esaten zioten. *Café de puchero* nahi zuten zaharrek. Azkenean, kafetera berritik probatzeko gogoia izan zuten eta gure amak gustura eman zien.

Orduan, bezero batzuk tomate pototo hutsak ekartzen zituzten gure kafe kondarrak jasotzeko, gero etxera eramane eta txikoriarekin nahasteko baliatzen zuten kafea egiteko. Izan ere, garai haietan ezin zen kaferik erosi.



Mari Jose, Albisturreneko jantokian bazkaria zerbitzatzen. Eserita, ezkerretik hasita: Bernárdo Albixu, Joxan Goikoetxea, Eli Hertze, Joxemari Iriarte Antonenekoa eta Joxemari Amezttoi Xomorrenekoa.



Albisturreneko aurreko aldean, Mari Jose auzoko haurrekin, San Pedro jaietan.

Auzotarren artean harreman estua zegoen lehen.

Denekin genuen hartu-emana. Orduan Xoteronekoak, Irundarrenekoak eta Torrekoak ziren aberatsenak. Gero, lanaren poderioz, Xixario Zalakainek ere egin zuen diru pizarra. Baina, orokorrean, ez zegoen dirurik. Irundarrenen jatetxe garrantzitsua zegoen. Hara jende aberatsa joaten zen otordua egitera. Gure etxera, berriz, dirurik ez zuen jendea gerturatzeko. Eta amak ahal zuena egiten zuen haiekin.

Gogoan dut garai hartan igandeko meza sakratua zela eta Karrika nahiz Ergoien auzoetako baserritarrek tabernara etortzen zirela. Han, bazter batean, baserritarrek oinetako zaharrak kendu eta berriak jartzen zituzten gero kalera igo eta meza entzuteko. Bueltan, gizonek tabernan kafea eta bi kopa edango zituzten. Haien emazteak, berriz, amarengana joaten ziren sukaldara eta haiei ere eskaintzen zien ttotta pixka bat. Baserritarrek, berriz, arrautza batzuk, porro batzuk... ematen zizkioten amari trukean.

Garai batean, Altzibar auzoa oso ospetsua zen Oarsoaldean bailaran igandeko erronomia zela-eta.

Bai, halaxe da. Ni oso ttikia nintzela, Irundarreneko balkoian Manuel Urdanpilleta aritzen zen eskusoinua jotzen, igande arratsaldeetan. Gero,



Xanistebanetan, Mari Jose danborradako kantinera. Haren aldamenean, ezkerretik hasita, besteak beste: Antton Mari Irargorri, Joxe Manuel Zabalegi, Jose Inazio Santakruz, Juan Mari Irastorza *Alttami* eta Andres Arruti.

galarazi zen eta Zirikukoan eta gure osabaren artean kioskoa egin zuten eta han Bikondoak jotzen zuen bere taldearekin. 530 pezeta kobratzen zuen. Diru hori ateratzeko, amak tarta bat egiten zuen eta hura zozkatu egiten zen. Horretarako, Xalbador Larburu Ubixibarrekoak errifak egin eta saltzen zituen. Horrela ateratzen zen musika ordaintzeko dirua. Garai hartan, taberna asko zeuden Altzibarren: Xoteronekoak, Irundarrenekoak, Primonekoak, Arbidetarrena, Pottok ere taberna zuen... Horiek ere euren partea jartzen zuten erronomia ordaintzeko. Jendea erruz etortzen zen Altzibarko erronomia.

Eta San Pedro egunak ere sona handia zuen garai hartan.

Bai horixe! Gainera, orduan jaieguna izaten zen ekainaren 29a. Lertxuna jartzen zen, Albistur tabernaren aurrean. Gaur egun Iturriotzen bakkarik mantentzen da usadio hori. Asto karrera ere egiten zen. Horretarako, auzoko emakumeek zintak brodatzen zituzten propio. Martintxo plaza ixten zen eta zezena ere toreatzen zen. Manolak ere ateratzen ziren zaldigurdian, gezurra badirudi ere. Behin, ordea, Martin toreroak kale egin eta zezena Xixario Zalakain harakinak hil zuen, lertxunari lotu ondoren. Ez da arraroa, hortaz, Altzibar auzoari *Madrid txikito* izena ematea.



San Pedro jaietan, zezenketa egin aurretik "Manolak" paseatzen ziren zaldi gurdian.



Altzibar auzoko Martintxo plazan, zezenketa egiten zen garaioa.

Zezena akabatu ondoren, festetako ardura-dunek erre egiten zuten eta auzoko ume guztiei ogi puska batekin ilaran jarri eta xerra bana ematen ziguten. Auzotar guztion artean zezena jaten genuen.

Tabernan urte guztiko etekinak berdintzen zituzten jaieguneko irabaziekin. Prestaketa lanetan ibiltzen zirenak Otarreseneko Esteban Seinen aita, Manolo Arbide, Basterokoa... izaten ziren.

1

Xixario Zalakain
omendu nahiean
omendu nahiean
eseri gara zure
lagunak mahaiean
beraz, mila zorion!
aurren-aurrenean
hemen elkartu garen
denon izenean
**izan zaitugulako
beti aldamenean. (bis)**

3

San Pedrotan izan zen
Toreroarena
Toreroarena
Ez zen azaldu berez
zu babestu zintuzten
ongi zakuz dena
bideon ez zen hartu
ta hori da pena...
**lertxunari lotuta
hil zenun zezena. (bis)**



Anixetaneke jantokian, Xixario Zalakain harakinari egindako omenaldian. Aurreko aldean, Haizea dantzaria, Mari Joseren iloba, aureskua dantzatu berrian.

Gerora, Xixario Zalakain harakina zenari Anixetanean omenaldi bat egin zitzaion, ezta?

Bai, halaxe da. Eta San Pedro jai haietan gertaturikoa lau bertsoetan bildu zuen Antton Kazabonek eta postre garaian kantatu genizkion. Opari bat ere egin genion, argazkian ikusten dena.

Hauxek dira aipaturiko bertsoak:

2

Harakin, matarife...
ez da gero broma!
ez da gero broma!
eta besteak beste
toreroa ona
behintzat hori da hemen
jendeak diona
izan zenuen fama,
ospe eta sona,
**baina gaur omendu nahi
genuke gizona. (bis)**

4

Geroztik egin duzu
hemen lana franko
hemen lana franko
berdin etxean edo
auzoan laguntzeko
beti zaude pronto
beraz, orain guztia
eskertu beharko
**lagunen lagun ona
izan zarela. (bis)**



Xixariori propio eginiko oparia, garai bateko zezenketan izan zuen protagonismoa eskertzeko.

1970. urtean amak Albistur taberna utzi zuen.

Bai, halaxe izan zen. Hasieran, ez zuen deus jarri, baina amak baju bat erosi zuen, Klarene berri etxean. Han, mahai handi bat jarri zuen eta gure bezeroak gerturatzeko hasi ziren eta "Anixeta zer-gatik ez zara berriro hasten?", lata ematen zioten. Obra egin zuen, barra bat jarri eta pastelak egin eta saltzeari ekin zion. Ez zuen inoiz egin, baina saiatu zen. Errenteriako gozotegi batean pixka bat aritu zen praktikatzeko, baina denek onartzen zioten ez zeudela hain onak.

Gero txurro-denda jarri zuen.

Bai, hori ere egin zuen gure amak. Hasieran oso txurro txarrak egiten genituen. Ez ziren ongi ateratzen, gogortu egiten zen masa. Ama joan zen Igeldora, Hondarribira, Zarautz aldera... txurro goxoak egiten ikastera. Baina ez zuen asmatzen. Makina saldu zion komertzialari deitu genion eta hark aholkatu zigun Valladolidera joateko, enpresara bertara. Joxe Ubiria taxista hartu eta hantxe joan ginen, ahizpa, nire senarra eta hirurok. Hantxe bai ikasi genuela txurro goxoak egiten. Guk txurroen masa pisura egiten genuen eta neurrira egin behar zen. Goizeko lauretan iritsi ginen etxera, Valladolidetik bueltan, eta ama esnatu zen eta orduan bertan proba egin nahi zuen. Baita egin ere! Geroztik, aski goxoak egiten genituen, bai horixe!

Zure senarra, ordurako, zuekin aritzen zen lanean, Anixetan. Nola ezagutu zenuten elkar?

Tabernan ezagutu genuen. Joxe Mari Roma du izena. Bere familia Madriletik etorria bazen ere, bera Oiartzunen jaio zen, Arizabalon. Ikasketak, berriz, Beheko Plazan zegoen eskolan egin zituen. Kuadrilla Errenteriakoa zuen eta asko joaten ziren mendira eta gero tabernara etortzen ziren eta hantxe ezagutu genuen elkar. Fabrikari aritzen bazen ere lanean, han amaitzen zuenean guri laguntzera etortzen zen. Gure ama gaixotu zenean, pleura hartu zuen eta ohean egon behar zuen, horregatik sartu zen nire gizona lanera eta amaiera arte aritu zen.

Nola hasi zineten otorduak eskaintzen?

Poliki-poliki, txurroak eta pastelak egiteari utzi genion. Izan ere, jendea etortzen zen generoarekin guk kazuela prestatzeko. Horrela hasi ginen lanketa horietan. Gero, jokoan aritzen ziren gure tabernan. Hortik aurrera hasi ginen gerok langileei bazkariak prestatzen... eta berehala bezero finkoak izan genituen egunero: Haurtzaro Ikastolako, Elizaldeko, Zamalbideko... irakasleak esate baterako. Hemen aurkitu zuten euren to-

kia, beren etxean bezala egokitzen ziren. Talde bakoitzak bere mahaiak zituen... Nik eguneroko otordua prestatzen nuen, etxean egiten den moduan. Zegoena jan behar zuten, ez zegoen aukeratzeko modurik.

Baina Anixeta beti famatu zuten aukera ugaria eskaintzen zenutelako.

Bai, baina betiko janaria zegoen. Udan, egunero entsalada; gero, berdura eta potajea. Izan ere, bazen bezeroak egunero potajea jan behar zutenak. Gaur egun ere, egunero egiten dut potajea, Urko semeak eskatzen dit-eta. Hori bai, egunero diferentea, baina potajea. Gero, arraina, haragia, oilaskoa... Eta postrea, denborarik banuen edozein postre prestatzen nien. Bezero bakoitzak bere neurrian jaten zuen.

Bazkariaren prezioa ere halakoa zen. Oso merkea. Hori nola lortzen zenuen?

Ni oso goiz mugitzen nintzen. Zazpi eta erdietarako Errenterian edota Donostian nintzen generoa erosten. Etxera ekartzen badizute, garbitua, moztua... horrek dena garestitzen du. Nik hori dena neronek egiten nuen eta horrek asko esan nahi du. Sukaldean neronek bakarrik aritzen nintzen eta 60-70 lagun nituen bazkaltzen egunero.

Asteburuetan, berriz, menu berezia eskaintzen zenuen.

Bai, halaxe da, baina aspertuta bukatu nuen. Menu berezia zen, baina beti berdina. Sukaldeak ez



Senar-emazteak, Jose Mari eta Mari Jose, Anixetaneke mostradorean, 1983an.

zuen gehiagorako ematen eta horretara mugatu nintzen. Ostiral gaua eta larunbateko bazkaria eta afaria izaten ziren. 80 lagun elkartzen ziren aldi bakoitzean eta horregatik jarri nuen beti menu berdina. Dena oso ongi programatuta neukan.

Zer eskaintzen zenuten asteburuetan?

Hasteko, udaran entsalada txangurruarekin; arrainarekin egindako budina; piper beteak; txangurru krepak; itsaskia (lanpernak eta ganbak); legatza edo bakailaoa piperrekin; txuletak; beranduago txerri hankekin hasi ginen eta ez dakizu nolako arrakasta izan zuen; postrerako, berriz, sagarraren budina izozkiarekin eta tarta. Azkenerako, kafea...

Arrakasta ikaragarria zuen Anixeta jatetxeak eta tokia hartzea ez zen xamurra.

Gai horrekin oso gaizki pasa nuen. Gipuzkoa oso tik etortzen zen jendea eta denentzat tokia egitea ez zen erraza. Gazte asko gerturatzen zen eta bikain portatzen ziren. Inoiz ez dut arazorik izan haiekin.

Gogoan dut, 1998an Gazteen Topagunea Oiartzunen ospatu zela. Topagunea urtero Aberri Egunaren inguruan Euskal Herrian egiten den gazte ezkertiar eta abertzaleen bilkura da. Lotarako tokia Altxabarren antolatu zuten eta oso eguraldi txarra egin zuen, euria goian-behean. Guk goizeko 08:00etan zabaltzen genuen taberna eta hona etortzen ziren kafesne beroa hartzera, komunera joaten ziren... Egun haietan bi aldiz joan nintzen Mamutera komuneko papera erostera. Ogia ere ekartzen nien, neronek erositako prezioan saltzen nien. Beste leku batzuetan, berriz, garestiago... Nik hori ezin nuen ulertu. Zergatik? Gaztetxo batzuei bajua ere zabaldu nien, euren kanpin-denda matxuratu zelako...

Anixeta jantoki berezia zen.

Bai, gure etxeak oso ezaugarri bereziak zituen: mahai sinpleak, aulkiak ere bai, mantela paperezkoa, toki gutxi... Zenbaitetan, jende dotorea etortzen zen, agian beste luxu batzuk topatuko zituelakoan. Hemen ez zegoen horrelakorik, baina otordu goxo askiak bai eta hasieran begirada serioak egiten bazituzten ere, sabela berdindu ahala lasaitzen ziren eta azkenerako eskua eman nahi zuten, musu eman... oso gustura bukatzen zutelako. Niretzako jendea ongi janda joatea, poza, poztasun handia zen. Hori amak kutsatu zidan. Gure helburua ez zen dirua egitea. "Hobe da eguneroko ogia, hilabeteko pastela baino", horixe esaten zigun beti amak.

Bezeroen artean zein dituzu gogoan?

Txaro Arteaga, Emakundeko lehendabiziko zuzendaria, eta bere senarra egunero etortzen ziren gure etxera bazkaltzera. Azken orduan etortzen ziren, eta nire senarrarekin batera bazkaltzen zuten, etxekoak bezala. Guk haiei pisua erosi genien Altxibar auzotik alde egin zutenean. Ugaldetxon bizi den Lurdes Oiarbide ere bezero fidela izan zen, urtetan. Gaur egun harekin joaten naiz ia egunero ibiltzera.

Lehenengo bezeroak, berriz, Uharteko errotan apopilo zeuden bi gailego izan ziren, *Pájaro* eta *Villanueva*, Arditurriko minetan lanean aritzen ziren langileak. Gurean hasi ziren otorduak egiten, afaltzen lehendabizi; gero bazkaltzen ere bai. Azkenerako igandeetan ere gurekin bazkaltzen zuten, baita Eguberrietan ere. Etxekoak bezala ziren. Auzotarrek galdetzen zidaten ea bagenekien nortzuk ziren, baina nik ez nien horrelakorik galdetzen. Ez nuen jakiteko beharrik. Ongi portatzen ziren gurekin, nire seme-alabak hazten ikusi zituzten. Urtezaharreko afaria eta Urteberriko bazkaria haien kontura izaten zen. Jose Ubiria taxista ere gurekin izaten zen. "Mari Jose ekarri hau eta hori...". Etxekoak ziren, azkenerako 30 urte baino gehiago egin zituzten hemen. Oso harreman estua izan genuen.

Bertsolariak ere bezero handiak ziren gurean. Antton Kazabon eta Mikel Mendizabal oso maiz etortzen ziren gaztetxoekin, gero bertsolari handiak egin direnak (Amets Arzallus aipatzen du). Andoni Egaña ere hemen izaten genuen oso maiz. Ezin ditut ahaztu Joakin Mitxelena eta Jose Luis *Lexoti* bertsolari oiartzuarrak ere.

Mitxelena egunero etortzen zen gure etxera, hamaiketako egitera. Beti sukaldetik pasatzen zen eta han zegoen eltzeari tapa altxa eta esaten zigun: "Nik eltze hau dena jango nuke". *Lexoti* ere haren arrimuan esertzen zen eta berehala hasten ziren berdekerietan.



Anixetanean, kinto bazkaria ospatzen, 2015ean. Ezkerretik hasita, zutik: Modesto, Pedro Larrañaga, Jose Mari Roma, Pedro Arbelaitz, Joxe Arruabarrena, Joxe Krutx Arakama, Mari Jose Egiababal, Luix Arakama eta Antton Okillegikoa; eserita: Joxe Angel Ameztoti, Juan Joxe Aranburu, Joxemari Irastorza eta Joakin Agirre.

Goizeko 08:00etan zabaltzen zenuen taberna. Eta itxi?

Ostegun, ostiral eta larunbatetan gaueko 02:00ak aldera. Bukaera aldera, larunbat arratsaldeetan itxi egiten genuen, baita igandeetan ere. Abuztuan, berriz, oporrak hartzen genituen. Amaren garaian, berriz, astearte arratsaldeetan bakarrik ixten genuen. Horregatik, gaztetan lagunak nituen mutilekin zinera joaten nintzen. Kotxea bazuten, Diane 6, eta hara joaten ginen.



Mari Josem Idoia alabarekin, jatetxeko mostradorean.

Zeintzuk lan egiten zenuten Anixetanean?

Joxe Mari senarrak eta biok; Idoia Roma, alabak; Mirari Pikabeak, alabaren lagun minak. Ainara Ballesteros iloba ere denbora luzez aritu zen lanean. Eta sukaldean ontziak garbitzen aritzen zen Junkal Lopetegi.

Zure ama Anixetak bizi zela jaso zuen oiarzuarren omenaldi beroa.

Halaxe izan zen. Iturri-Berri elkartek antolatu zuen gure amak merezitako eguna, 1990ean. Iñaki Urkia zen elkarteko lehendakaria orduan. Meza izan zen lehendabizi; dantzariak gero, Doneztebe plazan. Bazkaria ere antolatu zuten. Arratsalde partean, berriz, herriko bertsolariak aritu ziren, hala nola Juanito Mitxelena, Gotzon Isasa, Joxe Mari Irastorza *Larraxabal* eta Iñaki Urkia bera ere bai. Azkenik, Kaxiano soinu-jolea aritu zen giroa alaitzen.

Iturriotarrak gure etxera oso maiz etortzen ziren, euren auzoan ez baitzegoen tabernarik. Harreman estua genuen iturriotarrekin.

Zuomentzeko saiakera ere egin zuten, ezta?

Bai, 2016ko XXVI. Sagardo egunean. Omenaldia egin nahi zidaten eta nik ezezkoa eman

nien. Herritarrek ulertzea nahi dut: nik Anixetanean lana egin nuen hala nahi nuelako, amaren eskutik. Nire omenaldirik handiena 40 urtez bezero berak izatea izan da, leku berberean. Hori izan da nik izan nezakeen omenaldirik hunkigarriena. Hortaz, azkenean txotx irekieran oholtza gainera Idoia Roma alaba eta Ainara Ballesteros iloba igo ziren eta sagardoa dastatu zuten Jexux Adurizen eskutik.

Badut beste kontu bat omenaldiaren harira:

Amenabar enpresa gure etxe ondoko urbanizazioa eraikitzen hasi zenean, kuadrilla bat Bilbotik etortzen zen egunero lanera, mikrobuz batean. Hamalau langile ziren eta gure etxera etortzen ziren egunero bazkaltzera. Hasieran, mahaian eseri eta elkarri ez zioten hitz ere egiten. Nire senarra Jose Marik ogia jartzen zien mahai gainean eta ez ziren gai elkarri ogia partitzeko ere. Ohituta zeuden hainbeste tokitan jaten, non ez zuten asko jaten, zenbaitetan bokadiloekin konformatzen ziren... Gure etxean, berriz, egin zuten lagunarte gaitza euren artean! Hango urtebetetze egunean, "bihar nire urtebetetze eguna dela aterako al zenituzke bi botila txanpan"... Nik,

gainera, tarta bat egiten nien eta harrিতuta gertatzen ziren. Azkeneko familia handi bat bihurtu zen kuadrilla. Haietako langile bat gerora ere urteetan etorri zen loteria dezimoa erostera, oso jokozaleak baitziren. Atzenerako, emazteekin batera urte batzuetan bazkaria egiten zuten gurean. Hala esaten zidaten: "Inoiz ez dugu eza gutu horrelako tabernarik". Izan ere, beti saiatzen ginen edaria freskoa zerbitzatzeko... taldea mimatzen. Gogoan dut uda batean, bero gaitza egiten zuela, nik ez nien potajerik jarri, nonbait entsalada eta arroza jarriko nien eta enkargatua etorri zen galdetuz zergatik ez nien potajerik jarri. Beroarengatik izan zela aitortu nion eta esan zidan nahiago zutela potajea jan, izan ere horrela ur asko edaten zutela eta entsaladekin beherakoa izaten zutela. Kasu egin nion, eta geroztik ez zuten potaje faltarik izan.

Azken batean, langile xume horiek askotan ez dira inor sentitzen, zenbaki hutsak balira bezala tratatzen dituzte eta gure etxean euren izenetik deitzen genien, eta bezperan eskatutako kopa hurrengo egunean zerbitzatzeko diezunean, pertsonak sentitzen direla ikusten duzu. Hori gauza handia da! Tabernari ofizioa gustatu behar zaitzu horretarako, eta nik asko maitatu dut nirea, nahiz eta oso gogorra izan.



2016ko XXVI. Sagardo egunean, Anixeta jatetxeko kideei omenaldia egin zieten txotx irekieran. Oholtza gainera Idoia Roma eta Ainara Ballesteros igo ziren, eta sagardoa dastatu zuten Jexux Adurizen eskutik.

Xelebrekeriak ere gogoratuko dituzu, ezta?

Bai, neska! Bagenuen bezero bat gauero etortzen zena, baina sosik gabe. Bertsotan hasten zen, fundamentu handirik gabe eta gero kafea eskatzen zuen. Ea dirurik bazuen galdetu eta ezezkoa beti. Hortaz, apuntatzeko esaten zion gure amari, aurrerago ordainduko ziola. Nonbait tokirik ez kopurua idazteko eta “neska, apunta ezan atzeko pastan orduan”, esan zion.

Badut beste bat ere: gogoratzen dut bazkaltzera etorri zela bikote bat alabarekin eta babarrun zuria zerbitzatu genien eta bi platerkada jan zituela neska kozkorrak. Komunioa egitekoa zen eta amari halaxe eskatu zion: Komunio egunean, babarrun zuriak jartzeko. Ez zuen babarrun askorik jan lehenago! Kar, kar, kar!

Hain sukaldari bikaina izateko, Mari Jose, non ikasi zenuen?

Ezkondutuz nintzenean, ez nekien ezta arrautza frijitzen ere! Sekula ezer egin gabea nintzen!



Anixetanean, kuadrilla bazkaltzen.

Dena amak egiten zuen, den-dena! Probatuz ikasi nuen. Gero, jaiegunetan ixten hasi ginenean, beste lekuetara joaten ginen bazkaltzera eta beti behatzen nuen dena. Esku ona baino gehiago, ongi egiteko gogoia izan dut beti.

Eta nola ikusten duzu orain Altzibar?

Niri pena ematen dit orain, pena handia! Ez dago holako hartu-emanik! Lehengoan joan nintzen Maritxu Martiarena auzotarra bisitatzera, Petra Lekuona egoitzara, eta segituan hasi zen lehengo kontuekin eta emozionatu egiten nintzen.

Maritxu eta Maria Luisa Zalakain Petrineri baserrikoa gure etxera etortzen ziren hilean behin bazkaltzera. Hauek guk Pitusa bezala ezagutzen dugun enpresan lan egindakoak ziren. Garai hartan Pitusan bakailaoa gazitzen zen. Oso ospetsua zen horko bakailaoa. Altzibarko auzotar askok egin zuten lana hor. Gauez ere lan egiten zuten. Gero, Carbónicas Santa Clara izeneko enpresa zabaldu zuten eta Pitusa izeneko freskagarria ontziraten zuten. Gero, limoia eta laranja zapoak ekoitzi zituzten. Edari horiek enpresaren aldamenean zegoen iturriko urarekin sortzen zituzten. Oso ur ona zen. Hori bai, ezin zenuen edan, e! Hortzetako mina jartzen zitzaizun! Hotz-hotz-hotza zen!

Garai hartan etxe gehienetan izaten zen petrila. Gure aitona, amaren aldetik, beti esaten zuen: Altzibarren egin zutenean Peñeneko etxe berria, “ederra da baina failoa du, ez du petrilik”, esaten zuen. Haren ustez, etxe guztiek behar zuten petrila. “Etortzen bazara lanetik haserre, petrilean jarri eta han deskargatu behar da, gero etxera txistuka igotzeko, umore onez”. Hori esaten zuen aitona Xegundok. Gure ama harentzat bere pasioa zen.

Anixeta taberna auzoko erreferentea izan al da beti?

Halaxe zen, denerako gure etxera etortzen ziren. “Anixeta, hau bai al duzu? Eta Anixeta, hau bai al duzu?”. Eta lertxuna altxatu behar eta zerbait jarri behar zen gorria goian eta “zerbait ez al duzu?”. Eta nik orduan Idoiarentzako egina nuen poxpolin traje bat, baina nik egina nuen berdea eta gorria zuriarekin eta eman nizkien puskak eta klaro! Jarri dituzte denak lertxunaren goiko puntan eta hurrengo egunean Guardia Zibilak, “que les habíamos puesto la ikurriña allí” (kar-kar-kar).

Izan ere, Guardia Zibilen kuartela Altzibarren zegoen 70-80 hamarkadetan.

Bai, garai hartan etortzen ziren Guardia Zibilak egunero, egunero pasatzen ziren eta kafea zerbitzatu behar zitzairen kobratu gabe. Izan ere, kobratzen bazenien arazo batekin topo egiten zenuen: zuk ezin zenuen eduki koñak botila bat baino gehiago irekita, orduan garrafoikoa erabiltzen zen, botilak hortik betetzen ziren. Kafea kobratzen bazenien koñaka botilak aterarazi egiten zizuten eta 10 pezeta kobratzen zizuten botila bakoitzeko. Hortaz, kafea debalde emanda irabazten ateratzen ginen. Eman eta bakea!

Zure amaren bidea jarraitu zenuen; Idoia alabak, berriz, ez zituen zure pausoak segitu.

Keba! Alabak gaizki pasatu du. Beti nire inguruan izan da eta nik urtebete lehenagotik abisatu nien, 69 urterekin utziko nuela. Ez nuen gehiago lan egiteko asmorik. Esan nion zer egin nahi zuen, baina denbora pasa zen... Gainera, ikusten zen Altzibarren gero eta mugimendu gutxiago, gero eta gutxiago, gero eta gutxiago, gauza asko ari zela aldatzen eta negozioa jartzeko, hamalau orduz lan egiteko... Negozioak ez dira lehen bezala, erabat aldatu dira. Eta hori esaten nion: Idoia, zuk egin nahi duzuna, nik beti lagunduko dizut. Azkenerako, edadeko jendearekin lan egiteko urratsak egin zituen eta Altzibar auzoko Aiton-etxean ari da lanean, arrunt gustura.

Zer bizimodu egiten duzu gaur egun?

Goizean goiz jaikitzen naiz normalean eta gosalduta ondoren ibiltzera joaten naiz, 07:30 aldera, batzuetan Lurdes Oiarbiderekin eta, besteetan, bakarrik. Gero, etxekoei otorduak prestatzen dizkiet. Erosketak egitera ere joaten naiz eta 15:00ak aldera etxera igotzen naiz eta han egoitea oso gustuko dut. Senarra inguruan izaten da isil-isilik irakurtzen edo. Ni goizekoa naiz, goizean egiten ditut egin beharrekoak eta arratsaldean jada ez dut kapazitaterik ezertarako! Eta elkarrizketa amaitzeko garaian, bi errezeta eskatu dizkiogu: haragi saldaren kroketak eta sagar budina.

Hona hemen:

HARAGI SALDAREN KROKETAK (neurrietan dago kakoa)

Osagaiak:

1 l. esne

50 gr irin

50 gr maizena

Gurin zati bat

Saldako haragi txikitua

Tipula bat

Prestaketa:

Esnea jarri ontzi batean eta gurina bota eta ondoren irina eta maizena, dena hotzean, ongi-ongi nahasi bolak egin gabe eta gero sutan jarri eta buelta-bueltaka aritu. Haragi egosia txiki-txiki egin eta tipularekin nahasi eta goxatu zartaginean. Gatza bota, esnari erantsi eta dena nahasi. Hasten denean dena igotzen, hozten jarri eta azkenerako kroketa forman jaso eta arrautza eta ogi birrinean pasatu eta frijitu.

SAGAR BUDINAREN ERREZETA

Osagaiak:

1 kg sagar

100 gr gurin

100 gr azukre

Ur pixka bat

4 arrautza

Prestaketa:


Lehendabizi, sagarrak zuritu eta zatitu. Gurina eta azukrearekin nahasi eta konpota egin. Bestalde, karamelua egin eta moldearen oinarria bota eta geroko gorde. Konpota hoztuta dagoenean, nahasi arrautzekin. Bota nahasketa aurrez karamelatutako moldera. Azkenik, 180°C-an dagoen labean egosi maria bainuan, 45 minututuz.

On egin!

Eskerrik asko, Mari Jose, eskainitako une gozo honengatik. Xanisteban zoriontsuak opa dizkizut!

Jaione Ugaldebere Sarasua

Rexu Mazusta



Zein da zure jatorria? Nondik zatoz?

Errenterian jaio nintzen. Ama, Itziar Astibia, Errenteriako Fanderia errota-koa zen. Nire birraitona errotaria zen, bere garaian Nafarroatik etorri zen eta errota hartu zuen. Gazterik hil zen hura, ondoren nire aitona bertako administrari lanak eramaten zituen, eta nire ama, ondorioz, bertan sortu zen.

Gerra garaian ihes egin behar izan zuten eta Bilbora joan ziren. Handik itzuli zirenean errota beste batzuen esku zegoen, kendu egin zieten. Ondorioz, etxe berri bat hartu behar izan zuten eta gaur egun Papelerako enboren almazena dagoen tokian zegoen etxe batean jarri ziren bizitzen. Uranga parean baziren etxe batzuk, eta amona hor bizi zen. Etxe okupatua dagoen zerranda horretan. Beste etxe batzuk bazen, Sarasolatarrak, Urangatarrek egurra lehortzekoestalpe bat zeukaten

Batzuek borroka egun batean egiten dute, eta horiek onak dira. Beste batzuek, borroka urtebetez egiten dute, eta horiek hobeak dira. Beste batzuek, oster, urte askoz borroka egiten dute, eta horiek oso onak dira. Baina badira bizitza osoa borrokan daramatenak, eta horiek ezinbestekoak dira. Horrelakoa da Rexu Mazusta. Errenterian sortua 1953an, bizitza osoa darama mundu juxtuago baten alde borrokan, atzean, isilean. Bihoakio hemendik gure aitortza osoa.



Eunaten Yoga taldearekin.

eta gero gure amonaren etxea zegoen. Lauzpa-bost etxe baziren. Bai, pixkanaka handitzen joan zen Papresaren eremu hori. Gaur egun uste dut biltegi gisa erabiltzen dutela.

Aita, Xanti Mazusta, Loidi baserrikoa zen. Gaur egun Masti-Loidi poligonoa dagoen ingurune horretan dago. Mastira iritsi baino lehen bada biribilgune bat, ba zertxobait lehenago ezkerretara bada baserri handi bat, orain berrituta dagoena, ba hangoa zen.

Nolakoa zen zure gurasoen bizitza?

Ama Liho fabrika hasi zen lanean gerra ondoren, josten ibiltzen zen. Jostuna zen. Ezkondu zenean fabrika utzi zuen eta jostun gisa jarraitu zuen. Aitak, berriz, Papeleran lan egiten zuen. Oso klasikoa Erreterian, ama liho fabrika eta aita papeleran.

Ezkondu ostean baserriko lurretan etxe bat egin zuten, gaur egun eraitsia dago. Gu ere, Iñaki eta biok, han bizi izan ginen ezkondu ondoren. Eraitsi egin behar zutela esan ziguten, etxe berri batzuk egiteko proiektu bat zegoelako, eta alde egin behar izan genuen. 2008an Oiartzuna bizitzera etorri ginen.

Zonalde hori izugarri aldatu da, ezta?

Ez duzu ideiarik egiten... gure etxea eraitsi baino lehen ondoko baserri bat ere eraitsi zuten. Gu

txikiak ginelarik oxigenoko fabrika zegoen bertan, gaur egun udaltzaingoa dagoen horretan. Bertan oxigeno bonbonak betetzen zituzten. Gero beste enpresa bat zegoen, besterik ez. Auzogune txiki bat zen, bost etxe inguru. Ume asko ginen hala ere, familia batzuk oso ugariak ziren. Bertan, gutaz gain, Galdostarrak bizi ziren, hamabi senide zirenak, Otañotarrak, beste hamabi... ume asko geunden.

Ikasketak non egin zenituen?

Rosanean egin nituen. Orduan Erreterian oso ezaguna zen Rosa Esnaola, urte askotan eman zituen klaseak eta jende asko pasa gara handik. Ume guztiak batera joaten ginen eskolara, elkarrekin joaten ginen eta buelta ere. Bi gela handi bezala ziren eta ume guztiak denak batera egoten ginen. Zaharrenek txikiagoei erakusten zieten eta horrela ibiltzen ginen, hala ere ikasi genuen e!

Eskola gaur egungo Pablo Iglesias kalean zegoen, merkatu zaharraren ondoko eraikinean. Klaseak gaztelaniaz izaten ziren, euskaraz ematen genuen klase bakarra kristau ikasbidea zen. Eta hori gurasoek indar egiten zutelako, nire amak horretan ekin zion. Erreteria batean nolabait euskara mantentzeko asko lagundu zuela uste dut.



Goñi Beriainen.

Klase hori kristauen lokaletan ematen zenu- ten, ezta?

Bai, eskolatik ateratzen ginen eta Madalen ka-
lean JOCek (Juventud Obrera Cristiana) zituen lo-
kaletan ematen ziren. Gelak umel-umelak ziren,
txikiak eta sekulako tabako usaina zeukaten. Pa-
rrokiako apaizek ematen ziguten irakasgaia Don
Marcos eta bestea oso maitagarria zena, Don An-
tonio Munduate. Oso gizon jatorra. 10-15 lagun
joaten ginen, gehienak baserri inguruko umeak.
Hori izaten zen euskarazko klase bakarra.

Lehenengo urteetako ikasketen ondoren, zer ikasi zenuen?

Bukatu ostean administrazioa deitzen zen ikas-
keta batzuk egin nituen. Ikasketak egitera Miren
Gezalarena joan nintzen. Bertan kontabilitatea,
takigrafia, mekanografia... bezalako ikasketak
egin nituen. Ondoren lanean hasi nintzen, tailer
txiki batean, kontabilitatea eramaten. Lanean ha-
si nintzen eta orduko Errenteriako egoera sozio-
politikoa oso mugitua zen.

Ze garai zen hura?

1970eko hamarkada gutxi gorabehera. 17 urte-
rekin hasi nintzen lanean, baina oso gutxi egin
nuen bertan lan. Langile mugimendurekin-eta
hasi nintzen, orduan konturatu nintzen zergatik
zen JOCeko tabako usaina... Kezka ezberdinak

sortu zitzaizkidan eta orduan JOC inguruan bile-
rak egiten hasi nintzen. Ondorioz tailerra uztea
erabaki nuen eta fabrika hasi nintzen lanean.
Nire gurasoek ez zuten ezer ulertzen, beraien
logikan ez zen sartzen ofizianista izateari uztea,
baina erabaki hori hartu nuen.

Non hasi zinen lanean?

Oiartzunen, Beta enpresan. Gaur egun ere hori
aldatua dago, Talaian zegoen kokatuta. Plasti-
koaren eraldaketa egiten zen enpresa horretan
eta bertan produkzioan lanean hasi nintzen, lan-
gile moduan.

Nahiko berritzailea izango zen, ezta?

Bueno, bai... orduan nik behintzat ez nuen bizi
kontzientzia feministarik, eta harrituta ikusten
nuen emakumeek zer-nolako mendekotasuna
zuten. Gizonek esandakoa bete behar zuten. Os-
tegunero errepikatzen zen gertaera batek be-
ti atentzioa ematen zidan, osteguna mutilekin
ateratzeko eguna baitzen. Enkargatuak pater-
nalismo osoz denbora bat ematen zigun, lanetik
atera baino lehen lanpostua uzteko eta aldagele-
tara joateko, makillatzera... Nik haluzinatuta egiten
nuen... emakumeak ilusio osoz joaten ziren pres-
tatzera, baina niri izugarritzko atentzioa ematen
zidan. Nirekin batera hasi ziren beste batzuk
ere nire tankerakoak ziren eta orduan pixka bat

mugitzen hasi ginen. Batzuek etxera lana ematen zuten, ordu estrak sartzen zituzten... eta gu pixkanaka hori dena kuestionatzen hasi ginen, bazterrak nahasten. Poliki-poliki talde oso ona osatu genuen, emakumeen arteko harreman oso ona lortu genuen. Grebak egin genituen... giroa ere halakoa zen.

Giro nahasi horretan zuen borroka ahalduntzailea zen, ezta?

Bai, baina ez ginen kontzienteak, esaten genuen egoera hori ez zela posible, baimen hori ematea mutilekin ateratzeko makillatzera joateko... mutilarekin atera behar banuen aterako naiz, baina, natural-natural. Intuizio osoz gure balioekin talka egiten zuen ikuspegi paternalista horrek. Ziurrenik badu zerikusia etxean jaso nuenarekin. Gure amaren rola oso inportantea izan zen, transmisioan batez ere. Beti kontatu izan zizkigun bere esperientziak Bilbon, gerra garaian. Gero, itzuleran, halakok eta halakok lagundu ziguten, beste batzuk, berriz, kontra... Gure amak beti zaindu izan zuen transmisioa.

Ama hil zenean ez genion elizkizunik egin, baina bai agurra, eta nik berak transmititutakoa idatzi nuen, familia historia. Gure ama zaharrena zen zazpi senidetan, gerra garaian 14 urte zituen eta gertatutakoa ongi oroitzen zuen. Lehengusina bat hurbildu zitzaidan eta hau dena momentu hartan jakin zuela esan zidan. Beretzat dena ezezaguna zen. Ez zekien Bilbora joan behar izan zirela, lana galdu zutela, etxea galdu zutela, dena galdu zutela. Hori da transmisioa, balio gehiago ematen diot urteetan aurrera noan heinean. Hura amaitu zen, baina handik gatoz...

Aldaketa handiak biziko zenituen, ezta? Militatzeko garai zailak, ezta?

Bai, errepresioa oso handia zen. Asko eta asko kaleratu egiten zituzten greba egiteagatik. Inguru honetan mobilizazio izugarria sortu zuen horrek hainbat enpresatan: Niessen, Pekin... Frankismoaren amaiera zen, Burgosko prozesuaren garaia, borroka ekologista zegoen... borroka horietako asko enpresetatik lideratzen ziren.

Nola antolatzen zineten?

Momentu hartan ez genuen sindikaturik, alderdi politikorik ere ez... hasiera enpresetako langile kontzientziatuenak biltzen hasi ginela oroitzen dut nik. Eta non biltzen ginen? Mendian. Lehenengo asanbladak mendian izan ziren. Errenteriako mugimendu asanblearioaren hasiera mendia zen, Arramendiko kaxkoa, Lezo-



Rexu eta Iñaki.

ko ingurua, kanposantu berriaren inguru horretan... Guardia Zibilak atzetik genituela ateratzen ginen. Bizpahiru lagun jotzen ginen, bide ezberdinetatik... horrelako historiak. Horrek gerora forma hartu zuen eta asanbladak herriko plazan egiten ziren. Bertako asanbladak oso jendetsuak izaten ziren, eztabaida interesgarriekin... dena antolatuta zegoen.

Nola bizi izan zenuen garai hori?

Beldurrarekin, baina esperantzarekin ere. Franco hiltzera zihoan, eta horrek aldaketa ekarriko zuen esperantza geneukan. Elkartasunezko sentimendurekin ere bizi izan nuen, elkar babesteko behar horrekin. Gaur egun zaintza esaten dena. Konplizitate handiak... Klandistitatean lan egiten genuen, askotan ez genekien bestearen izena, pentsa! Ezagutzen zenuen eta agian ezin zenuen kalean agurtu, eta horrelako gauzak.

Askotariko pertsonak batuko zineten, ezta?

Bai, baina sektarismoa ere bazen. Hori ere bai e! Elkartzen ginen, baina hori halako da...

Eskualde berezia izan da gurea, borrokalaria, eta horrek ondorio batzuk ekarri zituen. Drogaren sarrera adibidez?

Inguru honetan guztian droga asko zegoen, baina nik ez nuen asko bizi izan egoera hori. Ni ordurakojada ezkondata nengoen eta ama nintzen, haur bat edukitzeak asko aldatzen du. 21 urterekin



ezkondu nintzen eta Oskitz hiru urtera izan genuen, 1977an jaio zen. Lanean jarraitzen nuen, beste egoera bat zen. Baina orduan ere lehenengoa izan nintzen jardunaldi murriztu bat eskatzen haurra zaintzeko. Bulego laboralista batera joan izan behar nuen agiri bat eskatzera non esaten zuen ama izateagatik zaintzarako nire lan ordutegia murriztu nezakeela. Hori demostratzeko joan behar izan nuen abokatuarena, paperak erakutsi hori lortzearren. Hori lortzen lehena izan nintzen, eta ezkondu ostean lanean jarraitu zuen lehena ere ni izan nintzen.

Normalean ezkondu ostean lana uzten zen?

Bai, beti gertatzen zen. Gainera, uste zuten behar zutela. Dote bat ematen zitzaaien, urteko hainbesteko bat. Eta denak irtetzen ziren. Lehena izan nintzen geratzen, eta haurra izan eta gero murrizketa eskatu zuena ere. Gerora gehiago izan ziren. Horrela tokatu zitzaidan, bizitza horrela gertatu zen.

Noiz arte egon zinen lanean Betan?

Krisi garaia iritsi zen eta enpresari ere eragin zion. Batzuek ikusi genuen enpresak ez zuela etorkizunik, langile batzordean geunden orduan. Gure irudiz, enpresak zuzendaritzatik huts eginen zuen, enpresariak ez zuten gaitasunik aurrera eramateko edota kudeatzeko. Orduan irtenbide gisa zenbait lanpostu desagertu behar zirela ikusi zen eta ea baten batek borondatez lana utziko zuen planteatu zuten. Talde batek, gehienak emakumeak, enpresak etorkizunik ez zuela ikusita utzi egin genuen. 32 urte nituen, oraindik gaztea nintzen eta geure irtenbidea bilatu genuen. Nik argi neukan, nik ikasketak hasiko nituen.

Zer ikasi zenuen?

Unibertsitatean sartzeko prestakuntza egin nuen, 25 urtetik gorako sarbidea egiteko. Urtebetez prestatu nintzen eta gainditu nuen. Ondoren psikologia ikasi nuen. Bost urte pasa nituen bertan, eta gerora formazioarekin jarraitu dut. Tarte horretan bizkarreko sekulako arazoak izan nituen, enpresan nengoela ere banituen, baina

areagotu egin ziren. Sendagileak ariketak egitea gomendatu zidan, luzaketak, baina hori bizitza osoan.

Udarako oporraldia tokatu zen eta garai hartan Eneko Landaburu medikuak atsedeen etxeak egiten zituen. Horietako batera joan nintzen, otordu beganoen gain, yoga eta horrelako gauzak egiten genituen. Ikusi nuen yogarekin nire bizkarrak ez zidala hainbesteko lanik ematen. Uda ostean yoga non egingo nuen bilatzen hasi nintzen. Erreterian bazen talde bat eta han hasi nintzen. Urtebetez egon nintzen bertan, baina ez zen bate-ragarria nire ordutegiarekin.

Goizean fakultatera joaten nintzen, gero Oskitz eskolatik jasotzen nuen 17:00ak aldera. Tarte hori probestu behar nuen yoga egiteko. Orduan informazio bat iritsi zitzaidan Caja Laboralen gainean zegoen lokalean yoga ematen zutela eta bertara etorri nintzen. Kurtsoaren amaieran irakaslea gaixo geratu zen, eta klase gabe geratuko ginenez, nik ematea proposatu zidaten.

Beraz, modu naturalean hasi ziren yoga erakusten?

Bai, baina zalantzak neuzkan. Nik ez nuen formazioerik, nik praktika egiten nuen, ikasi nuelako eta gustatzen zitzaidalako. Ez dakit nola egin nituen fakultateko ikasketak, yoga ikasketak eta erakustea, gehi Oskitzen zaintza bateratzeko. Iñakik etxean asko laguntzen zuen. Hurrengo udan Galiziara joan nintzen hilabeteko ikastaro trinko bat jasotzera, eta gaindituz gero, titulua ematen zizuten. Lortu nuen. Nik uste dut psikologian lizentziatura eta yogako irakasle izateko formazioaren amaiera aldi berean izan zirela.

Konbinazio hori bonba bat da. Ariketa fisikoari lotutako klaseak ematen dituzu, baina aldi berean daukazun prestakuntzak ahalbidetzen dizu beste gauza batzuk kudeatzea.

Bai! Oso-oso ona. Norberaren ongizatea garatzeko behar hori, arreta hori, zaintza hori... intuizioz gaur egun erdigunean dauden gai horiek lantzen genituen. Jende askorentzat ihesbide bat zen, emakume askok etxetik ateratzeko aukera gutxi zeukatzen eta yoga egitea askorentzat bitarteko bat izan zen. Nire ustez, hori oso garrantzitsua izan zen batzuentzat, sekulako onura egin ziela esango nuke. Gaur egun jarraitzen dute yoga egiten, zerbaitengatik izango da.

Adibidez, arnasketa eta yoga oso lotuak daude, baina arnasketa eta ongizate emozionala ere oso lotuak daude. Estresa kudeatzeko, teknika oso ona da arnasketa. Hori guztia baturik, alde

batetik ikuspegi fisikoa eta bestetik psikologikoa puntu oso inportantea da. Antsietatea gorputzaren erantzun fisiologiko bat da, estresarekin zerikusuzuzena duena.

Hala ere, dena sortu beharko zenuen herri-rako, egokitu beharko zenuen. Nola egin zenuen hori?

Egin ahala, beharrak sortzen ziren, ez zen aurrez planifikatutako zerbait. Ekintzako emakumea naiz, teoria ere beharrezkoa da, baina ekintzak garrantzitsuagoak. Egin dezagun eta beharrak erakutsiko digu. Talde guztiak ezberdinak dira, behar ezberdinak dauzkate. Taldeko konfiantza eta dinamikak ezberdinak dira. Klase bakoitza ezberdina da. Batzuetan gertatzen da: klase bat prestatzen duzu eta ohartzen zara beste ariketa bat ere ongi datorkie-la... Egokitzen, baina ibili ahala.

Hori bai, talde gisa urtero joaten ginen irteera bat egitera. Urteroko irtenaldi hori ezinbestekoa zen. Ongi pasatzeko asmoarekin.

Oinarrizko gauzak badaude? Oinarrizko ariketak?

Printzipioz yogaren ariketak prestatu eta egiteko, taldearen tipologia ikusi behar duzu, ze jende mota dagoen ikusi. Lehenengo helburua mina ez ematea da. Pentsa dezakezu ahalik eta gehiena luzatzea, baina ezin badu, ezin du. Poliki-poliki gorputzari denbora eman. Malgutasuna lortzen joan, ez behartu. Hori da ziurrenik kirolarekin dagoen alderik handiena. Gorputza jakintsua da, lasaitasun horrek berak malgutasuna dakar.

Niregana gehienbat emakumeak etortzen dira, emakumeak orohar gizonetzkoak baino askoz malguagoak gara. Gizonetzko kirolariak etorri direnean, batzuk puntakoak, zein gogorrak diren... Burdina puskak... eginahalak eginez, hainbeste egingo dut... ez, lasai, gorputzak jakingo du. Gaur honaino, baina agian bihar gehiago egingo duzu. Hori da filosofia.

Yogak bere atzean badu filosofiarik?

Bai, ez behartu gorputza eta kontziente izan zer egiten ari zaren. Gorputza eta kontzientzia bat egin. Mugimendu hau egiten ari zarenean, zer sentitzen ari zara? Zure gorputzaz jabetzea da. Arnasarekin koordinatua. Zen filosofian du bere iturburua.

Ariketa zailak badaude?

Hori erlatibo da, batentzat zaila den ariketa beste batentzat erraza izan daiteke. Norberaren baitan dago hori. Batzuek akrobaziak dirudite,

baina horiek gutxi batzuek egiten dituzte. Horiek argazkitarako dira. Esaten dutenez, posturarik zailenetako bat etzanda buruz gora jartzea da, hilotzaren postura deitzen diotena. Zeharo utzita zaude, baina erlaxazioko ariketa bat da, eta burua nola dago? Benetan erlaxatua dago? Esaten dutenez, hori da ariketarik zailena, itxuraz erraza dirudi, fisikoki geldirik zaude baina burua bueltaka, izugarrizko zurrunbiloa daukazu buruan. Hori da yogaren filosofia, hori da gakoa. Edonork egin dezake teorian postura hori.

Garai hartan yoga erakustea berezia izango zen Oiantzun bezalako herri batean, ezta?

Garai honetan modan dago, baina orduan oso arraroak ginen. Nik yoga ezagutu baino lehen Oiantzunen bazen taldea, hamar bat laguneko emakume taldea. Besteak beste, Ixiar Mendarte zegoen talde horretan, gero nire ikaslea izan zen 80ta piko urte arte.

Detaile bezala gogoratzen naiz batek nola galdetu zidan ea nola jantzita etorri behar zuen, yoga egiten zutenak nudistak zirela esan omen zioten. Klaseak biluzik egiten dituzue? Kar kar kar, horrelako gauzak. Imajinatu, sektarekin oso lotuta... batzuetan arrazoi pixka batekin ere bai. Formazioan ikusi nituen zenbait gauza ez zitzaizkidan gustatu. Gustatu zitzaidana eta ondo zetorkidana hartu nuen. Inork ez zaitu behartzen, norberaren aukurak badira. Ausardia puntu bat izan nuen.

Baina gerora indarra hartzen joan den jarduera bat izan da.

Bai, gero eta talde gehiago daude herrian. Hel-tan adibidez mugimendu handia dago. Bestelako jarduera fisiko batzuk ere etorri dira, asmoa gorputzaren eta buruaren arteko oreka bilatzea dutenak. Denbora batez ematen zuen pilatesek yogari lekua kenduko ziola, baina yogak berriz indarra hartu du.

Noiz arte egon zinen Laboralean klasea ematen?

Kiroldegia ireki zuten arte; behin kiroldegia irekita, hara pasa ginen. Autonomo gisa egiten nuen lan. Errespetu handiz tratatu ninduten bertan. Garai hartan Joxe Iñarra eta Josetxo Jauregialtzo zeuden. Inoiz ez ziren sartu nire lanetan eta askatasun osoz lan egin nuen.

Zenbat talde zenezkan?

Goizez bat, arratsaldez beste bat eta ilunabarrez beste bat. Beraz, hiru talde. Astean bitan biltzen ginen. Horrez gain, Lezon banuen beste talde



Sallent-en.

bat, Gaxuxa emakume taldea, hara ere bitan joaten nintzen. Anoetako herrian ere banuen talde bat, euskaraz klaseak ematen nituen galdetu zidaten eta bertan hasi nintzen. AEK-ko barnetegi batean ere parte hartu nuen, Larraulen. Yoga ematera joan nintzen udara batez. Fanderia ere eman nituen klase batzuk hiruzpalau urtez.

Yogaz gain, psikologiako lanarekin jarraitu zenuen?

Bai, 1992tik 2011 arte psikologiako bulego batean lan egin nuen. Batez ere genero indarke-riazko kasuak landu nituen. Gogorra zen, baina ekarpen handia egiten zidan. Bere egoerari buelta emateko gai zela ikusten zenuenean, sekulako poza izaten nuen, baina lan gogorra da. Ni lizentziatu eta berehala gai horiek lantzeko programa bat zabaldu zen, Psikologoaren Elkar-goaren eta Foru Aldundiaren arteko elkarlanean. Deitu ninduten eta profesionalak behar zituztela esan zidaten. Ni lizentziatu berria nintzen, eta niretzat handiegia zela irudizen zitzaidan. Lasai egoteko esan zidaten, euren babes osoa izango nuela eta formazioa emango zidatela. Gainera, lehenak ginen, orduan zabal-tzen zen. Esperientzia falta denona zen, denon artean ikasi genuen.

Erabaki ausartak hartu dituzu bizitzan. Non-dik atera duzu indarra?

Hotz-hotzean pentsatuta nola egin genuen hori? Hau guztia aurrera ateratzeko gaitasuna nondik sortzen da?

Egia esan, nire bizitzan hartu ditudan erabakiak oso zorrotzak izan dira. Pausoa eman eta horrek ez du atzerabiderik.

2011 arte egon zinen psikologia bulegoan, ezta?

Bai, 2011n hortik jubilatzea erabaki nuen, gainera garai hartan nire ama oso gaixo egon zen iktus baten ondorioz eta zaintza partekatu nuen nire anai-arrebekin. Yogarekin bakarrik geratu nintzen eta hortik aurrera pixkanaka taldeak uzten joan nintzen. Lehendabizi Anoetako taldea utzi nuen. Trenean joan-etorriak eta pisutsu egiten zitzaizkidan. Ordezko bat jarri genuen eta utzi nuen. Fanderia ere utzi nuen. Lezo eta Oiartzungo taldeekin bakarrik geratu nintzen, betiko taldeekin. 2018an, 65 urte eta erdirekin jubilatuta nintzen arte.

Nahikoa, bizitza guztia lan egin ostean, ezta?

Orain ez dut ezer erabakiko pentsatu nuen, etorriko da garaia, baina oraingoz bizi egingo naiz. Beti gustatu izan zait mendia, eta denbora honetan mendi gehiago egin dut.

Baina, berriz arra sortu zitzaizun, ezta?

Bai... ikasle batek esan zidan: "jubilatuz zinean ez zinen erabat agurtu, esan zenuen agian noizbait itzuliko naiz...". Nik ez dut gogoan hori egia esan. Ikusi nuen lokala, eta gogoan sartu zitzaidan eta yogarekin hastea erabaki nuen. Ez lehenagoko maila berean, egokitua baizik. Hasi nintzen begiratzen, gaur egun Internetek sekulako erraztasunak ematen ditu. Prestatzen hasi nintzen. Deialdia egin genuen eta jendeak erantzun zuen. Lehen ogibide eta hobby zena, orain hobby. Jarduera fisikoa egiteko nire momentua da, nik ere parte hartzen dut, beti hartu izan dut parte klaseetan.

Mantentzen dituzu lehenagoko ikasleak?

Batzuk bai, beste batzuek beren bidea egin dute. Zintzilik geratu ziren emakume batzuk, gehienbat adinagatik, nirekin daude. Batzuk Heltara joateko adinez nagusiak dira, zenbaitek beldurra daukate... 75 urteko emakume bat ez duzu jarriko 30 urteko batekin. Bitako bat ez da gustura geratuko. Hortik ere sortu zitzaidan zeozer egiteko gogo. Gainera, daukagun lekua atsegina da, neguan ez dago hotzik, tenperatura ona.

Zutik edo eserlekuetan egiten ditugu ariketak. Lurrekoak eserlekura egokitu ditugu, jende heldua ez duzu ibiliko gora eta behera. Hori ezinezkoa da. Oreka lantzeko ariketak zutik egiten ditugu, adinarekin asko galtzen da oreka.

*Elkarrizketaren egilea:
Jexux Olaziregi Bagües*



**kul
tu
ra**



**AHOTS BAT
entzun nahi
duenarentzat**

2022ko maiatza izango zen; maiatza edo, ez naiz onena datak gogoratzen. Baina egunak bai, egunak ondo gogoratu ohi ditut, eta eguzki argi-argia oroitzen dut Xabaleko terrazan. Kaxka hurbildu zen nigana, Kaxka, attan laguna, nire etxean abizen hori eduki izan du beti, eta nire buruak oraindik ere horrela esaten dit topatzen dudan aldiro: *Kaxka, attan laguna*.

Bertso Asteko argazki batzuen inguruan hizketan hasi zitzaidan. Ordurako banekien zerbait, lehenago Giriziako Batzar Orokor batean jarri baitzuen gaia mahai gainean, eta Davidek, nire bikoteak, niregana jotzeko esana zion. Aspaldian zebilela haiekin bueltaka zerbait egin nahian, urtetan Girizian gordeta egon zirela, Xenpelar Dokumentazio Zentrorra eraman zituela eta handik bueltan ekarri berri, Udaleko Artxiboan zeudela... Geldituko ginela eta begiratu bat emango geniela esan nion.

Esan eta egin, ekainaren 7an jaitsi ginen Oiarzungo Udaleko Artxibora. Bai, badakit oraintxe esan dudala ez naizela ona datak gogoratzen, baina hau ezin dut ahaztu. Albumak arakutzen hasi eta lehenengoa zabaldukoan egun bereko argazkia tokatu zitzaigun parean, ekainaren 7koa, baina 41 urte lehenagokoa, 1981eko ekainaren 7koa, Mattinen omenaldikoa. 41 urteko jautzia egin genuen atzera.

Espero baino material gehiago topatu nuen bertan. Ez ziren argazki batzuk, argazki album batzuk ziren, gehienak ondo lodituta gainera. Baita bideo zintak eta kasetak ere. Denak kasu pixka bat nork egingo zain.

Hainbat ate jo nituen: Udalekoa, Bertsozale Elkartekoa, Xenpelar Dokumentazio Zentrokoa... baina ezer ez. Azkenean nire etxeko atea zabaldu nien album zahar haiei guztiei. Eneko Salaberriak bulegoko eskanerra utzi zidan —eskerrik asko, Eneko, ederra izan zen argazkiak binaka eskaneatu nitza-keela jakitea—, eta nire haur txikiaren logela Bertso Astearen Historiaren Digitalizazio Zentro bihurtu zen. Bideoak digitalizatzearen ardua Davidek hartu zuen —zin dagit bere borondatez izan zela—. Eta ni, banaka-banaka ez, binaka-binaka argazki guztiak digitalizatzen hasi nintzen, albumez album, urtez urte. Bi argazki jarri, eta eskanerraren argia mugitzen zen bitartean dilistak nahastera; beste bi argazki jarri eta bitartean ogia erostera; beste bi argazki jarri eta askotan kito, haurra eskanerraz jeloskor jartzen zelako.



1982-09-19 Uztapiden Omenaldia Lastur.

Digitalizatutako argazki bakoitza zenbakitu ostean, Kaxkak albumak hartu, eta zenbaki bakoitzari *nor-noiz-nola-zer-zergatik-norekin-norentzat* bat idazten zion, orri zuritan, arkatzez —eskerrak letra oneko gizona den—, eta bueltan ekartzen zidan idatzitakoa nik ordenagailura pasa ahal izateko. Gutxi batzuk egin ditugu horrela, guztira 3995 argazki eta 86 bideo.

Inurri lana izan da. 2022ko irailean hasi eta 2023ko abenduan amaitu genuen. Ez nuke jakingo esaten zenbat aldiz jaitsi garen Udal Artxibora —eta Koro beti atea zabaltzeko prest—. 41 urtetan inork begiratu ez dituen argazkiak mimatu ditugu, kontu handiz ukitu eta segundotako begirada bat eskaini diegu. Gogoratuak izan dira, eta oroitzapenentzat ez dago opari hoberik.

Baina argazki horiek ez lukete ezer balioko, ez balitz Kaxkaren ahotsak oihartzun egiten duelako haien ondoan; eta ez ahots ozena duelako hain justu, kontatzeko asko duelako baizik. Agian ez dakizue Kaxkak lortu zuela helduen lehen bertso eskolarako lokala. Agian ez dakizue Kaxka Uztapideren ahotsa izan zela —eta haren txofer ofiziala—. Agian ez dakizue Uztapide hil zenean Kaxkak itxi zuela haren hilobia. Agian ez dakizue Uztapideren hiletan Joxe Joakin Mitxelenari gertaturikoa. Agian ez dakizue Mattinen omenaldiko bideoarena ... nik bai. *Kaxka*, attan laguna, orain nirea ere bada pixka bat.

Nire eskuetan dagoena egin dut, telefonoa hartu eta grabagailua piztu. Eta eskerrak ematen dizkiot Kaxkari kontatu dizkidan istorio guztiengatik, entzun nahi duten belarrientzat ez baitago opari hoberik. Nork daki, agian aurrerago zuei ere iritsiko zaizue Kaxkaren ahotsa, eta haren lagun izan nahiko duzue.

Karmele Mitxelena Etxebeste
MARTZELINA BERTSOZALE ELKARTEA

TXINALKA ANTZERKI TALDEA



Txinalka antzerki taldea.

TXINALKA Antzerki Taldekoek aurten ere laanean jardun dugu oiartzuar guztiok antzerki-azalduz ahal izan dezazuen.

Iaz **LAS PALMERAS** antzezlan eskaini genuen Lur Kortak zuzenduta eta ikusleen irribarreak eta algarak eragin zituen. Antzezlanak Benidorm aldera eramanez gintuen eta Ibiza aldean bukatu genuen. Aurtengo denboraldi berriaren hasieran pentsatzen hasi ginen ea ze antzezlan mota eskainiko genuen.

Ez genuen asko pentsatu behar izan, jende askok esan baitzigen ea aurtengo antzezlanaz zergatik ez genuen hasten iaz bukatu genuen lekutik, Ibizatik. **Aurten Ibiza aldera joango gara beraz.** Esan beharra dugu oso ikusle finak eta leialak ditugula eta urtero esaten digute: "Umorezko gaia jarri, eta barrea eragiteko antzezlanaz aurkeztu, guk ongi pasa nahi dugu eta zuekin".

Urtekaria argitaratuko denerako gure antzezlanaz aurkeztua izango dugu. Ia urtero bezala, ekaineko lehen igandean eskainiko dugu Landetxeko kultur aretoan. Urte askotan idatzi dut esanez Oiartzun oso herri aktiboa dela, urtean zehar ekintza asko antolatzen direla eta premiazko gurela antzoki bat edukitzea.

Urte asko itzaroten egon ondoren, iaz inauguratu zen Landetxeko kultur etxea eta esan beharra daukat gozada bat dela aretoa nola gelditu

den ikustea. Urtean zehar ekintza asko egiten dira. Areto berriaren parte hartzea oso pozgarria da eta aurten ere oholta gainera igotzeko desiratzen gaude.

Aurtengo denboraldirako beste partaide berri bat daukagu eta Txinalka antzerki taldeko partaideak hauek gara:

Amaia Iburguren-Jesux Gonzalez-Joxe Migel Lopez-Maite Odriozola-Marga Maritxalar-Nati Gonzalez eta Pili Arbelaitz.

Zuzendaria: Lur Korta

Espero dugu aurtengo antzezlanarekin zuek ere asko gozatzea eta Landetxeko aretoan elkar ikusiko dugun esperantzarekin agurtzen gara.

Txinalka Antzerki Taldea



IBARGAIN MUSIKA ESKOLA 2023/2024



Biolontxelo.

Irailaren 5ean, irakasleen klaustroaren lehen bileran esan genuen bezala, "gure jatorrira itzul-tzen ari gara": ikasle gutxiago eta eskainitako espezialitate gutxiago. Baina uste dugu lerro hauetan kontatuko dugunarekin nahiko argi geratzen dela ilusioak, musikarekiko maitasunak eta horrek sortzen duen giroak osasun onarekin jarraitzen dutela Oiartzunen.

Ikastaro honetan pianoa, akordeoia, tronpeta, klarinetea, txirula, biolina eta biolontxeloa ematen jarraitzen dugu.

Gure talde instrumental gehienek Karrikan entseatzeko jarraitzen dute, Udalak uzten digun Haur Eskola zaharrean. Ikasturte honen hasieran uholde bat izan zen lokal horretan, eta gure jarduerari ekitea galarazteko zorian egon ginen, baina gure erreakzio azkarrari esker eta, batez ere, Udaltzaingoaren eta Udal Brigadaren lankidetzari esker, matxura konpondu ahal izan genuen eta normaltasunez hasi ginen. Eskerrik asko!

Urtero, Irisarrin, Arantzan, Txondorraren piztea ospatzen dute, eta oraingoan Taupadak, gure ganbera taldea, gonbidatu zuten ekitaldiari bere musikarekin laguntzeko. Azaroaren 4an eguraldiak ez zuen lagundu eta Taupadak taldeak esparru itxi batean eskaini behar izan zuen bere musika, baina han egon zirenek euren doinuekin gozatu zuten.

Ikasturte honetan Santa Zeziliaren ospakizuna azaroaren 21ean izan zen plazan, eguraldiak ere ez zuen lagundu eta kostatu zitzaigun gure instrumentuekin iristea eta batez ere haiekin itzultzea, busti gabe, gure eskolaraino, baina azkenean gure musika eskaini ahal izan genuen. Ederra izan zen biolontxeloko 8 urteko gure bi ikasle berriak eta pianoko 7 urteko bi berriak *Ordularia* abestiaren sarrera jotzen ikustea eta guztien gozamen aurpegiak ikustea, *Lehiotikan begira* edo *Aulki dantza* abestietan, adibidez. Beti bezala, Ibergain Elkarteko lagunei esker txokolatada batekin amaitu genuen.

Azaroaren 26an Abaraxkan Harrera ekitaldia egin zitzaien aurten Oiartzunera bizitzera etorri direnei. Berritoki ere gure Haize Taldea izan zen bere musikarekin laguntzen.

Ikasturte honetan, zalantza askoren ondoren eta lehen aldiz, Gabonetako kontzertua abenduaren 22an Landetxan egin genuen.

Elizan lortzen genuen "Gabon girorik" ez genuen lortu, baina kargatzeko eta deskargatzeko erosotasunean irabazten dugu, eta batez ere kontzertua entseatu eta eskaintzeko aukeran, hileta dagoen ala ez zain egon gabe. Urteren batean, entseguaren egunean hileta tokatu izan zaigu, eta erlojuaren kontra muntatu, entseatu eta desmuntatu behar izan dugu, eta besteren batean kontzertuaren egunean bertan hileta to-



Harrera 2023-11-26.




Txiki 24.

katu izan zaigu, eta ate nagusitik hilkutxa ateratzen zen bitartean, Sakristiatik korrika ateratzen ginen gure instrumentuekin kontzerturako agertokia muntatzera, eta nahiko egoera xelebrea gertatzen zen.

Otsailean, 16an, piano eta ganbera kontzertua eskaini genuen Landetxan eta gure kezketako bat zen agian edukiera handiegia geratuko zitzaiagula. Kontziente gara kontzertu honetara, ia guztietara bezala, orain arte batez ere jarduleen senide zuzenak joaten direla, eta asko ez zirenez, erdi hutsik egongo zela uste genuen. Bada, ia-ia bete egin zen Landetxeko programazioaren "tira-birari" esker. Zorionez, badirudi "Landetxeko publikoa" sortzen ari dela.

Otsailaren 25ean, Astigarragan, Piano Topaketa ospatu zen. Bertan, gure piano ikasle talde bat izan zen, igande baterako ordu arraro batean, 14:30ean, baina bikain jo zuten eta pozik itzuli ziren, hurrengo ostegunean egin genuen piano-jotzaileen meriendatxoan kontaktatzen zuten. Oartzunen izena Gipuzkoako piano-munduan egindako lan onarekin lotzen da oraindik ere.

Soinueneko gure lagunek *Erraldoi Txikia* abestia grabatzea proposatu ziguten eta aste batzuk entseatzeko eman ondoren, martxoaren 6an eskolan grabatu genuen. Gure musikari txikiak benetako profesionalak izan ziren eta, beste behin ere, musika egiten sortutako giroa zoragarria izan zen.



Ametsa Taldea.

Bigarren hiruhilekoa klarineteko bi ikaslerekin amaitu zen, Lezoko Musika Eskolarekin elkarlanean, Orion egindako truke batean. Hurrengo urtean errepikatuko ote zuten galdetuta, baietz erantzun zuten. Ba, argi dago, erantzuna nahikoa da berriro saiatzeko.

Hirugarren hiruhilekoaren lehen larunbatean Bergaran Flauta Topaketa egin zen Gipuzkoa osotik etorritako 72 flauta ikaslerekin. Gure ordezkariak lagun berriak egin zituzten eta beste herri batzuetako txirula-jotzaileekin telefonoak trukatu zituzten.

Apirila amaitu genuen Haurtzaro eta Elizaldeko ikasleei eskaintzen dizkieguz Gaztetxoan Kontzertuetarako proposamena zehazten. Bi ikastetxeetako ordezkariekin bilerak egin genituen eta maiatzaren zehar gure aldetik entseatu genituen abestiak. Maiatzaren 30ean HH5 eta LH1eko ikasleekin eta 31n LH2 eta LH3koekin asko gozatu genuen *Erraldoi Txikia* eta *Bultzada Txiki* abestuz. Asteazkenean, hilak 29, bakarlarrien eta talde instrumental txikien kontzertu klasikoa ospatu genuen, eta ostiralean, hilak 31, 19:00etan, Eskolako talde guztiek parte hartu genuen Landetxeko Kontzertu Jaialdian.

Ekainaren 8an, larunbata, gure klarineteak Arrasateko topaketa batean zeuden bitartean, *Erraldoi Txikia* abestia abestu genuen berriro Landetxan, izen bereko ipuinaren aurkezpenean.

Hasieran esan bezala, Ibergain Musika Eskola murrizten ari da jende kopuruari dagokionez, baina lerro hauetan jasotakoarekin nahiko argi geratzen dela uste dugu ilusioak, musikarekiko maitasunak eta horrek sortzen duen giroak osasun onarekin jarraitzen dutela Oartzunen.

OIARTZUN IRRATIAK 25 urte bete ditu



Aurten Oiartzun Irratiak uztailean 7an 25 urte bete ditu. Hogeita bost urte hauetan hainbat eta hainbat herritar pasatu dira Oiartzun Irratitik.

- 90eko hamarkada herri komunikabide euskaldunen aroa izan zen. Euskalgintzan, ordu-ra arte, erdarazko zerbitzuei begira bizi ginen; haiek zer egin, guk hura kopiatu. Baina haiek ohartu aurretik, euskalgintza konturatu zen tokiko informazioa lantzen zuten komunikabideen premia genuela. Hori zela eta, herri askotan bertako informazioa jasotzeko euskal komunikabideak sortu ziren; euskararen normalkuntzan urrats garrantzitsua izan zen hori.

- 1998an Eskualdeko lau herritan euskara hutsezko herri aldizkariak genituen (Oreretako *Lau haizetara*, Lezoko *Orratx*, Pasaiako *Branka* eta Oiartzungo *Udal aldizkaria*). Bestalde, eskualde mailako herri telebista genuen: Oarso Telebista.

- Oiartzun irrateria: 1998an jarri zen proiektua martxan. Aurretik bi irrati egonak ziren Oiartzunen (Urritza Irratia eta Kontakatilu irrateria). Gema Lasartek Ane Lardiri egin zion irrateria martxan jartzeko gonbita.

Ane Lardik onartu egin zuen eta 1999an hasieran Udalarekin hitzarmena sinatu zuen Oarso Kultur Fundazioak. Udalak azpiegiturak utziko zizkion fundazioari eta fundazioak programazioa eskainiko zuen. Horrela, 1999ko uztailearen 7an Oiartzun Irratiko lehenengo saioa emititu zen.

Herritar askok parte hartu zuten proiektuan, eguneroko lanetan aritzen ziren langileez gain. 2002 inguruan irratiari izaera juridikoa eman zioten eta Hitz Hots elkarteak sortu zuten. Urteak aurrera egin ahala, irrateria handitzen joan zen tresna eta taldekide berriekin. 2003an emisio etena izan zen, Udalak irrateria lekuz aldatu zuelako.

20 urteren ondoren, 2023an, Oiartzun Irratia berriro ere herriko plaza ingurura etorri zen egoitza berrira, Arraskularre kaletik Landetxeko egoitzara.

Euskara hutsezko herri irrateria dugu Oiartzungoa, dinamikoa eta herritar guztientzat atek zabalik dituen. Irratiko langileek egiten dituzten saioez gain, hainbat kolaboratzailek ere parte hartzen dute. Herriko hainbat talderen eta eragileren txokoa era bada irrateria. Euskal Herriko eta munduko albisteen berri emateaz gain, herriko albiste freskoenak ere izaten ditugu astelehenetik ostiralera; herritik herriarentzat.

Gaur egun Internet bidez munduko edozein lekutatik entzun daiteke Oiartzun Irratia. www.oiartzunirratia.eus. Web orria berritzen ari gara zerbitzu hobea emateko asmoz.

Uztailearen 13an ospatuko dugu gure 25. urteurrena. Urtero bezala urtekaria uztailean aterako denez, ezin izango dugu ospakizun horren argazkirik ipini, eta beraz, iazko 24. urteurrenaren bazkariko argazki batzuk dituzue bertan.



Dudarik gabe, ohore handia da Oiartzun Irratiaren parte izatea eta eskerrak eman nahi dizkiot Oiartzungo Udalari, Oiartzun Irratiaren aldeko apustua egiteagatik.

Eskerrak eman nahi dizkiet ere Oiartzun Irratian parte hartzen duten guztiei, ezinezkoa da denen izenak jartzea, baina mila esker bide luze honetan parte hartu duzuen guztioi. Esan bezala,

Oiartzun Irratiak aurten 25 urte beteko ditu eta beste hainbeste ere bete ditzala!

Oiartzun Irratia FM 106,5 Urrutira jun gabe!!!

www.oiartzunirratia.eus
oiartzunirratia@gmail.com

Joxe Migel Lopez



AUNTXA TRIKITIXA ESKOLA



Urtero bezala idatzi honen bitartez gure trikiti eskolako berri ematera gatorkizue. Dagoeneko hogeita hamaika urte dira ELIZALDE HERRI ESKOLAn trikiti eta panderoako klaseak ematen hasi ginela eta aukera honetaz baliatuz gure esker ona eman nahi genioke bertako jende guztia-ri: irakasle, ikasle, guraso eta abarri... Gure lana behar bezala betetzeko eskaintzen dizkiguten baliabide guztiengatik eta edozein ekintzatan parte hartzeko gugana jotzeagatik.

Aurtengo kurtsoari dagokionez, hainbat emandalditan parte hartu dugu eta hauek dira horietako batzuk: urtarrilaren 20an Irungo Bentak auzoan trikipoteo bat egin genuen Korrikaren alde, otsailaren 4an Oiartzungo Karroxan parte hartu genuen, otsailaren 8an Irungo inauteriei hasiera eman genien, maiatzaren 4an Itziarko erromeria egunean izan ginen, maiatzaren 25ean gure eskolako eta Irungo kontserbatorioko ikasleek erromeria bat eskaini genuen Irungo Zabaltza plazan, ekainaren 2an Irungo Anaka auzoko festetan kalejiran ibili ginen kalez kale, ekainaren 8an Oiartzungo kontzejupean beste erromeria bat eskaini genuen ikasleekin Oiartzungo plaza dantzan jartzeko, etab.

Trikitia irakasteko hiru metodo erabiltzen ditugu:

1. Zenbakien bidez: gaur egun metodorik erabiliena eta praktikoena da, hau erabilia lortzen diren emaitzak ikusita.

2. Aurrez aurre: irakasteko metodo hau trikitia irakasteko erabilitako aurrena da, garai batean trikitia jotzen horrela irakasten baitzuten.

3. Solfeoz eta zenbakiz osaturiko metodoa: esan beharra daukat, hamabosgarren ikasturtea dela aurten metodo hau martxan jarri genuela eta oso emaitza onak ematen ari da, ikasle multzo polit bat ikasten ari da era honetara, eta emaitzak ikusita, luzarora trikitia irakasteko metodorik interesgarriena dela iruditzen zait, musikaren alor asko lantzen baitira: entzumena, sorkuntza, inprobisazioa, eta abar.

Bukatzeko, esan beharra daukagu zuetako norbaitek trikitia behar badu jaialdi, kalejira, afari edo edozein ekintzatarako, gu prest gaudela parte hartzeko. Gure trikiti eskolak egindako lanaren ondorio nagusia bertatik sortu eta sortzen ari diren trikitilari gazteak dira eta.

Trikitia edo panderoa jotzen ikasi nahi baduzu, berriz, informazio gehiagorako deitu telefono honetara: 943 618839 edo 615790510 / 622096646ra. Gurekin pertsonalki hitz egin nahi baduzu, astearte eta ostegunetan egoten gara Elizalde Herri Eskolan.

Besterik gabe, agur bero bat Oiartzuar guztioi Auntxa Trikiti Eskolaren izenean.

Egilea: Iñaki Aranaga
www.auntxatrikitieskola.com

LARTAUN ABESBATZAREN bira KATALUNIAN



2023-2024 denboraldia proiektu interesgarritzat, kontzertu zein bestelakoekin, eta denboraldiari hasiera emateko era ezin hobea: 4 eguneko bidaia eta kontzertu bira Katalunian.

Urriaren 12an Lartaun Abesbatzako autobusa martxan jarri zen Bartzelona aldera egiteko. 40 bat lagun ez osatutako korua eta bere laguntzaileak ilusioz beterik abiatu ziren, eta bidaia luzearen ostean, Bartzelonara arratsaldean iritsi ziren egun horretan bertan eskainiko zuten kontzertua buruan. Ondorengo egunetan etxe izango zuten egoitzan gauzak utzi eta segidan abiatu ziren korukideak hiriaren erdialdera.

Bartzelonako Coral Lavinia abesbatzak gonbidatuta, egun horretan bertan arratsaldeko 20:30ean kontzertua eskainiko zuten Santa Creu i Sant Pau elizan, Sant Pau ospitalearen ondoan dagoen elizan. Sant Pau ospitalea 1997an UNESCOk Munduko Ondare izendatu zuen eta benetako ohorea zen eraikin horien elizan abestea. Irtsi orduko Lavinia abesbatzako lagunek sekularo ongietorria egin zieten Lartauneko kideei, Bartzelonako abeslarien korridore bat osatuz oiartzuarrak erditik pasa zitezen, gonbidatu garrantzitsu sentitzeko. Lehen ongietorria eta

beharrezkoak ziren aurkezpenak egin ondoren, bi abesbatzek elkarrekin abestuko zituzten bi abestiak entseatzeko aukera izan zuten: *Maitia Nun Zira* eta *El Rossinyol*.

Kontzertua bertako Lavinia abesbatzak ireki zuen, estilo eta mota desberdinetako obrak abestuz eta horien artean Javier Bustoren *Nerea Izango Zen*, euskaldunei egindako omenaldi gisa. Lartaunen txanda iristean, egitarau hau eskaini zuten:

BLONDA XARMANTA (X. Sarasola)

IZAR EDERRAK (J. Elberdin)

POETA HORIEK (X.Lete/J.Elberdin)

HERRIBERA (B.Lertxundi/ L.Ondarra)

MUTIL TXALEKO GORRI (Junkal Guerrero)

HEGO HAIZEA (M.M. Azpiazu)

SEGALARIAK (J. Elberdin)

AUNITZ URTEZ (J. Oñatibia)



Bigarren egunean Lartauneko kideek hirian denbora libreaz gozatzeko aukera izan zuten. Lehendabizi Sagrada Familiaren inguruak bisitatu, hirian zehar bueltatzea egin eta bertakoaz gozatu... eta eguerdian Palau de la Musica Catalana bisitatzeko aukera izan zuten. Lavinia koruko zuzendaria lagun, bisita gidatu zoragarria egin zuten eta bisita hori Palauren eszenatokira igo eta bertan abestuz bukatu zen. Zalantzarik gabe, inoiz ahaztuko ez zen esperientzia izan zen bertan bizi izandakoa.

Eta bertan zeuden ikusle pilaren txalo zaparrada jaso eta bi abesbatzek elkarrekin abestu ostean, Bartzelonako lagunek prestatutako luntx goxoarekin gozatu zuten bi taldeek elkarrekin. Otordua batzuen eta besteen eta elkarrekin egingako abestiekin ere jantzi zen eta lehenengo egunari amaiera paregabea eman zion.

Urriaren 14an Tarragonako Banyeres del Penedès herrira egin zuten abesbatzako kideek. Kide horietako batzuk eta Oiartzungo herriak berak hango pertsona talde batekin duen harremanari esker, bertan kontzertua eskaini behar zuten Lartaunekoek, eta han ere harrera zoragarria izan zuten.





Iritsi bezain pronto, Santa Eulàlia eliza goxoan egin zuten entsegua, behar bezala moldatu eta probatzeko. Bartzelonan eskainitako egitarauarekiko aldaketa txiki batzuk zituen programa entseatu eta dena prest zela, emanaldiaren ordua iritsi zen. Eliza bete egin zen herriko biztanle eta bertako alkate eta guzti, eta koruak eskanitako energiak harrera ezin hobia izan zuen, jasotako txalo, oroigarri eta bestelakoak ikusita.

Kontzertua amaitu ostean udaletxean harrera egin zieten abesbatzako kideei eta kanpoaldean luntx txiki batekin hartu zituzten. Alkateak Lar-

tauni zuzendutako hitzen ostean, herriko lagunekin zerbait jan eta edan ondoren, taldearentzat bereziki prestatutako paella goxoa jatera joan ziren. Otordu goxoa eta kantu ugari izan ziren berriz ere egun horretan lagun, eta egun bikaina pasatu ondoren Bartzelonara itzuli ziren.

Bi kontzertu arrakastatsu, Palau de la Musica bisitatu eta bertako eszenatokian abesteko aukera izan, lagun zaharrak ikusi eta berriak egin, korukideen arteko harremanak sendotu eta beste hainbat eta hainbat opariz beterik bueltatu zen Lartaun, 2024ko urrian Bartzelonako lagunak Oiartzunen izateko konpromisoarekin.

KATTALIN ETA EGIAR

eskolarteko bertsolari txapelketako finalean



Eskolarteko finala.

Eskolartekoak bertsotan hasten ari garenoi jendaurrean kantatzeko aukera ematen digu. Txapelketa izan arren, afaria eta gero saioa izaten da, eta horrek aukera ematen du besteekin egon eta Gipuzkoako beste lekuetako jendea ezagutzeko. Kanporaketetan mahaiaren bueltan kantatzeak ere segurtasuna ematen du, eta ikusleek ere ulertzen dute hasiberriak gara eta edozein akats eginda ere gogo onez hartzen dute.

Txapelketa hau gazte bertsozaleon motibazioa da. Bat-bateko lehenengoetako plazak beste gazteekin egite horrek beldurrak eta lotsak kentzen laguntzen baitu. Bertso eskolan ere hau prestatzen aritu gara ikasturte hasieratik, beraz, kezka handiena genuen ariketetan sakontzeko aukera izan dugu: geure burua prestatua ikusi dugu, eta horrek autokonfiantzan eragin ona izan du.

Bestalde, lagun berriak egiteko aukera ere ematen du, aipatu bezala. Egia da urduritasuna areagotzen dela otorduan zehar, baina bertso-kideak ezagutzeko eta haiekin hitz egiteko tarteak ere bada, eta horrek lasaitasun edo konplizitate

puntu bat sortzen du. Jende berria ezagutzeko ez ezik, bertso-eskola bereko jendearekin kantatzeko aukera ere izan dugu. Bai kanporaketan, bai finalean. Hala, babes sentsazioaz hasten zara kantuan, gertuko norbaitekin egin behar baitiozu aurre erronkari. Bakarrik, baina aldi berean taldean egiten den esperientzia delako. Oso gustura ostatutako prozesua izan da, eta horretan jarraitzeko grina pizten du.

Hala, gazteok behar dugun babesa eta segurtasuna eskaintzen dizkigu txapelketak, txapelketa izan arren gazteontzako plaza delako, batik bat. Lehen pausoak emateko behar diren animo eta indarrak ematen dituzte, bai bertso-eskolakoek, bai ingurukoek eta baita saioan bertan ere. Eskolartekoak gazteon beharrak asetzen ditu eta ateak zabaldu, nahi izanez gero, etorkizunean, bertsoaz eta bertsotan gozatzeko.

*Kattalin Arabolaza Palomo eta
Egiar Otegi Torres*

Zer berri OIARTZUNGO CAVAILLÉ-COLL organoaren inguruan?

Anton Mendizabal

Jakina da Oiartzungo Cavaillé-Coll organo berezi eta famatuak jotzaile esanguratsu eta famatu askoren arreta jaso izan duela bere historian zehar. Era berean, organo honen historiaren nondik norakoak ere ikerketa ugari izan dira.

Cavaillé-Collen lehenengo lanetako bat dela esan daiteke. Beraz, klasiko eta erromantiko garaien artean kokatua. Trantsizioko organoa da. Badu ere aurreko garaietako egite-teknika, tutu eta soinu-estetikaren arrastorik, garai berrietako aurrerapen nabariak gainera. Cavaillé-Collen organogile lanean iraultza garaiko izate horrek egiten du benetan berezi eta entzungarri. Esan dezakegu penintsulako Cavaillé-Coll zaharrena dela eta Europako zaharrenetakoa. Saint Louis Bédarieuxekoa (1843), Saint Pierre de Verberiekoa (1843) eta Orleanseko katedraleko koruko organoa (1846) dira Oiartzungoaren oso antzekoak. Hirurak Monumentu Historiko izendatuak, eta duten soinu apartarengatik oso estimatuak jotzaile eta adituen artean.

Oiartzungo organo honen historiak eta nondik norakoak galdera ikur asko plazaratu izan ditu. Oiartzungo Udalak bultzatutako ikerketa bekari esker, **Xabier Alberdi** historiagileak, 2014an, eta **Denis Lacorre** organogileak 2023an, lan sakonak eskaini dizkigute organo honen historiaren inguruan. Erreferentziazko bi lan horiei, besteak beste, **M. Lekuona**, **J. Arozena**, **J.M. Azkue**, **S. Del Campo**, **E. Elizondo**, **E. Landart**, **O. Candendo**, **N. Otaño**, **A. Leibar**, **J.M. Mitxelena**, **A. Mendizabal**, **F. Clastrier**, **D. Havard**, **J. Eschbach**, **J. Verdin**, **A. Parreten...** ekarpenak gehitu behar dizkiegu.

Jasotako informazio zabal eta sakon horien ondorioz, gaur egun dakigunaren berri laburra ematera nator urtekari honetara. Azterketek eta ikerketek jarraituko dute, eta etorkizunean, gaur egun zabaltzen ari garen informazio hau osatua edo aldatua gerta daitekeela ez dugu ahaztu behar.



M. Lekuona.



J. Arozena.



J.M. Azkue.



X. Alberdi.



D. Lacorre.



S. del Campo.



E. Elizondo.



E. Landart.



O. Candendo.

OIARTZUNGO ORGANOA PARISEN (1844 - 1861)

• Oiartzungo organoa **CAVAILLÉ-COLL PÈRE ET FILS** aita- seme organogileek egina zuten 1844 urterako, Parisen zuten lantegian.

• Organo honek 14 soinu-multzo, 54 notako bi esku-teklatu, oinetarako 18 notako teklatura, espresio-kutxa eta oinezko loturak zituen. Cavallé-Collen inbentarioan 10.000 liberako balioarekin azaltzen da. 1844an, Saint Vincent de Paul elizari alokatu izan zioten, urtero 1.000 libera (alokairua + afinazioa) kobratuz.



Dominique Cavallé-Coll.



Aristide Cavallé-Coll.



Cavallé-Coll lantegia Parisen.



Oiartzungo organoaren izenpea.

• Pariseko **SAINT VINCENT DE PAUL** elizan egon zen 1844 eta 1857 urteen artean. Eliza inauguratu eta segidan alokairuan hartu zuten gero Oiartzuna ekarria izan zen organoa, eliza honetarako organo handia egiten zuten bitartean.

Denboraldi horretan, hiru organista famatu izan ziren Oiartzungo organoaren jotzaile ofizialak:

- **CHRÈTIENNE URHAN** (1790-1845). Organista eta biola jotzailea. **Hector Berlioz**en *Harold Italian* obra ezagunaren estreinaldian (1832), biola bakarlaria izan zen, **N. Paganini**ren ordean. Ch. Urhan, **Franz Liszt** pianista eta konpositore famatuaren laguna zen, eta elkarrekin jo izan zuten maiz. F. Liszt garai horietan Saint Vincent Pauleko elizatiarra zen, eta igandero entzuten omen zuen Ch. Urhan gure organoa jotzen.

- **LOUIS BRAILLE** (1809-1852). Bere izena daraman Itsuentzako irakurketa-sistemaren sortzaile famatua, musikari trebea eta organista famatua zen. Sei urtez aritu zen organista gure organoan (1845-1851).


- **LOUIS DÈSIRÈ BESOZZI** (1814 - 1879). Organista, pianista eta konpositore talentu handikoa. Erromako sari handia irabazitakoa. Urtebetez izan zen organista gure organoan, organo handia osatu zen bitartean (1852). Bere interpretazioak oso iritzi baikorrak jaso zituen, gure organoan jotako **L. Cherubini**ren Santu-sarenak (L'illustration 1852/02/12) esaterako.



Saint Vincent Paul.



Chrétienne Urhan.



Franz Liszt.



Louis Braille.



L.D. Besozziaren obrak.




L. Braileren metodoa.



Sainte Clotilde.



Cesar Franck.



Pièces Posthumes.

- Ondoren, Pariseko **SAINTE COTILDE** elizan egon zen organoa, 1858 eta 1859 urteetan. **Cavaillé-Collek** eliza horretarako organo berri handiak osatzen zituen bitartean erabili zuen, ordezko organo gisa.

Urte horietan, Sainte Clotilden **CESAR FRANCK** handia izan zen organista, beraz, ziurtatu daiteke

gerora Oiartzuna ekarri zen organoaren jotzailea izan zela.

Cesar Franck, organo-jotzaile oso famatua izateaz gain, konpositorea bikaina ere bazen. Garai horretan idatzi zuen **PIÈCES POTHUMES** bilduma. Horietako batzuk gure organoaren laguntzaz konposatu omen zituen.

ORGANOA OIARTZUNEN (1861 – 2024)

ORGANOAREN EROSKETA


1783tik, San Esteban Parrokian zegoen organoa, Gasparini, Closar eta Carbajalek egina, zeharo hondatua zegoen, eta Oiartzungo Udalak organo berri bat enkargatzea erabaki zuen.

1861ean, **ARISTIDE. CAVAILLÉ-COLLI** eskatu zion Udalak azkar batean organo berri bat egiteko. A. Cavaillé-Collek, ordezko lanetan S.V. Paul eta S. Clotilde elizetan erabilitako organo on eta berezi hura, organo handiak amaitu eta libre gelditu zitzaiona, eskaini zion Oiartzungo Udalarari, berri bat egiteko denborarik ez zuela argudiatuta. A. Cavaillé-

Coll bera etorri zen Oiartzuna, eta Udalarekin tratua zuzenean egin zuen, Udalak organoa ekarri eta muntatzeko. 14.000 libera ordaindu zituen.

JOSE JUAN SANTESTEBANEK, Donostiako Santa Mariako organista zenak, egin zituen bitartekaritza eta muntaketa lanak, propio Oiartzuna bizitzera etorrita. Indartenean bizi izan zen.

Ikuskaritza lana **DAMIAN SANZ** Iruñeko katedraleko organistak egin zuen, eta organoa oso ongi muntatu zutela eta kalitate handikoa zela adierazi zuen.



Tratuaren izenpetzaileak, A. Cavaillé-Coll barne.



Jose Juan Santesteban.



Organoa San Esteban parrokian.

HOBKUNTZAK ETA ALDAKETAK

• 1861

Parisetik ekarritako organo horri pedaleko teklatuarentzako 3 soinu-multzo berri gehitu zizkion **Cavaillé-Collek** berak, elizaren espazio zabala ongi menderatu zezan. Organoa, era honetan, 17 soinu-multzo izatera igaro zen. 3.500 liberako kostu gehigarria izan zuen hobekuntza horrek (Udalak ordaindu zuen).

• 1928

Ordu arte eskuz haizetzen zen sistemaren orde, haizegailu elektrikoa ipini zitzaion.

• 1935

Amezua y Cia etxeak erreforma garrantzitsua egin zuen organoan, errezitatiboaren esku-teklatura hornituz, eta organoaren aukerak handituz. Tutu gehigarriak altzari nagusian uztartu zituen, honen itxura errespetatuz. 7.150 pezetako kostua izan zuen hobekuntzak, eta Elizak ordaindu zuen.

• 1999

Azken errebisio zabala, 1999an **Bernal eta Kortak** egin zioten organoari. Aurrekontua 2.382.000 pezetakoa izan zen. Oinetarako teklatu berria, eta eskuetarako teklatuaren xafla-aldaketa osoa egin zitzaion.

*2001.ren Urriaren 28an, eta **PAGOARTEREN** eskutik, **J.M. Azkuek** eta **A. Arozenak** eman zioten azkenaldi oparoi (2001 – 2020) hasera. Aldi honetan, **S. del Campo** otxandioar organogilearen zaintzapean egon zen organoa.*




1861. Cavaillé-Colle hobekuntza.




1928. Eskuz eragiteko haizegailua.



1928. Haizegailu elektrikoa.



1935. Amezua y Cia.



1999. Bernal eta Kortak.




2001. Jose Manuel Azkue.

ORGANOA DESMUNTATZEA

2020ko irailean, San Esteban Parrokiako kanpoaldean eta barrualdeko koruko aldean, artesi kezkarriak azaldu ziren. Horien ondorioz, harriak eta hondarra erortzen hasia zen organoaren gainera.



Artesiak San Esteban parrokiari.



Michel Jurine enpresa organoa desmuntatzen.



Organoa desmuntatua.

Organoa arrisku bizian zegoela ikusirik, behala desmuntatzea erabaki zen. Lontarongo (Frantzia) **Michel Jurine** enpresak organoa desmuntatu eta elizan bertan gorde zuen.

ORGANOAREN ETORKIZUNA

Oiartzungo organoak garrantzi handia du, eta ondare oso preziatutzat daukagu. Kontzertu, liturgia, bisita gidatu, grabaketa eta beste zenbait emanaldiren ardatz izan da. Azken aldiko ekintzetan, ordea, higadurak eta izandako matxura ugariak zaharberitze prozesu azkar baten beharra erakutsi izan digute, bere mailan mantendu nahi izanez gero. Ezin dugu ahaztu organo zahar bat dela gurea, lekualdatze eta manipulazio asko jasandakoa. Duela hamar urte, **2014ko Urtekarian**, "Oiartzungo Cavaillé-Coll organoa" lanean, kezka hori azaldu nuen. Geroztik **Oiartzungo Organozaleak** taldea sortu zenetik eta **S. del Campo** organogilearen aholkuak kontuan hartuz, beti plazaratu izan dugu zaharberitzearen beharra, berandu baino lehen. Oraingo egoerak, hau da, derrigorrezko desmuntatze horrek, Gipuzkoan zaharberitzeko dauden organoen zerrendan lehen lerroan jarri du Oiartzungoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Oiartzungo Udalak eta San Esteban Parrokiak bere borondatea eta konpromisoa azaldu dute zaharberitze prozesuari lehenbailehen hasiera emateko. Lan horretan nagusiki diru publikoa erabiliko denez, organoa oiartzuarren eskura egongo dela ziurtatu beharko da. Horretarako, hitzarmen bat sinatu beharko da zeinetan jasotzen den organoaren erabilpena zabala eta irekia izango dela eta organoa Oiartzungo elizan egongo dela.

Oiartzungo organoa desmuntatu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu eta aurrekontu deialdi bat zabaldu zuen 2022ko maiatzean, organoa zaharberitzeko. Foru Aldundiko adituen komisioko teknikoak erabaki behar du zaharberitzearen irizpidea eta nondik norakoa. Era berean, Otxandioko (E.H.) **Sergio del Campo** edo Lontarongo (Frantzia) **Michel Jurine** organogileen artean nor izango den Oiartzungo organoaren zaharberitze horretaz arduratuko dena jakinarazi beharko du.

Lanak 2024. urte amaieran hastea espero da, eta bi urteko epean amaitzea.

Hala izan dadila!



Anton Mendizabal
2024/05/18

SOINUENEA

Ttarraka-ttarraka, Soinueneak bere helburuei eusten die: herri-musika gure ingurutik eta gure inguruan ezagutarazi eta bizitzeko lanean jarraitzen dugu. Aurten ere, Ergoiengo frontoiaren ondoan dagoen Herri Musikaren Txoko honetara bisita egin digute Euskal Herriko kolore guztietako milaka haur eta gaztek, haien irakasleen eskutik. Gurean ezagutu dituzte era guztietako ospakizunetan jotzen diren soinu-tresnak, hotsa ematen duten tresna eta jostailuen nondik norakoak eta funtzio ezberdinak. Aldi berean, ikasle horiei esker munduko makina bat herritako musika eta soinu-tresnak hobeto ezagutzeko aukera izan dugu, bi norabideko ikasketa prozesu batean.

Soinuenera bertara etortzerik ez daukatenekin hemen gordeta dugun jakintza partekatzeko ahalegina egiten dugu gure sare sozialen bidez. Bideo eta argazkien bidez adibide zehatz eta konkretuak zabalduz milaka pertsonari iristen zaio euskal herri-musikaren berri. Gai horretan sakondu nahi duenak gure web-orrian informa-

zio zabala du eskura, bai Juan Mari Beltran Argiñena Bildumaren katalogoan, baita artikulu mamitsuak dituen Entziklopedian ere.

Museoak zaintzen dituen soinu-tresna eta dokumentuak ezagutzeko aukeraz gain, Oiartzunen euskal musika tradizioan leku berezia duten soinu-tresnak jotzen ikasteko aukera eskaintzen jarraitzen du Soinueneak. Adin guztietako herritarrek txalaparta, alboka, perkusioa, txistua, dultzaina, biolina eta xirolarria ikas ditzakete eskarmentu handiko irakasleekin. Ikasle horiek urtean zehar ikasi dituzten soinu alaiak herriko kaleetan jotzen dituzte festetako eta bestelako jaiegunetako kalejira eta erromerietan.

Kalean egiten den musikaz gain, kontzertuak ere izaten ditugu. Orain arte Ergoiengo Auzokalte elkartearen edo Oiartzungo udaletxean izaten ziren emanaldi haiek gaur egun etxe berri batean eskaintzen dira: Landetxe kultur aretoan. Iazko apiriletik martxan den espazio berrian aritu dira Alemaniatik etorritako *Commedia Novako* ttuntuneroa eta dantzaria, Lartaun Txistulari Taldekoak *Danbolin didaktikoa* emanaldian edota Be-saide taldekoak orain arteko azken kontzertuan.

Horrez gain, herri-musikak goi mailako inguru akademikoan merezitako lekua izan dezan, Euskal Herriko Goi Musika Kontserbatorioa den Musikenerekin hitzarmena sinatu dugu; horren barruan Jean-Christian Irigoyen *Galtxetaburuk* akordeoi tailerra eta kontzertua eman zituen Donostian, eta gure lantaldeak klase batzuk eman zituen Organologia eta Etnomusikologia ikasgaien barruan.

Herri-musikaren arloetan sakontzeko antolatzen ditugun Jardunaldiak aurten Oiartzungo udaletxean izan ziren, eta tronpa (musugitarra eta beste izen batzuk ere ezagutzen zaizkio) izan zuten protagonista. Euskal Herriko adituekin batera Tronparen Nazioarteko Elkartekoak (International Jew's Harp Society) Italiakoak, Herbehereetakoak eta Galiziakoak elkartu ziren soinu-tresna txiki horren inguruko lanak aurkeztera. Goizean hitzaldiak izan ziren eta arratsal-

20. **HERRI MUSIKAREN JARDUNALDIAK** TRONPA MUSUGITARRA


TRONPA JOLEEN KONZERTUA

Apirilak 13 19:00 SARRA 10€

Udaletxeko areto nagusia (Oiartzun)


LAGUNTZAILEAK: SOINUENEA, OIARTZUNGO UDALA

Bideoteka




DUNBA 1022

Bildumak - Soinu-tresnak




KURBISMIRLITON 0988

Bildumak - Soinu-tresnak




MIRLITON; PITO DE CAÑA 0977

Bildumak - Soinu-tresnak




DUNBA 0882

Bildumak - Soinu-tresnak



BOMBO LEGÜERO 0881

Bildumak - Soinu-tresnak



VAINAS 0862

Bildumak - Soinu-tresnak

dean, tronpa bat nola egiten den bertatik bertara ikusi ondoren, kontzertua izan zen bertan bildu ziren entzuleen atseginerako.

Lankidetzen atalean, Musikenerekin herri musika goi mailako musika ikastegietan barnetatzeko egiten ari garen lana aipatu dugu. Baina horretaz gain nazioartean MIMO (Musical Instrument Museums Online) nazioarteko elkar-tearekin lanean jarraitzen dugu. Azken urtean euskal soinu-tresnagileen thesaurusua bildu dugu; horri esker, pixkanaka MIMO osatzen duten museoetan euskal egileen izenak egoki idatziak eta informazio osatuekin agertuko dira, dagozkien soinu-tresnei lotuta.

Gertukoekin ere aritu gara lanean. Garrantzitsua da herrikoekin egiten dugun lana. Besteak beste, Abaraxka udal ludotekarekin eta Ibergain Musika Eskolarekin urte osoan aritu gara. Horren adierazpen nabarmenena Oartzungo erraldoi txikien inguruan egindakoa da. Iaz, herriko festa guztietan parte hartu zuten erraldoi txikiek eta horrekin jarraituz, hurrek erraldoiak hobeto ezagutzeko, Karmele eta Naiara Mitxelenaren *Erraldoi Erraldoiak* liburuaren argitalpenean la-

gundu genuen. Bertan ageri da Oartzungo erraldoi txikien konpartsa Karmele Mitxelenaren letrarekin Bittor Carrerak eskaini zion doinuaren partitura. Doinu hori zenbait soinu-tresnatarako orkestratu eta grabazioan parte hartu dute Ibergain Musika Eskolako ikasle eta irakasleek kantari eta soinu-tresnak joz.

Hurrei zuzendutako *Erraldoi Erraldoiak* liburuaren argitalpenaz gain, Soinueneko soinu-tresna bildumarekin lotutako argitalpenekin jarraitu dugu. Batetik, bildumako soinu-tresnekin jotako piezak bideoan grabatu ditugu, katalogoko fitxa aberasteko asmoz. Bideo horiek Soinuenearen bideotekan eta audiogidan ikus daitezke. Horretaz gain, Eusko Jaurlaritzaren museo sailari esker, fotogrametria bidez hainbat soinu-tresnaren 3D modeloak ere sortu dira. Horiek momentuz Museotik plataforman bakarrik ikus daitezke, baina pixkanaka Sketchfab-en jarriko ditugu nahi duenak eskura izan ditzan.

OLARRI DANTZA TALDEA



Hernanin.



Erdi Aroko azoka.



L-UR.

Olarri Oiartzungo herriko dantzarien beharrei erantzuteko sortu zen dantza taldea da, euskal dantza oinarri duena. 2014. urtean sortu zen eta orduz geroztik 16 urtetik gorako adin ezberdinetako herriko dantzari ugari parte hartzen dugu bertan. Taldea poliki-poliki handitzen joan da, eta gaur egun gutxi gorabehera 25 kidek osatzen dugu.

Dantza Taldearen izaera eta ikuspegiari dagokienez, talde irekia, anitza eta malgua da, une orotan ideia berriak gauzatzeko eta ildo berriak ezagutzeko prest dagoena. Hori dela eta, dantza mota ezberdinen inguruan hainbat formakuntza jaso izan ditugu, gure ikuspegia zabaltzeko eta jantza berriei forma emateko.

Denbora honetan guztian, herriko zein Euskal Herriko hainbat txokotako ekitaldi eta ospakizunetan parte hartu dugu, lehen esan bezala euskal

dantza tradizionala oinarri izanik, baina zenbaitetan dantza garaikidearekin uztartuz eta koreografiak sortuz. Besteak beste, Erdi Aroko azokan, gau beltzean, Xanistebanetan, Sagardo Egunean edota dantzari egunetan.

Aipatzekoa da, bereziki, azken bi ikasturteetan landu dugun L-UR emanaldia zeina, zalantzarik gabe, orain arte egin dugun erakustaldirik garrantzitsuena izan den. Historian zehar Euskal Herriko erraietatik barrena egiten den ibilbide historikoa islatzen duen dantza eta musika emanaldia da; zuzeneko musikaz eta off ahotsaz baliatuz eta narratzaile baten gidaritzapean, ohol-tza gainerakoak gozatzeko aukera eskaintzen du garaian garaiko arropa, lan tresnak eta giroa bidelagun izanik. 2022ko urriaren 8an estreinatu genuen lehen aldiz Elorsoro kiroledegian, eta edukitako harrera ona ikusita, 2023ko arazoaren 18an berriro ere Landetxeko aretoan ohol-tzaratzeko aukera izan genuen.

Aurten 10 urte betetzen ditugu, eta ibilbidea gorabeheratsua izan den arren, oso gogotsu jarraitzen dugu aurrera egin eta beste hainbeste urte betetzeko. Eskerrak eman nahi dizkiegu taldearen parte izan diren kide guztiei, bidean lagun izan ditugunei, guregan konfiantza jartzen jarraitzen dutenei eta, nola ez, herritarrei, emandako babesagatik.



Pagola.



**ZILIBITO
RECORDS**



Hastapenetatik hasi eta Deabruen Doinuetara. Ez nuke esango Oiartzunen talde honen izena entzun ez duen inor badagoenik, Kataxulon ere entzun baitira hauen abestiak. Bai, Zilibito Records taldeaz ari naiz. Edo kolektibo bat da? Ekoiztetxe bat? Podkast bat? Ez nago oso ziur. Hobe dugu haiei galdetu. Ekain Telletxea (Kaene) eta Eñaut Arbelaitz (Uto) taldeko abeslarietako birekin elkartu naiz horretarako.

Zer da Zilibito Records? Nola definituko zenukete?

Eñaut Arbelaitz: Orain daukagun proiektu bat da, batez ere musikarekin lotua dagoena. Kolektibo bat, talde bat... kuadrillako kontu bat.

Nortzuek osatzen duzue Zilibito Records?

Ekain Telletxea: Guretzat kuadrilla guztia da Zilibito, beti daukagu haien babesa. Baina kontzertuetara joaten garenak eta taldea sortzen ibili ginenak Jurgi Arbelaitz, Xabier Bergaretxe, Manex Mitxelena, Ander Orbezo, Ander Goenaga, Eñaut eta ni gara.

Nondik sortu zen proiektu hau? Zein izan ziren zuen 'Hastapenak'?

Eñaut: Hasi ginen Xabik podcast bat egin nahi zuelako, "benazoak" eman zion.

Ekain: Hori beti esaten dugu.

Eñaut: Bai, hala da. Podcast bat egin nahi zuen eta izena pentsatzen jarri ginenean *Zilibito* otu zitzaigun, *Zilibito Podkast*. Baina ikusi genuenean podcast bat





egiteko baliabiderik ez genuela, musika munda salto egitea erabaki genuen. Nik abesti bat egin nuen, eta ikusita jada bageneukala *Zilibito*, *Podkast* jarri beharrean *Records* jartzea erabaki genuen. Hori ere Xabiren ideia izan zen.

Ekain: *Records*, grabazio guztiak bezala.

Eñaut: Orokorragoa da, eta *Record*sekin edozer egin dezakezu, ekoiztetxe baten moduan. Orduan atera genuen lehenengo abestia eta bertatik sortu zen taldea.

Ekain: Galdetu zuen ea nor animatuko ginen, batzuek baiezkoa eman genuen eta hortik hasi ginen. Serioago beranduago hasi gara hartzen, baina hasieran jolas moduan hasi ginen.

Zein izan da zuen ibilbidea?

Ekain: Hasierako abestietan ez genuen estudio-rik, ezta mikrofonorik ere. Hasieran ginen musika egiten zuen talde bat, musika egiteko ezer ez zuena.

Eñaut: Talde bat musika egiten zuena, baina ez zuena musika egiten.

Ekain: Hasieran mugikorrean grabatzen genituen *demoak*, Eñauten mugikorretik ordenagailura pasatzen genituen, eta behin *demoa* edukita, inguruko jendeak asko lagundu digu. Fabore bidez egin genuen aurrera hasiera batean, besteen estudioetan grabatzen... Gero erosi genuen mini... zer zen hori?

Eñaut: Lehenengo inbertsio moduko bat egin genuen.

Ekain: Txikia baina guri handia iruditu zitzaigun.

Eñaut: Momentu horretan ez genuen dirurik, eta beraz inbertsio txiki bat egin genuen, bakoitzak diru kopuru bat jarrita. Bertatik erosi genuen ekipo bat, plaka, mikrofonoa...

Ekain: Bai, oinarri-oinarrizkoa, 200 € edo izango ziren.

Eñaut: Nik uste dut oso gaizki inbertitu genuela, oso *Combo* txarra erosi genuen, prezio horretarako hobe genuen askoz gauza hobe erosi.

Ekain: Bai, baina beno, gauza da horrekin egin genuela aurrera, eta lehenengo proiektu "handia", *Hastapenak*, horrekin grabatu genuen. Horregatik entzuten da entzuten den moduan. Baina beno, eman ditu bere fruituak, den horretarako. Eta gero aurrera begira, 2023ko udaran boom txiki bat izan genuen, kontzertu batzuk.

Eñaut: Udaran serioago hartzen hasi ginen. Egia da gero Maketa Lehiaketarena giltza izan zela, baina serio esango nuke maketa lehiaketa baino lehenago hasi ginela hartzen. Ordurako jada planteatzen ari ginen estudio bat eskatzea, edo gure poltsikotik dirua jartzea. Ez genuen pentsatua hasieran maketaren sariarekin egitea.

Ekain: Maketaren sariarekin aurrekontua igo egin zen noski. Guk ez dugu ezer irabazi oraindik, guztia inbertitu egin dugu. Zoritarrez eta zorionez. Lehenago hasi ginen serioago hartzen eta maketarekin oraindik gehiago.

Gaztea Maketa Lehiaketak ateak zabaldu dizkizuela esango zenukete? Zein zentzutan?

Eñaut: Gehiegi.



Ekain: Bai, atearak ireki dizkigu, sekulako ikusgarritasuna eman dio taldeari, eta jendeari gustatu zaio egiten duguna Oiartzundik kanpo. Oiartzundik ateratzeko modu bat izan da, izenak ere ezagutzen ez genituen Euskal Herriko herrietara joan gara. Baina beste aldetik, telebistara edo joaten garenean beti ateratzen den gaia edo beti egiten diguten galdera Maketa Lehiaketaren ingurukoa izaten da, eta horrek nekatzen du.

Eñaut: Maketa Lehiaketa irabazi dutenak baino askoz gehiago gara, eta apur bat astuna egiten da.

Ekain: Guk ez dugu geure burua Maketa Lehiaketa irabazi duen talde gisa definitzen, baina egia da oso gauza berria dela, sei hilabete besterik ez da pasa, beraz nik uste hemendik aurrera hori deuseztatzen edo lurruntzen joango dela.

Zer-nolako harrera izan duzue herrian; egia da aurretik herrian ezagunak zinetela, Maketa Lehiaketaren ondoren pentsatzen dut hori aldatu egingo zela, orokorrean nolako harreara izan duzue?

Ekain: *Kuriosoa.*

Eñaut: Ongi, jende asko dago babesten gaituena.

Orokorrean familiak zer-nolako erreakzio izan du honekiko, edo nolako jarrera izan du?

Ekain: Nire kasuan, lehenengo abestia atera nuenan, nire aitaren ingurukoa zen. Eta nahiz eta ez zen soinu aldetik onena, eta nahiz eta niri orain ez zaidan horrenbeste gustatzen, asko transmititzen zuen abesti bat zen, eta oroitzen dut etxera



iritsi nintzanean abestia atera ber-ritan aitak esan zidan emozionatu egin zela. Baina hasieran behintzat ez ninduten oso serio hartzen, denborapasa moduan ikusten zuten.

Eñaut: Egia da Maketa Lehiaketaren ondoren guztia serioago hartu zutela. Hasi gine-nean esan izan banie azterketa batera ez nintzela joango kontzertu bat nuelako, ez zidaketen utziko.

Ekain: Arrazoi. Maketarekin serioago hartu gaituzte, *Deabruen*

Doinuak proiektuarekin klase dezente galdu dugu. Erresistentzia apur bat egon da gurasoen aldetik, baina ongi. Babesten gaituzte.

Zein esango zenukete dela Zilibito Recordsen helburua, zein helbururekin egiten duzue?

Eñaut: Dirudunak izateko, *kar-kar-kar*.

Ekain: *Kar-kar-kar*, bai, hori esaten dute. Baina ez; berez, gustatzen zaigulako egiten dugu. Musika sortzea gustatzen zaigu, eta gustatzen zaigu guk egiten duguna jendeari gustatzea. Zuk egiten duzun zerbait beste norbaiti gustatzen bazaio, oso guaia da. Baina berez helburu finkorik gabe egiten dugu. Behin esan genuen, "Iya diskografika bat sortzen dugun noizbait, guai eongo zen!". Baina hori helburu utopiko moduan, ezta?

Eñaut: Hori da, utopikoa.

Baina utopiak lehertzeko daude, ezta?

Ekain: Bai, bai, guztiz, *kar-kar-kar*.

Nola funtzionatzen duzue? Nola egiten duzue lan?

Eñaut: Hemen egiten dugu guztia, estudioan. Bi produktore ditugu, Txuso eta Toutz, Aner eta Ander, beraiek ordenagailuan oinarri bat egiten dute eta gero probatzen joaten gara mikrofonoarekin. Hasieran melodiak egiten ditugu eta gero



letra, edo aldrebes, bakoitzak buruan duenaren arabera.

Kanta guztiak ez dituzue denek kantatzen?

Eñaut eta Ekain: Ez. **Nola definituko zenukete zuek egiten duzuen musika estiloa?**

Eñaut: Orain arte oso anitza izan da. Egia da *baseekin* sortzen diren kantak ingurune urbanoago batetik datozela eta jendeak horrekin lotzen duela, Trap estiloarekin edo. Baina egia da orain arte ez dugula horrelakorik egin, nahiz eta sortzeko prozesua horren oso antzekoa den.

Ekain: Ordenagailu batek ematen dizun aukera da nahi duzun generotan egin dezakezula musika. Nik elektrolatino entzuten badut, eta horrelako abesti bat egin nahi badut, joango naiz hurrengo egunean Txusorengana eta elektrolatino egiteko proposatuko diot. Nahi duguna egin dezakegu.

Musika hizkuntzaren transmisiorako tresna ikaragarria da, eta zuek musika orokorrean euskaraz egiten duzue; esango zenukete hau tu hau kontzienteki egin duzuela edo naturalki atera zaizue?

Eñaut: Nik uste naturalki izan dela. Aurrekoan egon nintzen Chill Mafiaren elkarrizketak entzuten, eta haiek agian hautu kontziente batetik egiten dute, ez direlako gune euskaldun batean bizi. Baina gure kasuan, nik uste dut normalena euskaraz egitea dela. Gainera Oiartzunen egon diren beste zenbait taldek euskaraz egin izan dute, beraz nik uste dut lehenengo etortzen zaizuna hori dela.

Ekain: Gero pasa izan zaigu egiten dugun generoa ez dela horren ohikoa euskaraz egitea, eta agian beste artista batzuek ikusten dute guk euskaraz egiten dugula, eta horregatik hasten dira euskaraz egiten. Guk euskaraz egiteak eragina duela ikusteak badu eragina, motibatzen gaitu.

'Euskal kultura' edo 'euskal musika' hitza entzuterakoan, ia beti trikitia, panderoa eta txalaparta etorriko zaizkigu burura, baina azken urteetan ikusi dugu euskal musika eta kultura hortik askoz haratago doazela. Esango zenukete Euskal kulturaren berrikuntza datorrela edo jada etorri dela. Zuek ere Euskal kulturaren paradigman sartuko zenukete zeuen burua?

Eñaut: Nik uste dut ari dela aldatzen. Orain dela gutxi hasi da mugimendu hau guztia Euskal Herrian, orain dela 7 bat urte. Kontua da zerbait berria egiten baduzu, ezin duzula hemengo panoraman oinarritu, kanpokoari begiratu behar diozula, eta horretara moldatu. Nik uste dut gero eta jende gehiago dagoela berritasunetik aritzen dena, nahiz eta ez izan horrenbesteko oihartzuna.

Ekain: Bai, hori da, azkenean musika aldatzen ari da, eta agian zerbait desberdina egiten baduzu, baliteke jendea harritzea, agian entzuleak ez

daude prest egingo dugun musika hori entzuteko, eta esango dute: "Zer da hau?".

Eñaut: Txosnagune batean jotzen baduzu erromeria baten ondoren, agian egongo da jende bat harritura geratuko dena egiten dugun horrekin, eta agian ez zaie gustatuko, baina beno...

Ekain: Berdin zaigu.

Kritikarik jaso duzue alde horretatik, egiten duzuen musika estiloarengatik edo?

Ekain: Bai, Maketa Lehiaketa irabazi genuenean batzuek esan zuten: "Nola irabaziko du instrumenturik ez duen musika talde batek?".

Eñaut: Autotunetarrak.

Ekain: Baina bai, kritikak izan ditugu, onak eta txarrak.

Eñaut: Gazteak nik uste ohituago daudela, baina adin batetik aurrerako gehienek ez dute ulertzen edo ez zaie gustatzen egiten duguna. Jende askok ez du musikatzat hartzen guk egiten duguna, baina musika aldatu egin da.



Askotan aipatzen dute oso gazteak zaretela, 17 urte besterik ez duzuela... Aurten 18 egingo dituzue edo egiten ari zarete, zergatik uste duzue egiten dutela hori, zein zentzutan uste duzue egiten dutela?

Ekain: Nik uste prespektiba kontua dela. Zu baino gazteagoa den norbaiten musika egiten duela ikustea "txokantea" da. Milo J gu baino gazteagoa da eta ni harritu egin ninduen.

Enaut: Bai, inizatiba duela ikusten duzunean, harritu egiten zara. Agian horren gaztea zarenean ez zaizu ateratzen, baina beno, nik uste badagoela jende pila bat gure adinean musika egiten duena. Agian oihartzuna lortzen baduzu eta jendeak ikusten bazaitu... Batzuek onerako hartuko dute, "ikus, gazteak hau egiten ari dira", eta beste batzuk "pikatu" egingo dira 17 urteko gazte batzuek haiek baino "exito" gehiago daukagulako.

Uste duzue momentu batzuetan dela besterik gabe harrituak daudelako eta besteetan agian konnotazio txarrago batekin?

Eñaut: Bai, nik uste pertsonaren araberakoa dela.



Ekain: Bai, nik ikusi izan dut, batzuk “Fua 17 urte ta musika iten ai dia”. Ta beste batzuk “Fua 17 urte, musika iten ai dia ta nik gitarra jotzen miño jende gehioi gustatzen yo, ba enau gustatzen”.

Eñaut: Gertatu izan zaigu, elkarrizketa batera joan eta elkarrizketatzailearen erreakzioa “**kar-kar-kar** si super txikiyak zazte, ke xalaus”, nola “ke xalaus”?

Gazteen artean aliantzak sortzea oso ohikoa da; esango zenukete badaudela aliantzak herriko sortzaileen artean? Eta Euskal Herri mailan?

Ekain: Bai herri mailan eta baita Euskal Herri mailan ere. Herri mailan Astelehen Goizak-ekoekin lan egin izan dugu. *Deabruen Doinuak* proiektuko abesti nagusiaren oinarria haiekin egin da. Beti daude laguntzeko prest.

Eñaut: Euskal Herri mailan jendea ezagutzen ari gara, eta jendeak ezagutzen gaitu. Eta kontaktuak egitea eta jendea ezagutzea gustatzen zaigu. Azkenean, egunerokotasunean ez duzu jendea zure bizitza bera eramaten duena, zure kuadrillakoek ez dute asteburuero kontzertu bat, edo ez dakit zer egiteko. Eta ikusten duzunean beste artista hauek ere badutela bizimodu hori, elkar ulertzen duzue eta hori guai dago. Ikusten duzu ez zarela bakarra, eta ikusten duzu haiek nola kudeatzen dituzten gauzak, nola egiten dituzten...

Ekain: Beraz, bai, Euskal Herri mailan ere bai.

Eñaut: Azkenean, Euskal Herria txikia da eta ze-

resan minimo bat duen guztiok ezagutzen dugu elkar gutxi gorabehera, orokorrean badakigu zein den bat, zein den bestea...

Zein esango zenukete direla zuen erreferente musikalak? Euskal Herri mailan edo kanpo.

Ekain: Niri Euskal Herri mailan Merina Gris, Hofe, Chill Mafia eta horrelakoak gustatzen zaizkit. Internazionalari dagokionean, MDA, Sticky MA...

Gazteen Eskutik-en jo zenuten, zermoduzkoa esperientzia?

Eñaut: Ondo, berezia izan zen. Lehenengo aldian zen horrelako espazio batean jotzen genuela. Azkenean publikoa ez doa zu bakarrik ikustera, beste kontzertu asko daude eta nabaritzen da. Ikusten da baduzula babesa, baina ez da gure beste kontzertuetan bezala.

Ekain: Jende asko zegoen guk egiten duguna gustatzen zaiona, baina gustatzen ez zaiona ere bai. Eta nahiz eta kanpotik dena oso ongi ikusi zela esan ziguten, barrutik ez genuen berdin ikusi. Ikasi dugun zerbait izan da, beti ez dela egongo zure kantak dakizkien jendea.

Eñaut: Kasualitatez, aurreko asteburuan San Pedron jo genuen sala txiki batean, kuadrillakoekin eta gertuko jendearekin, eta denak saltoka zeuden. Eta hurrengo astean Gazteon Eskutik. Desberdina izan zen oso.

Ekain: Orokorrean ongi, jendeari gustatu zitzaion eta gu horrekin geratu ginen.




Etorkizunera begira, zernolako planak dituzue?

Ekain: *Deabruen Doinuak* EP bat izan da otsaila amaieran ateratakoa, eta bertan 5 abesti daude. Aurrera begira urri edo azaro aldera luzapen bat egiteko asmoa daukagu 7 abestirekin, *kolaborazio* batzuekin, soinua landuta... Epe motzera *merchandising* bote bat ateratzea pentsatu dugu, eta agian disko fisikoa Durangorako.

Azkenik, zer esango zenio-kete musika mundura edo sortzaile mundura salto egin nahi duen Euskal Herriko gazte bati?

Eñaut: Egiteko. Aurrera jarraitzeko. Hasiera batean agian ez duzu horren serio hartuko, eta horrek askatasuna emango dizu nahi duzuna egiteko. Gauza berriak probatu, ez dagoen zerbait egin. Hasieran inguruko zerbait kopiatzen hasiko zara, normala da, baina zerbait berria egiten baduzu, gusturago sentituko zara. Euskal Herriak behar duena gauza berriak dira. Gauza zaharrak ongi daude, baina gauza berriak falta dira.



Ekain: Bai, nik esango nioke egiteko gustatzen zaiona, lotsarik gabe egiteko, presiorik gabe...

Eñaut: Ez asko pentsatzeko eta egiteko.

Malen Frantsesena Arnaiz



**ENEKO
SALABERRIA
GONZALEZ**

Eneko Salaberria Gonzalez 42 urteko oiartzuarra da. Alzibar auzoan sortua eta urte askotan bertan bizi izana. Bere aita Javier Salaverria Salaverria zen, Lezokoa, eta ama, berriz, Marisa González Angós, Oreretakoa, nahiz eta jaiotzez Valladolidekoa izan. Aiora eta Adeiren aita eta Leireren senarra ere bada.

Eneko, nola definituko zenuke zeure burua?
Sortzailatzat dut neure burua. Hainbat diziplinatan, edozein gauza sortzeko gaitasuna edo erraztasuna eduki dudala iruditzen zait. Baina hori bai, burua beti martxan! Normalean diziplina artistikoetan aritu naiz, diseinatzaile gisa, nire ikasketak hortik bideratu nituelako, baina marrazkigintzan eta eskulturagintzan ere aritu naiz. Txikitan jadanik eskulanean nabarmentzen nintzen. Ni sortzaile gisa sentitzen naiz gustura; batez ere, ideia bat hartu eta horrek zer buelta edo zer garapen eduki lezakeen lantzen.

Beraz, saltseroa eta inizatiba eta gaitasun handikoa. A zer-nolako koktela, ezta, Eneko?

Ba bai, hori da koktela, dena batera doalako. Ez banintz saltseroa izango, ziur aski gauza askotan ez nuke muturra sartuko, eta, bestalde, ez banintz sortzailea izango, agian ez nintzateke hain saltseroa izango. Dena batera doa. Sortzailea naizen aldetik, leku askotan esku hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dut, horretarako prest egon izan naiz beti. Gazte-gaztetatik herrigintzan aritu naiz eta nik bezala beste herritar askok ere bakoitzak bere esparruan laguntzeko prestutasuna erakutsi du. Nire kasuan beti izan da diseinuaren aldetik, kartelak, irudiak, argazkiak... egiten. Horrek azkenean bide bat egiten du eta gero kointziditzen duzu lanean (Dixidun) edo eragile gisa. Hori gurrpil bat da eta bueltan-bueltan batekin edo bestearekin modu batera edo bestera harremana duzu. Eta orduan herrian ezaguna izango naiz Dixidugatik, baina Dixidu ez litzateke ezer izango herria ez balitz. Ni hor eroso sentitzen naiz, lehen aipatutako sortzaile, saltsero, eragile zirkulu horretan, eta horretan jarraitzea espero dut.

Horrez gain, ezaguna izango zara aspalditik Xanistebanetako kartel lehiaketan parte hartzen duzulako, ezta?

Bai. 2005ean aurkeztu nuen nire lehenengo kartela, eta pixkanaka bihurtu da neure buruari jartzen diodan eginbeharra. Batzuetan bezperan egindako kartel bat da, besteetan denbora gehiagorekin egindakoa, baina neure burua derrigor-tzen dut herriko kartel lehiaketan parte hartzera. Azken urteetan zalantza eduki dut aurkezteko garaian. Izan ere, urtero nire izena hor agertzen da, eta bat baino gehiago honezkero nazkatu da ni hor ikusteaz, eta pentsatuko du: "Hau ez al da erretiratuko?!", Baina niretzat hori da herrian ekarpena egiteko beste modu bat, hainbeste garrantzi eman gabe irabazteari. Garai batean, orain dela 20 urte, nire kartela hor ikusteak eta irabazteak ilusio handia egiten zidan, baina gaur egun horrek garrantzia galdu du eta parte hartzearekin gustura nago. Pozgarria da ikustea gazteak heldu direla, parte hartzen dutela eta zer-nolako maila duten; nik horiek txalotu nahi ditut.

Lehenengo urtean sortu zenuen Xabier Leteren eskultura. Zer dela eta animatu zinen Xabier Leteren eskultura egitera?

Ba animatze horretan sartzen da lehen aipatu dugun Eneko sortzaile eta saltseroa. Iosune Cousillasek, garai hartako kultura zinegotziak, aipatu zidan bazegoela asmoa Landetxe eraikin berrian, plaka baten bidez-edo, aipamen bat egitekoa Xabier Leteri, gure herriko poeta, abeslari eta artistari, bertan jaioa zelako. Orduan, neure burua martxan hasi zen eta hasi nintzen pentsatzen zer izan zitekeen, ez izateko plaka huts bat. Gure elkarrizketan aipatu genituen izen batzuk, herrian badirelako artista asko arte plastikoetan dabilzanak. Baina, berehalaxe, nire bulegora joan bitartean, hasi nintzen imajinatzen aukera

batzuk. Horietako aukera batekin hasi nintzen jolasten ordenagailuan, eta emaitzarekin nahiko gustura geratu nintzen. Lehen aipatutako artista horietako batzuei erakutsi nien ea nola ikusten zuten, zer iruditzen zitzaien... Beraiek oso ongi ikusi zuten, eta ondoren udal taldeak ere oniritzia eman zion. Ba horrelaxe egin zuen bere bidea. Ia nahi gabe izan zen, baina egia da banuela gogoia eskulturari eskua sartzeko, eta aukera ezin hobeia izan zen aurrean agertu zitzaidan hura.

Egin duzun lehenengo eskultura da Xabierrena?

Argia ikusi duen eta nonbait finko kokatua egongo den nire lehenengo eskultura da. Nik neure kabuz, niretzat edo ezagunen batentzat egin izan ditut, baina gehiago izan dira eskulanak eskulturak baino, nahiz eta gero horrek eskultura forma izan dezakeen.

Oroigarri batzuk, sari batzuk egin izan ditut eskulturak izan daitezkeenak, baina lehenengoa kalean dagoena eta herritarrek eskulturatzat har dezaketena horixe da.

Ardura handiko proiektua izanik, ausarta izan zinen hori aurrera eramateko?

Egia esan, nik une horretan ez nuen hainbeste pentsatu non kokatuko zen, zer-nolako zabal-kundea izan zezakeen. Nik egin nituen hasierako bozeto horiekin oso gustura geratu nintzen, eta hori da balio duena. Gustura bazaude egindako lanarekin, txaloak eta kritikak jasotzeko prest egon behar duzu beti. Hori horrela da, eta gu, diseinatzaileak garenak, oso ikusgarri gaude une orotan. Egiten ditugun sorkuntza guztiak garbi dugu ez direla denen gustukoak izango, baina norbera gustura badago egindako lanarekin, hori da balio duena. Eta halaxe izan zen. Nik asko miresten dudana artista da Xabier Lete. Gainera, bere omenez bere herrian jarri behar den eskultura batzuk egina izatea, ba, ohore handia da.

Bertigo gehiago ematen du egin ondoren, hasieran baino. Egiten ari zaren horretan ez zara hainbeste erreparatzen. Bai-

na une honetan bai, batzuetan, horrelako eskultura bat egitea ardura izan dela pentsatzen dut.

Gustura geratu zara emaitzarekin?

Bai, oso gustura. Prozesuan asko ikasi dut. Burdinarekin zerbait egiten nuen lehenengo aldia zen, eta prozesua oso aberatsa izan da. Burdingilearekin bildu, aukerak aztertu, laserrarekin moztu, forma eman... hori guztia oso baliagarria izan da, eta emaitzarekin oso pozik nago.

Nola bururatu zitzaizun horrelako eskultura bat egitea? Horrelako ezaugarriak dituen eskultura bat sortzea?

Eskulturak lau xafla ditu. Hasieran imajinatu nuena perspektiba jolas bat izan zen. Nik uste edonori esanez gero nolakoa den Xabier Leteren aurpegia, berehala irudikatzen dituela bere bekainak, bere bizarra, ile orrazkera... Azkenean urteetan ez zuen asko aldatu bere itxura, orduan irudi hori sortu nahi nuen arren, ez nuen argi azaldu nahi. Zatitu nahi nuen irudi hori, ez nuen nahi hasieratik ikustea Xabier Lete ze-



la, baina perspektiba jolas horrekin azkenean helburua zen puntu bakar batetik bere irudia ikustea. Eta, egia esan, ondoren, buelta batzuk ematen eta filosofatzen iritsi nintzen ikustera Xabierrek aurpegi asko zituela, diziplina askotan aritua zela, besteak beste prosan, poesian, kantagintzan, bertsolaritza... Orduan Xabier Lete askok bakarra osatzen dute, eta hori izan daiteke jolasa. Lau xafila daude, baina azkenean bat falta bada, ezin da sortu Xabier Lete. Denek sortzen dute. Begirada batetik bakarrik ikusita, Xabier ikus daiteke bere osotasunean, baina baldin eta nondik begiratzen duzun, ikus daiteke Xabier bertsolaria, edota Xabier poeta... Zati bat falta bada, ez da osatzen haren pertsona. Hori ez litzateke Xabier Lete izango.

Oso hausnarketa aberatsa eta interesgarria. Hasieratik hori pentsatu zenuen?

Ez. Hori guztia ez nuen hasieran pentsatu. Prozesuarekin batera joan nintzen forma ematen eta biribiltzen. Azkenean zentzua hartu zuen guztiak. Batzuetan irudia sortzen duzu, eta ondoren, zentzua. Edo alderantziz ere izan daiteke. Hau horrela sortu zen eta gustura nago bizi izandako prozesuarekin.

Zer-nolako pausoak jarraitu zenituen lana aurrera eramateko?

Lehenbiziko pausoa mentala izan zen, hau da, pentsatzea nola egin zitekeen. Jarraian, eskuz, arkatzarekin zirriborrazten hasi nintzen. Haren aurpegiaren bozeto batzuk egin nituen eta ondoren ordenagailuak erakutsi zidan nola zatitu zitekeen. Ordenagailuarekin lau zatitan zatitu nuen haren aurpegi. Zati horiek inprimatu nituen kartulinan eta muntaketa bat egin nuen. Muntaketa errealak erakutsi behar zidan ea nire buruan zegoena eta sortutako lau xafila horiek benetan irudikatuko ote zuten nik pentsatzen nuen hori. Sortutakoarekin bideo bat egin nuen eta berehala hasi nintzen hainbat aditu eta ezaguni galdetuz ea zein ote zen bideoan irudikatu-

ta agertzen zen pertsona. Hamarretik hamarrek Xabier Lete ikusi zuten, eta beraz, asmatu izanaren sentsazioarekin geratu nintzen hasieratik.

Herriko tailer batean burdina laserrarekin puskatu zuten. Erabaki zen burdinaren lodiera, xafilen arteko distantzia, proportzioa... Xafilak urrutiago edo gertuago jarriz gero, aurpegi ez litzateke ikusiko. Bestalde, argi nuen burdinarekin egin nahi nuela, herdoil puntu hori gustatzen zaidalako, baina baita ere, egurrarekin nahasi nahi nuen. Trenbideko trabesak jartzea bururatu zitzaidan Iparraldeko trenaren inguruko Xabier Leteren bertso batzuk direla eta.

Gaur egun eskulturaren ondotik pasatzen zarenean zer sentitzen duzu?

Ba, egia esan, hortik pasatzen naizen bakoitzean sentitzen dut ohorea izan dela eskultura hori egin ahal izatea. Uste izatekoa da hor egongo dela betiko eta noski Xabier Leteren eskultura dela ezin dugu ahaztu. Askok betetzen nau nik egindako lana hor egoteak, baina agian harrotasun gehiago eduki beharko nukeela iruditzen zait, eta ez daukat. Nik uste denborarekin gehiago apreziatuko dudala egindakoa. Askok gozatu dut prozesuan eta, emaitzarekin oso gustura egon arren, ez dut sentitzen harrotasun askorik. Nik uste neure buruari zor diodala egindako horri garrantzi gehiago ematea. Hor badago sentipen arraroa.

Kontuan hartuta bere kokapena, eta herritar asko bertatik pasatzen direla, zer jaso duzu herritarren aldetik?

Oso polita eta aberasgarria izan da. Pentsatzen dut norbaiti gustatu ez bazaio, ez zaidala etorriko ezer aipatzera. Baina etorri zaizkidan guztiak zoriontzeko izan da, eskertuak agertu dira eta balorazio positiboak egin dituzte. Eta bakarrik imajinatzea Landetxan ekintzaren bat antolatzen den aldiro zenbat herritar pasatzen den bertatik, oso pozgarria da. Herriko sortzaileak hurbildu zaizkit zoriontzera. Ni horrekin gelditzen naiz, harrera ona eduki duela eta herritar guztiarentzat ikusgarri egongo dela, gainera gustukoa badute, ba ezin hobeto. Bestalde, Eneko diziplina horretan ezagutzen ez zuen herritarrek esango du: "Horretan ere badabil saltsero hori!!!".

Xabier Lete gogoko duzu?

Bai, bai. Bere diskografia guztia badaukat. Beti izan naiz oso bertsozalea eta Xabier Letek bertsolaritza inguruan egindako ekarpena oso gertutik jarraitu izan dut.



Eneko eskulturarekin.



Xabier Lete eskultura.

ZUre ustez, zer esango luke Xabierrek gaur egun bere burua horrela irudikatuta ikusiko balu?

Ba ez dakit zer pentsatuko lukeen... agian bertso bat jarriko zuen. Pentsatzen dut gustatuko litzaiokeela, eskultura bere azalpen eta esanahi guztiarekin. Berari asko gustatzen zitzaion hitzekin jolastea, eta nik bere irudiarekin egin dudan jolas hori gustukoa izango lukeela iruditzen zait. Xabierren iritzia ezin izan dut jaso, noski, baina bai bere gertukoena den Arantxa bere arrebaren iritzia. Askotan hunkituta esaten dit zein ongi jaso dudan eskulturaren Xabierren pertsona eta zenbat gustatzen zaion. Orduan, Arantxaren iritziarekin geratuko naiz pozik. Bestalde, kokapena ere aipatzekoa da. Udalak garbi zuen bertan kokatuta egon behar zuela. Nik uste Xabierrentzat gaur egun kokatuta dagoen toki hori oso maitea izango litzatekeela eta berak bere burua hor kokatuta ikustea oso ongi hartuko lukeela. Nik uste bizi izan zituen garaiengatik eta egindako ekarpenengatik, herriak zor ziola horrelako aitortza eta omenaldia.

Lehenengoa eta azkena da lan hau?

Bai, hauxe da ikusgarri dagoen lehenengoa, baina ez dut aterik ixten. Gainera, emaitzarekin horren pozik geratzeak gogoia pizten du beste zerbait egiteko. Nik espero dut azkenekoa ez izatea. Nire

ametsa da egunerokoan egiten ditudan lan horien guztien inguruko erritmoa jaistea, eta benetan maite ditudan proiektu edota lan horietako gehiago egitea. Nolabait artista bihurtzea... proiektuak sailkatu, gutxiagotu eta mimoz eta denboraz burutu ahal izatea. Baina tira, oraindik urte batzuk geratzen zaizkit erritmo honetan jarraitzeko.

Gustatuko litzazuke beste zeozer egitea?

Une honetan buruan dut egunerokotasunarekin jarraitzea. 17 urte dira DIXIDU sortu nuela eta kalkulaten dut oraindik beste 17 urtetan honetan jarraitu beharko dudala. Ondoren, erritmoa jaitsi eta lehen aipatutako horretan zentratu eta gozatu nahiko nuke. Lanari *zaletasuna* hitza gehitu nahiko nioke, hau da, lana gustatzen zaidalako egitea eta ez behar dudalako. Gaur egun laneko erritmo eta zamaren baitan gozatzen dut, baina guztiz gozatu nahi dut. Egunen batean iritsiko den esperantza daukat.

Norbaiten edota artistaren baten eragina baduzu?

Berez, ez. Ez behintzat nahita bilatua. Ziurrenik nire subkontzientean geldituko zitzaidan eragina izan duen zerbait. Herrian artista asko daude, eta horietako bat Antton Mendizabal eskultorea da. Altzairu mota horretan egiteko hautua segur aski bere erreferentziatik etorriko zitzaidan. Herrian badaude berak egindako eskultura



Eneko, Arantxa Lete, Joana Mendiburu eta Iosune Cosillas eskulturaren inagurazioan.

asko, *Sutar, Pilotari...* material berarekin eginak dira, eta niri material hori oso erakargarria egiten zait. Beraz, gertutik ikusi izan ditudenez haren lanak, hortik zerbait jasoko nuen noski. Baina ez da bilatutako zerbait izan. Egurra eta altzairuaren konbinazioa oso polita dela uste dut eta halaxe sortu nuen.

Etxekoak ere artistak ziren, ezta?

Bai, halakoak ziren bai aita eta baita ama ere. Oinarria etxean jaso nuen haien aldetik. Beti ikusten nituen hainbat ekintzaren inguruan saltsan eta erraztasuna nuen materiala eskuratzeko eta gauzak egiteko. Horrek eraman ninduen nire bidea egitera. Argi dago oinarria etxean jaso nuela eta Xabier Leteren abestiak dion moduan: "Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak". Gu handik sortu ginen eta beste batzuk ere sortu dira eta sortuko dira. Aiora eta Adei ere saltsan ibiltzen dira arkatz, margo eta paperarekin esperimentatzen. Hemendik urte batzuetara... auskalo!

Eskulturaren agertzen den esaldia "pianorik ez zegoen jaio ginen etxe hartan" egokia iruditzen zaizu? Eskulturarekin bat dator?

Bai. Esaldi hori oso Xabierrena da, eta iruditzen zait eskulturaren baduela bere esanahia. Xabier bertan jaio zenean ez zen artista jaio, noski. Ibilbide baten ondorioz iritsi zen gaur egun den ho-

ri izatera. Bere jaiotetxean pianorik ez zegoen arren, bera artista bihurtu zen. Nire eskulturak hori ere adierazten du: Xabier artistaren alde ezberdinak.

Beste zerbait aipatzerik bai?

Dixiduko lanaz gain beste zenbait proiektutan ere banabil, Txitxirio haurrentzako arropa markarekin edo anaiarekin sortutako argialetxearekin. Azken horrekin buru-belarri gabiltza eta aurtun sei-zazpi argitalpen kaleratuko ditugu. Hau da herrian eragiteko beste era bat, eta gustura egiten dugu.

Eta horrelaxe jarraitu nahiko nuke datozen urteetan, herrian eraginez, lana eta zaletasuna uztartuz, *artista* bihurtzen naizen artean.

Iosune Cousillas Aramendi

ki ro la



OIARPE KIROL ELKARTEA



Atano III pilotalekuan, Gipuzkoako Herriarteko finalaren atarian: Ezkerretik eskuinera, goitik behera: Asier Retegi (hautatzailea), Oihan Etxeberria, Andoni Ugalde, Imanol Ugalde, Eneko Zalakain, Xabat Olaiz, Iñigo Ugalde, Oier Zabaleta, Mikel Leonet, Unax Landa, Oier Bergara, Aitzol Galardi, Ekhi Iradi, Markel Goia, Unai Zelaiaran, Manex Olaiz, Aitor Etxeberria eta Axel Lasa.

Oiarpe Kirol Elkarteak 20. urteurrena ospatu du aurtengo denboraldian. Ospakizun ugari egin ditu: bazkariak, pilota jaialdiak, jantzi bezeziak... Herriko pilotazaleen laguntzari esker aurrera ateratako elkarteak, esker ona besterik ez du urte hauetan guztietan Oiartzungo pilota bultzatu duen guztientzat, hala nola pilotari, zuzendaritzako kide, guraso, jarraitzaile, babesle... Ea beste urte askoan orain arte bezala jarraitzen dugun, giro eta umore onari eutsiz.

2023-24 denboraldian, aurrekoetan bezala, jo eta su aritu dira Oiarpeko pilotariak Madalenso-roko hormak astintzen. Haur mailan 13 pilotari izan dira Ander Imaz entrenatzailearen esanetara. Pilotari horietako batzuek lehen urtea izan dute elkartearen eta hurrengo urtean ere bertan jarraitzeko asmoa adierazi dute. Gaztetxo mailan 16 eta gazte mailan 7 pilotari aritu dira Asier Retegiren aholkuei jarraitzen. Nagusi mailan ere beste 9 pilotari izan ditugu aurten, Iñigo Ugalderen gidaritzapean. Pilotari horietako gehienek urte asko daramatzate elkartearen, euren onena emateko asmotan betiere. Arturo Rodriguez prestatzaile fisikoak lan bikaina egin du kirolari ororentzat hain garrantzitsua den alor horretan.

Oinarri ona izateak emaitzak lortzea ere ekaritzen du sarritan. Oiarpe Kirol Elkartearen kasuan ere hala izan da eta gure pilotariek lorpen ugari lortu dituzte urte guztian:

- Unax Landa eta Beñat Apezetxea goizuetarra, Elgoibarko San Anton torneoko irabazleak.
- Mikel Leonet eta Eneko Gorostidi amezketarra, Abuztuak 31 torneoko garaileak.
- Mikel Leonet eta Adrian Ugarte lezamarra, Juanito Alvarezen oroimenezkoan, txapelkunordeak.
- Oihan Etxeberria eta Joseba Aldabe igantziarra, Idiazabalgo txapelketan txapelkunak.
- Oier Zabaleta, Josetxo Ezkurraren oroimenezkoan txapelkun.
- Unax Landa eta Beñat Apezetxea goizuetarra, Antiguako txapelketako txapelkunak.
- Ekhi Iradi eta Oier Bergara, Gipuzkoako Uda-berri sariko txapelkunak haurren 1. mailan.
- Unax Landa eta Iker Amiano irundarra, Lesakako Arkupe txapelketako txapelkunak. Oihan Etxeberria eta Eñaut Lizeaga astigartarra, txapelkunordeak.
- Manex Olaiz eta Mikel Leonet, Gipuzkoako Txapelketan txapelkunak gazteen 1. mailan.
- Larraitz Galardi, emakumeen Gabonetako torneoko irabazlea.
- Oihan Etxeberria eta Unax Landa, Euskal Herriko txapelkunak 22 urtez azpiko mailan.

- Markel Ibarguen, Gipuzkoako Ekialdeko Txapelketan txapeldunorde haurren 2. mailan.
- Gexan Martinez, Gipuzkoako 4 t'erdiko Txapelketan txapeldunorde gaztetxoan 3. mailan.
- Aitzol Galardi, Gipuzkoako Ekialdeko 4 t'erdiko txapeldunorde gaztetxoan 3. mailan.
- Mikel Leonet, Gipuzkoako 4 t'erdiko txapeldun gazteen 1. mailan.
- Axel Lasa, Gipuzkoako buruz buruko txapelduna 2. mailan.
- Oihan Etxeberria, Zaldibarko Olazar txapelketako txapeldunordea.
- Oihan Etxeberria, Master Kaiolako txapelduna. Oier Zabaleta, txapeldunordea.
- Baztango Udaberri Txapelketan, Gexan Martinez eta Aitor Etxeberria txapeldunorde, gaztetxoan B mailan.
- Baztango Udaberri Txapelketan, Manex Olaiz eta Unai Zelaiaran txapeldunorde, gaztetxoan A mailan.
- Baztango Udaberri Txapelketan, Oier Zabaleta eta Egoitz Elizegi goizuetarra txapeldun, gazte mailan. Mikel Leonet eta Haitz Aranburu, txapeldunordeak.
- Gipuzkoako Udaberri Sarian, Xuban Goñi eta Axel Lasa txapeldun gazteen 1. mailan.
- Gipuzkoako Ekialdeko Udaberri Sarian, Aitor Larralde eta Aitzol Galardi, txapeldunordeak gaztetxoan 3. mailan
- Gipuzkoako Ekialdeko Udaberri Sarian, Xuban Zapirain eta Beñat Elizegi, txapeldunordeak gaztetxoan 2. mailan
- Gipuzkoako Ekialdeko Udaberri Sarian, Ugaitz eta Erlaitz Iriarte anaiak txapeldun nagusien 2. mailan.
- Ekhi Iradi eta Eki Caetano, Gipuzkoako Txapelketan txapeldunordeak gaztetxoan 2. mailan.
- Aitor Etxeberria eta Aitzol Galardi, Ola Sagardotegiko Txapelketan txapeldun.
- Unax Landa, Abanca-DV Txapelketako txapeldunordea Daniel Sanchez iruindarrarekin batera.
- Oihan Etxeberria, Soraluze 4 t'erdiko Txapelketan txapeldunordea.
- Mikel Leonet, Gipuzkoako buruz buruko txapelduna, gazteen 1. mailan.
- Oihan Etxeberria eta Iker Garcia idiazabaldarra, GRABNI txapelketako txapeldunak, gazte mailan.

HERRIARTEKO TXAPELKETA

Oiartzungo pilotariak historia egin zuten berriro ere. Oiartzun, aurtengo denboraldian ere, Euskal Herriko txapelketako finalera iritsi zen eta finalean, iaz bezala, Markina-Xemein izan zuen aurkari. Gaztetxo mailan, Manex Olaiz eta Aitor Etxeberriak, 22-12 galdu zuten Egurrola eta Ibartzabalen aurka. Gazte mailan, Oier Zabaleta eta Mikel Leonetek garaipena eskuratzeko lortu zuten Alvarez eta Calvo markinarren aurka, 22-8. Garaipen hori eskuratu ondoren, azken partidari erabaki zen txapelketa. Oihan Etxeberria eta Unax Landak, ordea, ezin izan zuten Agirremalloa eta Pujanaren aurka eta 22-5 galdu zuten. Asier Retegi hautatzaileak gidatutako taldeak, beraz, ezin izan zuten iazko garaipena berriro.

Finalaren aurretik, finalerdietan Guardia izan zuten aurkari oiartzuarrek, eta 3-0 irabazi zuten kanporaketa. Kanporaketa horretan, gaztetxo, gazte eta nagusien mailan nagusitu ziren oiartzuarrek. Gaztetxo mailan, Manex Olaiz eta Unai Zelaiaranek jokatu zuten; gazte mailan, Oihan Etxeberria eta Mikel Leonetek, eta nagusi mailan, Andoni Ugalde eta Eneko Zalakainek jokatu zuten, ordurako kanporaketa erabakia zegoelarik. 22-1, 22-3 eta 22-16 nagusitu ziren oiartzuarrek, hurrenez hurren.

Euskal Herriko txapelketa jokatzeko, Gipuzkoako ere irabazi behar izan zuten oiartzuarrek. Txapelketa hori historian hirugarrenez eskuratu zuten, finalean Azpeitia gaindituta, aurreko bi urteetan finalean izandako aurkari bera.

Gaztetxo mailako partida zaila izan zen Manex Olaiz eta Aitor Etxeberria oiartzuarrentzat eta ezin izan zuten garaipenik eskuratu. 22-14 nagusitu ziren Sarasua eta Artetxe azpeitiarrak. Gazte mailako partida hil ala bizikoa suertatu zen eta Oier Zabaleta eta Mikel Leonetek 22-17 irabaztea lortu zuten Labaka eta Ezamaren aurka. Gauzak horrela, azken partida izan zen txapelketa erabaki zuena, baina final honetan, zorionez, garaipena eskuratu zuten Oihan Etxeberria eta Unax Landak. Bikote hori gazte mailakoa izan arren, nagusi mailan aritu zen eta 22-16 hartu zituzten mendean Egiguren eta Labaka azpeitiarrak.

Finalerako bidean, Zaldibia (6-0), Azkoitia (4-2) eta Ataun (3-3, tanteoa alde) gainditu behar izan zituzten herriko pilotariak. Nabarmentzekoa da txapelketa honetan parte hartu zuten oiartzuar pilotarien kopurua, beharbada inoiz herriarteko txapelketa batean izan den handiena herri bati dagokionez, 16 pilotari hain zuzen ere.



UXUE AROZENA
Kenpo Kai-ko Munduko
Txapelketan debutaria



Estreinakoz Uxue Arozena oiartzuarrak 14 urterekin Kenpo Kai-ko munduko txapelketa jokatu zuen iaz. Lehen aldia zen munduko txapelketa Japoniatik kanpo egiten zela, Tunisiako Hammamet hirian izan zen. Uxuerentzat dena berria izan arren, gogotsu eta ilusio handiz parte hartu zuen, eta Munduko txapelketa jokatzeko presioari aurre egin behar izan zion.

JUHO MODALITATEAN, BINAKA EGITEN DEN AUTODEFENTSA PROBAN, URREZKO DOMINA LORTU ZUTEN UXUE AROZENAK ETA ALAIN ISASAK

Banakako proban, lehenengo txapelketa izateko nahiko kontentu gelditu zen, borroketan ez zitzaizkion gauzak nahi bezala atera, baina oso gustura ibili zen, eta esperientzia hartzeko oso ongi etorri zitzaion. Datozen urteei begira, etorkizun handiko neska dugu gure oiartzuarra. Kontuan hartu behar dugu Munduko Txapelketa honetan, Uxuek gogokoen duen proba ez zela jokatu: Armeekin egiten den kata.

Kenpo Kai borroka artea ez da kirol mediatiakoa, eta ondorioz, kontrarioak nola dabilzan jakitea oso zaila da. Arozenarentzat guztia berria izan zen eta ez zuen aurrean izan zitzakeen arerioen arrastorik ere.

Iazko uztailean Oiartzun Irratian egin genion elkarrizketan kontatu zigun estraeskolarretan eman zuela izena Oiartzungo Honbu Kenpo Kain. Orain erdiko mailan dagoela eta gerriko beltza lortu zuela esan zigun. Adinaren, pisuaren eta gerrikoaren baitan erabakitzen omen da zein mailatan parte hartu. Irakaslea Alain Isasa du. Askok ikasi omen du berarekin, giro ona daukela klaseetan eta oso ongi pasatzen omen dute. Mutilak gehiago omen dira baina gero eta neska gehiagok ematen omen dute izena; etorkizuna bermatuta dago.

Munduko Txapelketara joan aurretik ikastolako lagunei azaldu omen zien Kenpo Kai zer den. Lehiakorra da, eta kolpe asko jasotzen omen ditu, baina baita eman ere. Hala eta guztiz ere kolpe gehiago ematen ikasi behar omen du eta jarraitzeko gogo handiarekin dago.

Zorionak, Uxue!!! Etorkizun handia daukazu, segi Kenpo Kai-aren bidez gozatzen.

Joxe Migel Lopez

OIARTZUN KE 2023-2024 jardunei memoria



Oiartzun Kirol Elkarteak egintako denboraldi amaierako bazkaria, Haurtzaro pilotalekuan.

GIZONAK

OHOREZKO ERREGIONALA

Oso talde gazte eta herrikoiarekin, lesioz jositako denboraldea izan arren, sailkapenaren erdialdean bukatu dugu Liga.

1. ERREGIONALA

Goren mailako erregionalak maila galdu eta gero jokalaria askok taldea utzi zuten eta aurten Jubeniletatik pasatzen ziren jokalarientzat zaila izan da lehiatzea, baina hurrengo urterako taldea indartsuago egongo da.

BASKA JUBENILA

Joan den urtean kategoria Nazionala galdu eta gero, ligaren hasieran oraindik mentalitate gal-tzailekin ekin genion ligari eta nahiz *coach* bat kontratatu (asko lagundu zigun) ez da nahikoa izan mailari eusteko.

GORENGOEN JUBENILA

Bigarren urtea izan du kategorian, eta taldea asentatuagoa egon da. Sailkapenaren erdialdean bukatu du.

1. JUBENILA

Azken urteetako denboraldi onena: 36 puntu lehen fasean eta Kopan bigarrenak; denboraldi bikaina.

OHOREZKO KADETEA

Aurten klubean aritu den talderik onena. Sendotasuna erakutsi du eta 4. postuan bukatu du. Kadete Baska mailara igotzeko oso gertu bukatu dugu. Oso denboraldi ona.

1. KADETE A

Bere mutzoan partida gustiak irabazi eta gero, igotzeko *pay off*ean hirugarren postuan amaitu eta finalean Gorengoan kadeteen sartzeari lortu du.

1. KADETE B

Klubeko hirugarren kadetea da, 25 jokalariz osatua; kopan multzoko lider bukatu zuen eta final-laurdenetan penaltietan galdu genuen.

OHOREZKO HAURRAK

Ligan 6. postuan amaitu du eta kopan 20 puntuekin sailkapenaren erdialdean.



Azken partida jokatu zuten Bergara taldearen aurka ofizialki Karla Lekuona zelaian; datorren denboraldian, obrak direla eta, Zubietako zelaian jokatuko dute, obrak amaitu arte..

HAURRAK C

Lehen fasean erdialdean bukatu dugu; aurten 28 jokalaririk izan ditugu (baimena eskatu behar izan genuen Aldundira), eta Kopan oso paper ona egin dute: 3. postuan bukatu dute.

HAURRAK, TXIKIEN MAILA

Aurten lehen fasean txapeldun faserako sailkatzea lortu genuen eta bigarren fasean asko ikasi dugu Gipuzkoako talde onenen kontra lehiatzen. Badago etorkizuna talde honetan.

ALEBINA

Progresioa asko nabaritu da, baina hasierak gogorak izan dira, beste taldekin konparatutak "guri samar" hasten direlako. Berez, talde txukuna osatu dugu.

ALEBINA, ESKOLA

14 mutilek lehen urtea izan dute gurekin eta Liga bukaeran 5 garaipen jarraian lortu genituen.

ARETO FUTBOLA A

Berriz ere, LIGAKO TXAPELDUNAK izan gara eta



Gipuzkoako Futbol Elkarteak saria eman zion entrenatzaile onenari; Areto Futbolean, Txema Lasa oiartzuarrari.

Baskara igotzeko txartela lortu dugu. eta baita onartu ere datorren urterako.

ARETO FUTBOLA B

Ligan bigarren postuan sailkatu da eta igotzeko *play off*etan finalerdietan galdu egin genuen igotzeko aukera (oso denboraldi ona).



Oiartzungo neska alebinek, Alazne Bengoetxea eta Txanka entrenatzaileek, denboraldi txukuna egin dute.

EMAKUMEZKOAK

1 MAILA

Oso talde gaztearekin denboraldi oso ona egin dugu eta 4. postuan amaitu du taldeak.

EUSKAL LIGA

Oso talde gaztearekin, gaizki hasi ginen; kontratu genuen *coachak* bat asko lagundu zigun baina ezin izan genion mailari eutsi eta Ohorezko erreregionalean arituko gara datorren urtean.

OHOREZKO ERREGIONALA

Gure hirugarren taldea kategoria gogorrean lehiatu da eta galdu egin dugu maila; datorren urtean gorenge erreregionalean parte hartuko du.

OHOREZKO KADETEA NESKAK

Lehen fasean 6. postuan bukatu du eta Kopan GI-PUZKOAKO TXAPELDUNAK izan dira.

KADETE B

Aurten ez dugu lortu txapeldunen faserako sailkatzea, baina Kopan gipuzkoako finalerdietara iritsi gara.

OHOREZKO INFANTILA FTI

Lehen fasean txapeldunen faserako sailkatu ginen eta bigarren fasean oso paper ona egin dugu, 20 puntukin. (Realak talde hontako jokalaria bat fitxatu digu).

HAUR NESKAK 8

Lehen fasean txapeldunen faserako sailkatzea lortu genuen eta bigarren fasean sufritzea tokatu zaigu, baina esperientzia polita izan da Gipuzkoako zelaia ezagutzea.

ALEBINAK ESKOLA

19 neska aritu dira, kopuru oso ona; kalitate handiko taldea da eta emaitza onak izan ditu. Zenbait jokalaria egon dira beste taldeetako eskolatan, eta maila handia erakutsi dute.

ira kas kun tza



Maite Gezala Legorburu



“Euskal kulturaren oinarrietako bat gure seme-alabei transmititzeko botatako izerdi guztiak merezi izan du”

Maite Gezala Legorburu, 1948ko urriaren 3an Oiartzunen jaioa, Arragua auzoan.

Luis Gezala Sagarzazuren eta Joxepa Legorburu Manterolaren alaba. Hiru senidetan zaharrena da Maite; Jose Mari eta Koldo ditu bi anaia gazteagoak.

Mikel Bergaretxe Mitxelenarekin ezkondu eta bi seme-alabaren guraso izan ziren: Axier Bergaretxe Gezala eta Alaitz Bergaretxe Gezala.

Gaur egun, aitona eta amona ere badira Mikel eta Maite; Lier, Malen, Laiene eta Irai dituzte biloba.

Ezagutu dezagun gehiago...



Nondik datorkizu dantzarako zaletasuna?

Aitaren etxetik datorkit dantzarako zaletasuna. Aitaren etxean (Lezon), oso folklorikoak ziren eta dantza eta kantua asko maite zituzten. Aitaren senideak, nire izeba-osabak, 9tik 6 musikari eta dantzari lotuak zeuden.

Ni Arraguan bizi banintzen ere, aste bukaera guztiak Lezon pasatzen nituen, beti kantuaren eta dantzaren inguruan.

Txikitan dantzaria izan nintzen, 6-7 urterekin gutxi gorabehera, Lezon aritzen nintzen.

Ondoren, anaia txikiena jaio zenean, Arraguan egiten genuen egunerokotasuna eta aste bukaerak ere bai, anaia zaintzen lagundu behar baitzen. Hala ere, ahal nuen guztietan, Lezora joateko saiakera egiten nuen, zeren bertako mu-

sikarako eta katurako giroa asko maite bainituen eta han oso maitatua nintzen. Balio nuela esaten zidaten gainera! Eta nik sinistu, *kar, kar...*

Haurtzaro Dantza Taldera nola iritsi zinen?

Mikel eta biok guraso izan ginenean, ikastolara bidali genituen seme-alabak eta bertan proiektu desberdinak martxan jartzen saiatzen ari ginen. Horietako bat Haurtzaro Dantza Taldea izan zen, Haurtzaro Ikastolako dantza taldea.

Hasierak, fandango eta arin-arinean aritzeko bikoteekin izan ziren, Martxel Ansaren eskutik. Ondoren, bertan dantzari iturri polita ikusi zenez, ikastolak dantza taldea izan zezan lanean hasi ginen. Nire senarrak, Mikelek, Juanito Sarriegi ekarri zuen Hernanitik (Mikel ere dantzaria izan baitzen gaztetan eta jendea ezagutzen zuen).

Juanito eskolak ematen hasi zen ikastolako gimnasioan eta bertan, adin desberdinetako neska-mutilak elkartzen hasi ginen, pixkanaka taldeari forma emanaz.

Zer izan da eta zer da zuretzat Haurtzaro Dantza Taldea?

Asko maite izan dudana dantza taldea eta oraindik ere asko maite dudana. Gogo handiz hasi ginen lanean, ilusio handia jarri genuen proiektu horretan eta lan asko egin genuen. Gure seme-alabak ere dantzara animatu genituen eta familia oso horretan murgildua ibili ginen urte askotan.

Haurtzaro Dantza Taldeak lagun handiak eman dizkit. Herritar asko eta auzo ezberdinetakoak elkartu gintuen taldea izan zen. Ordu asko pasatzen genituen elkarrekin.

Materiala antolatu eta berria egin behar zenean, arropa berriak egin behar zirenean, telak begiratzera joan, aukeratu, neurriak hartu eta ni jostun lanetan aritzen ez banintzen ere, taldean bagenituen ama eta amona jostunak zituztenak, eta denak, bakoitza bere zereginetan aritzen ginen.





Familia eder bat osatu genuen, eta gaur da eguna, oraindik ere kalean elkar ikusiz gero talde hari esker harremanak jarraitzen duena.

Esate baterako, aurten, Haurtzaro Dantza Taldeak egin duen ikasturte amaierako emanaldira-ko deia egin digute, bai Dantza Taldeko guraso izan garenoi, baita ikastolako guraso izan gine- noi ere; gaur egun aitona-amona gara eta dan- tzarako deia egin digute. Garai hartan dantza tal- dean aritzen ginen guraso batzuk animatu gara eta izugarritzko ilusioa dugu dantza taldean urte batzuk pasatu ondoren, berriz ere parte izateko.

Zer eman dizu dantza taldean aritu izanak?

Pertsona bezala aberastu nauela esango nuke. Oso gustura aritzen ginen lanean aurrera atera zedin. Gauza asko egin behar ziren, materiala, arropak, emanaldiak, irteerak, autobusak... baina giro ederra genuen bertako gurasoen artean ere eta ia familia bat osatzen genuela esan dezaket.

Dantza Taldean aritzea ez dugu esango lanik ez zela, bai horixe. Lana egin behar zen eta egin behar da oraindik ere, baina gustura egiten genuen eta dugu. Garbi genuen, egingarria zen proiektua zela ikastolarentzat eta, nola ez, eus- kal kulturaren oinarrietako bat gure seme-alabe- i transmititzeko merezi izan zuen ateratako izerdi guztiak.

Horrek denak barrua betetzen zidan. Aipatu nahiko nuke, dantza taldeek elkarren laguntza behar izan dugula beti, materiala, arropak, dan- tzariak, monitoreak, gurasoak... Elkarrekin egin behar izaten genuen askotan eta hor gogoratu nahi dut Lezoko herriarekiko lotura inoiz ez du- dala utzi dantzaren munduan.

Murixka Dantza Taldeari esker, Haurtzaro Dan- tza Taldeak urte askotan aurrera egiteko laguntza izan genuelako. Hemen aipatu nahi ditut bi per- sona bereziki, eta eskerrak emateko aprobetxa- tuko dut: Marixabel Oroz eta Lurdes Esnaola.

Urte haietan hasitako harremanak, urteak aurrera joan arren, ezin hobea izaten jarrai- tzen duelako.

Emanaldi asko izan dira, irteera asko Haur- tzaro Dantza Taldearekin egindakoak. Bere- ziki bat edo beste gogoan duzu?

Dantzari Txiki egun asko, eskola artekoak, Oiar- tzungo auzoetako jaiak, Xanistebanetan Zaha- rren egoitzara bisita eta soka-dantza.

San Juan suaren bueltan Oiarzungo plazan egi- ten den emanaldia.

Aurrezku, soinu zahar eta dantza solteko txap- elketa asko, Karaezekin egindako senidetzan parte hartu genuen dantza taldearekin eta izu- garrizko esperientzia ederra izan zen...

Nola ez, ikastolak, duela urte batzuk Alaitz Bergaretxe Gezalaren proposamena aintzat har- tuta, bi urtez behin egiten den ikasturte amaie- rako emanaldia oso hunkigarria izaten da gure- zat. Ikastolako aitona eta amona garen aldetik, aurten are bereziagoa izan da.

Niretzat pertsonalki ere, Xanistebanetan duela ia 30 urte, abuztuaren 4ko gauarekin antolatzen hasi ginen emanaldia oso berezia da. Aprobe- txatuko dut momentu hau esateko aurtengoa izango dela nik antolatuko dudan azken urtea. Erreleboa badago, beraz, oraingo, behintzat abuztuaren 4an emanaldia izango da.

Xanistebanetan abuztuaren 4an egiten den emanaldia: nondik nora sortu zen ideia hala- ko emanaldia egiten hasteko?

Kontxi Arruabarrena eta biak dantza taldeko gu- raso ginen. Bien artean egiten genituen irteera guztietan eta bestelako bileratan asko hitz egi- ten genuen Haurtzaro Dantza Taldeari buruz. Behin, pentsatu genuen dantza taldeak Oiar- tzungo jaietan, Xanistebanetan alegia, zerbait antolatu behar zuela.

Ikusten genuen Xanistebanetan adin guztiak biltzen zituen emanaldirik, ikuskizunik ez zegoe- la eta gure seme-alabei ere erakutsi nahi genien dantzako ibilbideak zenbat eman zezakeen eta noraino irits zitekeen.

Dantzak ematen duen guztiarekin; alegia, tal- deko partaide sentitzea, harremanak, lagunak,



giro euskalduna eta ederra, irteerak, euskal kulturaren parte izatea eta herrian bertan eta herri herri egiten dena erakusten joatea...

Horrela hasi ginen emanaldiak ikustera joaten eta zer ekar genezakeen Oiartzuna, herriak ikus zezan, bilatzen. Lehen dantza taldea, Azpeitiko Sahatsa Dantza Taldea izan zen.

Urte askotan Kontxi eta biok elkarrekin antolatzen genuen eta Kontxik pena handiz utzi zue-nean, nik jarraitu nuen. Hala ere, urtero etortzen da ikustera antolatzen duguna eta poza ematen dit Kontxi bertan ikusteak.

Gaur egun, Xanistebanetako programazioan eta dantza munduan Haurtzaro Ikastolak antolatzen duena ikuskizun garrantzitsua den sentzaziorerkin uzten dut. Poza ematen dit eguna eta ordua iritsi, eta kiroldegia adin desberdinetako herritarrez beteta ikusteak.

Urteak ez dira alferrik pasatzen eta 75 urte ditut. Erabakia kostata hartu dut, baina erreleboa pasatzeko garaia dela iruditzen zait. Badakit esku honetan geratzen dela antolaketa eta ardura, eta beti ondoan izango nau alabak behar duenerako.

Zerbait gehiago erantsi nahi zenuke?

Urte hauetan guztietan Haurtzaro Ikastolako zuzendaritzatik pasatu diren guztiei eskerrak eman nahi dizkiet nigan jarritako konfiantzagatik.

Xanistebanetako Jai Batzordeari eskerrak eman nahi dizkiot, nirekin izandako pazientzia guztiagatik eta, esan nahi dut, oso eroso eta maitatua sentitu naizela urte hauetan guztietan. Oiartzungo Udalari ere eskerrak eman nahi dizkiot, beti lagundu didalako eta harrera oso ona izan duelako egindako proposamen guztiekin.

Haurtzaro Dantza Taldean guraso nintzela sartu nintzenetik orain nire bilobak dantzan dabiltzan honetan, zein familia ederra den Haurtzaro Dantza Taldea. Bertan elkarrekin bizi izan garen guraso asko, dantzariak, dantzari ohiak... izen eta aurpegi asko datozkit burura eta ez naiz izendatzen hasiko bat edo beste ahaztuko baitzait bestela...

Joste-lanak egiten aritu diren ama eta amona guztiei, kotxeak kargatzen ibili garen guraso guztiei, kilometro mordo hara eta hona elkarrekin, egun-pasa zoragarriak eta autobusetako bidaiak. Zein familia ederra osatu dugun eta zein ongi pasa dugun!

Pozgarria da belaunaldiak aurrera doazela ikusi eta, oraindik ere, Haurtzaro Dantza Taldeak bizirik dirauela ikustea, eta tartean gure etxeko txikiak.

Ia 30 urte dira Xanistebanetako emanaldi hau eskaintzen hasi ginela. Eskerrak eman nahi dizkiet, banaka-banaka, talde bakoitzari beti egindako harrera bikainagatik. Etxeko hartu naute.

Eskerrak eman nahi dizkiot beti bidelagun izan ditudan herritar, dantza taldeko guraso eta ikastolako komunitateko kideei eta, batez ere, nola ez, nire senar Mikeli.



Guk ere eskerrak eman nahi dizkizugu. Ama zaitugun aldetik, aitarekin batera eredu zarelako. Haurtzaro Dantza Taldeagatik egin duzun guztiagatik eta alaba naizen aldetik erakutsi didazun guztiagatik. Erreleboa ardura handiz hartu dut eta zuk hasitako bideari jarraitzen ahaleginduko gara ahalik eta txukunen, ez baitut bakarrik egingo. Eskerrik asko!

Alaitz Bergaretxe Gezala

Sakelakoen gaineko ituna, LH3tik DBH2ra



Edozein herritako edozein ikastetxetan gertatu ohi den moduan, gure etxeko txikiak ikastolatik jasotzeko ordu hori izaten da gurasoek beraien arteko kezka, ardurak, beldurrak... partekatzeko ordua. Eta Haurtzaro Ikastolako ataria ez da salbuespena.

2019. urtearen bueltan edo, hainbat guraso elkartzen hasi ginen teknologia berriek bere zabalatasun osoan eta, bereziki, *smartphone*ek gure gizartean hartu duten presentzia gehiegizkoaz kezkatuta: gure etxeko txikien geletako egoeraz kezkatuta, eta teknologia berrien erabilera zenbaterainokoa den ulertzeko asmoz.

Orokorrean, *smartphone*ek gure txikien eskuetara iristeko egiten duten bidea oso antzekoa da. LHn hasten da marrazki bizidun, joko eta abarrekin, baina laster agertzen dira YouTube, Tik-Tok eta halako aplikazioak. Sakelakoak jabetzan izatea lortzea ere laster agertzen den gaia da. Hasieran, Smartwatch moduko erlojuak ikusten ditugu eskumuturretan (mezuak jasotzea eta bidaltzea, eta deiak modu murriz-

tuan egitea ahalbidetzen duten horiek). Eta LH5 edo LH6-en hasten dira jabetzan dituzten lehen *smartphone*ak izaten. Badago herri eta ikastola guztietan guraso guztiek partekatzen duten arrazoi bat. Lehen mugikorra ematearen arrazoi presio soziala da: "Ez dut nire seme/alaba telefonoa edukitzeaz azkenekoa izatea nahi, lagunen sare horretatik kanpo geratuko baita".

Gauzak horrela, eta presio sozial horri aurre egiteko asmoz, beste herrietan ere egiten hasi diren ariketa txiki bat jarri genuen martxan. Guraso askok kezka berbera genuela bistartzeko asmoz, gurasoen arteko itun bat jarri genuen martxan. LH3tik hasita DBH2ra arteko ikasle guztien gurasoei honako konpromiso edo itun honi atxikipena ematea eskatu genien:


**“HURRENGO 6
HILABETEETAN GURE
SEME/ALABARI EZ DIOGU
BEREA IZANGO DEN
MUGIKORRIK EMANGO”**



Atxikipena 6 hilabetekoa da (urria-maiatza) eta guztiz anonimoa, eta harrera oso ona izan zuen. Iazko urrian, adibidez, 169 familiak hartu zuten parte:

Nere seme alabaren maila eta gela:

169 responses



Argi utzi nahi dugu, baina, hau ez dela *smartphone*en aurka dauden gurasoen egitasmo bat. Kezkatzen gaituena ez da teknologia bera, teknologia horren erabilera baizik. Gizarteak eta hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztiok **ez dugu denborarik izan teknologia berriek dakartzaten aukeren eta arriskuaren inguruko hausnarketa sakon bat egiteko**. Erabileraren inguruko irizpiderik ez da zehaztu, eta hainbat eta hainbat galdera eta duda daude gurasoen, hezitzaileen eta ikertzaileen ahotan:

ZEIN DA 'SMARTPHONE'-A EDUKI AHAL IZATEKO GUTXIENENKO ADINA? ETA ADIN APROPOSA? ERABILERA MUGATU BEHAR DA? ZENBAT DENBORA ERABILI DEZAKE?...

Hezkuntza komunitate guztiaren hobe beharrez, eta haurrak babesteko betebeharra sentitzen dugulako, **teknologia berriaren erabileraren inguruan irizpide batzuk adostea behar-beharrezkoa ikusten dugu**.


Horretarako, ezinbestekoa izan da eta izango da Haurtzaro Ikastola gure bidelagun izatea. Honen harira, urtero ikastolak antolatzen dituen formazio saioen garrantzia nabarmendu nahiko

genuke, ezinbestekoak direlako, gurasook eta hezitzaileek elkarrekin jorratu nahi dugun bidea adostuko badugu.

Eta preseski gure ardurek badute-lako gizarte osoan bere itzala, herri mailan ere lehen pausoak ematen ari gara. Teknologia berrien unibertsoak dituen ertzak gizartearen adin guztietara zabaldu dira eta adin txikikoena zaugarritasunaz ahobatezko adostasuna dago.

Ondorioz, Oiartzungo Udalak bideratzen duen Adin Txikikoena Mahaian ere jo dugu atea. Gai honen inguruan gizarteak duen erronka gure txikiekin hasten den arren, nerabeengana eta gazteen-gana ere zabaldu dira eraginak eta Oiartzun osatzen duten beste eragileekin ere (Udala, ikastetxeak, Kuadrillategi, eta abar.) jorratu beharko ditugu bideak.

Azkenik, aipatu Euskal Herriko hainbat herritan ere badaudela horrelako egitasmoak (Zarautz,-Tolosa, Azpeitia...) eta, lehen pausoak ematen ari bagara ere, izango direla kezka berdina dauzkagun gurasoak saretzeko aukerak.



ESPAZIOEN NOLAKOTASUNAZ II



Pasa den urtean, aldizkari honetan bertan kontatu genizuen Urmendin hasiak ginela espazioen nolakotasunari buruz hausnartzen, eta espazioak ere hezi egiten duela sinetsita, horiek bizigarriagoak eta goxoagoak bihurtze horretan jarria genuela interesa eta gogoia. Hori horrela, haur eskolako sarreran bilgune goxoak, oihalak, argizatutako txokoak eta ipuinak lasai ikusteko eremua prestatu genuen.

Ikasturte honetan ariketa sakonagoi heldu diegu, eta bakarka nahiz taldean, gure espazioen inguruan hausnartzeko denbora hartu dugu. Altzari motak eta horien mugikortasun aukerak aztertu, espazioek sentiarazten digutenaz kontziente egin: usainak, hoztasuna agian edo alderantziz, goxotasuna, ordena, nahasmena, deserosotasuna, bertan egoteko gonbita, haurren arteko harremanak eta jolas motak behatu espazio horietan, espazioek eskolako bizitzaz kontatzen digutenaz jabetu, hezitzaileon hitz tonuak, mugimenduak eta abarrek haurrengan eragin dezaketenaz pentsatu...

Denbora eskatu digu ariketa horiek egiteak: denbora behatzeko, denbora hausnartzeko, denbora eta baliabideak aldaketak gauzatzeko eta denbora, berriz ere gorpilaren lehen tokira helduz, egin ditugun aldaketek zer ekarri duten behatu eta hausnartzeko berriz ere; noski, gorpila geldiezina dela ulertuz. Denbora eman digu bai, hain zuzen ere soberan ez dugun hori; al-

derantziz, beti eskasian horrelako proiektu berriari eutsi ahal izateko. Ilusioz ari gara, ordea, eta esfortzua den arren, horretan sinesten dugu eta eusteko indarrez gaude.

Lanean jarri ditugu mantenukoak eta guraso nahiz aitona-amonak hainbat kontutan: konponketa-lanak, joste-lanak, arotz-lanak, material bikketa...

Gaiaren inguruan dabilkigu burua bueltaka eta horrexegatik, bestelakoan oharkabean pasako litzaizkigukeen hainbat kontu suertatzen zaizkigu bidean: zaborretan erretiratutako materialak gureganatu eta txukundu, gurasoen lanbideei erreparatuz haurren eskuetan esperimintatzeko aukera eman dezaketen material berriak lortu, bigarren eskuko altzari nahiz materialak lortzeko bide oso baliagarriak ezagutu...

Haur eskolako hainbat espazio eraldatu ditugu lanketa horien harira. Espazio goxoak, etxekutsukoak, nortasunekoak eta elkarren artean ezberdinak, eguneroko bizipenen adierazleak, altxor kontsideratutako materialez hornituak, hezitzaile sentsibilizatuagoak gaiaren bueltan...

Hormak eguneroko bizipenez bete ditugu (dokumentazioa, lanak), apaingarri berriak zintzilikatu, txoko berriak sortu ditugu geletan, batzuk geronek eta besteren bat gurasoen ekarpenekin. Etxean ditugun altzari goxoen antzera, euren taimainara egokitutako tailer goxoa eraiki dugu.

Aldizkari hau argazki ederrez beteko genuke kontatutako guztiaren adibide gisa, baina lekua mugatua denez, jakizue Urmendi haur-eskolako ateak irekiak daudela inguratu eta ikusi nahi duen edonorentzat. Gustu handiz hartuko zaituztegu.

GURASO ELKARTE BAT

Denak du hasiera bat



Maitasun batetik abiatzen da gurea. Batzuen kasuan, behinola beren etxe izan zen Elizalde Herri Eskolarekiko maitasuna da. Herritar guztiona den eta herriari zor zaion ideiarekikoa beste batzuenean. Tutore bileran zerbait berezia sentitu duenik bada gurean. Eta umeak etxean irakasleaz kontaktutakoak eragin dionik ere bai. Eta, seme-alaben ikastetxe izanik, beste guraso batzuk ezagutu, taldetxo bat egin eta ongi hartu duen komunitatearekiko maitasuna duenik ere bada gure artean.

Teoria bat gailentzen da bertako guraso elkartean gaudenon artean: gurasook zeresan handia dugula gure haurren hezkuntzan. Etxeko atetik haratago ere, hor egon eta hor aritu beharra dugula, etengabeko militantzia batean. Haurraren hezkuntza ez baita etxean amaitzen. Eskolan ere ez. Gurasook etxean, eskolan eta herrian egon behar dugu.

Tren bat pasatzen da gure bizitzako unerik lanpetu eta lotuenean. Justu orduantxe, Guraso Elkarteko bagoi batean sartzeko aukera suerta-

tzen zaigu: Talde eragilean, Jai batzordean, Batzorde iraunkorrean, Eskolaz kanpokoetan... Eta bai, sartzen gara, hartzen dugu eta bagoaz trenean. Esker oneko bidaia bat da. Bagoian hartutako erabakiak hurrengo geltokian ikusten dira.

Toki bat. Guraso Elkarteko Talde Eragilea biltzen den tokia. Umeen tamainako aulki eta mahaitxoak dituen gela bat. Helduontzat hausnarketarako leku eta erabakigunealdi berean. Hilabeteko lehen asteartea da, eta zure gisara, haurrekin, hezkuntzarekin eta herriarekin konprometitutako artista kuadrilla batek entsegua duela dirudi. Irekia da, dohainik da, eta bai, gonbidatua zaude (hemengoan ez bada, ondokoan). Eta bai, ongi esan dut. Entsegua da. Ikastera gatzoguz ere.

Janela bat. Leiho bat. Kanpora zein barrura begiratu, hartutako erabakien ondorioak ikusten ditugu bertatik. Patioan umeak izenik ez duten jolasetan dabilta. Zirku-txokoan sormena ari du txalo artean. Esgrimakoek zuriz araututako koreografiak egiten dituzte; batzuetan, euskal



dantzakoen erritmoan ari direla dirudi. Adi zinemazaleok! Zinemagintza tailerlean film laburrerako azken grabazioak egiten ari dira, edizio lanean murgildu aurretik. Eta sormen tailerlean buru-bihotzak eskuen bidez mintzo dira!! Lotsak lotsa, bertsoek leihatilatxo batetik ihes egitea lortzen dute eta belarri berriak bilatzen dituzte. Antzerkikoek dioten bezala, bizitzarako antzez-leku handi bat dirudi honek!

Kolore bat nagusitzen da: berdea. Gure kasuan, ongi egindako lanaren kolorea. Zementuari metroak jan dizkiogu. Eta haurraren garapen nahiz bizikidetzak ikuspuntututik positiboagoak diren balioek espazioa irabazi dute. Ikasgune berri bat dugu. Bere belar, xomorro eta hondar, egunero ezberdin, egunero bizirik dagoen jolasgune bat. Bigarren fasean dagoen *Transpatioa* proiektuari esker gauzatu da. Hor bai egon dela txingurri lana! Eta dakizuen bezala, txitxarrek ez bezala, txingurriek udan ere ez dute atsedean hartzen. Ikusiko duzue udazkena heltzean!

Lilura bat bizi dugu: ekinez gero, gauzak egin daitezkeen konbentzimenduarena. Hau eta hura lortu izanarena. Posible da Udalarekin lan-kidetzan aritzea. Posible *Oinherri* edo "Euskara eta kulturartekotasuna" proiektuetan ekarpenak egitea. Posiblea da eskolaz kanpoko duinak eskaintzea. Posiblea herriko beste eragileengana iristea. Posible ikastetxeko organoetan gure ahotsa baliatzea. Posible da herriko bizikidetzan eragitea.

Etxe bat. Etxegintza eta Lorezaintza eskaini ditugu aurten eguerdiko eskolaz kanpokoetan. Aurtengo *boomak!* Mantala jantzita sukaldaritza, artea eta brikolajea uztartzen dituen esko-

laz kanpoko bat. Buztinez orakatuta bukatzea maite duten ikasle librean erreinua bestea. Sormena balioen erdian jartzearen beste erakusgarri bi. Proiektu partekatu izaten bukatu dute biek, ezin zen bestela. Ostiralak jada ez dira azken eguna bakarrik. Haurrek lur adina arte daramate karretillan eta etxe ingurua ilusioz zaintzen ari dira. Bai, haien etxea zaintzen.

Sute bat baino gehiago izan dugu, hori bai! Temperatura igo ez den txokorik ez dago munduan eta gure ikastetxea eta herria ez dira salbuespen. Gure ideia eta proposamen bakoitza azaltzen, ulertarazten eta adostu nahian zenbat energia eta denbora enplegatu dugun guk bakarrik dakigu. Eta halere sute bat baino gehiago izan dugu aurten ere. Zenbat asmo on ke bihurturik ihesi. Errautsetatik zerbait aterako ahal da!

Besterik ez, momentuz.

Agian, bukatzeko, pentsamendu bat: Gorka Urbizuk *Hasiera bat* diskoa kaleratu zueneko bezala oroituko dute askok urte hau. Horregatik goiko hamar abestiak. Gutako batzuek, berriz, konbentzimenduz, konplizitatez eta giro ezin hobean bizitako urte emankor bat bezala ere oroituko dugu. Horregatik goiko hamar puntuak. Bi eratara ere, atzera begira jarri eta urte polit bat.

*Elizalde Guraso Elkarteko lehendakaria
Haitzol Olaiz Etxebeste*

BIZITZA ESKUETAN. TRANSPATIOA. ESKOLA LORATZEN

Patio berri eta bizia sortzeko egiten ari garen bidea prozesu sortzailea eta parte-hartzailea izan da hasieratik; gure eskuei begiratu besterik ez dago, zikin-zikin eginda dauzkagu. Prozesuak berak aberasten du eskolako hezkuntza sortzaileagoa eginez, partaidetza sustatuz, berdintasuna eta aniztasuna elkarlanean biziz, eta sortzen diren aliantzetatik zein gatazketatik ikasiz.

Urte batzuk pasa dira buruan genuen ametsa ureztatzen hasi ginetik. Berehala bota zituen sustraiak amets hark, eta *Transpatioa* proiektua sortu zen. Orduetik ez diogu lan egiteari utzi. Sortzaileak, hezitzaileak, familiak, haurrak eta erakundeak elkarrekin aritu gara, eman eta hartu, hartu eta eman, harremanetan. Auzolanez auzolan, elkarrekin pentsatuz, elkarrekin ekinez eta elkarrekin jolastuz, bideko aliantzek eta sortutako lantaldeek indartsu egin gaituztela sentitzen dugu, eta gure ametsa zaindu dugu elkar zaintzearekin batera.



Transpatioa proiektuaren helburua eskolan genero berdintasuna bermatuko duten eta desberdintasunak murriztuko dituzten espazioak sortzea da, harreman osasungarriak ahalbidetuko dituen patio bat eraikitzea. Eten-

gabe bizirik dagoen eta garatzen eta eraldatzen ari den prozesu bezala ulertzen dugu *Transpatioa*. Bizitasun horri eusteko abiatu dugu aurten *Elizaldeko Lorezainak* proiektua. Aitzurrak eskuan hartu, katiuskak jantzi eta lokatzetara sartu gara, kultura parte-hartzailea eta sortzailea bultzatuz, harreman osasungarriei lekua egitera. Zaintza sustatu eta ingurune sana eraiki nahi dugu, eta guztia, naturarekin harremanetan.

Espazio anitza eta hezitzailea desio dugu gure haurrentzat, kalitatezko espazioa kalitatezko hezkuntzaren parte delako. Eraldaketa fisikoa abiatu dugu, eta orain, patioaren erabilera etengabe eraldatzen jarraitzeko momentua da. Proiektu honek, zehazki landareek eta horien zaintzak, erabilera berri bat ema-



ten diote patioari. Haurrek jolas eta ikasketa aktiborako gune eta material berriak dituzte ingurune bizi batean.

Zuloak egin ditugu, lurra harrotu dugu, ongaria zabaldu, zizoreak aurkitu, ubideak sortu, letxugak landatu, eta patatak, geranioak, menda belarra, izpilikua, kalabazina -oso itxura txarra du, baina esperantzaz begiratzen diogu ureztatzen dugun aldiro-, eskorgarekin joan-etorrian ibili gara, lanabesak garbitu ditugu eta elkarrekin partekatu; ingurunea eraldatu dugu gure eskuekin.

Haurrek patioiko landareak ezagutu, zaindu eta hazten ikusteak inguruarekiko duten harremana osasungarriagoa bihurtuko duelakoan gaude. *Elizaldeko Lorezainak* proiektuak bizikidetza sustatzen du: ingurua zainduz, geure burua zaintzen ere ikasiko dugulako, elkarlanean arituko garelako eta zaintza sortzailea izatearen esperientzia bizitzarako ikasketa izango delako.

Berdegunea esperimentaziorako, sorkuntzarako eta zaintzarako eremu bizia izatea lortu nahi dugu, eta horretarako eskuak lurrez zikintzeko prest gaude. Azazkal azpiak belztuta dauzkagu, baba batzuk ere atera zaizkigu, baina ezkutatuta zeuden kimuak loratzea lortu dugu. Lur usaina darigu, bizitza usaina, eta kolore anitzez betetzen ari zaigu berdegunea.

Elizaldeko guraso sortzaileak



**he
rri
era
gile
ak**

OIARTZUNGO WIKIEMAKUMEAK:



Bidea arian-arian egiten omen da. Hirugarren urtea beteko den honetan bagoaz gure aletxoen pila handitzen eta zenbakiak zenbaki, honako hau izan da aurtengo uzta:

Oiartzungo emakumeen biografia berriak: 45
Hobetutako biografiak: 28
Euskarara ekarri ditugun erdal biografiak: 162

Zenbakiez haratago, ordea, badago Oiartzungo Wikiemakumeak-en eragina beste perspektibetatik aztertzeko modua, eta gure iritziz, zenbaki hotzek baino informazio garrantzitsuagoa ematen dutenak.

Ezer baino lehenago aipatu behar dugu aurten lortu dugula berdintzea Oiartzungo gizon-emakumeen arteko presentzia Euskarazko Wikipedian. Leku guztietan bezala, oiartzuarren artean ere aldea handia zen eta batik bat erronka horri helduta abiatu ginen *Wikiemakumeok* proiektuan.

Egiten ari garen ibilbidearen ondorioz, bagoaz nolabaiteko izena lortzen herrian. Dagoeneko gure lana ez da arrotza eta horren adierazgarri dira aurten izan ditugun bi gertaera garrantzitsu bezain hunkigarri eta eskergarriak:



Biografia erakusketa.



Korrika.

Urteko balantzea zertzeladetan



Dokumentalaren kartela.

Martxoaren 8an, Oiartzungo Feministen Asanbladakoen aitortza jaso genuen, emakumeen alde egiten ari garengatik. Horrekin batera, guk sortutako hainbat biografiaren erakusketa zabaldu zen herrian zehar.

Martxoaren 23an, Korrika ekitaldian lekukoa eramateko ohorea eman ziguten Ttu-Ttur Euskaltzaleon Bilguneok, euskararen alde egiten ari garen lana aitortuz.

Herritarren laguntza gero eta nabarmenagoa da; batzuetan historiak osatzeko informazioa eta datuak edo argazkiak behar izaten ditugulako, baina baita ere proposamenak egiteko garaian. Maria Ilarra, Maria Josefa Sansberro, Maria Azeo, Maite Gezala, Pirkko Viljanen... Horiek eta gehiago izan dira herritarrek aholkatuta sortutakoak.

Wikiemakumeok proiektuaren zabalkuntzan, bestalde, aurrerapauso garrantzitsua eman dugu Josi Sierra taldekideak ekoitzitako *WikiEmakumeOK DOnK* dokumentala sortuta. Oiartzunetik aukera izan genuen Landetxe Kultur Aretoan ikusteko, martxoaren 21eko Korrika kulturalaren barruan.

**GURE BERRI GEHIAGO
JAKITEKO:**



**FACEBOOK:
OIARTZUNGO
WIKIEMAKUMEAK**

Komunikabideak. *Hitza*-koek izan zuten interesa gure berri jakiteko. 2024ko otsailaren 5ean urteko plangintza argitaratu zuten eta lau egun geroago "Inurri lanaren bidez lortu dute iristea 'wikiOiartzun' parekidera" izeneko artikulu osatuagoa. Oiartzungo irratia ere aldamenean eduki dugu eta dokumentalaren aitzakian bertan izan ginen martxoaren 19an.

Azken hausnarketa taldeari begira. Ez gara asko eta ongi legoke herritar gehiago batzea proiektuari. Irekiak gaude. Aurtengo kide berria Lezotik batu zaigu, beraz esan genezake Oarsoaldeara behintzat zabaldu garelara eta bagoazela pixkanaka hedatuz.

*Oiartzungo Wikiemakumeak
2024ko apirila*

KILLIRIKUPE

Killirikupe 1990. urtean sortu zen emakume talde baten interesei edo kezkei erantzuteko asmoz. Hasiara hartan ere emakumeen artean baziren ezinegonak, kezkak, interes desberdinak, jakin-nahiak... eta elkarte bat sortu nahi izan genuen elkarrekin erantzunak bilatzen ahalegintzeko. Handik bi urteetara elkarte izaera eskuratu zuen. Geroztik, gure taldea etengabe aritu da emakumeak formatzen eta ahalduntzen. Killirikupe tresnak eman dizkigu eguneroko portaerak eta jarrerak aztertzeko eta pixkanaka-pixkanaka aldaketak egiten ikasteko, baita emakume gisa hazten eta gizarte juxtu bate-rantz pausoak ematen laguntzeko ere.

Killirikupe emakume taldea elkarte feminista da eta herriari zerbitzu batzuk eskaintzen dizkio begirada feministatik, betiere:

1.- Formazioa: jabetze eskola da. Emakumeak intelektualki aberasteko, kritikoak izaten ikasteko, iritziak partekatzeko eta eztabaidatzeko espazio bat da, hortaz, emakumeak ahalduntzeko gunea da. Horrez gain, zerbitzu horrek sistemaren era-soetatik babestu eta zaintzen gaitu.

2.- Integrazioa sustatzen du: gure taldea talde antitza da, jatorri desberdinetako emakumez

osaturia, elkar zainduz desberdinen topagune izan nahi duena.

3.- Gizarte eragilea: gure kultura eta hizkuntza sustatzen, zaintzen eta babesten dituena.

4.- Talde sena zaintzen du: talde bateko partaide iza-teak bakardadea saihestu eta ongizatea du jomuga.

Gure saioak, bilerak... Landetxe eraikineko tailer gelan izan ditugu aurten.

Aurtengo kurtsoan hainbat gai landu ditugu, besteak beste, osasunaren eta generoaren azter-keta, zahartzarora eta zaintza.

La bitzita osoa zaintza-lanak egiten pasa ba-dugu ere, orain gutxi hasi gara zaintzari buruz hausnarketa egiten!

Zaintza hitza oso modu zabalean ulertu behar dugula iruditzen zaigu Killirikupen: garbitzea, otorduak prestatzea, haurrak nahiz zaharrak ar-tatzea, behar psikologikoak kontuan hartzea... denak zaintzak direlako. Denoi tokatuko zaigu zaintzea edo zainduak izatea, eta hori baloratu eta duintasunez egin behar dela pentsatzen dugu.



Iraultza sinbolikoan murgildurik beti alegerez

Horretarako, emakumeen iraultza sinboliko feminista dela bidea sinisten dugu. Baina, zer da emakumeen iraultza sinboliko femista? Hori azaltzeko historikoki adibide bat baino gehiago izan ditugu eta, gertukoak aipatzekotan, alde batetik, orain dela urte gutxi *Me too* iraultza sinboliko feminista ezagutu dugu, bestetik, oso gertukoa, azaroan 30ean Euskal Herrian egin genuen lehenengo greba feminista orokorra, zaintza eskubide kolektiboaren alde. Sinesten dugu iraultza horien bidez pertsonen burua eta mundua poliki-poliki aldatu daitezkeela, inongo odol eta gudarik egin gabe, elkartasuna eta sare-tzea oinarri hartuz.

Gure lanak eta militantziak poztasunean oinarritu beharko lukeela ere ikasi dugu: gure espe-
rentzietatik eta bizipenetatik abiatuz.

Gure politikak, idealak, nahiak... liberatzaileak izan beharko lukete, eta gure bizitza onerako aldatu, beti handitzera bultzatuz eta gure barrura poza ekarri, bestela zerbait gaizki dabil.

Askotan bete ezin ditugun helburuak jartzen ditugu, handiegiak, eta zerbait eraikitzen saiatu beharrean, "kontra" borrokatzen dugu. Orain,

lor ditzakegun helburuetatik hasten gara eta ondoren etorkizunean lortu beharrekoekin jarraitzea dugu helburu.

Guretzat pozik eta gustura sentiarazten gaituzten jarduerak oso garrantzitsuak dira, alaitasuna irrika aktibo bat delako, ez da egoera geldi bat, gure ahalmenak sentitzea da, ikustea nola hazten diren gure baitako gaitasunak eta inguruko jendearenak.

Sentitzen dugu badugula gizartea eraldatzeko ahalmena eta, hain zuzen ere, egiten ari garela. Beste batzuekin batera, noski, beti sareak eraikitzen eta eskutik hartuta.

Gure hondar alea jarri nahi dugu herriak hasi duen zaintza proiektu berrian. Denon artean lortuko dugulako!!

Martxo bukaeran afaria izan genuen herriko jatetxe batean. Lana bai, jaia ere bai!

*Killirikupe Emakumeak
Ahduntzeko Eskola Elkarteak*



Harribeltza

HIESaren aurkako elkarte



Ainhoa.

Hiesaren Aurkako Harri-beltza elkarte Oiarzunen sortu zen, 1994. urtean. Beraz, hiru hamarkada daramatza GIB birusaren gaineko informazioa zabalduz, transmisio eta prebentzio arloetan, jarrera ez bereizkorrekin. Horrez gain, birusak kaltetutako pertsonen eta etxeko behar emozionalei erantzuna ematen dihardu.

Historia pixka bat eginez, 1994. urtean oiarzuar talde bat elkartu zen hiesak eragindako egoeraz kezkatua eta horri erantzun bat eman nahian.

Osakidetzak bideratu ezin zuen osasun alderdi bat nabarmentzen ari zen seropositibo eta hiesdunen artean, hots, alderdi psikologiko eta emozionala. Bestalde, hiesa zabal ez zedin, prebentzio lan serio bat egin beharra argi ikusi zuten. Azkenik, hiesak hasiera-hasieratik eduki dituelako berarekin loturik estigma eta bazterketa, sentsibilizazio lanari ekin beharra ere sumatu zuten. Asmo horiek buruetan eta bihotzak bero jo zuten Oiartzungo Udalera. Hark berehala egin zuen bat Harri-beltzarekin.

Harri-beltzak lehen urratsak Oiartzungo gizarte laguntzailearen bulegoan egin zituen, Miriam Goikoetxearen bulegoan, hain zuzen ere. Hilabete batzuen buruan, Udalak Don Julio medikuaren etxe zaharra jarri zion elkarteari esku artean eta horrela, Harri-beltzak han landatu zuen bere proiektua. Elkarrekin bere motorrak piztu zituen seropositiboaren egoera psikologiko eta emozionala bideratzeko, alde batetik, eta herritarren eta hiesaren artean muga sendoak eraikitzeko, bestetik. Zeregin horretara bideratu zituen Harri-beltza elkarteak martxan jarri zituen aktibitateak:

- **Sentsibilizazio eta prebentzio programak**, bai heziketa esparruan eta baita gizarte mailan ere. Harri-beltza elkarteak hiru hamarkada daramatza GIB-HIESari buruzko prebentzio lana egiten ikastetxe eta hainbat elkartetan.
- GIBarekin bizi diren pertsona eta haien gertukoentzat **laguntza taldeak**.
- **Banakako kontsultetarako** eskainza zuzena, aldeaz aurretik hitzordua telefonoz edo e-postaz lotu ondoren.
- **Kafe positiboa**, hilean behin, astearte arratsaldean, kafea hartuz, tertulia egiteko aukera ematen duen ekintza.
- HIESari buruzko **formazio tailerrak**.
- Ospitale eta etxeetan maila emozionalean laguntza eskaintzeko **boluntario taldea**.
- **Masaje terapeutikoa**.
- Neguko kanpainan, **abenduaren 1ean HIESaren Aurkako Nazioarteko Eguna** ospatzeko hainbat ekintza.

HIES-aren aurkako Oiartzungo Harri Beltza Elkarteak, 30 urte



Bokalia.



**Hiesak oraindik hiltzen du
Harri-beltza Elkarteak**

Odoladuen lazoa.

- Udako kanpainan, laguntza behar zutenentzat eskuragarri egoteko helburuarekin, **Xanixtebanetako eta Madalenetako txosnak**.

1997.a aldaketa urtea izan zen eta Harri-beltza elkarteak hain maitea genuen Don Julio medikuaren etxe zaharra utzi eta Isastin finkatu behar izan zuen bere egoitza. Han, egoitza berrian, ekintza hauek jarri ziren martxan:

- Banakako **parte-hartze psikoterapeutikoa**.
- **Udako kanpainan**, musika emanaldia Oiartzungo San Esteban elizan.
- **Aktibitate puntualak eta askotariko ekitaldiak**.

HIESaren aurkako lana denon artean egin beharrekoa dela sinistuta gaude, denoi dago-kigun arazoa baita. Hau horrela izanik, Harri-beltza Elkarteak askotariko jendeak osatzen dugu: alde batetik, elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuez baliatzera datozen GIBdunak, seropositiboak, alegia, eta euren gertukoak daude.

Horietako batzuek, zerbitzuez baliatzeaz gain, besteentzat ere lan egiten dute bertan, boluntario moduan. Azken horiekin batera, birusa ez duen jendea dago han-hemenka esku bat botaz. Azkenik, badago momentu jakin batzuetan laguntzera etortzen den jendea, baita, nola ez, urtero dirulaguntza bat jarriz egiten duena ere.

Hiesaren Aurkako Oiartzungo Harri-beltza Elkarteak 30 urte daramatza HIESak kaltetutako jendeari laguntzen, arreta psikologiko eta emozionala emanez, eta informazio garbiari esker, HIESari aurre eginez.

Ezin dugu artikulu hau bukatu Joseba Errekalde Lekuonari esker onezko hitz batzuk eskaini gabe. Hau guztia ez zen posible izango zu, hasiera-hasieratik, hor egon izan ez bazina. Joseba, zu izan zaitugu Harri-beltzaren sorreran protagonista nagusia, eta gerora, arima eta motorra. Eskerrik asko, Joseba!

Mirari Telletxea



Sortu zenetik, Arraztalo Kontsumo taldea salerosketa gune huts bat baino askoz gehiago izan da. Lurraren eta gure mahaien arteko lotura sustatu du, komunitatearen eta inklusioaren artekoa. Astelehenero, 14 urte hauetan, iraunkortasunarekiko, erantzukizun sozialarekiko eta inklusioarekiko konpromiso irmo baten lekuko izan gara. Buru osasuna eta nekazaritza lotu dituen.

Hasiera batean, Arraztalo Elkartetik kontsumo taldea sortu genuen gure nekazaritza ustiapenean ekoiztako barazkiak merkaturatzeko. Ustiapenean buruko osasun arazoak zituzten pertsonak hasi ziren lanean eta bertatik ateratako barazkiak norabait eraman beharra zegoen. Salmenta zuzenari abantaila ugari ikusi genizkion: bezeroekin harremanak sortzea eta gaixotasun mentala zuten pertsonak plazara ekartzea, besteak beste. Ezkutuaren zegoen arazo bat bistartzeko premia baitzegoen. 2010eko urrian hasi ginen saskiak banatzen,

Kilirikupeko arkupeetan. Aurretik, langileak 6 hilabetez aritu ziren nekazaritza ustiapenean musutruk lanean. Momentu hartan, buru osasunarekin kezkatutako senideak hurbildu ziren gehienbat kontsumo taldera.


Urteak joan ahala, kontsumo taldea egonkortzen joan zen eta motibazio ezberdina zuen jendea gerturatu zen. Batzuek gizarte integrazioan lagundu nahi zuten, beste batzuk bertako produktuak biltzen zebiltzan eta beste batzuek haurrek barazkiak jaten ikasteko aukera ona zela uste zuten. Arrazoiak edozein izanik ere, taldea handitzen joan zen.

Dinamika horren baitan, urteak pasatu ahala, beste **ekoizle batzuk ere astelehenetako banaketan parte hartzen joan dira**. Hasiera batean, barazkiez gain, arrautzak eta gazta genituen. Gaur egun, **Astelehenetako Azokatxo**a sortu dela esan genezake. Guztira 6 ekoizle biltzen gara plazan:

14 urte eta 15.000 saski ospatzen



2010eko urrian egindak lehenengo banaketa.



Arraztaloko barazkiak, Zituene pasta, Gezamina ogia, Pelu arrautzak, Arabolaza ezitia eta Larremotx gazta. Azkeneko nobedadea Shitake perretxikoak izan dira. Beraz, guztira 7. Pixkanaka handitzen joan gara eta herritar ugarik astelehenetako zita dute bertako produktuekin.

Azokatxoa ezagutzen ez duen edonor lerro hauen bitartez gonbidatzen dugu astelehenetan 18:00etan Oiartzungo plazara etor dadin.

Askok dakiten moduan, bidea ez da erraza izan eta etorkizunean ere ez da erraza izango. Hasierra guztiak izaten dira zailak, baina Arraztaloren proiektuak erronka izugarria zuen. Batetik, buruko osasun arazoak zituzten pertsonei laguntzea zen helburua. Estigmak eta beldurrak gainditu eta pertsona horiek lanean jartzea. Ez zen lan makala. Eta tresna gisa, nekazaritza erabiliz gainera. Oso egokia buru osasuna lantzeko, aire librean eta askotariko

jarduerekin. Baina industriak eta merkataritzak hartutako ingurune batean.

Une hartan, proiektua martxan jartzeko pertsona ugari aritu ziren lanean. Horietako bat Andoni Sorondo izan zen. Bere ekimenak eta ausardiak hasierako proiektu hura loratzen lagundu zuten. Lerro hauen bitartez, Arraztalo Elkartearen izenean eskerrak eman nahi dizkiogu berari eta senideei.

Bestetik, aipatu behar dugu 2024a erreleboaren urtea dela. Azkeneko hamarkadan elkartearen zuzendaritzan eta egunerokotasunean lanean aritu diren zenbait pertsonak erreleboa eman baitiete beste belaunaldi batzuei.

Eskerrik asko egindako lanagatik eta erakutsitako ausardiagatik!

'DARDARAK' EGITASMOA

MARITXU ETA KATALINA
(IRENE IRURETA. *DARDARAK*,
2024, TXALAPARTA)



Maritxu Oiartzungoa eta Katalina Belauntzakoa kalera

Ku-ku haur literatur ekimeneko bilera batean geundela jarri genituen Maritxu Oiartzungoa eta Katalina Belauntzakoaren izenak lehen aldiz mahai ganean, mahaia kafesne katiluz beteta geneukala. Oihartzun egin ziguten izen haiek, barruan zerbait mugitu —dar-dar egin agian?—, eta izen haiekin zerbait egin behar genuela sentitu genuen. Ordurako, album ilustratu bat sortu nahian genbiltzan, eta kafesnea amaitzerako, gure album ilustratuaren protagonistek bazuten izena: Maritxu eta Katalina.

Halaxe sortu zen *Dardarak* album ilustratua, fikziozko istorio bat, adineko bi emakumeren etxegabetzearen inguruan. Liburuaren amaieran orrialde bat eskaini genion Maritxu eta Katalinaren benetako bizitza kontatzeari; baina ez zen nahikoa, istorio hark ezin zuen liburu horren atzeko orrialdean gordeta geratu, kalera atera behar genuen. Horregatik bururatu zitzaigun *Maritxu eta Katalinaren istorioa kalera* erakusketa antolatzea.

Erraz esan genuen, burutzea gehiago kosta zitzaigun, ordea. Erdi Aroko *homoerotismoaren* inguruko dokumentazio lanari ekin behar izan genion, eta hori guztia euskaratzeari segidan. Erakusketari erakusketa itxura eman behar izan genion, testuak sortu, altzariak margotu, baime-nak eskuratu, laguntza eskatu —asko eta asko-


ri—... Oraindik ez diogu elkarri aitortu behin baino gehiagotan damutu ginela ur handi horietan sartu izanaz...

Baina iritsi zen eguna, maiatzaren 9a, eta Maritxu eta Katalina kalera ez, plazara atera genituen, eta sekula baino oihartzun gehiago egin zuten haien izenek. Eta ziur gaude geroztik, bati baino gehiagori, dar-dar txiki bat egiten diola barruak Maritxu eta Katalinaren izena entzuten duenean.

Egitasmo honek, bada, genero eta sexu disidentzien historian kapitulu txiki bat jaso nahi du, historiografia tradizional androzentrikoari aurre eginez. *Dardarak* ekimenaren bitartez, aitortza eta erreparazio sinboliko bat eskaini nahi dizkiegu Maritxu eta Katalinari.

MARITXU ETA KATALINAREN ISTORIAO

1503ko uztailaren 21ean, Donostian bizi ziren Maritxu Oiartzungoaren eta Katalina Belauntzakoaren kontrako auziaren epaia aditzera eman zuten Valladolideko Chancilleriak eta Gorteko alkateek. Elkarrekin *haragizko harremanak* eduki izana leporatzen zieten (Solórzano, 2005).



Katalina Belauntzaren auzi exekutorioa, Valladolideko Errege Chancilleria.

Epaiketa hori, lehenengo auzialdian, Donostian hasi zen, bertako alkate zen Miguel de Ochoak Belauntzako Katalina atxilotu, torturatu, eta ondoren, jabetza guztiak kenduta, erbestertzeko agindua eman zuenean, Maritxurekin sexu harremanak izan zituela salatuz.

Badirudi herritar batek alkateari abisua eman ziola, jakinaraziz Katalina eta Maritxu ikusi zituela, gizon batek emakume batekin soilik egin zitzakeen haragizko ekintzak egiten: *usavan en uno commo onbre e muger, echávanse ençima desnudas e retoçándose e besándose e cavalgándose la una a la otra e la otra a la otra, subyéndose ençima de sus vyentres desnudas, pasando e fasyendo avtos que onbre con muger deverían faser carnalmente.* (Solórzano, 2005: 316)

Salaketa ikertu, eta leporatzen zitzaiena berretsi ostean, alkateak Katalina Donostiako Sakramenteroen Dorrean kartzelatu zuen, eta jabetza guztiak konfiskatu zizkion. *Fama publikoa* zuen harremana zela, edo bestela esanda, haien arteko sexu harremanak Donostia osoan ezagunak zirela egozten zitzaion Katalinari. Hark bere kontrako akusazioa faltsua zela esan zuen, emakume *ondradua* eta *fama onekoa* zela argudiatuz. Haren esanetan, lekukoek ez zuten egia esan, ez zegoen frogarik, eta inondik inora istorio hori ez zen sonatua hiribilduan.

Alkateak bi aldiz tortura zezaten agindu zuen *ur bidezko tortura* esaten zaion teknika baliatuz, akusatuak errudun aitor zezan bere burua. Katalinak, ordea, errugabea zela esanez jarraitu zuen, eta hala ere, alkateak prozedurarekin aurrera jarraitu zuen, Katalinaren jabetzak publikoki enkantean eskaintzen zituela.



Ur bidezko tortura, 1556.

Azkenean, eta froga sendorik gabe, alkateak epaia eman zuen. Egozten zitzaion delitua oso larria zela kontuan hartuz, errudun deklaratu zuen Katalina, epai hark aurrekari bezala balio zezan tentazioan eror zitezkeen gainontzeko herritarrentzat, hiribilduarentzako eredugarria izango zelakoan (Bazán, 1995).

Jasandako torturak eta gainerako neurriak nahikoak izan ez baziren, alkateak zigor moduan, Katalina hiribildutik betiko erbesteratzea erabaki zuen, eta auzi guztiaren gastuak bere gain hartzera kondenatu. Katalinak inoiz Donostia zapaltzen bazuen, plazan soka batetik buruz behera zintzilikatuko zuten, bertan hil arte:

“la pendiesen e presa la atasen las manos con una cuerda e la pusiesen una soga de trença al pescueço e desnuda fasta la çintura la traxiesen públicamente por la dicha villa. E así traída con pregón público e competente para en tal delito, la pusiesen colgada pies arriba en una horca pública e la dejasen estar ende públicamente fasta que muriese... para ejemplo, terror e castigo de los que lo viesen” (Solórzano, 2005: 340).



Garaiko zeremonien irudi bat, adibide gisa (Camba Daurada, Valentzia).

Katalinak helegitea jarri zuen Valladolideko Chancilleriako Auzitegian, errugabetzat jo zezaten eta bere *fama ona* eta ohorea itzul ziezaioiten eskatuz. Auzitegi gaztelar gorenak errugabe deklaratu zuen, frogarik ez zegoelako eta akusazioak lekuko bakarra aurkeztu zuelako, eta argi geratu zen Katalinari egozten zitzaion delitua ez zela *fama publikokoa*. Ez zen, beraz, Donostiako bizilagunen artean ezaguna, eta ondorioz, absolbitu egin zuten, eta Katalinari *fama oso-osoa* itzultzera derrigortu zuten Donostiako alkatea.

Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoan gordetzen den agiri baten arabera, Katalina Belauntzakoa Tolosan hil zen, 1546ko ekainaren 4an.

PROZESU HONETATIK ATERA DITZAKEGUN ONDORIO BATZUK:

Jesús Ángel Solórzano historialariak dioen bezala, inongo momentutan aipatzen ez den delitu baten kasua da hau: itsusia dela esaten da, *porque siendo el delito tan grave e feo*, alkateak Katalina suntsitzen du, ondasunak kentzen dizkio, eta bere komunitatetik kanporatzen du. Alkateak epaia ematen du, eta bertan aitortzen ez dagoela froga nahikorik, eta hala ere, erbestera bidaltzen du.

Katalina emakume “independente” gisa ageri da, hau da, gizonik gabea eta bere negozio propioak dituena, garaian ez zena ohikoena. Ekonomikoki ondo zihoakiola argi ikusten da, jabetzak kenduta ere Auzitegi Nagusian errekurritu ahal izanak adierazten duen bezala; izan ere, oso garestia zen Valladoliden helegitea jartzea, hilabeteetako egonaldia, letraduak, prozesu-kostuak eta abar ordaindu behar izaten baitziren.

Emakumeek haien negozio propioak izatea oso ezohikoa zenez garaian, pentsa dezakegu bere senitarteko gizonezko guztiak hil edo desagertu zirela, eta beraz, haien negozioarekin gelditu zela. Horrez gain, heterosexualitatearen eta ezkontzaren instituzioaren arauetatik kanpo gelditzea erabaki zuela ondoriozta dezakegu, eta honek, garai hartako emakumeekin alderatuz, Katalina emakume aski burujabea zela erakusten digu.

Maritxuri buruz, aldiz, ezer gutxi dakigu. Pentsa dezakegu prozesua Katalinaren kontrakoa izan zela, Solórzanok dioen bezala *Katalina bera zelako bien artean pertsonaia ikusgarria*, hau da, garaiko emakumearen rol otzanarekin apurtzen zuena, jaungoikoaren mandatuari izkin egiten ziona, eta gizonen boterea ezbaian jar zezakeena.

Hortaz, Maritxuri buruzko ondoriorik ateratzeko adina informazio ez dugu. Hala ere, espedientearen Maritxu subjektu prozesatu gisa ez agertzeak ez du esan nahi, adibidez, epaiketa paralelo bat eduki ez zuenik (Segura, 2006).

DARDARAK, IRENE IRURETA (TXALA-PARTA 2024)

Erabilitako bibliografia

- Bazán Díaz, Iñaki (1995). *Delincuencia y criminalidad en el País Vasco en la transición de la Edad Media a la Moderna*. Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.
- Segura Graiño, Cristina (2006). Catalina de Belunçe: una mujer apela a la justicia de los Reyes Católicos. In Ricardo Córdoba de la Llave (koor.), *Mujer, marginación y violencia entre la Edad Media y los tiempos modernos*. Universidad de Córdoba, 127-147.orr.
- Solórzano Telechea, Jesús Ángel (2005). Justicia y ejercicio del poder: la infamia y los «delitos de lujuria» en la cultura legal de la Castilla medieval. In *Cuadernos de historia del derecho*, 12, 313-353 orr. Eskuragarri hemen: <https://repositorio.unican.es/xmlui/bitstream/handle/10902/4724/SolorzanoTelecheaJesusAngel.pdf?sequence=1>

Artxiboko dokumentu judiziala:

- España. Ministerio de Cultura. *Archivo de la Real Audiencia y Chancillería de Valladolid*, Registro de Ejecutorias, c.181-39; eskuragarri hemen:
- <https://pares.mcu.es/ParesBusquedas20/catalogo/show/505088?nm>

Ku-ku ekimena

BIYURRIENEA



Lau urte igaro dira azkenekoz urtekarian le-
rro batzuk idaztera ausartu ginenetik. Eta berriz
ekin diogu abentura honi. Iaioagoak gara aurrez
aurrekoan, elkarrizketa eta herrigintzan, baina
harrotasunari ere toki bat egin nahi genioke ha-
rrokeriatik gutxi izatea nahi dugun lerro hauetan.

Lau urte hauetan, herria eraldatu den mo-
duan, gazteak ere aldatu gara, beste antolatze-
ko eta jarduteko modu batzuk ditugu egun. Eta
Biyurrieneari ere bide hori jarraitzea egokitu
zaio. Pandemia ostean, auzolanean eta elkarre-
kin amesteari ekin genion. Eta gazteon aisialdian
leiho batzuk iriki genituen 2020an txallentx, lan-
tegi, zuzeneko kontzertuak edo bertso saioen
bitartez. 2021a, berriz, sormenez hasi genuen,
ohikoa ez zen normaltasunari erantzuteko as-
moz. Baga biga liga, lantegi gehiago, gazte egun
alternatiboa antolatu genituen. Horrela bete ge-
nuen gure denbora librea. Opari ezkutua. Padel
txapelketa. Eta hitzaldi gehiagorekin.

Baina, 2022an jaietako suziria lehertzearekin
batera, berriz hartu genituen plaza eta beheko
plaza, eta nola hartu ere Txosnagunea. Hartu ge-
nituen egunak, eta, gauak iluntzen saiatu baziren
ere, hauek ere gure egin genituen: elkartasunez,
ahizpatasunez eta herrigintzan. Abuztuaren 5a,

erronka handia izan zen. Izan ere, ordura arte-
ko handiena izan zen, 800 lagunetik gorako izen
ematea egon zen eta, bi urteetako entrenamen-
durik gabe, lasterka hasi ginen. Gazte egunak ba-
du magia bat, badu halako zerbait, inprobisazio-
rako tokia eman eta borobiltasunez erantzuten
duena herriko gazteriak. Ez dakigu, herritarren
ekimenez sortua delako izan ote daitekeen, bai-
na, gazteok gure sentitzen eta gure egiten dugu
egun osoa. Auzolanean, guztiontzat eguna osa-
tzen dugu.

Aho zapore onarekin 2022. urtean taldean al-
daketa baten beharra sumatzen zen, Biyurrienea
osatzen genuen indarrak gabe geuden erronka
berriei begietara begiratzeko eta generazio be-
rriak ate joka genituzenez, talde berri batek hartu
zuen lekukoa. 2023 urte oparoa izan da oiart-
zuar gazteentzat, askotarikoak izan dira propo-
samenak eta halakoa izan da erantzuna.

Urtea Girizian hasi genuen, lepo bete zen el-
kartea antolatu genuen bertso afariarekin. He-
rrikidea dugun Josu Ibarguren izan zen kantari
Ekhiñe Zapirain, Aner Peritz eta Haizea Arana-
rekin batera; eta Izaro Telletxea Delgado, gai jar-
tzaile. Umorea ez zen falta izan, bertsoan goza-
tzen aritu ziren kantari, eta entzuleok ere gozatu



genuen haiekin. Biyurrikerientzat ere izan zen tartea eta bertso afarira etorri ziren guztiek hartu behar izan zuten parte Hiltzaile Jolasean.

Martxoan, berriz, eskertza eguna antolatu genuen. Azken urteetan talde motorrean ibili zirenentzat eta jaietan turno eta ardurak bete edota laguntzeko prestutasuna adierazi duten horiei eskertzeko eguna izan zen. Haurtzaro Ikastolako frontoia eta jolastokia atondu genituen horretarako, eta egun osoko eskaintza izan zen herrian. Eguraldia ez genuen lagun, baina, espero genuenaren kontrara, jendetza bildu zen Ikastolan egun osoan.

Eguraldi onarekin batera, pintxopotea, Padel txapelketa eta mendi buelta antolatu genituen. Eta udan, herriko jaietan murgildu aurretik, herriko komertzioak hauspotzeko asmoz, Eskaparate Ilustratu Leihaketa antolatu genuen Iturriekin elkarlanean. Herriko ilustratzaile eta sortzaileek bere lanak bistartzeko aukera paregabea izan zen. 7 erakusleho apaindu ziren, eta 12 sortzailetik gora izan ziren emanaldia eskaintzen. Leihaketa horretan gainera, epaimahaia herriko dendetako erosleak ziren, bozketa bidez hautatu baitzuten eskaparate gustukoena; bi astetan 500 bozka baino gehiago jaso ziren.

Herriko jaietan, ohiko proposamenari eutsi eta gure eskaintzak hobetzea izan zen helburua. Erronka potola genuen aurretik, lehen aldiz, 930 lagunek hartu baitzuten parte gazte egunean. Autogestioa. Ardura. Eta zaintza. Horiek izan ziren batzuen arduragabekeriaren aurrean indartu ziren balioak. Eta lerro hauek probestu nahi genituzke egun hura aurrera ateratzeko lana egin eta ez zegozkien ardurak bere gain hartu zituztenei. Beste behin ere, eskerrik asko zuen konpromisoarengatik!



Uda eta ostekoa deskantsatzeko, indarrak batzeko eta urteari forma emateko tartea izan zen Biyurrienean. Antolaketarako tartea hartu eta urtea bukatu aurretik, afari elegantea eta Sareekin batera kantugira antolatu genituen. Urte berrian, berriz, beste eragileekin elkarlanean, lantegi batzuk ere antolatu genituen: zakuak egiteko lantegia eta dantza ikastaroa egin genituen Ihoteei ongiatorria emateko.

Herriko gazteentzat aisialdiko eskaintza jarraitua diseinatu nahi izan dugu aurten, eta Baga Biga Ligari olinpiaden kutsua eman diogu. Lehen sei hilekoan, hilabete bakoitzean proba bana egin dute izena eman duten 15 talde eta 118 lagunek, besteak beste, Volley ball, Mendi proba, Gau jolasak, Gastronomia eta Ginkana izan dira egin dituztenak.

Olinpiadetako azken jardunaldia Eskertza egunaren egun berean egin genuen, ekainaren 8an; eta aste antifaxista zenez, Maddi Sanzberro ere presente izan genuen egun osoan zehar. Izugarria izan zen eskertza eguna. Izugarria izan zen, beste behin ere, herri honek eta gazteek erakutsitako indarra zein kemena. Izugarria da konpromisoa, izugarria grina eta izugarria horrelako egunak antolatzean ematen den erantzuna. Eskerrik asko herria gurekin xaxatzeagatik!!! Ilusioz gazteak antolatzen jarraituko dugu, eskaintza berriak egin eta gazteak saretzen jarraitzeko gogoz gaude. Datorkigunari begietara begiratu, eta Biyurrikeriz herriko kaleak blaitzen jarraituko dugu.

Izan Biyurri!

**al
bis
te**

**aipa
ga
riak**



URTEAN ZEHAZ BERRI IZAN DIRA

MAIATZA



23/05/14 Oiartzunen, Ihurrita Errota sustatzeko elkarteak, herriko errotariak eta Udalak ibilaldi gidatua antolatu zuten. Gaur egun mar txan dauden 4 errota bisitatzeko aukera izan zuten bisitariak: Iturriozko Txalakako errota; Karrikako Arraskuko errota; Altzibarko Ugarteko errota eta Ugaldetxoko Ihurritako errota.

23/05/17 Ortzadarraren eta transexualen banderaren koloreekin margotu zituzten Euskal Herria plazako eserlekuak, LGTBIQ+fobiaren Kontrako Nazioarteko Egunean. Oiartzungo Feministen Asanbladak antolatu zuen ekimena. Heteroarauen kateak birrindu nahi dituztela aldarrikatu zuten tratu onaren bidetik, ahizpata-sunetik, bizipozetik, babesetik, elkartasunetik, maitasunetik, eskubideen borrokatik, ikusgarritasunetik, aniztasunetik eta errespetutik.



23/05/21 2022an jaiotako oiartzuarrei ongietorria egiteko atsolorra egin zuten Arizmendieneko lorategian. 61 haur jaio ziren Oiartzunen eta 45ek hartu zuten parte ospakizunean. Iosune Cousillas kultura zinegotziak Udalaren izenean Oiartzungo komunitatera ongietorria eman zien jaioberriei. Haurrei zapia jarri eta bakoitzaren argazkiarekin 2022an jaiotakoen arbola osatu zuten.

23/05/28 Maiatzeko udal hauteskundeetan 3.303 boto eskuratu zituen EH Bildu koalizioak, bozen %67. 13 zinegotzi lortu zituen, aurreko agintaldian baino bat gehiago. EAJk galdu zuen ordezkari hori; 1.063 boto lortuta, 4 zinegotzi ditu. Elkarrekin Podemosek (lehen aldiz aurkeztu zen), PSE-EEk eta PPK ez zuten ordezkartzarik lortu.

EKAINA

23/06/09 Xanistebanetako Jai Batzordeak erabaki zuen June San Sebastian Seinek aurkeztutako kartela izatea festetako ikurra. Oiartzuarrak egindako kartelak iragarri zituen, beraz, festak. Osotara 37 izan ziren Jai Batzordeak jaso zituen proposamenak, eta epaimahaiak San Sebastianena onetsi zuen.



23/06/17 Abiatu zen 2023-2027 udal legegintzaldia. EH Bilduren 13 zinegotzien botoek izendatu zuten Joana Mendiburu Garaiar Oiartzungo alkate, lehen bozkan. Jexux Leonet alkate ohiak eman zion aginte makila. Bilduko hamahiru zinegotziek eta EAJko lauk osatu zuten udalbatza berria. Alde bietako herritarrak joan ziren osoko bilkuren aretora, inbestidura gertutik jarraitzera.



23/06/24 Oiartzungo Udalak Xabier Lete euskal sortzaile oiartzuarra omentzeko eskultura jarri zuen idazlea jaio zen etxearen ondoan, Landetxe kultur aretoko sarrera nagusiaren alboan. Lete eskultura Eneko Salaberriaren obra da.

23/06/29 Udalak, Beloaga Bizirik-ek eta Aranzadik Beloaga gazteluko irisgarritasuna hobetu zuten, baita segurtasuna ere. Hala, Beloaga gaztelua berreskuratzeko proiektua gauzatu zuten.



23/06/29 Ikuskizun paregabea eskaini zuten Oiartzungo eta Azpeitiako pilotariak Gipuzkoako Herriarteko Eskuzko Txapelketaren finalean; Azpeitiak ezin izan zuten aurreko urteko arantza atera, eta Oiartzunek bigarren urtez jarraian irabazi zuten hitzordu garrantzitsua; zaleek giro bikaina jarri zuten Atano III.ean.

UZTAILA

23/07/02 Oiartzunen egin zuten 2023ko Gipuzkoako Batzar Nagusi ibiltaria. Joana Mendiburu alkateak egin zien harrera batzarkideei eta bere hitzartzearekin hasi zuten bilkura. Etorkizunak betiereko galderei molde berriekin erantzuteko eskatzen duela esan zuten eta aurrera begira ere erabakitzeak eskubideak Euskal Herriaren geroa marraztu behar duela azpimarratu zuten.



23/07/15 Oiartzun Irratiaren 24. urteurrena ospatzeko bazkaria antolatu zuten. Gero, bingoa egin zuten eta Mirari Martiarenak bakarrikzeta eskaini zuten.

23/07/26 Uztaileko azken egunetan ikusi zuen argia *Oiartzun 2023* urtekariak. 53. edizioan, el-karrizketa nagusia Hilario Arbelaitz Irastorza Iturriozko sukaldari ospetsuari egin zion Izaskun Madariagak.

ABUZTUA

23/08/02 Hilario Arbelaitzek eman zien hasiera abuztuaren bian herriko festei. Berak bota zuen Xanistebanetako lehen suziria udaletxeko balkoitik, Jai Batzordeak hala erabakita. 2022ko abenduaren amaieran hartu zuen erretiroa sukaldari oiartzuarrek eta horrekin batera itxi zituen atea azken 52 urteetan euskal gastronomiaren erreferente izan zen Zuberoa jatetxeak. Sukaldaritza tradizionala eta joera berriak ezin hobeto uzartu zituen Zuberoak. Bere ibilbide profesionalen euskal sukaldaritzari egindako ekarpenagatik omendu nahi izan zuten Arbelaitz Jai Batzordeak.

23/08/10 Bigarren urtez ibili zen Xanistebanetako gauetan Xorrola, festetan zehar mugikortasunean segurtasuna hobetzeko eta autoen erabilera gutxitzeko. 270 pertsonak erabili zuten zerbitzua (iaz baino 77 gehiagok). Eguraldi petralagatik gauetan jende gutxiago ibili zen arren, Xorrola bereziaren erabiltzaile kopurua %40 igoz zen.



23/08/26 Euskal ondarearen eta hizkuntzaren mugarri bihurtu den Irulegiko aztarnategira ibilaldi gidatua antolatu zuen Udalak. Aranzadiko arkeologoek lagunduta, bertan egiten duten lana ezagutzeko aukera izan zuten oiartzuarrek. Interes handia sortu zuen txangoak; adin guztiatako 75 oiartzuarrek bisitatu zuten Burdin Aroko herrixka, eskuaren etxea eta XV. mendeko nafar gaztelua. Aranzadiko kideek adierazi zuten, udan aztarnategia ezagutzeko antolatu den ibilaldi jendetsuena izan zen. Goiz ederra pasa zuten denek.

IRAILA

23/09/8-9-10 Arte Egunak egin ziren Oiarztunen. *Hiru binaka* egitasmoan, herriko sei sortzaile jarri zituzten harremanetan, bikoteka, pieza bana sortzeko. Hauexek izan ziren parte-hartzaileak: Miriam Unzueta eta Olga Corrochano; Malen Elizasu eta Xabier Belaunzaran, eta Amets Badiola eta Alaia Martin. Arte Egunen barruan, Poesia Eguna ere uztartu zuten.

23/09/28 Killirikupe taldeak Emakumeak Ahalduztzeko Oiarztungo Eskola 2023-24 ikasturtea aurkeztu zuen Manuel Lekuona bibliotekan. Ikasturtean lau gai landuko zituztela aurreratu zuen: Zer egin zainketekin: amatasuna zainketa moduan eta etorkizunerako gida; hizkuntza matxista eta alternatibak erabilera linguistikoa patriarkaletik aldentzeko; osasunaren eta generoaren azterketa, ikuspegi antropologikoaren eta feministaren abantailak, eta zahartzaroa. *Zein gazteri bururatzten zaio bere zahartzaroko irudia imajinatzea?*

23/09/30 Oiarztun Nafarroako Erresumara itzuli zen. Modu sinbolikoan izan bazen ere, 1366. urtearekin ahalik eta antzik handiena izan zuen herriak. Izan ere, estreinekoz, Erdi Aroko Jardunaldiak egin ziren. Duela zazpi mende eta erdi sinatutako Libourneko Ituna ospatu zuten ekitaldi horretan. Festa giroa eta historiaren dibulgazioa uztartu zituzten.

URRIA

23/10/07 Elizalde Herri Eskolak kategoriko bertso-bazkaria antolatu zuen, zortzigarrenez. Maddalen Arzallus, Ander Lizarralde, Alaia Martin eta Andoni Egaña gonbidatu zituzten, eta Leire Belokik jarri zizkien gaiak.

23/10 157 oiartzuarrek hartu zuten parte urrian egin ziren zortzi auzo batzarretan. Udalak hurrengo lau urteetarako aurreikusitako proiektuak aurkeztu zituen eta 2024ko aurrekontu proposamena azaldu, bizilagunen ekarpenekin aberasteko.

23/10/11-12-13-14 Hamazazpigarren aldiz, Garagardo Festa ospatu zen Beheko Plazan. Garagardoaren kulturaren murgildu ziren oiartzuarrek gustura ibili ziren eta asko gozatu zuten antolaturiko ekitaldiekin.



23/10/27 Alex Bargalló judo irakasleak jaso du Oiarztungo VIII. Kirol Saria. 2016an hasi zen Udala kirol arloan egindako ibilbidearengatik, lortutako emaitzengatik edo herrian kirola sustatzen egindako lanarengatik nabarmendu diren oiartzuarrek eskertzen. Saria jasotzeko 23 hautagai proposatu dituzte aurten herritarrek eta horien artean Bargalló omentzea erabaki du UKABek (herriko kirol elkarteetako ordezkariak eta Udala biltzen dituen Kirol Aholku Batzordeak), azken 40 urteetan Oiarztunen judioa irakasteko eta zaletasuna zabaltzeko egindako lanagatik.

AZAROA



23/11/11 Txuri-urdina izan zen 2023ko auzoetako festa batzordeen arteko desafiyo txapela. Iturrioztarrek 2022an eskuratutako lehen postua mantentzea lortu bazuten ere, Elizaldekoak fin ibili ziren eta urdinek lortutako puntuak berdintzeko gai izan ziren.

Primerako giroa izan zuten Gurutzeko frontoian. Eguraldi goibelak ez zituen kikildu desafioren parte hartu zuten 6 auzoetako lagunak.

23/11/26 Azken 12 hilabeteetan Oiartzunera bizitzera etorritako 291 pertsoneri harrera beroa egin zieten. Otordutxo baten bueltan Abaraxka ludotekan elkartu ziren urrutitik eta ez hain urrutitik etorritako auzokide berriak, betitik edo aspalditik Oiartzungo herritarrak direnak, haurrak, helduak, gurasoak... Bertako eta urrutiko jakiak eta doinuak izan ziren protagonista. 2015ean hasi zen Udala herriko eragileekin batera bizilagun berriei harrera egiten, Oiartzun nola den kontatu eta elkar ezagutzeko.



23/11/30 Zaintza eredu publiko-komunitarioa aldarrikatzea helburu zuen Greba Feminista Orokorraren deialdiari erantzunez, mobilizazio eta ekitaldi ugari izan ziren Oiartzunen. Herrigunean industria guneeetan baino gehiago nabaritu zen grebaren eragina.

ABENDUA

23/12/01 Landetxe Kultur Etxean, 2023ko Oarsoarrak sariak banatu ziren. Sarien muinean dago euskararen alde edo euskaratik egiten direnak saritzea, jarrera, jarduera eta bizitzeko era horien atzean daudenei izen-abizenak jartzea, eta lehen lerrora ekartzea. Horregatik izan ziren sarituak Antton Valverde euskal musikagintzari ekarpen izugarri handia egin dion abeslaria, eta eskualdeko gazte taldeak: Antxoko Topagunea, Antxoko Papineko Gazteria, Trintxerpeko Korakoiburuak, Oreretako Gazte Asanblada, Piztu Lezo eta Oiartzungo Biyurrienea.

23/12/16 Madalensoro pilotalekua eta Elizalde ikastetxeko patioa jendez beteta egon zen, Txerri Eguna zen eta. Ikasbideiak ordaintzeko parada edota Eguberrietako opariak egiteko plaza bikaina izan zuten oiartzuarrek, eguraldia lagun. Guz-tira, 87 artisau eta sortzailek jarri zuten txokoa.



23/12/24 Haurtzaro ikastolak Beskoitzeko ikastolaren aldeko aldarrikapena egin zuen Landetxe plazan. Izan ere, Beskoitzeko ikastola eremurik gabe utzi zuen Herriko Etxeak, une horretan ikastolarekin zuen akordioa bertan behera utzi baitzuen. Beste hitzarmenik ezean, sei hilabetera legez kanpokoak izango zen ikastola. Ondorioz, ekainetik aurrera 51 ikasle kalean geratuko ziren egoitzarik gabe.

Ikastolako lehendakari ohiak eta egungo komunitate osoak elkartasuna erakutsi nahi izan zioten Beskoitzeko ikastolari Landetxe plazan. Aldarrikapen testua irakurri zuen Lorena Zalakainek, ikastolako lehendakariak, eta jarraian, *Hator, hator* abestu zuten ikastolako ikasle, guraso, irakasle, tutoreek... elkarrekin.

URTARRILA



24/01/07 Urteroko elkartasun bertso saioa egin zen Madalensoron, zortzi bertsolari kantuan zirela. Amaia Agirrek gidatuta, Jone Uria, Julio Soto, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Aner Peritz, Unai Iturriaga, Alaia Martin eta Andoni Egaña aritu ziren bertsotan. 700 entzule bildu ziren pilotalekuan.



24/01/14 Dozenaka oiartzuarrek hartu zuten parte urtarrilean Xabier Lete oroitzeko antolatutako hitzorduetan. Joxan Goikoetxeak idatzitako *Hesia urraturik* oratorio sinfoniko-koralaz gozatzeko mukuru bete zen Landetxe kultur aretoa.



24/01/26 Alternatiben Oihartzunak antolatuta, Iraitz Mateo kazetari oiartzuarrak hausnarrean jarri zuen Joseba Sarrionaindia idazle iurretarra, Landetxe Kultur aretoan. Saioa arrakastatsua izan zen.

24/01/26-27 Beste urte batez, 24.ez jarraian, Euskal Herria eta Galizia modu berezian lotu ziren Oiartzunen. Fato Cultural Daniel Castelaok eta Oiartzungo Udalak elkarlanean antolatuta, poesia errezitaldia egin zuten 26an, euskaraz zein galegoz. Hurrengo egunean, berriz, Daniel Castelaok Galiziako abertzaletasunaren bultzatzaile izan zenaren amari, Kontxa Murgia Egañari, omenaldi berezia egin zioten oiartzuarrek. Manuel Lekuona bibliotekan izan zen ekitaldian, solasaldia eta lore eskaintza egin zuten, Murgiarren omenezko plakan.

OTSAILA



24/02/03 Kuestaziyuaren eguna apartekoa, sekulakoa izan zen. Zortzi auzoetako taldeak goizean bildu, eta baserrietatik barreiatu ziren dantza eta musika giroan. Konplizitate giroan. Herri giroan, haur, gazte eta adinekoen artekoa. Aurtan inoizko kuestaziorik jendetsuena izan zen, hala azaldu zuten auzoetako arduradunek. Pozez gainezka haiek, eta herritarrak.

24/02/14 Otsaileko udal batzarrean onartu zuen Udalak 2024-2029 aldirako Euskararen Plan Estrategikoak. Hurrengo bost urteetan Oiartzunen euskara sustatzeko estrategiak jasotzen ditu dokumentuak. Laugarren plan estrategikoa da.

10 hilabetetan zehar martxan izan duten Urtebe proiektuaren emaitza da euskararen ezagutza eta erabilera indartzea helburu izango duen tresna berria.



24/02/17 Gerra Zibilean eta Frankismoan gertatutakoak ez ahazteko, Arkalen trabadoreen barrakoiaren erreplika inauguratu zuten Oiartzunen. Egitura hori memoria historikoa berreskuratzeko elkarteak, Kattin Txikik, eta Udalak elkarlanean eraiki dute. Hala, bertan esklabu lanetan gatibu eduki zituzten presoak omendu eta gizon haien bihotzen taupadei leku egin zieten.

MARTXOA

24/03/01 Fermiñene herriko ongizatearen etxearen ate-irekiera ekitaldia egin zuten Kontzejupean elkar-tu ziren dozenaka oiartzuarrek, herriko artistek, eragileetako kideak eta udaleko langile eta hautetsiek. Ongi izatea eta ongi egotea ardatz hartuta, elkarlanaz, zerbitzuez, hauskortasunaz, konfiantzaz, kohesioaz, arrakalez eta sareez aritu ziren.

24/03/03 Girizia Mendi Taldeak antolatuta, Eskolarteko 35. Mendi Lehiaketa ospatu zen Oiartzunen. Oarsoaldeko, Bidasoako eta Donostialdeko dozenaka gaztetxok parte hartu zuten, eguraldiak askorik lagundu ez bazuen ere.



24/03/08 Aurtengo Martxoak 8 egunean Oiartzungo Wikiemakumeak taldeak aitortza jaso zuen manifestazioa bukatzean, emakumeen ikusgarritasunean egiten ari diren lanagatik.

24/03/10 Antxin Ezkerro EPLEko pilotaria zendu zen, 58 urterekin. 2021-22 ikasturtean hasi zen pilotari EPLErekin, eta erreminta saileko kolaboratzailea zen Errepala klubean. Aurretik ibilbide luzea izan zuen pilotari gisa, Girizia Elkartean, Real Sociedad, Endaiarrak eta Txost elkartean.



24/03/24 Oiartzun izan zen Korrikak zeharkatu zuen Oarsoaldeko azken herria. Oreretarrengandik jaso zuten lekukoa Arraguan, eta Aritxulegiraino eraman zuten, 12 kilometro osatuz. Horietan guztietan 32 izan ziren lekukoa elkarri eman ziotenak, emozio handiz.

APIRILA

24/04/03 Oielekuko borda berri zuen Udalak. Teilatua eta sarrera konpondu, barruan sua egiteko dagoen tokia egonkortu eta hesiak eta bankuak berri zitu zuten.

24/04/14-27 Allende Arnaizen *Birsortu* erakusketa izan zen Ehuntze espazioan. Horrekin batera, beste hainbat ekitaldi ere antolatu zituzten.



24/04/17 Oiartzungo Topalekutik eta Zaintzadik, Oiartzungo argazki zaharren erakusketa zabaldu zuten elkarlanean. Belaunaldi gazte eta zaharren arteko proiektuan, ehun argazki ikusi ahal izan ziren Landetxeko zero solairuan.



24/04/28 Giro bikaina izan zen Gurutzen hasi eta bukatu zen Bizardiaren ibilaldian. Adin-tarte oso zabaleko 188 lagunek hartu zuten parte Bizardiaren 43. ibilaldian. Ustekabeko bat gaindituta, dena bikain joan zen.

Goizarin

**argaz
ki**

**zaha
rrak**





Pikoketa zaharra baserria.



Lizarralde-Martiarena.
Borrokazelaietakoak.



Gurutzeko eskola.



Gurutze baserria.



Gurutze auzoa.



Galdos taberna.



Auzotarrak futboleak. Goian, ezkerretik hasita: Felix Galdos, Erbittiko Jexux, Antxillasko Teo, Peluko Jose Krutz, Adrian Galdos, Aizabeko Joxe Gabriel, Arkaleko Xabier. Behean, ezkerretik hasita: Koxkoteneko Faustino, Arkale Berriko Bittor, Euteko Joxe Inazio, Xabino Arratibel, Pelu Zaharreko Peio eta Peluko Migel Mari.



Arkaleko Ixiar, Joxe Mari, Iñaki eta Jabier.



Koxkoteneko Ines Amigorena bere
11 seme-alabekin.



Luxiano, Gabriela, Joxe Mari, Ixiar, ezezaguna, Jexux eta Joxe bixkiak eta Aldako Xaharreko amonaren ahizpak.



Auzotarrak eskolan. Goian, ezkerretik hasita: Jose Marcial Elizetxea, Bixente Mitxelena, Begoña Elizetxea, Josexo Arruti, Joxe Antonio Arruti, Marta Kazabon, Lourdes Aduriz, Patxi Manterola eta Esther maistra. Goitik hasita bigarrenko lerroan, ezkerretik: Josune Mitxelena, Maite Mitxelena, Eukene Elizetxea, M Jose Manterola, Eli Maritxalar, Begoña Aduriz, Antton Mari Arozena, Mila Elizetxea. Belauniko, ezkerretik hasita: Maria Galdos. Mali Arozena (maistraren alaba), Elurtza Etxebeste, Ana Galdos, Imanol Ubegun, M. Jose Galardi eta Josu Galdos.



Toki Alai tabernako truk txapelketa. Ezkerretik hasita, Joxepa Lekuona, Jose Ignazio Santesteban, Junkal Kazabon,.... Pelu Txikiko Inazio eta Euteko Inazio Arozena.



Vista general del hotel-restaurante Gurutze-Berri.



El establecimiento está regentado por la familia Zapirain-Ruiz.

las de reuniones. El restaurante, por su parte, cuenta con un comedor principal y otros comedores para banquetes, bodas, celebraciones, reuniones, etc.

Jornadas gastronómicas

Durante los días 15 al 17 de abril tuvieron lugar unas jornadas gastronómicas que vinieron a poner broche de oro a estos primeros 25 años de vida del establecimiento. Fueron dirigidas por Xabier Zapirain (padre e hijo) y contaron con la colaboración de Luis Irizar y de su hija, Marivixi; de Jean Pierre Dotax, del restaurante Argi-Eder de Aihoa; del maestro pastelero Lefebvre, de la pastelería del mismo nombre, sita en Anglet (Francia), y de Corinne Cerveaux (organizadora del Congreso Mundial de Cocina Vasca).

Los platos que compusieron los menús fueron, entre otros: Ensalada tibia de vieiras y «txangurro»; Mousse de espárragos frescos con jamón de jabugo; Salmón ahumado del Adour con alcachofas; Lo-

Gurutze Berriko 25. urteurrena.



Auzotarrak, Gabonetan kantari.



Toki Alai taberna. Ezkerretik hasita: Emitako Inaxi eta Borrondiko Joxepa.



Galdoseneko alabak. Ixa, Maku, Ana eta Esther Galdos.



Gurutze Berriko familia. Maria Luisa eta Xabier, Miren, Xabier, Gorka eta Jon seme-alabekin.



Auzotarrak antzerki emanaldian.

ZUZENDARITZA-IDAZKARITZA TALDEA

Urtekariaren Udal Batzordea:

- Josune Cousillas Aramendi
- Joxan Eizmendi Garate
- Haizea Saez de Eguilaz Perez
- Jaione Ugaldebere Sarasua
- Garazi Urdampilleta Astibia

IDAZLE-LANKIDEAK

Colaboradores literarios

- Agiriano, Miren
- Arabolaza, Kattalin
- Arozena, Eugenio
- Arozena, Uxue
- Arraztalo Elkartea
- Arruabarrena, Koikile
- Auntxa Trikitixa
- Badiola, Beñat
- Beloaga Bizirik
- Biyurrienea
- Egiazabal, Mari Jose
- Elizalde Herri Ikastetxea
- Ezeiza, Joseba Gurutz, "Kaxka"
- Galdos, Leire
- Gaztelumendi, Lur eta Ramon
- Gezala, Maite
- Goikoetxea, Arkaitz
- Haurtzaro Ikastola
- Harri Beltza Elkartea
- HemenGuk Taldea
- Ibagain Musika Eskola
- Iturriotz, Joxe Mari
- Kattin Txiki
- Kazabon, Antton
- Killirikupe
- Ku-ku Ekimena
- Labandibar, Mari Karmen
- Labandibar, Mari Karmenen bilobak
- Lartaun Abesbatza
- Lopez, Joxe Migel
- Madariaga, Izaskun
- Martiarena, Nekane
- Matelo, Suberri
- Mateo, Iraitz
- Mazusta, Rexu
- Mendizabal, Anton
- Mitxelena, Karmele
- Oiarpe Kirol Elkartea
- Oiartzun Irratia
- Oiartzun Kirol Elkartea
- Oiartzungo Wikiemakumeak Taldea
- Olarri Dantza Taldea
- Olaziregi, Jexux
- Otegi, Egiar
- Salaberria, Eneko
- Soinuenea
- Telletxea, Mirari
- Toledo, Aintzane
- Txinalka antzerki taldea
- Ugaldebere, Jaione
- Urmendi Haur Eskola
- Zabaleta, Joseba
- Zilibito Records

aurkibidea

- 3 Alkatearen agurra
- 5 Editoriala
- 7 Eskerrik asko "Oartzun"!

Elkarrizketa

- 10 Miren Agiriano Ugartemendia

Historia

- 20 Francisco urdinola Gobernadoreari iruzur
- 27 Arbide, Urdinola, Iazarraga, Bidebieta. Oartzungo familia aberats baten bilakaera
- 34 Kattin txikiren erreportaia. Isiltasuna apurtzen
- 38 Beloaga Gazteluaren inaugurazioa

Seme-alabak

- 44 Fidela Zalakain Salaberria
- 49 Koikile Arruabarrena Lekuona
- 55 Joseba Zabaleta Arbelaitz
- 61 Eugenio Arozena Egimendia "Xantua"
- 66 Suberri Matelo Mitxelena
- 71 Mari Karmen Labandibar
- 77 Leire Galdos
- 81 Mari Jose Egiazabal Agirrezabala
- 91 Rexu Mazusta

Kultura

- 100 Ahots bat entzun nahi duenarentzat
- 102 Antzerki Taldea
- 103 Ibagain Musika Eskola 2023/2024
- 105 Oartzun Irratiak 25 urte bete ditu
- 107 Auntxa Trikitixa Eskola
- 109 Lartaun Abesbatzaren bira Katalunian
- 112 Kattalin eta Egiazabal bertsolari txapelketako finalean
- 113 Zer berri Oartzungo Cavallé-Coll organoaren inguruan?
- 118 Soinuenea
- 120 Olarri Dantza Taldea
- 122 Zilibito Records
- 130 Eneko Salaberria Gonzalez

Kirola

- 138 Oiarpe Kirol Elkarte
- 140 Uxue Arozena Kenpo Kai-ko Munduko Txapelketan debutaria
- 142 Oartzun KE 2023-2024 jardunei memoria

Irakaskuntza

- 146 Haurtzaro Ikastola. Maite Gezala Legorburu
- 150 Haurtzaro Ikastola. Sakelakoen gaineko ituna, LH3tik DBH2ra
- 152 Urmendi Haur Eskola. Espazioen nolakotasunaz ii
- 153 Elizalde Lehen Hezkuntza. Guraso elkarte bat. Denak du hasiera bat
- 155 Elizalde Lehen Hezkuntza. Transpatioa. Eskola Loratzen

Herri eragileak


- 158 Oartzungo Wikiemakumeak: Urteko balantzea zertzeladetan
- 160 Killirikupe. Iraultza sinbolikoan murgildurik beti alegeraz
- 162 Harri Beltza. Hies-aren aurkako Oartzungo Harri Beltza Elkarteak, 30 urte
- 164 Arraztalo. 14 urte eta 15.000 saski ospatzen
- 166 'Dardarak' egitasmoa. Maritxu Oartzungoa eta Katalina Belauntzakoa kalera
- 171 Biyurrienea

174 Albiste aipagarriak

182 Argazki zaharrak

XANISTEBANAK 2024

ABUZIUA



Irudiaren egilea: Maren Aginaga Bote

Xanistebanetako kartel lehiaketako gaztetxoen saria

